

ERROMA

ETA

JERUSALEM

MARTIN DUCQ APHEZAK

EGINA



BAIONAN

LASSERRE BAIHAN IMPRIMATUA

1891



M-51188

F-51225

ATV
24472

ERROMA

ETA

JERUSALEM

MARTIN DUCQ APHEZAK

EGINA



BAIONAY

LASSERRE BATHAN IMPRIMATUA

—
1891

Imprimatur :
DIHARCE, vic. gen.



AITA ARBELBIDE

HAZPARNEKO MISIONESTEN BURUZAGIAREN

BAIMENA

Ene lagun eta adiskide maitea,

Eskerrak zuri liburu eder eta maitagarri huenentzat. Nork ez ditu hainitzetan Jerusalem eta Erroma gogoz bederen ikhusi? Nork ez ditu Hiri Saindu horiek, Jesusen eta Aita Sainduaren egon tokiak bezala bihotz guziz maitatu? Bainan urrundarik choilki!... nolakoak diren jakin gabe!

Orai aldiz zure liburuak Jerusalemeko eta Erromako karraketan gairi erabiliren gaitu, orai ezaguturen ditugu Jesusek bere begiez ikhusi, bere eskuez eta bere oinez hunkitu, bere eginkunde miragarriez Jainkostatu bezala dituen toki guziak; eta halaber ezaguturen ditugu Eliza katolikoaren hiri-nausia, Aita-Sainduaren egoitza, Apostoluen eta bertze hainitz Sainduen gorphutzak eta hobiak, eta ditezken elizarik eta gauzarik ederrenak.

Zure liburuak ez derauzkigu bakarrik: Jerusalem eta Erroma ezagutarazi; bertzalde begien aitzinean emanen derauzku Hazparneko eskuara berezia. Hizkuntza hortan ez ginuen oraino libururik; hemendik goiti zurea izanen dugu, eta gure ondokoek ere jakinen ahal dute Hazparneko min-

zayaren berri. Egia da Laphurdi behereko hitz zombait han-hemenka aiphatzen ditutzula, baina baxhanak dire, eta bethi kasik Hazpandarra da osoki zure liburua.

Jainko onak dizula zure lanarentzat bozkario eta sari, lur huntan eta guziz zeruan.

ARBELBIDE apheza.

AMA BIRJINARI

O Maria, bekhatu orijinalik gabe kontzebitua, zure oinetan emaiten dut liburu hau. Nahi nuke liburu hunen bidez ene Eskualdun laguner maitharazi Erroma eta Aita Saindua, maitharazi bereziki, Jerusalem, Jesus zure Seme adoragarria, eta zu, o Maria, gure Ama ona!

Ardiets aguzu Jesus Jaunaren ganik Eskualdun guzier grazia liburu huntaz baliatzeko gure arimen onetan, eta egun batez izaiteko zeruan. Halabiz.

Zure zerbitzari maithatu nahi zaituena,

MARTIN DUCQ,

Bihotz Sakratuko Misi-nesta.

Egina Jon Doni Salvatore egunean, mila zortzi ehun eta laueta hogoi eta hamekan (1891).

ENE ESKUALDUN LAGUNER,

Erroma eta Jerusalem! ah! nor da Eskualdunen artean bi izen horiek maite ez dituenik? Zoin Eskualdunen bihotza ez da gozoz bethetzen eta bozkarioz saltatzzen edo jauzten bezala bi izen horiek adituz?

Erroma, Jesusen Bikarioa den Aita Sainduaren Hiria! Jerusalem, Jesusek bere presentziaz santifikatu eta kontsekratu duen Hiria! Erroma eta Jerusalem, horra zeren gainean nahi naizen mintzatu ene Eskualdun-Laguner. Frantses-liburuetan trebe direnek irakurt detzazkete asko izkribu, eginak izan direnak Erromaren eta Jerusalemen gainean; baina zuzen da frantsesa komprenitzen ez dutenek izan dezaten, hek ere, liburu bat, ezagutaraziko daizkotenak Erroma eta Jerusalem. Naski, ene Eskualdun-Lagunak ez dira behin ere juanen nombre handian segurik Erromarat, gutiago Jerusalemerrat. Orai artio gutiak dira gure herrietarik Erroman izan direnak : hogoi eta hamar bat gorenaz eta gehienak aphezak, eta gutiago Jerusalemen izan direnak : hamar baten ingurua. Ene arabera

gutiak izanen ere dira, aphezez kampo, Erromarat juanen direnak, gutiago Jerusalemerat.

Bizkitartean, bi piaia horiek hanitz on egiten dute arimari. Bainan gure Eskualdun-Lagunak gehienak lanetik behar dira bizi eta ez ditazke urrun beren familiatarik edo etxetarik.

Nahi daizkotet ene Eskualdun-Lagun horier Erroma eta Jerusalem zerbait ere moldez bisitarazi, hek enekin erabilaraziz bezala lekhu saindu horietan.

Erromako Ichtorioa izkribatzean, mintzatuko naiz Erromako Hiriaz, Erromako Elizez, Katakomba edo hilherriez, Erromari hainbertze ongi egin duten Aita Sainduz eta bereziki azken biez, erran nahi dut Pio bederatzigarrenaz eta Leon hamahirugarrenaz, zoinak baitira gure demoretako Aita Sainduak. Iklusiko dugu zer gizon handiak izan diren Aita Sainduak eta zoin nesesario den Erromako hiria bere inguruekin heierizan dadin itzulia.

Jerusalemeko Ichtorioa izkribatzean, mintzatuko ere naiz Bethleemez, Nazarethez, hitz batez Jesus Jaunak, ongia eginez bisitatu izan dituen lekhuez eta lekhu hontan egin izan dituen ontasunezko obrez eta mirakuluez, ez hargatik guziez, sobera laiteke khondatzeko.

Ene nahia laiteke ene Eskualdun-Lagun guziek liburu hau eskuetan balute, huntarik artetan irakurtzeko : hala nola igandetan etche-zain daudenean ofiziotako demboran, edo neguko gau luze hetan, edo goizetan, bazkal-ondoan, afal-ondoan, oherakoan bereziki.

Irakurt detzatela behin, bietan liburu huntan gehienik heien gogorako diren gauzak, bereziki Jesusen Pasionen sailduaren gainean.


Eskualdun maiteak, baldin probetchurik atheratzen baduzue zuen arimentzat liburu huntarik, orhoit zaitezte, othoi, liburuaren egileaz Jainkoaren eta Ama Birjinaren aitazinean.

Agur,


AITA DUCQ,

Bihotz Sakratuko Misionesta.

ERROMA ETA JERUSALEM



LEHEN PHARTEA



LEHEN KAPITULUA

ITSASOA — ERROMARAT HELTZEA — AITA SAINDUA

Itsasoa

Juan ginen Martzeilatik Erromarat. Uste nuen ez nuela khausituko ene bidean lorerik baizik; bainan laster ohartu nintzen elhorriak edo basateak ere bazirela. Ene penarik handienak untzian hasi dira eta untzian akhabatu. Untziko ikhustekoa! Gutiz gehienak han, barnea eritua, lehertuak ari ziren jan edan guzien aurthikitzen; eta ezbalitz ichtant hartako desarranjamendua baizik! Bainan han zen oraino ondoko egunetan ere aisia eskas bat : jateko gogorik ez; gure ohetarat juaiten baginen, han hain hertchiki gutarik bakhotcha, non plegatuak bezala baikin-en, aire beharretan, eta ezin aski aire izan! Ai! Ameriketarat juaiten direnek balakite zer behar den pairatu untzian, ez laitezke hola juan Ameriketarat fortuna egiteko, ustez eta, aski dela

han agertzea. Ai! gaicho Eskualdunak! Gero balute hunateko pasaiaren saria, baina ezin izanez itzultzeko despendioentzat, han daude hanitzak! Erran gabe uzten ditut untziko lanjerak: su lotzen balako untziari eta auzoetarat ezin oihu egin! han behar erre!

Edo bi untzik elgar joiten badute, artetan, gerthatu dela, irakurtzen dugun bezala, eta tcharrenak amor! Urus bertze untzirat phasatzen ahal bada! Menturaz bi untziak chehatuak! Ai! ongi pagatzen baitute gure Amerikanoek Ameriketarat juaitea! Hitzemaiten daizkote holako edo halako abantailak, baina hanitzetan, elheak dira horiek eta ez obrak.

Erromarat heltzea

Bi egunen buruan, Erroman ginen. Ai Erroma! Hiri maitea! Aita Sainduaren egon lekhoa! Erroma, gu guzien Hiria! Erroman, etchean gira. Erroman sarthu eta, eguerdi gainean, eman nuen meza Erromako katedralean, Jondoni Joani Laterangoko elizan. Zer urustasuna, ordu arte barur egona, Meza saindua eman ahal izaita Sakramendu Sainduaren aldare eder, aberats eta buruzagian!

Eliza katedrale huntarik lekhora, laster jua nahi izan ginen Aitaren ikhusterat. Nor da Aita hura, Erroman, chokho batean preso daukaten Aita hura? Guziek izendatu dugu: hura da Aita

Saindua, Leon hamahirugarrena, gu hoin ederki gidatzen gaituena zeruko bidetan.

Aita Saindua

Oren bartan edo gehiago haren beha ginunden. Han ginen sala handi batean, beha nondik agertuko zen Aita Saindua. Artetan bortha bat edo bertze idekiko zen, norbait agertuko, gorriz bezi, briotez bezi, bainan etzen guk igurikitzen ginuena. Gure Aita churiz bezi zela baginakien. Azkenekotz, agertzen da Jaun bat, kardinale bat edo bertze, grado gorako bat. Oraino ez da hau Aita Saindua, edo bertzenaz haren inguruan nombre handian direlakotz bertze jaunak, Aita Saindua gordetzen dute. Hara nonden, dio batek; guk, non da, non da! zoin da! Emeki emeki egiten du Aita Sainduak sala hartako itzulia. Artetan bederen ikhus ditake, eta geroago eta hobekiago.

Azkenekotz nitarat hurbiltzen da. Ene ezkerreko aphezak erraiten dio ene eskuinekoari: « Errozu protestant izana zirela », hala zen bezala; bakhotcha ari zen zerbait erraitekoren preparamatzen, denbora gehiago atchik arazteko Aita Saindua gurekin.

Nik, ene aldia jin denean, erraiten diot: « Aita Saindua, benedika nezazu ni, benedika zaitzu ene misionest lagunak, benedika zaitzu gure misioneak. »

Eta harrek dio: « Bai, benedikatzen ditut oro! »

— « Aita Saindua, zure Jubilauaren ohoretan egin dut khantika bat; khantarazten dut eta khantaraziko. » Eta harrek dio : « Bai, khanta zazu eta khantaraz. » Hola Aita Sainduari mintzo nintzen denboran, atchikitzen nuen nik ere bertek bezala haren eskua ene eskuetan; musu emaiten nion haren eskuari, erhiko erhaztunari, besoari; baina sobera laster bazohan Aita Saindua nitarik ene eskuinekoaren ganat! Hunek erraiten dio : « Aita Saindua, protestant izana naiz, baina katoliko egin naiz eta aphez. »

Aita Sainduaren benedikzioea emaiteko fagorea galdatzen dautzut. Eta Aita Sainduak, itzuliz bere inguruetan zituen Jaunen alderat, erraiten diote irri aire batekin : « Bikario da bakharririk; » gero dio aphezari : « Emaiten dautzut fagore hori, baina galdeginen duzu zure Aphezpikuaren eta zure Erretoraren baia.

Zer prudentzia Aita Sainduarena ez ofentzatzeko Aphezpikua, ez eta ere bikario haren Erretora!

Maiteki segitzen ginuen Leon hamahirugarrena, bederen gure begiez, eta ikhusten ginuen zoin izpiritu ernea zuen : hiru lauek elheak eta galdeak egiten zaizkoten dembora berean; bazuen bakhotcharentzat zohakon erreposta eta hitza. — Nolakoa den eta nola bezi den orai erranen dut : Haren begiak argi argiak dira, eta haren begithartea chahar pichkor baten begithartea

da, chuhail aire pullit batekin; haren sotana elhurra bezen churia da, zintura ere bai, hala nola ileak eta kalota; oinetakoak gorriak; urhe khurutze bat badauka bulhar aitzinean, Aphez-pikuek bezala; iduri du Jesus; alabainan ere Jesusen lurreko Bikarioa da : Jesus berri bat da! Jesusen lekhukoa da!

Egonen ginen oraino gogotik harekin, Thabor berri batean bezala. Bainan mundu huntako gozo-igozentenak iragankorrek dira. Gu uztearekin, eta salako ingurua akhabatzearekin, itzuli zen guzien alderat, chutitu zen, jarria eremaiten zuten fotila suerte edo *sedia gestatoriatik*, eta khurutzearen seinale handi bat egiten zuelarik, gora min'zatuz edo hobeki erraiteko khantatuz, harat, hunat itzuliz eta behatuz, erran zuen : « Benedika zaitzatela Jainko guziz botheretsuak Aitak, eta Semeak, eta Izpiritu Sainduak ! » Haren azken hitz kontsolagarriak horiek izan ziren. Ezeztatu zen gure begietarik, naski mundu huntan sekulako, bainan, ô Aita maitea, bethi orhoituko gira zurekin ichtant bat egoiteko izan dugun zorionaz; bethi izanen zira gure izpirituko begien aitzinean, bai eta ere gure bihoitzean : bai, izanen dugu zuretzat errespetu berezi bat; izanen gira zure haurrak; izanen zira gure Aita eta ardura erranen dugu : « Biba gure Aita! Biba Aita Saindua! Biba Leon hamahirugarrena! »

BIGARREN KAPITULUA

ESPOSIZIONEA — ERROMAKO ELIZAK
KATAKOMBAK

Esposizioea

Gero juan ginen Aita Sainduaren Jubilauaren orhoitzapenetan egina zen esposizioearen ikhusterat.

Han bazen ehunka, milaka gauza balios eta eder frango, munda guzitik Aita Sainduari present igorriak. Choratuak han gina biltzan gizonak egiten ahal dituen gauzarik miragarrienen prezatzen. Zer kalitz aberatsak! Zer ziborio! zer iguzki saindu ederki lanthuak! zer ornament zeta finak, urhea zariotela! zer eliza-athorra, zer alba, zer aldareko oihal lihoz eginak eta orratzaren abilezia guziarekin josiak eta brodatuak!

Ez dakit khausi ditaken hambat gauza, Esposizioe hartan etzenik. Prezio handiko emaitzak bezala, han ziren emaitza aphalenak : lur-sagar-rak, ilharrak, ogi bihia, gasnak, botila mundoiak Frantziako, Espainiako eta munda guziko arnorik finenez betheak eta lasto meta gisa, johan zirenak, ez dakit non gora.

Erromako Elizak

Juan ere ginen ikhusterat Erromako eliza eder-rak : Jondoni Petriren eliza; hiru ehun eta ber-

rogoi eta hamar miliun baino gehiago gostaia, Eliza hartako sakristia, bortz miliun gostaia, Jondoni Pauloren eliza, alde guzietarik urhe distiranta dariola, Ama Birjinaren ohoretan eginak diren hainbertze elizen artean ederrena, Jesus Haurraren ohakoa edo hobeki erraiteko Bethleemeko abere-aska daukan eliza; eta berzte zombat eliza, ikhusi eta bisitatu ditugunak!

Erroman bada urtheak egua duen bezembat eliza nonbeit han, eta zer elizak!

Ikhusi ere badut khurutze egiazkoaren zathi handi bat berekin duen eliza, bai eta Pio bederatzigarrenaren thomba, gure haurtasunetik hasirik, hogoi eta dotzena bat urthez Aita Saindu izan den gizon handi eta sainduaren thomba!

Nahi zuen thomba hori izan zadin despendio edo gastu ttipikoa : haren nahia segitua izan da, ongi gogoaren kontra; egin nahiko baitzioten thomba miragarri bat, merezi zuen bezala; bainan egiten dute Pio bederatzigarrenaren thomba horren aitzinean kapera guziz pullit eta aberats bat, hola ohoratzeko Aita Saindu handi horren orhoitzapena.

Katakombak edo ehortz-lekhuak

Izan ere gira Katakombak deitzen diren thomben ikhusten. Han dira nombre handian sainduak ehortziak, asko aldiz jeneroski eta bihotz guziz beren odola ichuri ondoan Jesu-Khristorentzat,

hala nola Jondoni Laurendi diakrea, zoinak, erretzen ari zutelarik burdin-grilla suan gorritu batean, erran baitzion bere hilaraztaleari: «Aski errea nuk alde hortarik; itzul nezak bertze alde-rat eta jan!»

Katakomba hek, lurpez, urrun johan diren barne batzu dira. Erran daiteke Erroma ageri denaz bertzalde, badela Erroma ageri ez den bat Erromako hiriaren azpian eta inguruetan. Lurpezko Erroma hortan ehorzten zituzten lehen girichtinoak, bereziki martir hiltzen zirenak: han, thomba barnean martiraren gorphutzarekin emaiten zuten izkribatua martiraren izena, batzutan haren biziaren ichtorioa laburzki, bai eta ere fiola edo untzi ttipi bat martiraren odolaz bethea. Barne hetarat jausten ziren girichtinoak kuraie biltzeko pertsekuzionearen kontra; lurpe hetan kontsideratuz beren anaia-arreba girichtinoak, heier gomendatzen ziren, hek ere azkartuak izaiteko heriotzeko guduan eta tormentetan; eta hola, kuraiean eta Jainkoaren amodioan erreberrituak, bazohazin heriotzerat, phesta batetarat bezala, eta harritzen zituzten beren bur-reboak berak, tormentak heientzat askotan josteta bat bezala zirelakoan. Erromarat juaiten denarentzat, ez da guti edifikagarri eta probet-chos Katakomba hetarat jaustea.

Pertsekuzione bat altchatzen zenean, girichtinoak bazohatzen gordetzerat Katakomba edo lur-

peko egoitza hetarat, persekuzioea pochi bat ezti artino, eta jabaltzen zenean edo gelditzen, jalitzen ziren beren ihes-lekhuetarik. Batzutan bizkitartean, beren lurpeko zilho hetan beretan, etziren segurrean : burreboak haraino bazohatzin beren bitima inozenten hatzematerat eta hiltzerat; hala gerthatu zen Aita Saindu bati, zoina, meza erraitean, bere Aita Saindutasuneko tronuan jarria zelarik, lephoa phikatu edo ebaki baitzioten.

HIRUGARREN KAPITULUA

JONDONI PETRI ETA JONDONI PAULO.
ERROMA HIRIEDERRA DA. AITA SAINDUAK

Jondoni Petri eta Jondoni Paulo

Ez ginuen faltatu juaitea Jondoni Petriren eta Jondoni Pauloren hil-lekhura.

Jondoni Petri preso hartua izan zen; baina girichtinoek athera arazi zuten presondegitik; urrun arazi nahi zuten Apostolu hori Erromatik. Etzen hiltzearen beldur Petri, baina bertzen nahiaren egiteko, bazohan Erromaz kampa. Horra non khausitzen duen Jesus, khurutzeaz kargatua Erromarat johan. Erraiten dio Petrik : « Jauna, norat zohaz? — « Banohak Erromarat berriz khurutzezikatua izaiteko. » Ezagutu zuen Apostolu horrek, haren presunan behar zela Jesus khurutzezikatua izan, eta itzuli zen presondegirat.

Jondoni Petri izan zen orduan emana presondegi lurpeko batean. Presondegi harek badifu bi barne, bat gainean, bertzea behean. Gaineko presondegi hortan zen lehenik Jondoni Petri; baina hiltzerat kondenatua izan zenean, jautsazazi zuten presondegiaren azpiko barnerat, duda gabe, etzadin eskapa; barne batetarik ez daiteke bertzerat igan edo jauts bien artean den chillo

biribil batetarik baizik. Bertzek behar dute erabili preso dena, ez baititake bere besoez balia, ezen hain da chilhoa ttipia.

Presondegi berean emana izan zen Jondoni Paulo, eta bi Apostolu handi horiek dembora berean jali arazi zituzten presondegitik eta ereman martirisatuak izaiterat; dembora apbur bat elgarrekin juan ziren bidean; heldu zirenean Jondoni Petri hil nahi zuten lekhurat, hartu zuten apostolu hau eta khurutzezikatu; naturalezak nahiko zuken ez sofritu; ezen, Jesusek Galileako itsasoaren hegian erran ziona gerthatzen zen : zahartzen zenean, etzuela gaztean bezala bere gerria zintaz tinkatuko eta etzela juanen nahi zuen tokirat, baina hedatuko zituela eskuak, eta bertze batek gerrikoaz tinkatuko eta nahi etzuan lekhurat eremanen zuela; baina naturalezaren oihuari behatu gabe, gogotik utzi zuen bere burua khurutzezikatzerat; choilki ohore sobera baitzaion bere Nagusia bezala khurutzezikatua izaitea, galdegin zuen othoi buruz behera khurutzezika zezaten; eta hala egin zuten; eta khurutzearen gaineko heriotzeaz hil izan zen. Haren hil-tokia gain batean da; eta mendi gain hartarik guziz ederki ageri da eta ikhusten da Erromako hiri ederra.

Jondoni Pauloz bezembatean, puska urrunago ereman zuten, eta oraino desertua den lekhu batean ezpataz lephoa phikatu zioten. Odolaren

tasuna baxharrik hemen aipha dezadan, berrehun eta hiruetan hogoi bat Aita Saindu hetarik badira lauetan hogoi, dohatsuen edo sainduen herronkan edo nombrean emanak. Lehen hogoi eta hamahiruak lerroan martirisatuak izan dira, biga salbu; badira bi Aita Saindu martir hil direnak geroztik.

Eskual-Herri guzian ez da zombait baxhar baizik sainduen herronkan emanik, hala nola san Ignazio Loyolakoa, san Frantses Xavier, eta bertze zombait banaka, eta hori, hainbertze erlijione den herri hautan, eta orai artino izan diren milaka eta ehun milaka eskualdunen artean. Bada, baxharrik berrehun eta hiruetan hogoi bat izan diren Aita Saindu horien artean, badira lauetan hogoi saindu, edo dohatsu: erran nahi baita hiruetarik bat, edo ez urrun.

Eta oraino badira bertze alde zazpi, zortzi bat Aita Saindu, emanak ez direnak dohatsuen nombrean, bainan zoinen gainean hain opinione ona baita non *saindu* deitzen baidituzte hanitz aldiz.

Hemen, Aita Sainduak zoin gizon handiak diren hobeki ezagutzeko, haukien guzien bizia behar nuke baxhotcharen begien aitzinean ezarri; luzegi laiteke; aski izanen zaut zombait chehetasunetan sartzea gure demborako azken bi Aita Sainduen gainean, erran nahi dut Pio bederatzigarrenaren eta Leon hamahirugarrenaren gainean.

lekhu! Zombat portret Jesu-Khristorenak, Ama Birjinarenak, Jondoni Petrirenak, Jondoni Paulorenak, Aita Sainduenak eta bertze askorenak, ezarriak han-hemenka, bereziki guziz gora dohatzin harri kolona lerdan batzuen puntan. Ikhusi behar da Erroma ezagutzeko ongi hango edergailuak, bereziki elizenak.

Aita Sainduak

Nortaz egina izan da Erroma hoin ederra? Aita Sainduak. Zer dira Aita Sainduak? Lur hunen gainean orai arte agertu izan diren gizonik argituenetarik, aiphatuenetarik, ohoragarrienetarik, sainduenetarik. Izan dira Aita Saindutzat hautatuak zombait aldiz mirakuluzki, san Gregorio handiarentzat gerthatu zen bezala, zoinaren gainerat argi zerutikako bat yautsi baitzen gordea zagon denboran, ez nahiz izan Aita Saindu.

Bertze batzuetan, bereziki lehen mendetan, populuak boz batez zion : « Holakoa behar da izan Aita Saindu; eta Jainkoak bere populuaren boz hori on hartzen zuen. »

Komuzki eta aspaldian, Kardinalak, Izpiritu Sainduaz gidatuak, hautatzen dute Aita Saindua, Aita Saindu izaiteko gehienik gai ezagutzen dituzten suyeten artean.

Orai artean izan dira berrehun eta hiruetan hogoi bat Aita Saindu; eta heien zuhurtzia edo prudentzia handiaz mintzatu gabe, edo heien jakitateaz edo bertze dohain ederrez, heien saindu-

tasuna baxharrik hemen aipha dezadan, berrehun eta hiruetan hogoi bat Aita Saindu betarik badira lauetan hogoi, dohatsuen edo sainduen herronkan edo nombrean emanak. Lehen hogoi eta hamahiruak lerroan martirisatuak izan dira, biga salbu; badira bi Aita Saindu martir hil direnak geroztik.

Eskual-Herri guzian ez da zombait baxhar baizik sainduen herronkan emanik, hala nola san Ignazio Loyolakoa, san Frantses Xavier, eta bertze zombait banaka, eta hori, hainbertze erlijione den herri hautan, eta orai artino izan diren milaka eta ehun milaka Eskualdunen artean. Bada, baxharrik berrehun eta hiruetan hogoi bat izan diren Aita Saindu horien artean, badira lauetan hogoi saindu, edo dohatsu : erran nahi baita hiruetarik bat, edo ez urrun.

Eta oraino badira bertze alde zazpi, zortzi bat Aita Saindu, emanak ez direnak dohatsuen nombrean, bainan zoinen gainean hain opinione ona baita non *saindu* deitzen baidituzte hanitz aldiz.

Hemen, Aita Sainduak zoin gizon handiak diren hobeki ezagutzeko, haukien guzien bizia behar nuke baxhotcharen begien aitzinean ezarri; luzegi laiteke; aski izanen zaut zombait chehetasunetan sartzea gure demborako azken bi Aita Sainduen gainean, erran nahi dut Pio bederatzigarrenaren eta Leon hamahirugarrenaren gainean.

LAUGARREN KAPITULUA

PIO 9^o AITA SAINDU IZAN AINTZINEAN
AITA SAINDU IZENDATUA DA

Pio bederatzi Aita Saindu izan aintzinean

Pio bederatzigarrena sorthu izan zen Sinigaglia izena duen Italiako hiri ttipi batean, Aita Sainduaren lurretan. Bathaioan eman zioten izena *Joanes Maria*; Deitzionea Mastai zuen; norbaitek erran zuen haur sorthu berri hortaz: « O zoin handia izanen den egun batez haur hori! » Amak printzipio onak eman zaizkon; eta erraiten baitzion haurrari othoitz egiteko dembora hartan preso zen Aita Sainduarentzat, bai eta, Frantsesentzat ere, semeak ihardetsi zion amari othoitz egin behar zenetz Aita Saindua preso zaukaten Frantses gaichtoentzat; baietz erran zion amak, eta etzirela gaichtoak Frantsesak, heien gobernamentua zela gaichtoa; handik goiti, othoitz egiten zuen Pio bederatzigarrena izan behar zenak Frantziarentzat eta Frantziako gobernamentuarentzat; eta hala egin du here bizi guzian, Aita Saindu bilhakatuz geroztik ere, ala izan zadin Frantziako gobernamentuaz lagundua ala abandonatua.

Eskolarat abiarazi zuten haur hori aita amek,

nahiz etzuen sobera osasun ona. Bere nagusiek eta lagunek maite zuten zeren jitez eta berthutearen medioz baitzen ezta, ona.

Aphez nahi zuken egin: bainan beldur izaiteko zen etzezan aski osasun izan aphezteko; Jainkoak egin zuen mirakulu bat. Apheztasunetik gibelatzen zuen eritasun suertea betbetan jua zen bethikotz; eta egun batez hoin Aita Saindu handia izan behar zena izan zen ordenatua aphez.

Haur ttipi batzuen eskola batetako aitzindari ezarri zuten, eta ongi handia egin zuen haur heier; zazpi urthe heiekin bizi izan ondoan, hetarik urrundu behar izan zen, nigarra begian, haur heiek ere nigarrez, ziotela bere Aita onari ez othoi hetarik apartatzeko; eta haur gaichoak han ari zaizkoa arropetarik tiraka, eskuari muska, erranez ez hek abandonatzeko! Aitzindaria eta eskolierak, guziak nigarrez zauden; bainan behar zen separatu! Juan zen beraz haur hetarik urrun, Chiliraino dembora hartako Aita Sainduaren mandatari batekin. Egun batez, urez zohalarik Valparesotik Limara, hura zen untzia galtzeko hirrisku handitan gerthatu zen itsasoa tempestaz gainditua, handizki samurrean eman zelakotz. Bako izena zuen mariñel bat, lekhua ongi ezagutzen zuena, abiatu zen unziaren gidatzen eta eskaparazi zuen untzia lanjeretik. Biharamunean, Mastai gure jaun apheza jua

zaion Bakori eskerren bihurtzera zeren salbatu zuen; eta bi mila libera present eman zaizkon Aita Saindu izendatua izan zenean, orhoitu zen oraino Pio bederatzigarrena Bakoz, eta igorri zion bere salbatzaleari bezala bertze bi mila libera eta bere portreta. Erromarat itzuli eta, laster, izan zen izendatua aphezpiku Spoletan, gero Imolan. On handia egin zuen bi lekhu horietan; hain omen ona zuen Erroman archaphezpiku saindu eta argitu horrek non Aita Sainduak kardinale izendatu baitzuen.

Aita Saindu hori hil zenean, juan zen Erromara Mastai kardinalea, hautatzeko bertze kardinalekin Aita Saindu berria. Hura Erromara koan, iragaiten zen tokietan, hanitzek zioten hartaz: Aita Saindu izanen da; berak etzuen hala uste.

Pio bederatzigarrena Aita Saindu izendatua

Bildu ziren kardinaleak Aita Saindua izendatzeko. Kardinale bakhotchak boza eman zuen billet batean. Bildu zituztenean billetak untzi batera, ezarri zuten Mastai kardinalea billeten miratzaile. Lehen billeta idekitzearekin, khautu zuen bere izena lehen billetean, bardin bigarrenean, eta hola lerroan hamazazpigarren billeteraino. Harritu zen beldurrez eta, Aita Saindu bilhaka zadin. Umilegi zen lekhu gora hortarat altchatua nahi izaiteko. Eskua ikharetan,

ideki zuen hemezortzigarren billeta; han ere haren izena zen. Nigarrari eman zuen, eta erran zuen bere kardinale laguner, othoi, haren plaza hartzeko. Kardinaleak edifikatuak hoinbertze umilitatez, hasi zaizkon erraiten phausa zadin, bainan behar zuela aitzina juan, erreglen arabe-ra. Aphur baten buruan, berriz hasi zen gelditu billeten zabaltzen, bainan haren izena jali zen hain nombre handian, non goraki Aita Sainduztat hartu baitzuten kardinalek. Usaiako kaleria batetarat ager arazi zuten kardinale heiek Aita Saindu berria, eta hetarik batek erran zuen oihuz populuari, Aita Saindua erakutsiz Pio bederatzigarrenaren izena hartzen zuela. Populuak ikhusi zuenean Aita Saindu berria, oihuka hasi zen : Biba Pio bederatzigarrena.

Eta nola begitarte osoki ezitia eta saindua baitzuen, oihuz hanitzak eman ziren, erranez : « Zoin ederra den! *Che bello!* » eta boz batek populuaren artetik ihardetsi zuen : « Eder bezen saindu da! *Tanto e bello quanto e santo!* » Eta Pio bederatzigarrenak benedikatu zuen lehen aldikotz populua.

Baginuen Aita Saindua, eta zer Aita Saindua! Handik goiti bortz aldiz benedikatu du mundua Aita Saindu handi horrek!

BORTZGARREN KAPITULUA

PIO BEDERATZIGARRENAREN ONTASUNA

Barkhamendua.

Baitzakien Pio bederatzigarrenak bazirela asko gizon gaztigatnak izan behar zirenak gobernamenduaren kontra zerbait egin zutelakoan, ja Errege baitzen Pio Aita Saindua, hobendun heier guzier barkhatu zioten : hortakotz, multzoka jin ziren jende osteak, aldi bat baino gehiago, Aita Sainduari eskerren emaitera barkhamenduzko ongi horrentzat.

Juduak.

Juduak ere Jainkoaren haurrak baitira, heien alderat ere on izan zen Pio bederatzigarrena : zergak ttipitu zaizkoten, heien egon-lekhu zikhin eta osagarriaren kontrakoa antolatu zuen; eta egun batez heien egon-lekhuan gaindi zohalarik, ikhusi zuen judu bat eroria eta erdi-hila. Jautsi zen Aita Saindu hori bere karrosatik; eta, erraiten baitzioten judua zela, ihardetsi zuen : « Zer erraiten duzue? ez dea gure idurikoetarik bat? » eta berak bere eskuz lagundurik, bere karrosarat altcharazi zuen, bai eta ereman juduaren etcheraino, eta etzen haren ganik urrundu tcharbolta hura juan zakonean baizik.

Soldado eriak.

Bethi hola ongi egiten ari zen Pio bederatzi-garrena, kolera denbora batean, frantses-soldadoen ospitalera juan zen, eta eri bakhotchari medela bat eman zion. Eri horietarik batek erran zion ahal zuen bezala eta pochi bat burua nahasia : «Aita, barkha, bainan... bainan... erran nahi baita, banuke gauza bat zuri galdetzeko. — Eta zer? dio Aita Sainduak. — Zertako, hauche da : nahi nuke khurutze-fika bat. — Bainan eman dautzut eta eskuan daukazu. — Aita... barkha zadazut, bainan hau enetzat on da; bertze bat nahi nuke ene amarentzat, emazteki naturala, eta egiazki katolikoa, segurtatzen zaitut nik, eta merechi du nik baino gehiago. » Aita Sainduak khurutze-fika ederragoko bat eman zion erranez : « Ene adichkide maitea, har azu, huna zuretzat den khurutze-fika; igor azu bertzea zure amari, eta atchik azu hau ene orhoitzapenetan. » Eri guziak edifikatuak zauden ikhusiz Aita Saindua heien ganat jina, eta zioten : «Oh! Aita Saindua! oh! ontasuna! Hura ikusi ondoan kontentago hilen naiz! »

Prisoner bat.

Pio bederatzi-garrenak etzituen presonerak ahanzten. Hetarik bat bazen hiltzera kondenatua izan zena, zuela hogoi eta bi urthe; hiltzera zeramatelarik, aphez gazte bat agertu zen : erran

zuen presonera eremailer, ichtant bat egoiteko. Badoha Aita Sainduaren ganat eta hiltzerat dera-
maten gizon horren alde emanaz, ardiesten du
Aita Sainduaren ganik etzezaten gizon hura hil,
bainan haz zezaten presondegian zeno, bi-
zia hari utziz. Aphez gazte hura nor zen?... Pio
bederatzigarrena, Aita Saindu bilhakatua. Aita
Saindu zelarik, Pio orhoitu zen presoner hartaz
eta jua zen haren presondegirat. Aphez choil
gisa bezi, lehen aldian bezala, eta erran zion
presoner horri : « Zure amaren berrien ekhartze-
rat heldu nautzu. — Ez da beraz chagrinez hil,
dio presonerak ! milesker berri on horrentzat. »
Aphezak erraiten dio : « Galda zazu Aita Saindua-
ri zure grazia. — Oh ! dio gizon horrek, zombat
aldi ez diot izkribatu, bainan alferretan ! — Iz-
kriba zazu oraino, » dio Aita Sainduak. Presone-
rak ihardesten dio : « Bainan ene galdea, ez diote
helaraziko Gregorio hamaseigarrenari. »

« Hil izan da, dio Aita Sainduak, izkriba
zazu Pio bederatzigarrenari. — Bainan nork ere-
manen dio ene galdea ? — Nihonik, » dio Aita
Sainduak, eta badoha erraiterat gobernadoreari
uzteko libro presoner hura. « Espes, ari zirea ?
dio gobernadoreak. Ez da Aita Saindua baizik
fagore hori egin dezokenik. — Preseski haren ize-
nean eta haren manuz galdegiten dautzut fagore
hori. — Non ditutzu frogak Aita Sainduaren ma-
nuz eta izenan ari zirela ? » Paper bat harturik, pre-

soneraren libratzeko manua izkribatzen du Aita Sainduak, sinatuz *Pio bederatzigarrena*. Harritu zen gobernadorea ezagutuz sinadura hartarik Aita Saindua bera zela haren aitzinean. Laster eta lehia handirekin jali arazi zuen presonèr gaichoa. Nola eskerrak bihurtu abal zaizkon gizon horrek Aita Saindu bere ongiegileari! Nola Aita Sainduak bere burua maitharazten zuen holako egitate ederren gatik!

Aita Saindua eta haur desolatua.

Aldi batez haur bat jin zaion aintzinerat, Pio bederatzigarrenari, eta belhauniko emanik galdegini zion: « Aita Saindua zarea? — Bai, ene haurra, Aita Saindua nuk. Haurra nigarrez hasten da dioelarik: Ez dut gehiago aitarik. — Koutsola hadi, dio Aita Sainduak: izanen duk ni baithan Aita bat; eta berehala eskoletan eman zuen haurra, berak pagatuz gastu guziak. »

Aita Sainduak kichkaïla zama erosten du.

Bertze aldi batez, Erromako inguruetan paseieta zabilalarik, khausitu zuen muthiko ttipi bat kichkaïl edo abar-tchotch zama bat zeramala. « Nahi diat uste izan ez dukala zama ebatsia, dio Aita Sainduak. — Eta haurrak: Oh! ez, Aita Saindua! — Zer egin gogo duk horrekin? »

« Ahia egos arazi gogo, dio haurrak. — Ehu-kea nahi saldu? — Eta zertako ez? — Nahi du-

zuia? — Beraz, harrak hau, » dio Aita Sainduak, eman ez haurrari diru pheza zilhar bat. Diru hori soberachko zaion bere zamarentzat. Behatzen dio Aita Sainduari, erranez : « Aita Saindua, ez dut gainerakorik zuri emaitako! — Ez dik munta, » dio Pio bederatzigarrenak; atchik aik guziak. Oro irriz zauden. Bide puchka bat egin zuenean, itzulirik gure muthikoa, hasi zen Aita Sainduari oihuka : — « Hola, Aita Saindua, norat behar dut zama ereman? » — Eta Aita Sainduak ihardetsi zion : « Atchikak ahiaren egosarazteko, eta orhoit hadi girichtino on bat izaitezaz. »

SEIGARREN KAPITULUA

PIO BEDERATZIGARRENA PERTSEKUTATUA — EGIN DITUEN GAUZA HANDIAK. LUZAZ AITA SAINDU DA.

Pio bederatzigarrena pertsekutatua

Hoin ona zen Aita Saindu horrentzat gaichto izan ziren framazonak, eta erreboluzioneko gizonak : kasatu zuten Erromatik ; eta juan izan zen Gaetarat, baina Frantziako soldadoek ereman zuten trionfa handitan Erromarat ; handik kasatu zituzten tzarrak, eta ezarri zuten Aita Saindua bere tronuan. Hanitz urthez Frantziak atchiki ditu soldadoak Aita Sainduaren zerbitzuan, baina mila zortzi ehun eta hiruetan hogoi eta hamarreen abandonatu zuen Frantziako gobernamentuak Jesu-Khristoren lurreko Bikarioa ; bai eta ere Jainko ahanzkor ez denak gartzigatu Frantzia, Prusianoen kontra guk hanitz bataila galduz, eta gu utziz egungo eguneraino aintzindari funtsezkorik gabe, aphaltuak, flakatuak, Europa guziaren irri-egingarri Pio bederatzigarrenaz bezembatean, Frantziaz, eta errandaiteke mundu huntako gobernamentu gutiz gehienez abandonatua bizi izan da azken zazpi urthetan, presoner bat bezala bere Erromako hiri khendua ziotenaren kantail batean ; etzita-

ken jali ere Erromako karriketarat trufatua edo gaizki heldua izaiteko beldurra gabe; bai, zazpi urthe handiz iraun du estatu deithora garri horrek, erran nahi baitha, Pio bederatzigarrena hil artino, eta hameka edo hamabi urthe hautan Leon hamahirugarrena baita Aita Saindu, urthe haukietan guzietan irauten du persekuzione berak; eta ez dugu ikhusten, urrun da, noiz akhabatuko den Elizaren gathibotasun hori. Jainkoak izan dezala gutaz urrikalmendu eta Eliza laster goza bedi bakeaz, arimen on handitan! Batzutan penaz eta khurutzez gaınditua, bertze aldi bakhar batzuez bozkariatua girichtino khartsuetarik izaiten zituen kontsolazionez, Pio bederatzigarrena bazohan bethi chuchen zeruko bidean. Gazte edifikagarri izan ondoan, bai eta aphez jainkotiar, archaphezpiku arthatsu, kardinale saindu, oraino berrogoi eta hamalau urthe baizik etzituelarik, Aita Saindu izendatua, guti uste zuelarik, eta ongi bere nahiaren kontra, Pio bederatzigarrena izan da Elizak ukhan duen Aita Saindu handienetarik bat, ikhusiko dugun bezala.

Pio bederatzigarrenak egin dituen gauza handiak

Eta nola ageri zen Jainkoak begiztatua zuela Elizako Printze hori Aita Saindu izaiteko! Zer eztitasuna eta ontasuna katolikoan alderat! Nola kuraieztatzen ginintuen eta zoin ongi gidatzen

zeruko bidetan! Eta nola zen burdinazko, Elizaren etsaien kontra, eta bereziki fransazonen eta liberalen kontra! Nola bilhatzen zuen Elizaren ona eta bakea! Hortik, Erromarat bildu ditu hiru alditaraino mundu katoliko guziko Aphezpikuak.

Gerthatu zaio hiru ehun urthe huntan. Trenteko kontziliotik hunat gerthatu ezkena : bi egien deklaratzeari fedezko artikulua ; bat Ama Birjina izan dela bekaturik gabe kontzebitua ; bertzea : Aita Saindua ezin trompatua dela erraiten duenean, Aita Saindu gisa, zer behar den sinhetsi, zer egin, erlijioneari behatzen diren gauzetan.

Eman ere du Elizari Patrointzat san Josepe handia; eta ez aski Eliza gobernatzea hoin zuhurtzia edo prudentzia bereziarekin gure lekhetan, hedatu du Eliza hori bazter guzietarat, hanitz eta hanitz Aphezpiku berri izendatuz salbaien eta paganoen erresumetan, eta Aphezpiku heier, bai aitzinean han gaindika ziren bertze Aphezpikuer igorritz hanitz misionest khartsu arimen salbatzen laguntzeko. Ongi horiek eta bertze asko obra miragarri egin ditu bere Aita Saindutasuneko dembora luzean.

**Jondoni Petriz landa Aita Saindu luzekienik
izan da Pio bederatzigarrena**

On da hemen erraitea eta frogatzea Pio bede-

ratzigarrenari gerthatu zaiola, Jondoni Petriz landa, bertze Aita Saindu bati ere gerthatu etzaiona. Bertze Aita Saindu guziak hil izan dira hogoi eta bortz urthetarat heldu gabe Aita Saindutasunean. Pio bederatzigarrenak bakharririk phasatu ditu hogoi eta bortz urthe, eta juan da hogoi eta hamabi urthetaraino Aita Saindu izendatua izanez geroztik. Jondoni Petri baino gehiago dembora izan othe da bada Aita Saindu? Ez eta hain bertze ere. Ezen, Jesu-Khristok Aita Saindu establitu ondoan Jondoni Petri, Petrik iragan ditu bi urthe egon-lekhu berezirik gabe; gero egon da zazpi urthe Antiochen, eta hogoi eta bortz urthe Erroman; orotarat izan da Aita Saindu hogoi eta hamalau urthe. Pio bederatzigarrena hurbildu da hogoi eta hamalau urthe horietarat, bainan ez da heldu : bi urthe eskastu zaizko; hartaz ere erran dezakegu bertze Aita Saindu guziez erraiten dena, Aita Saindu eginak izan diren egunean : Ez ditutzu ikhusiko Jondoni Petriren urtheak : *Non videbis annos Petri!*

ZAZPIGARREN KAPITULUA

PIO BEDERATZIGARRENAREN HERIOTZEA

Ez! Ez ditu ikhusi Pìok Jondoni Petriren urtheak! Arte hortan herioa ethorri zaio!

Hil baino bi egun lehenago Pìo bederatzigarrenak zion : erraiten dautate hanitz hobeki naizela, bainan ni ez naiz batere gauza horri ohartzen. Hiltzeko bezpera aratsean, hotz-ikharek hartu zuten eta gero sukharrek. Gaua khechu phasatu zuen, hatsa usutu; medikua ethorri zen presan, eta hura ikhustearekin, Aita Sainduak erran zion: Ah! dotor maitea, aldi huntan akhabo da! Laster etsitu zuten haren eskaparazteaz. Aita Sainduak berak galdatu zituen sakramenduak, eta debozionerik handienarekin errezibitu zituen : lehenik Biatiko saindua, gero Anontzioa. Kardinaleak han ziren haren inguruetan; haren eskuari musu eman zioten beren amodioaren, errespetuaren eta sumizionearen hari seinatzeko. Pìo bederatzigarrenak guziak ezagutu zituen eta benedikatu khurutze-fika ttipi batekin, bai hek, bai eta bertze nombre handian han nigarretan zauden jendeak. Azkenekotz, kardinale batek erran zituen gora agoniako othoitzak; ethorri zenean hitz hautarat : *Habil, anima girichtinoa, mundu*

huntarik, Aita Sainduak erran zuen : *Bai, habili : si, proficiscere!* Eta kontrizionezko akta erraiten ziotelarik, bere indarrak bilduz, Aita Sainduak erran zituen gora kontrizionezko aktaren hitz haak : *Zure laguntza sainduarekin batean!* horiek izan ziren haren azken hitzak, hitz hunkigarriak, nigarrak haren inguruetan ichur arazi zituztenak. Agian gure Salbatzaile onak eginen danku grazia guk ere hiltzeko oreanean kontrizionezko hitz beren erraiteko! Nahi zitaken oraino Aita Saindua mintzatu, baina etzuen ahalik! Mihi benedikatu, urhea baino preziatuago zen hura, hain bertze elhe salbagarri erran zituen mihi sakratu hura ichiltzen zen bethikotz, etzen gehiago aditzen haren hats penatua baizik, eta han gaindi tristerik zaudenen nigarrak baizik. Kardinalak erraiten zioten artetan, eta aldizka, elherik eta othoitzik hunkigarrienak. Urrunago saletan, belhauuko eta othoitzean, zauden hanitz presuna, denak harrituak eta deboilatuak.

Aita Saindua, kolorez khambiatua, agonian, eta izerdiaz hartua han zagon azken hatsetan. Ez gaiten izan eskandalisatuak ikhusiz Aita Saindu handi hori hola sofrikarioez gauditua. Jesus Jauna ez othe da agonian egon, ahuspez lurrera, odolerainoko izerdi ikharagarri batez guzia hartua! Ez othe da khurutzean dilindan egon gure Jainko Salbatzaile adoragarri hura hirur oren handiz? Hil baino lehen, Aita Sainduaren agonia

eztitu zen, osoki eztitu, bainan azken hatsetan zen! Kardinale batek eman zion azken atsolutio-nea, eta Pio bederatzigarrenaren arima ederra eta preziatua ezkapatzen zen bere gorphutzetik eta bazohan Jainkoaren aintzinerat.

Aita Sainduak azken hatsa emaiterekin, Erromako ezkiela guziek joiten zuten *Angelus* Ama Birjinaren ohoretan. Esperantza izaiteko da Ama on hori jin zitzaiola biderat Pio bederatzigarrenari, Ama Birjinaren Aita Saindua deithua denari, haren alde izaiteko Jainkoaren juiamenduan. Aita Saindu horrek hainbertze ohore egin zion Andre-dena-Mariari, hura bethi maithatuz haurtasunetik hasirik; eta ikhusi dugun bezala, deklaratu zuen Ama hori *bekhaturik gabe kontze-bitua izan zela*. Etzuen ahantzi Ama horrek zer egin zuen Pio bederatzigarrenak harentzat, eta handizki saristarazi zuen bere zerbitzari leiala. Hanitz Aphezpikuk jadanik galdegina dute orai-ko Aita Saindu Leon hamahirugarrenari, eginak izan ditzen behar diren urhatsak Pio bederatzigarrena dohatsuen herronkan emana izaiteko.

Mintzo diraja Aita Saindu horrek egin lituzken mirakuluez. Bizkitartean, ez baitzauku haizu Eliza baino aitzinago juaitea, gaudezen Eliza Ama Sainduaren juiamenduari, othoitzak eginez gure aldetik, Aita Sainduaren chedetarat gauza horren gainean. Ikhusi dugu, nahiz sobera laburzki gure haurtasunetik hasirik azken dotze-

na bat urthe hautaraino Aita Saindu izan den Pio bederatzigarrenaren Bizia. Ikhus dezagun orai gu hoin zuhurki eta ederki Jainkoaren bidetan gidatzen gaituen Leon hamahirugarrenaren Bizia.



ZORTZIGARREN KAPITULUA

LEON HAMAHIRUGARRENA AITA SAINDU
IZAN AINTZINEAN — ZER GIZON DEN**Leon hamahirugarrena Aita Saindu izan aintzinean**

Joachim Pecci, egun batez Leon hamahirugarrena izan behar zena, sortu zen Karpineto izena duen hirian, Aita Sainduaren lurretan. Eaurhurretik maite zuen othoitzza eta lana. Eskolak ederki egin zituen : lehenetarik zen filosofian eta teologian. Doktor phasatu zen teologian bai eta *Droit canon* eta *Droit civil* deitzen diren jakitate batzuetan.

Aphez izan zen ordenatua hain oagi imitatzen duen Ama Birjinaren kapera batean, san Estanislá Kostka hil izan zen gambararen ondoan. Laster kargu gora bat eman zioten hiri batean, eta bertze bi hiritan gobernadore ezarri zuten. Gero Aita Sainduak igorri zuen Beljikara embachadore edo *Nonce* bezala, lehenik artchaphezpiku ordenaturik, nahiz etzituen oraino hogoi eta hamahiru urthe baizik; gizon handietan ez da behatzen adinari, baina bai heien berthuteari eta zuhurtziari.

Beljikan, guzien gogora egin zuen, bereziki

Beljikako erregeren gogora. Errege hunentzat berri tchar bat izan zen Aita Sainduak izkribatu zionean galdatzen zutela Peruseko hirian embachadore hori artchaphezpikutzat. Erregek erran zion letra batez nahi zenetz kargatu Aita Sainduarentzat. Baietz, ihardetsi zion Leon hamahirugarrena izan behar zenak; zer zen letra hartan? Erregek galdatzen zion Aita Sainduari othoi kardinale izenda zezan galtzen zuen embachadore hori, zointaz laudoriorik handienak egiten baitzituen. Embachadoreak galdegin zion Erregeri presa zuenetz letra horrek. Erregek ihardetsi zion : ez; aski da Erromarat itzultzen zarenean emaita letra Aita Sainduari. Etzuen asmatzen zer zaukan letrak barnean eta zer ohore handiaz, Aita Saindugoaren ondotik lehenaz, mebatchatua zen. — Italiarat itzuli baino lehen, nahi izan zuen bisitatu Angeletarre, eta Frantzia. Agertzen zen lekhu guzietan miresten zuten Aita Sainduaren suiet handi hori zoin zen aditua gauza guzietan, eta bereziki erlijioneari behatzen zirenetan. Itzuli zen gero Erromarat eta handik juan Peruseko hirirat hango artchaphezpiku izaiteko; gobernadore izana zen Perusen, eta Perustiarrek galdatzen zuten izan zadio heien artchaphezpiku, ezagutzen baitzituzten haren dohain eta kalitate ederrak. Hogoï eta hamabi urthez ongi handia egin du Peruseko diosesan, hartzen zuelarik san Charlech Borrrome bere modelatzat, eta Trenteko

kontzilioari obediaraiz bere manu guzietan, eta kontzilio horren nahiaren arabera establituz diosesa hortan Fraideak eta Serorak, guti, batzuez, gure dembora hotan onhetsiak, nahiz diren Elizaren perla preziatuak; eta preseski hortakotz persekutatuak dira gaichtoez Fraide eta Serorak, baitakite hola Eliza hanitz flakatuko dutela eta errechkiago bentzutuko, bentzutua izan ahal baladi Eliza. Perusen zelarik, Pio bederatzigarrenak kardinale izendatu zuen, haren ondotik Aita Saindu izan behar zen Elizako printze hori, eta hil baino zombait urthe lehenago, bere ondorat ekhar arazi zuen kardinale zuhur, eta aditu hori eta izendatu Kamerlinge, erraitea bezala baitzen : horra ene ondoko Aita Saindu nahi nukenetarik bat. Laster, mundu katolikoak nigarra begian aditzen zuen Pio bederatzigarrena hil zela. Kardinaleak bildu ziren hautatzeko Aita Saindua; eta othoitz khartsuenak egin ondoan Izpiritu Sainduari, hautatu zuten Aita Sainduzat gu hoin ederki gidatzen gaituen Leon hamahirugarrena. Bazituen orduan hiruetan hogoi eta zortzi urthe; orai, laueta hogoi bat urthe baditu; ezen, dotzena bat urthe huntan Aita Saindu da.

Zer gizon den Leon hamahirugarrena

Gure Aita Saindu Leon hamahirugarrena handia da eta mehatsa; begitarte ezti bat du, irri

aire batekin; begi argi batzu, iduri dutenak ikhusten dutela zer den bertzen izpirituan.

Kopeta zabal, handi bat du, arrazoinamendu azkarra duelako seinalea. Aita Sainduari lehen behatze bat emaiten, erran zinezake flakoa dela; ez da egia erraiteko behin ere azkar hetarik izan, baina osasuna onthu zaio Aita Saindu bilhakatuz geroztik; eta ikhusten bazinute zer urhatz fermua duen, dabilanean, zoin majestate handirekin ibiltzen dituen bere eskuak mintzo denean, nola boza handitzen duen arraposki erraiten dituen hitzak adiarazi nahi dituenen, erran zinezakete : bada gorphutz hortan arima azkar bat gorphutzari manatzen duena eta oraino behin manatuko, agian hanitz urthez! *Ad multos annos!*

Aita Saindua hanitz izartua da bere bizi-moldean. Goizetan arras goiz jeikitzen da eta gabaz berant artino lanean ari da bere bureboan. Lo arras guti du eta jana ttipia; espantitzeko da nola bizi den ere hoin lo eta jan gutirekin, ari den bezala lanean ariz. Baina haren inguruetan ere behar dira haren zerbitzariak erne egon eta lanean izkribu egiten ongi akhitu; hatsaren hartzeko dembora doi doia uzten diote, eta bera da lanean lehena.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

BERE IZKRIBUEZ ARGITZEN DU MUNDUA
— FRAMAZONEN, LIBERALEN, ESKOLA
GAICHTOEN KONTRA DA — AITA AMER
ABISUAK

Bere izkribuez argitzen du mundua

Nori Aita Saindu handi horrek egiten ditu haimbertze letra? Aphezpikuer, populuer, erreger berer. Izkribatu ditu *enciclica* edo letra handi batzu Frantziako Aphezpikuer, Espainiakoer, Autrichiakoer, Italiakoer, Prusiakoer, Angeletarrekoer, Irlandakoer eta oraino bertze batzuer, heier erraiteko zer behar duten egin, nola beren obligazioneak bethe beren populuen eta erresumetako aintzindarien alderat.

Izkribatzen ere du printzer, erreger, emperadorer, heier izkribatu duen bezala berriki, ezen printzek, erregek, emperadorek, Elizaz kampo direnek berek igorri diozkote beren presentak beren eskuz izkribatu letrekin haren Jubilauaren orhoitzapenetan eta Aita Sainduak ihardetsi diote guzier.

Izkribatzen ere du Eliza guziari : mundu guziko Aphezpiku, eta girichtino guzier, errege ala suiet, heier erakusteko zoin doktrina edo erakuspen diren tzarrak, baztertu behar direnak.

Framazonak eta Liberalak kondenatzen ditu

Hortik, bertze asko gauzen artean, erran dauku urrun gaiten framazonetarik eta heien idurikoetarik, zoinek chekhatzen edo bilhatzen baitute erlijionearen eta erregen aurdikitzea, khentzea, eta nahi baitute bertzen onthasunaz jabetu, nahiz ez duten hortako dretchorik. Erreger oihu egiten diote erranez beren onetan eta beren populuen onetan atzarriak egon ditene holako gizon galduen kontra, obligatuak baitira beren populuen zori-ona bilhatzerat hetarik lanjerak urrunduz, Jainkoak manatzen dioten bezala, Jainko hura baita erregen beren Erregea, zoinaren ganik baitaukate beren erregetasuna, eta zoinaren nahiak behar baidituzte bethi segitu.

Azkarki altchatu da ere Leon hamahirugarrena behin baino gehiago, eta azkenik egun hautan, liberalen kontra. Liberalak dira girichitino hits batzu libertate sobera hartu nahi dutenak opinione batzuetan, nahiz ikhusten duten Aita Sainduak kondenatzen dituela opinione hek. Heien obediencia urrun da osoa baita Aita Sainduaren aldera, eta hortik kondenagarri dira: Leon hamahirugarrena osoki heien kontra da.

Eskola gaichtoen kontra da. Abisuak aita-amer.

Oraino kondenatu ditu bere izkribu mundu katolikoari igorri dituenetan eskola Jain-

korik gabekoak, zoinetan ez baita Jainkoaren izena bera erraitea ere haizu; jadanik badakite eskual-herrietako aita-amek eskola horietan heien haurrak ez ditazkela lehen komunioerat prepara eta berak behar direla eman erlijioneko gauzen heier erakusten. Hurrez bezala aita-amez eta esposez mintzatu da : goraki erran du eskontza zoin sakramendu handia den, nola behar diren esposak elgarri fidel egon, elgarrekin bizi, Jainkoak bi esposak mundu huntan uzten ditueno; eta bizi hori behar dutela ereman bakean, elgar maithatuz, elgar lagunduz; eta Jainkoak eman badiote haurrik, haur heiek ongi altchatuz erlijione sainduaren arabera.

HAMARGARREN KAPITULUA

TIERTZEREN, FRAIDE ETA SEROREN
ALDE DA

Letra eder bat egin ere du san Frantsesen hirugarren ordenaren gainean, zoinetan sar baititazke munduko jendeak berak, eskonduak ala libroak, gazteak ala zaharrak; eta Aita Sainduak nahi luke nombre handian ordena saindu hortan sartzen bagine, eta gu gibela gintzazken trabak baztertuz erreglamendu labur eta errech bat emaiten dauku: hortako, hanitz jende sartzen da hirugarren ordena hortan eta hola girichtinoak dira saindu bilhakatzen.

San Frantsesen hirugarren ordenari esker, Aita Sainduak munduaren erdian dauden jendeak berak Fraide eta Serora bilhakarazten ditu; ezen hirugarren ordena hori egiazki *ordena* bat da, bere noviziata eta profesioea dituen.

Komentuetan bizia deramaten Fraide eta Serorentzat badu Aita Sainduak estimu guziz berezi bat. Heier gerla egiten den dembora hits hautan, laguntzen ditu Fraide eta Serora hek, eta gaichtaginek khentzen dioten ogia Aita Sainduak emaiten diote. Fraide eta Serora heien establitzailleak san Benuat, san Domingo eta san Frantses her-

ronka goragoko batera altcharazi ditu Elizaren ofizioetan, amorea gatik eta heien phesta-egunak etziten izan baztertuak, baina bai urthe oroz zelebratuak. Fraide Beditino, Dominikano eta Frantchichkano hetarik zombait egin ditu Leon hamahirugarrenak Elizako Printze, hek kardinale izendatuz.

Guk *Frerak* deitzen ditugun Fraiden Aitzindaria eta establitzaila baita Joanes Batista Salla, ezarri du Aphez saindu hori berriki dohatsuen herronkan eta hola nahi izan du ohoratu Jainkoaren zerbitzari handi hori, zoinak bere Fraidez edo *Frerez* hoinbertze ongi egiten baitu haurretan oraino egungo egunean, bazter guzietan eta bereziki gure Eskual-Herrian.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

FEDEA NOLA HEDARAZTEN DUEN

Gure Aita Saindu Leon hamahirugarrenaren artha guziz handia da fedearen bazter guzietarat hedaraztea. Pio bederatzigarrenaren etsemplu ederrak segituz, hanitz Aphezpiku kreatu ditu eta igorri paganoen arterat, hanitz misio-nestekin, ezagutarazteko eta maitharazteko Jesus gure Jainkoa eta Salbatzailea; heier egiten diozte ausarki laguntzak, eta emaiten meza-bezperetako behar diren kalitz, ziborio, iguzki-saindu eta ornamentak.

Heier pasarazten diozte diruzko sokhorriak, bek bizitzen laguntzeko, bai eta lekhu salbaia hetan heier egiteko elizak eta eskola-etcbeak, erlijionearen on handitan, argituz hala elizetan bereziki jende heldua, eta eskoletan haurrak.

Nola hemen ahantz Leon hamahirugarrenaren entseiu handiak Afrika barneko salbaiak libratzeko beren etsaien aztaparretarik? Bertzalde ere, Eskualdunen ohorea khausituko dugu khondatzerat nohan gauza hantan :

Guti ginakien, eta hobeki erraiteko batere azken urthe hautaraino, ba othe zitakenetz jenderik Afrika barnean; bainan jadanik frogatua da milaka, miliunka han gaindi badirela gure iduri-

koak, gu bezala, hek ere Jainko beraren haurrak. Aski izan da. Leon hamahirugarrenak nahi izan du jua ziten misionest khartsuak arima heien konbertitzerat.

Misione nekharri, urruneko eta biziarentzat lanjeros hori eman du Lavigerie Archaphezpikuaren eskuetarat. Hautua etzitaken hobeia izan. Laster Archaphezpiku handi horrek igorri ditu misionestak, zoinek konbertsione ederrak egin baidituzte Afrika barnean : hetarik hanitzek han utzi dute gogo onez bizia, eritasunaz edo akhiduraz eremanak; bertze batzuer salbaiek bizia khendu deie. Misionest horiek guziek kuraieztatzaile zuten Lavigerie archaphezpikua, zoinak merezitu izan baitu kardinale izendatua izaitea Aita Saindu Leon hamahirugarrenaz.

Bainan ohartu ziren misionest heiek gizon bihotz gabeko batzu han gaindika agertzen zirela, milaka eta ehun milaka Afrikanoak berekin eremaiteko, arthalde bat eremaiten den bezala; batzu, bidean ibiltzeko aski on etzirenak burutik behera jo eta, hiltzen zituzten; bizi-kara zirenak atchikitzen zituzten merkhatuetan saltzeko, abereak bezala. Bereziki haurrak eta emaztekiak, hilez askotan gizonak, hautaz atakatuak ez izaiteko. Horiek dira krima batzu Jainkoaren eta jende arrazaren aintzinean!

Aski izan da barbarokeria horren aiphamena bera ethor zadin Aita Sainduaren beharrietarat.

Berehala oihu egin du bere konfiantziako gizonari : Lavigerie kardinalari.

Letra *encyclica* bat igorri du, mundu katolikoari ezagutarazteko zer gerthatzen zen Afrikan eta nola behar zen gaitz handi horri eman sendatzeko erremedioa.

Aita Sainduaz igorria, ibili da Lavigerie kardinala Frantzian, Angeletarren, Alemanian, Hollandan, Suisan, eta non ez? Erran du, Aita Sainduaren izenean, Afrikan gure anaia-arrebak, Jainko beraren haurrak, esklabo eginak zirela eta gaizki helduak, osoki gaizki. Orduan, katolikoak, heretikoak, chizmatikoak, guziak, elgar adituz, altchatu dira egitate gaichto, izenik ez duten horien kontra : ausarki dirua bildu da eta biltzen, barat soldado gisa jua behar direnentzat; eta soldado hok debekatuko dute jendemarchant horier trafiku higuin horren egitea. Salbaia gaicho hek lagunduak izanen dira, eta hanitzak konbertituko dira gure erlijione katorat, han gaindi dabilzan misionest hetaz argituak eta Jainkoaren graziaz lagunduak.

Aita Sainduak, bere Jubilaueko guk igorri diruetarik hel arazi ditu Afrikano heien onetan eta heientzat hirur ehun mila libera Lavigerie kardinalari.

Azkenik aipatu gauza horietan, baditakea othe ohore zerbait Eskualdunentzat? Erranen dut hori orai : Lavigerie kardinala Baionako diosesakoa

da gu bezala, Baionesa da. Ez dea ohoragarri, diosesa huntako guziko, kardinale bat izaitea? Eta kardinale hunek maite ditu Eskualdunak : Gauza hori frogatu dauku Jaun horrek berriki bere solasez Eskualdunen alde, bai bere hautuaz Khambon egoiteko uretan egun luzez; eta hanitzek izan dugu ohorea Jaun horren ikhusteko, gure herrietan horri mintzatzeko, horren bisita errezibitzeko; eta ezagutu dugu laster Aita Sainduak gizon handi bat hautatua zuela Salbaien onetan den egiteko guziz gaitz hori eskualde onerat ekhararazteko, Afrika libratuz jendemarchant horietarik. Ikusiz Aita Sainduak zer enseiu eder eta ongi helduak egin dituen Lavigerie kardinaleak, izkribatu dio gizon handi huni letra bat osoki laudoriozkoa; eta miragarriki ederra. Letra hori Lavigerie kardinaleak utzi du Khamboko elizari, eta hori da emaitza edo present guziz estimagarri bat Khamborentzat eta Eskual-Herriarentzat.

Horra beraz zer enseiu handiak egiten dituen Aita Sainduak Afrikako salbaia gaichoan onetan, heien zorthearen eztiitzeko eta hek konbertitzen laguntzeko, lan hortako hautatuz, Archaphezdiku Lavigerie, gure kardinalea.

Horra zer moldez ari den Aita Saindu Leon hamahirugarrena, baigure erresumetan, bai salbaien artean berean arimen zerurat gidatzen, ez duelarik uzten behinere okasione on bat, hartaz baliatu gabe.

HAMABIGARREN KAPITELUA

JUBILAUAK — PURGATORIOA ETA ZERUA
BOZKARIATZEN DITU**Jubilauak**

Hortik, nahiz ez duen dotzena bat urthe baizik Aita Saindu dela, jadanik hiru edo lau jubilau eman ditu Elizari, arimen salbatzen laguntzeko.

Misione batek herri bati on handia egiten duen bezala, jubilauak ere grazia nasaiak jautsarazten ditu ez herri baten edo bertzearen gainerat, misioneak bezala, bainan mundu guziaren gainerat. Hortik, arimak milaka eta miliunka saildutuak, zuzen-kontra bilduak jaber itzuliak, bakeak etsaien artean eginak, berthutea segitua, arimak saildutuak mundu huntan, eta bertzeko salbatuak.

Eta ez zaio aski Leon hamahirugarrenari bizien ona bilhatzea jubilau horietan; purgatorio-ko arima penatuak ere nahi izan ditu lagundu heien sofrikarioak eztituz edo osoki ezeztaraziz. Hortarakotz jubilau horier guzier eratchiki ditu induljenziak irabaz zaitezkenak purgatorioko arimentzat; eta nola Aita Sainduak bethe izan baiditu berriki berrogoi eta hamar urthe lehen meza eman zuela, jubilau handi bat ideki du

mundu guziari, eta nahi izan du jubilau hortaz baliatu harrek eta guk ginuen bozkarioaren hedazteko purgatorioraino.

Purgatorioa eta zerua alagrantzietan eman ditu.

Izkribatu ere du berriki munduko Archaphezpiku eta aphezpiku guzier, heier erranez meza bat emateko eta emanarazteko mundu katoliko guziko herri guzietan purgatorioko arimentzat, gomitatuz oraino girichtinoak sakramenduetarat hurbiltzerat eta eratchikiz induljenzia oso bat sakramenduetarat hurbiltze horri, abalarekin irabaz arazteko induljenzia hori purgatorioko arimer, zoinak molde hortan hegaldatu baiditazke nombre handian zerurat. Hola zerurat ere hedarazi du Jubilau maite horien karietarat lur-raren gainean eta purgatorioan izan den bozkarioa, bozkario handitua izan dena Aita Sainduak ezarri dituenen berriki zerutiar batzu sainduen herronkan, bertze batzu dohatsuen herronkan. Luzegi ez izaiteko, ez ditut izendatzen saindu eta dohatsu horiek.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

AITA SAINDUAREN DEBOZIONEA AMA BIR-
JINARENTZAT ETA BERTZE SAINDU
BATZUENTZAT

Aita Sainduaren debozionea Ama Birjinarentzat

Hemen, nola egon erran gabe bederen hitz bat Aita Saindu horren debozioneaz Ama Birjinaren alderat? Azken hirur edo lau urthe hautan letra *encyclica* bat igortzen du gure sustatzeko eta ekhararazteko maithatzerat Andre-dena Maria, erran araziz ardura, eta bereziki urriko egun oroz Arrosarioa Ama Birjinaren ohoretan.

Manatu ere du haren letanietan erran dezagun: Erregina bekhatu orijinalik gabe kontzebitua, othoitz egizu guretzat: *Regina sinè labe originali concepta, ora pro nobis*. Eta oraino: Erregina Arrosario guziz sakratukoa, othoitz egizu guretzat: *Regina sacratissimi Rosarii, ora pro nobis*. Nahi izan ere du hirur Agur Maria erranak izan ziten Ama on horren ohoretan *Salve Reginarekin* meza ichil guzien akhabantzian. Hortik, zonbat mila eta miliun Agur Maria erranak egun oroz mundu guzian hainbertze Arrosarioren eta meza ondoko hiru *Ave Maria* heien bidez.

Zonbat aldiz ez dugu oihu egiten egun oroz Ama Birjinari *Salve Reginan* erranez hura dela guk *Agur* egiten diogun Ama miserikordiazkoa, gure bizia, gure gozoa eta gure esperantza: hari oihuka gaudela, pleinuka eta nigarrez desterru deithoragarri huntan.

Beraz hura gure arartekoa baita, bere begi urrikalmendutsuak itzul daitzala gu ganat eta Jesus, bere sabeleko fruitu benedikatua guri erakuts dezala desterru huntarik lekhora zeruan.

Aita Sainduaren deboziona san Joakin, santa Anna, eta Aingernuen alderat.

Ama Birjina hoin bertze maite duena eta hoinbertze ohoratzen, nola egon zitaken maithatu eta ohoratu gabe haren aita amak? horra zertako grado goragoko batetararat altcharazi dituen Elizaren begietan san Joachim eta santa Anna, Andre-dena Mariaren aita-amak.

Dohatsu, eta Jainkoaz benedikatuak izanen gira gu ere, gure Aita Sainduak bezala. Ama Birjina maite balinbadugu guhonik, eta bertzez maitharaztera entseiatzen bagira, eta haren aita-amak ere ohoratzen baditugu.

Ez dut erran gabe utzi behar nola Jondoni Mikael Eliza guziaren Patroin handia ohoratzen duen Leon Aita Sainduak; hortakotz othoitz eder bat nahi du errana izan dadin meza ichil guzien ondotik, galdatzeko Arkanjelu horren

laguntza, satan beltzaren kontra egin behar dugun gerlan.

Aingeruen eta Arkanjeluen Printzea Jondoni Mikael ohoratzen duen demboran, haren azpiko diren Aingeru eta Arkanjeluak ere nahi du maitha eta ohora ditzagun, eta Aingeru Begiralen phesta grado batez goratu du amorea gatik eta, etzadin behin ere phesta hura zelebratua izan gabe geldi, gertha zaiteken bezala ez balitz goragoko lerro hortarat alchatua izan.

Gure Aita segituz, izan gaiten gu ere debozio-
nez betheak Ama Birjinaren, Aingeruen eta
Sainduen alderat, bainan maithatuz guzien gai-
netik gure Jainkoa.

HAMALAUGARREN KAPITULUA

POPULUENTZAT, ERREGENTZAT ARGIBAT DA

Zer ez nuke hemen erraiteko Leon hamahirugarrenaren jakitateaz, zuhurtzia edo prudentziaz, haren thalenduez? Mundu guziaren begietan phasatzen da gure mendeko gizonki handienetarik batentzat. Berak hain ederki ikhasiak eta segituak dituen filosofia eta teolojia san Tomas dominikanoaren araberakoak, nahi du erakutsiak izan dituen eskoletan eta semenarioetan; eta san Tomas baita filosofiako eta teolojiako printzea, bai eta, bertze eskoletan erakusten diren bertze asko jakitatez bethea izan baita, Leon hamahirugarrenak ezarri du san Tomas eskola katoliko suerte guzietako Patroin. San Tomasen erakuspenen araberako eskolak balire, laster ezagut ginezake zoin diren eztiak eta salbagarriak eskola onetako fruituak.

Hoin argitua den Aita Saindua ez da beldur izan, nahi bezembat nor nahik bilhaturik ere Elizaren ichtorioan, cherkhu hori izan zadin Elizaren kaltetan. Eliza ez da argiaren beldur. Ideki ditu beraz Leon hamahirugarrenak bere palazio Vatikanekoaren atheak edo borthak, eta gomitatu ditu munduko jakintsun guziak, chiz-

matikoak eta heretikoak berak, bai eta ere erlijionerik gabekoak, irakurtzerat Aita Sainduaren liburutegian, bai Eliza katolikoaren ichtorioa, bai eta askotan Erromatik separatuak bizi diren chizmatiko eta heretiko heien edo gaineratiko erlijionerik gabe bizi diren heien ichtorioa; ongirik baizik ez da jaliko cherkhu eta irakurtze horietarik.

Ezagutuko dute batzuek eta bertzek zertan urruntzen diren Eliza Erromanoaren erakuspenetarik, eta zer egin behar luketen Eliza Erromano, baxharrik erlijionean egia duenarenganat itzultzeko, eta hola salbatzeko.

Leon hamahirugarrena da oraino guziz aditua gobernamentu behatzen diren politikako gauzetan. Ez du dembora luzerik Espainiak eta Prusiak hautatzen zutela Aita Saindu hori elgarren artean zuten *ez-bai* baten chuchentzeko.

Mundu guzia beha zagon ikhusteko zer bide hartuko zueu hortarakotz Aita Sainduak. Gauza guziak zuhurtzia handirekin phisatu ondoan, bi phartekoer erran zioten zer zuten egiteko; eta hek ezarri zituen bakean. Munduak miretsi zuen Aita Sainduaren zuhurtzia edo prudentzia.

Horra beraz erregeak eta printzeak Leon hamahirugarrenaren oinetan.

Asko printze, errege eta emperadorek, izkribatzen dute Aita Saindu huni, bai eta hunek ere erresumen aitzindari horier, nahiz batzutan izan

daitezken chizmatikoak, heretikoak edo paganoak. Nork daki ez othe diren hurbilduak demborak, zoinetan Elizaz kampo direnak itzuliko baitira Erromatik mundu guzira hedatzen den argi hortarat? O Leon handia, Aita Saindu miragarria, izan zaite Elizaz kampo direnen, bai eta Elizaren membro girenen argia : *Lumen in celo*. Bizi zaite oraino luzaki : *Ad multos annos!*

Gure onetan izanen da! Eta jiten denean deskantsuaren tenorea, igan zaite zerurat; baina hurrek ere segi dezatela Aita, bai eta arthaldeak Arizaina!

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

ZER ONGI EGIN DUTEN JONDONI PETRI
LEHEN AITA SAINDUAK ETA BERTZE
AITA SAINDUK.

Aita Sainduak, Elizaren zimendu eta sustenguek, mundurat agertu aitzinean, mundua bizitzen ilhunbetan, eta bizio suerte guzietan. Etzakitzen gizonek nondik heldu ziren, norat zohazin; edo bederen heien jakitatea gauza horien gainean ttipia zen; gauza horietaz batere etziren okupatzen edo antsiatzen; bederen, arras guti. Lurreko intresak eta aisiak ziren bakharrik heien gostukoak. Bainan zer egiten dute Aita Sainduak? Jondoni Petri, lehen Aita Saindua badabila herriz herri, erresumaz erresuma, arimen konbertitzen edo Jainkoa ganatitzultzen.

Khurutzea esku batean, Ebanjelioa bertzean, erraiten diote gizoner ez direla mundu huntako eginak; hemen, phasatzean baizik ez girela; gure egon-lekhua zerua dela; hau, Jainko bat badugula gutaz artha hartzen duena; gure salbatzeko jin dela gure arterat; eta ez dela guretzat salbamendurik hartan baizik. Egia horiek eta bertze holako asko gizoner ezagutarazteko, ethortzen da Jondoni Petri Erromarat, eta han establitzen du bere Alkhia eta egon-lekhua. Ezen,

Erromak dakiena, nola ez da jakina izanen mundu guzian? Erromarat badira jinak munduaren bazter guzietarik milaka jendeak; eta Erromako podorea eta komertzioa hedatzen dira mundu guzirat. Erromatik beraz adiaraziko du Jondoni Petri lehen Aita Sainduak bere boza, eta igorriko ere ditu hanitz lekhutarat fedearen predikatzaileak. Aita Sainduak eginen dute Jondoni Petrik bezala. Beren boza adiaraziko dute Aphezpiku eta aphez beren plazakoez mundu guzian. Frantziak izanen ditu bere Apostolu eta predikariak, Aita Sainduak igorriak. Alemania, Angeletarre, Espainia, Grezia, Afrika, Amerika, munduaren bortz pharteak izanen dira gure erlijione sainduaz argituak, Jondoni Petri lehen Aita Sainduari eta bertze Aita Sainduer esker. Gizonek ezagutuko dute azkenekotz Jainko bat badela, zerbitzatu behar dutena; zeru bat heien beha dagola; elgar behar dutela maithatu, eta ez direla ordu arte bezala bizi behar zarkerietan, bizio guzietan, herran, gerla ikharagarrienak eginez populuak populuaren kontra. Hitz batez, elgar hil arteraino, elgar *jateraino*; salbaiak ziren populuak, bertze batzu bilhakatuko dira, eta eternitate guzikotz salbatuko, Jainkoaren ondotik Aita Sainduer esker. Horiek oro dira ongi ezin aski prezatuak!

HAMASEIGARREN KAPITULUA

ZOIN DIREN AITA-SAINDUK MUNDUAN
IZAN DITUZTEN BIZI-MODU EDO POSIZIONE
DIFERENTAK

Elizaren lehen mendetan, Jondoni Petri eta bertze Aita Sainduak hanitzetan iheska zabilzan, ahal zuten bezala fedea predikatuz; eta persekutatzailek hatzemaiten zituztenean, martirizatzen zituzten Aita Saindu hek; halako gisaz non, jadanik errana izan dudan bezala, lehen hogoi eta hamahiru Aita Sainduak hil izan baitira guziak martir, biga salbu. Geroztik, bi Aita Saindu hil izan dira martir. Ikhusten duzue zoin bizi-modu edo posizione nigar egingarrian zen orduan Eliza! Ah! ez othe zen hobe Elizarentzat haren Aitzindaria izan zadin libro, eta ez presondegietan, gero handik landa, hilak izaiteko? Ez othe zen Elizarentzat hobe izanen, komparazione, Aita Saindu hek bizi izan balire ongia errechki eta trabarik gabe egiteko gisan, populu- en errespetuaz inguratuak, beren egon-lekhu bat zutelarik, aski eremu eta onthasunekin beren gastuer buru egiteko? Badira gure dembora argitu hautan gizon bakhar batzu, izpiritu makhurrekoak, erranen dutenak zertako ez den egungo eguneko Aita Saindua ere pobre Jondoni Petri

bezala! Zertako ez den kontentatzen arimari behatzen zaizkon podorez, lur huntako onthasunik gabe! Hori da arrazoinatzeko molde bat protestantetarik edo Elizako etsaietarik heldu zukuna. Girichtino egiazkoak ez dira hola mintzatzen. Eta ez da ongi hola mintzatzea! Badohako seme bati bere Aitaren kontra mintzatzea? Eta ez othe da Aita Saindua gure Aita, girichtino guzien Aita, eta zer Aita! *Aita Saindua!*

Behin ere arranguratu girea, gure aitak funts bat izan badu edo lur bat, zertako duen funts hura, lur hura gure aitak? Erran dugu othe behin ere *bai eta gure aitak behor lukela lur hura, edo funts hura utzi?* Etzuten hola phentsatzen Konstantin eta Charlemagne emperadore omen edo fama handitakoek; ezen, ikhusiz Aita Saindua izan behar zela nagusi eta ez azpiko, utzi daizkote lurrak Erroma inguruan Aita Sainduari. Klarkiago mintzatuko naiz gauza horietaz segidako kapituluan.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

AITA SAINDUAK, LIBRO IZAITEKO,
BEHAR DU UKHAN ERRESUMA BEDEREN
TTIPI EDO CHUME BAT!

Printzen emaitza horien bidez, bilhakatu ziren Aita Sainduak Errege ttipi batzu, beren suietez inguratuak; eta osoki bazohan izan zaitezten Aita Sainduak *nagusi beren etchean*. Ezen, familien ongi juanarazteko, hobe dea aita familiako harentzat izan dadin etchetiar, ala etheko jaun?

Ez othe da hobe izan dadin etheko jaun, errege ttipi bat bezala bere suietez edo bere familiaz inguratua? Guziek diozue *baietz*, eta arrazoin duzue! Bada, Aita Saindua girichtinoek egiten duten familiaren Aita da. Hobe othe da, gure errechki gobernatzeko, izan dadin etchetiar, eta bertzen meneko? Ez othe da hobe izan dadin nagusi, nahi duen bezala gobernatzeko bere familia, nehoren ere azpiko izan gabe? Bertzenaz ere mundu huntan guziak errege edo suiet gira, eta gisa othe zen girichtinoen Aitzindaria, Aita Saindua, izan zadin, asko aldiz erlijionerik gabeko izanen zen errege baten suiet eta meneko?

Eta errege erlijione gabeko horrek manatzen

balio Aita Sainduari *egitea gauza zuzen-kontrako bat*, Aita Sainduak, segur, ihardets lezoke ez dezakela injurtizia hori egin ahal. Hortik persekutatua laiteke Aita Saindu hori; komparazione, errege gaichto horrek bertze erreger gerla egin nahi duenean, manatzen balio Aita Sainduari haren alde ezar dadin, bertze erregen kontra, errege horiek begi onez beha othe liote Aita Sainduari, ja heien kontra ezarria? erran nahi baita Aita haurren kontra; ezen Aita Saindua errege katolikoan ere Aita da, bertze katolikoena bezala. Eta ala gerla demboran, ala gerla demboraz kampo, bertze erregeak ez othe laitezke mesfidantziabetheak Aita Sainduaren eta haren manuen alderat, beldurrez eta heien etsaia den bertze errege. Aita Saindua bere azpiko duen horrek, sobera gida dezan Aita Saindu hori? Segi dezagun oraino arrazoinamendu bera : Aita Saindua nazione eta erresuma guzietako Aita da; eta ez da nazione edo erresuma batentzat bertze batentzat baino gehiago Aita Saindu : guzientzat bardin da, bainan nazione edo erresuma partikular baten meneko balitz Aita Saindua, begi onez beha othe lezakote bertze nazione edo erresumek, gisa hortan bertze guzien gainetik fagoratua den erresuma edo nazione horri? Hortik jelsiak. Hortik nazione Aita Saindua bere meneko duen hori bertze nazionez gorago altchatua, guzien Aita izpirituala berekin duela-

cotz. Ez da holako jelsia-biderik Aita Sainduak balinbadu erresuma ttipi bat, non ez baita nehongo erregen edo emperadoreen esklabo, ez eta erresuma partikular batetako suiet. Ez da ere hain errechki bertze errege batez persekutatua izanen ez bada nehongo erregen meneko. Hor- tik, nesessitatea Aita Sainduarentzat izan dezan erresuma ttipi bat, han Nagusi eta Errege izai- teko. Erresuma hura izan dadila nahi bezen ttipia, baldin eta, aski emaiten badio Aita Sain- duari bere despendioentzat.

Bainan izan dadila aski handia, soldadoez aski bethea urruntzeko, kasatzeko auzoko edo nom- baitko erregeak edo etsaiak, haren erresuma ttipi hortaz nagusitu nahi luketenak. Erraiten dut Aita Sainduek urruntzeaz etsai hek, eta ez atakatzeaz; ezen, egundaino ez dute Aita Sain- duek gerla egin ez urrungo erreger, ez auzo- koer, beren lurak handitzeko; kontrarat! Zom- bat aldiz ez dira ikhusi erregeak, beren lurak handitu nahiz, nagusitu nahi izan direnak Aita Sainduaren lurrez eta erresuma ttipiaz? Orduan nesessario izan da Aita Saindu horientzat beren soldadoen medioz gerla egitea heien erresuma chumearen iresterat jiten edo ethortzen ziren printze erlijione gabeko horien kontra.

Erran dut Aita Sainduek erresuma bat behar dutela, ttipia izana gatik ere; eta ez dute erre- suma handia nahi. Ezen badakite handia balitz,

bertze erresumak jelos laitezkel, eta orduan, hari jazarriago laitezkel, ikhusiz hek bezen azkar izan nahi dela; kontrarat, errege ongi phentsatzen dutenek, ikhusten dutenean Aita Sainduaren erresuma hori hoin ttipia, hortaz urrikalmendu dute, eta obartzan badira erresuma flako hori handiagoko eta azkarragoko errege batez desafiatua dela eta gaizki ekharria, harren alde emaiten dira guk egun guzietz egiten dugun bezala ikhusten dugunean azkar bat flako gaicho baten kontra alchatua. Horra zer egin duen komparazione Frantziak, hanitz aldiz alchatuz Aita Sainduen alde haukien pertsekutatzaileen kontra.

Ikhusi dugu beraz baitezbadako nesesiatea dela Aita Sainduentzat erresuma ttipi baten izaita, bertzenaz errege zombaiten suiet bailaitezke, eta askotan haren esklabo, eta hartaz pertsekutatuak. Eta jelosiak eta gerla-bideak bailaitezke errege batek edo erresuma batek bere azpiko balu Aita Saindua, bertze erregek eta nazionek ez bezala.

Ikhus dezagun oraino Aita Sainduak baitezbadako duen nesesitate erresuma baten izaiteko *egiteko dituen despendioen gatik*, eta hortako mintza gaiten despendio-bide hetaz.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

AITA SAINDUAK BEHAR DU IZAN ERRESUMA BAT, DITUEN DESPENDIOEN GATIK

Mundu huntako erregek Aita Sainduaren alde alchatzeko bidean, utzi dute Piemonteko errege hits bat Aita Sainduaren lurrez nagusitzerat.

Bazuen bizkitarteau Aita Sainduak bere lurretarik heldu zaizkon errenden beharra. Ezen, baditu hanitz despendio-bide : Igorri behar ditu gorthetara bere embachadoreak, *Nonces* deitzen direnak. Hortik despendio-bide frango Aita Sainduarentzat, ohorerekin ager arazteko gorthe hetan bere embachadoreak eta heiekin diren sekretarioak eta lagunak.

Aita Sainduak oraino igortzen ditu munduaren bazter guzietarat Aphezpikuak eta misionestak salbaier eta paganoer erakusterat gure erlijioea. Aphezpiku saindu eta misionest kuraietsu hauk hanitz despendio-bide badute ; ezen, erosten dituzte lege-gabekoen haurrak ; bertzenaz hantzetan aita-ama pagano hek hil litzaizkete haur hek.

Elizak egin behar dituzte girichtino kombertitu berrientzat ; hek ardura lagundu behar dituzte bizitzeko jatekoa heier emanaz. Bidaia lu-



zeak egin behar dituzte leihorrez edo urez. Berek ere bizi behar dute eta beztitu behar dira : hortik zombat gastu edo despendio-bide ! Bainan nondik izanen dute despendio horier buru egiteko dirua ? Ah ! besoak hedatzen dituzte Aita Sainduari eta guri, behar duten diruaren izaiteko ; eta zombat diru ez du Aita Sainduak heier igitzen ! Oraino hortik despendio-bideak.

Gastu frango edo despendio egiten ere du Aita Sainduak pobren eta beharren laguntzen. Zombat pobre eta jende behar hazteko, beren egontokietan laguntzeko ! Ezen, asko ahalge laitezke eske juaiteko agerian, eroriak direlakoan gorago ziren herronka batetarik ; bertze batzu eritasunez, edo adinez lanean artzetik gibelatuak dira ; bizkitartean bizi behar, eta ez menturatzen galdatzerat, edo ezin galda ! Pobre ageri eta gorde horiek Aita Sainduak behar hazi ! hek Aita on horri egonki beha zerbait nahiz ! oraino despendio-bideak !

Eta dembora hautan zombat Aphezpiku eta aphez Italian gobernamentuaz ez pagatuak, Aita Sainduari daudenak, hek ere, bizitzeko ! Zombat semenariotako ichtudiant, Aita Sainduak ez baliote pagatzen beren plazakoarentzat, soldado jua behar luketenak ! Pio bederatzigarrena bizi zenean, nahi zioten girichtinoek urhezko tronubat egin Aita Saindu horri. Bainan Aita Sainduak erran zuen *etzuela nahi*; eta tronu haren

egiteko behar zen soma emplea zezaten ichtudiant heien plazakoaren egiten, ez juaiteko armadetarat, bainan bai bilhakatzeko aphez saindu.

Egungo egunean, ikhusten ere dira komentuz kampo ezarriak hanitz fraide saindu, hanitz serora jainkotiar, Italiako gobernamentu trichteak kasatuak heien komentuez eta izanaz jabetzeko. Bertze erresumetan ere kasatuak dira asko fraide eta serora.

Fraide hek, serora hek jende oner daude eta bereziki Aita Sainduari bizitzeko, leihorra edo egon-lekhua izaiteko; hortik, zombat despendio-bide Aita Sainduarentzat!

Aita Sainduak behar ditu oraino bere inguruetan atchiki eta hazi hanitz Kardinale, hanitz aphez argitu munduko bazter guzietarik errebitzen dituen letrer eta galder ihardesteko : fagore galdez, podore galdez, barkhamendu galdez Erromarat igorriak diren letra hek ehunka dira. Bichtan da Aita Sainduak ez dezakela berak galde eta letra heier guzier ihardets. Behar ditu beraz bere inguruan erran ditugun Kardinale eta aphez argitu horiek eta oraino bertze asko zerbitzari Aita Sainduaren mandatuen eta manuen egiteko han prest daudenak. Bainan Kardinale, aphez eta zerbitzari horiek guziek behar dute bizi; eta etzakote aski, bizitzeko, ahoa aireari idekitcea kameleonek bezala; janez behar dira bizi; eta oraino behar ere dute janaz bertzalde beztiaarena

eta bertze despendioena. Hortik oraino zombat gastu-bide!

Behar ditu oraino Aita Sainduak elizak erreberritu, beztitu phestetako, eta Jainkoari johan zaion moldean atchiki; hortik oraino despendio bideak!

Oraino, eta hau premiazkoa da; baditu Aita Sainduak egiteko pagatzeak. Diru maileatua Elizaren beharretako, bereziki bere lurretarik heldu zaizkon errebenioetarik gabetua delakotz errege tzar baten injustiziaz. Nondik hoin bertze despendioentzat izan dezake aski diru gure Aita izpiritualak, ez badakogu emaiten gure ahalaren arabera?

Egia da, guri galdatu gabe, bazuen ausarki Aita Sainduak, afera guzier buru egiteko; lurrek hortakotz aski ekhartzen zaioten. Zer injustizia ikharagarria ez du beraz egin doidoia aiphatu errege eskumikuz joak eta harren semeak hola bere izaite gehienaz gabetuz beren Aita eta gu guzien Aita guziz saindua eta justua! Egin dezagun egin othoitz bere lurrez nagusi dadin Aita Saindua! Ordu arte penatuko da; guri laguntza galdatu beharko du; baina, guk gogotik emanen dugu, jakinez pobrerie errespetagarrienari egiten dugula amoina; jakinez hari emanen dugun *kobrea* izanen dela zeruan *urhe* bilhakatua, gure khoro eta tronuaren edertzeko. Baina gure onetan ere izanen da ahalaz laster nagusi

dadin Aita Saindua bere erresuma ttipiaz; ezen ez dugu orduan emaiteric izanen Aita Sainduaren eskearentzat.

Ezagutu othe dugu hoinbertze arrazoinen ondoan, baitez bada behar direla itzuli Aita Sainduari bere lurak?

Ordu arte lagun dezagun gure Aita ona. Eskuak gu ganat hedatzen ditu laguntza galdez! Egia da, errege gaichto ebasle harrek ofreitzen daizko miliunak Aita Sainduari; baina Aita Sainduak ihardesten dio : ez daitzut miliunak galdegiten, baina bai ebatsi dautazun erresuma; harrek emanen dait behar ditudan miliunak. Arte huntan, ebasko horrek diraueno, zure miliun injustuak mesprezatuz, oihu eginen dut ene haurrer, mundu guziko girichtinoer; eta hala da; oihu egiten dauku. Eta zer gerthatzen da aspaldiko urthetan? Bazter guzietarik igortzen diote gure Aita Saindu pobreaki dirua eta ausarki, halako gisaz non bere lurretarik zuen baino menturaz diru gehiago heldu baitzaio Erromarat, eta egiten ahal baitu bere aldian amoina gure Aita maite horrek eta dirua ausarki barreatzen ahal baitu, guri esker, aipatu ditugun despendioer buru egiteko; ezen, beretako guti aski du; ez du gutarik baxhotchak baino gehiago behar, eta ez hainbertze ere; ezen, mortifikazionezko eta penitentziako gizon saindu bat da gure Aita Saindua!

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

ZER ESTIMU HANDI IZAN DEN BETHI AITA
SAINDUEZ

Mintza gaiten orai Aita Sainduaz munduak egin duen estimuaz eta heien autoritateaz erregen beren gainean.

1. Dembora guzietan Aita Sainduaz egina izan da estimurik handiena. Lehen mendetako girichinoetarik hasirik, gure demboretako fededun guziez ezagutua izan da Aita Saindua erlijionearen lehen zimendutzat, Jainkoaren ondotik. Mundu zabaleko Aphezpiku, aphez eta fededun egiazko guziak egon dira bethi beren demborako Aita Sainduari beren zenthroari bezala, hari diote argia galdegin ilhunbetan; haren hitzari eta erakuspenari obeditu dute fedearen gaineko ezbaietan. Aita Saindua mintzatzen zen bai; guziak haren erranerat erortzen ziren; etzen gehiago disputarik ez ilhunberik : *Roma locuta est, causa finita est.*

2. Erregek berek kontsultatzen zuten Aita Saindua; eta haren kontseiluz, hanitz gauza egingen zuten. Eta behar zenean, Aita Sainduak berak bere baitharik bere boza adiarazten zuen Jainkoaren arabera etzohaziu errege eta printze bazu-
tzuer; ez bazuten nahi obeditu; eta merezi bazu-

ten, eskumikuz joiten zituen, eta errege heien suietak libratzen zituen errege hobendun heier obeditzeko obligazionetik; halako gisaz non ikhusten baitziren erregeak, merezi zutelakotz, bere suietez abandonatuak. Hain autoritate handia zuten Aita Sainduak non erregetasuna errege batetarik bertze baterat phasaraz baitzezaketen eta phasarazi izan baitute, komparazione Franzian, bazterrerat emanaz errege ahul bat, haren plazan ezarriz tronuan Pepin kuraietsua eta hain errege ona izan dena.

Egungo egunean oraino, fedea hanitz flakaturia izana gatik ere, bertze erregek, nahiz ondikotzen duten Italiako erregea injustiziarik handienaz gozatzerat Aita Sainduaren kontra, bere erresuma hari ebatsiz, bai bertze erregek, diot berriz behatzen dute Aita Sainduari errege bati bezala : bere sor-egunean eta bere phestetan felizitatzen dute Aita Saindua, phesta ona desiratzten dakote bertze erreger okasione hetan egiten den bezala.

3. Ez dut ahanzi behar erraitea zombat maite duten Aita Saindua Erromako eta Erroma inguruko jendek. Heientzat hain zen Aita ona eta Errege ona bere erresuma ttipia zuenean! Hain ziren urus hura Erregetzat zutenean? Zerga guti baizik etzuten pagatzeko, eta orai ahal baino gehiago; orai, ofizio den ttipienak bere patanta badu; eta, zer sakrilejioa! meza bera patantatua

da, meza saindua! Aita Saindua Errege zen demboran, Erromanoek eta inguruetakoek bizia merke zuten; orai, odolaren prezioan. Erran nahi baita, Aita Sainduaren gobernamentua zela munduko hoberena, eztiena, Aita baten gobernamentua; suieten ona baizik chekhatzen ez duen Errege eta Aita baten gobernamentua! Ah! noiz eginen du oraino Aita Sainduak leheneko bere suietheien urustasuna! noiz bere Erregetasuneko korona, herdoildua dagona, emanen du buruaren gainean! Ezen, haren etsaiek nahi ala ez nahi, Aita Saindua Errege da, ebatsi dioten erresumatiaren errege eta jabe: hala nola etheko jaun bat, bere etheaz injustuki gabetua, bere ethearen jabe baita bethi.

Eta hemen diot, trompatzeko beldurrik gabe, profeta izan gabe: khasu erran huni geroko: diot beraz goiz edo berant, menturaz laster Aita Saindua bere erresumaz jabetuko dela; goiz edo berant, injustizia punitua da, maiz eta ardura mundu huntan berean; ez du Jainkoak uzten injustizia bethi trionfan eta burua gorarik ibiltzerat: heldu ere da gaztiguaren dembora. Aita Sainduaren harrokaren kontra abiatu direnak, harroka horren kontra lehertuak izan dira; gure zaharrek ezagutu dute emperadore bat mundu guzia harritia zukana; phentsatzen duzue zoin den: Napoleon lehena; azken dembora hotakoaren osaba. Aita Sainduaren alde izan zeno,

ontsa juan zen; bainan hasi zen bai, Aita Sainduaren pertsekutatzen, erori zen Napoleon; Aita Sainduak eskumikatu zuen; emperadoreak zion orduan: uste duia Aita Sainduak haren eskumikuak eroraraziko dituela ene soldadoen eskuetarik harmak? Hala gerthatu zen; Russian, gure soldadoen eskuetarik erortzen ziren harmak, eta gure soldadoak hormatuak hiltzen ziren.

Azken emperadoreak ere abandonatu zuen Aita Saindua; bai eta Jainkoak ere hura abandonatu Sedanen! Osabak eta ilobak hunkitu zuten Elizaren harroka; harroka horrek bat eta bertzea chehatu zituen. Segur orai ere Italiako erregea chehatua izanen dela, eta Aita Saindua iganen dela bere erregetasuneko tronurat: Aita Saindu hau edo bertze bat; eta agian Aita Saindu hau, esperantza dugun bezala eta bihotzez desiratzen dugun bezala. Ezen, orai artean ere Aita Sainduak izan dira bere lurrez gabetuak eta ihesari emanak hogoi eta hamabortz aldiz; bainan hogoi eta hamabortz aldiz itzuli dira Erromarat, beren Erresumaz gozatzerat; orai artean gerthatu dena, hemendik goiti ere gerthatuko da.

Egia da; Aita Saindua ez da ihes juana; han da Erroman; bainan berak hala nahi duelakotz; biziaren irriskuan ere nahiago izan du han egon; bainan hain da esklabo, non ez bailezake zangoa phausa ahal Erromako karriketan biziaren irriskuan baizik; han dago Erromako chokho batean,

arrimatua bezala; bainan, jinen da trionfaren eguna. Ochala bihar berean balitz! Arte huntan pena frango izanen du; bainan kontsola dezagun gure othoitzez, gure fidelitateaz, gure amoinaz eta gure amodioaz. O Aita maitea, hola eginen dugu!

Ikhusi dugu zoin ongi handiak egin dituzten Aita Sainduak munduari; gero mintzatu gira Aita Sainduak munduan okupatu dituzten posizioe diferentez; heien alderako persekuzioez, erresuma ttipi baten nesesitateaz heientzat, bakean eta trangil bizi ahal izateko, eta phondu horren gainean cheheki gauzak phizatu eta esplikatu ditut kompreniarazteko zoin nesesario zuten Aita Sainduak erresuma ttipi bat. Azkenean, kontsideratu dugu zer estimu handia egina izan den munduan Aita Sainduak eta zoin handia izan den heien autoritatea erregen beren gainean. Zer gelditzen zauku orai, baizik eta, ekhartzea errespetu, amodio eta laguntza gure denboretan bizi den Aita Sainduari!

Aita Sainduen eta Erromaren gainean erran ditudan gauzen ondotik, nahi izan dut hemen irakurtzalearen begietan, bihotzean eta ezpainetan ezarri segidako khantu hau :

Biba Aita Saindua,	Da ezin trompatua;
Buruzagi justua,	Gidatzat du hartua
Jesusek nautatua	Izpiritu Saindua.
Gidatzeko mundua.	O hautu dohatsua!

Jesusek bere plazan
 Ezarri du Erroman,
 Hiri guziz sainduan
 Onez hain maithatuan!

Handik du boz' alchatzen,
 Gu guzier manatzen,
 Eta guk obeditzen
 Gure Aita zeren den.

Ber' erresuma badu;
 Erreg' izan behar du,
 Bertzenaz behar baitu
 Esklabo bilhakatu!

Erroma inguruak,
 Printzen present justuak
 Dazka Jainko sainduak
 Hari begiratuak.

Han du erreginatzen,
 Orok hura maithatzen,
 Ezen, dute ikhusten
 Zoin Errege ona den.

Hanitzaldiz gaichtoek,
 Satanez phusatuek,
 Diozkate, trichteek,
 Beretu eremu hek!

Orduan da penatzen,
 Guri galde egiten,
 Guk gogotik emaiten,
 Hark gu benedikatzen.

Hari eman dirua
 Da zerurat heldua,
 Urhe bilhakatua!
 Ongi da pagatua!

Ez sekulan kondena
 Jesusen plazan dena,
 Aitetan hoberena,
 Har bailezake pena!

O zer Aita Saindua!
 Iduri Ainguerua!

Osoki da khartsua,
 Berthutez dohatua!

O Gidari saindua,
 Eliza-sustengua,
 Izan bedi mundua
 Zutaz gobernatua!

Bizi zaite luzaki
 Lur-gainean uruski,
 Gero izan hobeki
 Zeruetan goraki!

Horra zer nuen lehen phartean erraitëko.
 Adio Erroma, hiri ederra, hiri eternala, bertze
 hiri guzien artean lehena, adio!

Ene biziko gozorik handienetarik duk izanen
 hitaz orhoitzea, adio!

BIGARREN PHARTEA



PALEZTINA EDO LEKHU SAINDJAK



LEHEN KAPITULUA



ELIAS PROFETA ETA AMA BIRJINA.
KARMELGO MENDIA.
ELIAS ETA PROFETA FALTSUAK.

Elias profeta eta Ama Birjina

Sarthu ginen beraz berriz untzian eta sei, zazpi egunen buruan, ikhusi ginuen Paleztina : Lekhu sailduetan ginen, Jesus Jainko-Gizonak bere presentziaz santifikatu zituen lekhuetan. Gure lehen egitekoa izan zen lur sakratu hari musu emaita, eta gero igan ginen Karmelgo mendirat.

Mendi hartan bizi izan zen Elias profeta; han ikhusten da oraino haren egon-lekhua harroka barnean. Mendi hartan zelarik, ikhusi zuen profeta horrek igaiten itsasotik hedoi misterios bat, eta Izpiritu sailduak ezagutarazi zion hedoi harrek seinalatzen zuela Ama Birjina, ondoko demboretan agertu behar zen Salbatzailearen Ama. Elias profetak, bai harekin edo geroago Kar-

melgo mendian bizi izan diren Karmek bethi debozione handi bat izan dute Ama Birjinaren alderat, eta beren lur-zilhoetarik biltzen ziren kapera batetarat, han khantatzeko Mariaren laudorioak.

Karmelgo mendia

Karmelgo mendia guziz ederra da; ez da hanitz gora, bainan baditu sei oren bide, luzean. Eliasen grotta edo egon-zilhotik beherago, ikhusten da harroken artean barne handi bat, zoinetarat biltzen baitziren profeta gazteagokoak, Elias profetaren erranez baliatzeko, eta haren erakuspunen medioz Eskritura Saindua hobekiago komprenitzeko. Oraino han, tradizioneer arabera, phausatu ziren Jesus Maria eta Josepe, Fjiptotik itzultzean; beherago eta hanitz urrun, khausitzen da Eliasen ithurria. Ithurri hura ikhusi ondoan, itzuli ginen Karmelgo Frantchichkanoen komenturat, chuchenka, eta ez errebelatzeko lanjerik gabe. Akhituak, lo egi terat ginohazin, choriak multzoka zabiltsan demboran, hek ere, gabazko tokia nahiz arbola aphan batzuen adarretan, enseatuz chori hek guziak ahalaz lekhu onaren hartzerat; hortik heien arteko gerla, eta harrabotsa.

Uste baino lasterrago, eta sobera errebelatu gabe, itzuli ginen gure komenturat, eta afaldu ondoan, gogo onez etzan ginen gure ohetan, bai-

kinuen ongi phausatzearen beharra. Biharamu-
nean, kaperatik athera eta, juan ginen zerbait
sokorriren hartzerat, eta bakhotcha igan zen
chorteak eman zion zaldiaren edo beharri lu-
zearen gainerat. Karmelgo hegal bat jautsi gi-
nuen eta bide zelhai bati lothu ginen. Aski laster
khausitu ginuen Cisoneko hibaia.

Elias eta profeta faltsuak

Lehenago Elias profetaren demboretan, Ciso-
neko ur horri behera aurdikiak izan ziren Baalen
profeta faltsuak : huna ichtorioa :

Eliasek ikhusiz nola profeta horiek engana-
tzen zuten populua eta Jainko egiazkoaren zer-
bitzatzetik gibelatzen, egin zuen desafio saindu
bat. Erran zuen emaitiaz Baalen profeter eta hari
bi idi; profeta hek hauta zezatela beren idia, eta
pusketan phikaturik, ezar zezaten egurren gai-
nean, bainan surik ez emaiteko; harrek ere
gauza bere eginen zuela bere idiari. Oihu egin
zezatela hek beren Jainkoer, harrek bereari, eta
zoinaren idiaren gainerat jausten baitzen zeruko
sua, mirakulo hori egiten zuen Jainkoa izanen
zela bakharrik Jainko. Populuak ihardetsi zuen
arras ongi errana zela.

Horra non hasten diren oihuz Baal jainko fal-
tsuari hunen profetak; han ari ziren goizetik
hasirik eguerdi artino Baali : «Baal, entzun gai-
tzatzu;» bainan Baal ichilik zagon. Eliasek errai-

ten diote : « Oihu egin azue azkarkiago; ezen Jainkoa da, eta behar bada solasean dago, edo ostatuan da, edo bidean, edo segur lo dago; iratzar araz zazue. » Eta propheta faltsu hauk ari ziren oihuka Baali; jauzian bazohatzin gainez idiaren alde batetarik bertze alderat, eta beren kanibetez eta lantzetez beren burua kolpatzen zuten eta guzia odoletan eta sarraskitan emaiten, bainan alferretan. Egundaino bizirik izan ez duen Baal jainko faltsua bethi ichilik zagon. Orduan zen Eliasen aldia; hasten da eguerdi gainean Jainkoari othoitz egiten, eta ordu berean jausten da zerutik su bat eta eztiki erretzen du Eliasen biktima edo idia. Mirakulu hortaz, ezagutarazten zuen Eliasen Jainkoak hura zela beraz Jainko egiazkoa, populuak adoratu eta zerbitzatu behar zuena, eta populuak hura hartu zuen bere Jainkotzat. Baalen profetez bezenbatean, Eliasek hararazi zituen jende-enganatzaille horiek guziak, bihirik utzi gabe; hil zituen eta botatu oinetan ginuen Cisoneko hibaia behera. Handik aitzina juan ginen, eta egun gehiena bidean eman ondoan, azkenekotz heldu ginen Nazaretherat.

BIGARREN KAPITULUA

NAZARETH — THABORREKO MENDIA

Nazareth

Nazaretheko jendea multzoka jina zen, bere erretora eta bikarioa aitzinean, gure ikhusterat, guri ongi ethorri egiterat; eta heientzat phesta zen gu han izaitea. Ondoko egunetan ere beren khantu frantsesez, ilhuntzetan phizten zituzten suez, eta adiarazten zituzten tiroez frogatzen zaukuten bihotzez frantsesak zirela. Nazareth zen guretzat lekhu guziz maitea. Han bizi izan ziren urthe luzez Jesus, Maria eta Josepe. Han zen heien laneko tokia, nahiz urrunchago ere bazen laneko bertze barne bat, zoinetan laster ezarriko baitute Jesusen potreta izen bunekin : *Jesus langilea*. Jesus, Maria eta Josepe bizi ziren lekhuari, bi egoitza baziren : bat, hargin lanaz eginga, bertzea lurpean, harroka zilhoan barne batzuekin. Etche bera egiten zuten bi pharte horiek.

Lur-barneko egoitza hortan zen Ama Birjina Gabriel aingerua agertu zitzaionean. Aingerua harginek egin etche-pharte hortarik mintzatu zitzaion Andre-dena-Mariari, huni erranez nola Jainkoaren nahia zen Verbo eternalaren Ama bilhaka zadin; eta etchearen lurpeko aldetik ihardetsiz Mariak, erran zion Aingeruari : « Huna

Jaunaren Neskatoa; egin bekit zure hitzaren arabera »; eta ordu berean, lur chokho, lekhu umil hortan, Jainkoaren Semea gizon egin zen Ama Birjinaren errai sakratuetan.

Erran dut meza bat Aingerua mintzatu zen hargin-etchearen lekhuari, zoina mirakulu handi batez eremana izan baita Nazarethetik Italia Loretarat, etsaiez profanatu izaita irriskatzen zuen demboran; erran ere ditut bi meza lurpeko harrokazko egoitzan, bat Ama Birjinaren aldarean, *baia* Aingeruari eman zion lekhuari, eta bertze meza san Joseperen aldarean, zoina baita Ama Birjinaren aldarearen gibelean, bi aldare horiek murru bat bezala egiten dutela, lur-barneko zolan den egoitzatik bi barne formatuz. Han berean dira harrizko eskaler gora batzu, zoinetan gairdi ardura igan edo jautsi baitira Jesus, Maria, eta Josepe; handik zen kamporat jaltzeko bortha edo atea. O etche maitea, ez haut ahantziko! O Jesus umila, lekhu apha horitarat zeru goratik jautsi nahi izan zarena, maithatuko dugu umiltasuna!

Etche saindu hortarik gorachago juan eta, khausitzen da san Joseperen laneko bertze botiga, bai eta ere ithurri bat Ama Birjinaren ithurria izena duena. Haratchago ikhusten da oraino harri handi biribil bat, mahaintzat balia daitekena; eta errana da Jesusek, biletarik phiztu ondoan, bere apostoluekin jan zuela harrizko mahain haren gainean.

Nazarethgo hiritik haratago ikhusten da zentherna, zoinetan behera Nazarethdarrek nahi izan baitzuten botatu Jesus. Ama Birjinak entzuen baitzuen zer egiterat zohazin Jesus Jaunari, juan zen ahal bezen laster lekhu gora batetarat, handik ikhusteko zer gerthatuko zen haren Seme hartan harritua maiteari. Ama maite hori lekhu egon zelakoan, han egina den kaperari emaiten da izena : « Ama Birjinaren izialdurako kaperara. » Bainan ez baitzen oraino Jesusentzat jina hiltzeko orena, lauher hari eskapatu zen.

Nahi nintake oraino luzaz mintzatu Nazarethen gainean, bainan hainbertze gauza erraiteko baitut, aski izanen zaut hemen irakurtzalearen begien aitzinean ezartzea segidako khantika hau Nazarethgo Familia Sainduaren orhoitzapenetan, ene chedea delarik bereziki ohoratzea san Josepe, zoina izan baita familia saindu horren Buzzagitzat hautatua, nahiz Jesus eta Maria hura baino gehiago ziren.

Huna khantika hori :

ERREPIKA :

Ohore san Joseperi,
Patroin botheretsuari.

Josep da Mariaren
Espos sakratua,
Eta Jesus Jaunaren
Aitatzat hartua.

Hori da ohorea
San Joseperentzat
Maria izaitea
Ber' Espos laguntzat!

Etzarea, errazu,
 Zu dohatsuena?
 Besoetan daukazu
 Zure Jainko Jauna!
 Josep Buruzagiak
 Zioten manatzen;
 Ama-Semeak, biak,
 Zaizkon sumetitzen!
 Familia saildua
 Hek zuten egiten;
 Lur-gainean zerua
 Zen hantchet ikhusten!
 San Josepe penatuz
 Lanetik zen bizi;
 Guri du ber' etsempluz
 Lana maitharazi.
 Zu zinen umil, ezti,
 Obedient, justu;
 Nahi zaitugu bethi
 Guk zu imitatu.
 Gazteak du zu baithan
 Ikhusten modela,
 Gogoz, hitzez, obretan
 Garbi behar dela.
 Zu zare Aita-Amen
 Mirail sakratua,
 Bai eta familien
 Zare sustengua.

Zaharrak du zu baithan
 Bere esperantza
 Nahi du zur' eskutan
 Eman azken hatsa.
 Adin guzietako
 Zare etsemplua,
 Gure salbarazteko
 Jaunak hautatua.
 Emaguzu gostua
 Othoitzarendako;
 Hura gabe zerua
 Ez da guretako.
 Gure urhats guziak
 Bethi gida zaitzu;
 Jainkoaren nahiak
 Gutan komplizkitzu.
 Oi! ikhusten gaitutzu
 Lanjeren artean!
 Othoi, lagun gaitzatzu
 Bizian, hilean!
 Mundupean gareno
 Orhoit zaite gutaz,
 Zerurat hel artino,
 Gu azkar othoitzaz!
 Ostikatzen mundua
 Erakutsaguzu,
 Gure salbamendua
 Zuk ardietsazu.

Heriotze onaren
 Patroin indartsua,
 Dugun azken hatsaren
 Ondotik zerua!

Thaborreko mendia

Nazarethetik juan ginen Thaborreko mendirat; hiru orenen bidea zen, eta askotan zer bideak! Badirela diote mendi hartan alimale lanjerosak: sugeak, basa-urdeak, eta bertze holako: guk ez ginuen deusik ikhusi. Mendi hori guziz ederra da, Galileako ederrena, Hermoneko mendiarekin.

Inguruko mendichketarik hasi gabe, bertze, gehien mendiak bezala, bera hasten da zolazolatik, biribil-biribila abantzu gaineraino; ezen gainera heltzearekin, zelhai-zelhaia da. Hamar pilotarientzat luzean edo lachoan artzeko lekhua balaiteke garbitua balitz pochi bat gain hura. Han, dio tradizioeak, Jesus othoitzean zagolarik, loriaz inguratua ikhusia izan zen. Haren begithartea distirant bilhakatu zen iguzkia bezala eta haren soinekoak churi elhurra bezala.

Berekin zituen Mois eta Elias, eta mintzo ziren elgarrekin Jesusen pasioneaz. Jesusek ereman baitzituen mendi hartarat Piarres, Joani eta Jakobe, Jondoni Petrik erran zion Salbatzaileari: « Jauna, on da gu hemen izaitea; nahi baduzu, egin ditzagun hemen hiru etchola: zuretzat bat, Moientzat bat, eta Eliasantzat bat. » Hola mintzo zelarik Jondoni Petri, hedoi argi batek hartu zituen; eta huna boz bat hedoietik, zioena: « Hau da ene Seme maitea, zoinetan niri ongi lakhet baitzaut. »

Ah! ichtant bat zeruko loriaren kantail bat bezala Thaborreko mendirat erori zelakoan, halako gozoa balinbazen han egoitea, zer izanen da zeruko gure egoitza, Jainkoaren lorian khausituko garenean atsegin saindu guzien erdian! Nola behar gintazken bizi halako gisaz non merzituko ahal baiditugu aditzea hitz kontsolagarri haukiek : ongi, zerbitzari on eta fidela; zeren eta gauza gutietan izan baitzira fidela, gauza hanitzen buruzagi ezarriko zaitut; sar zaite zure Jaunaren bozkarioan.

Thaborreko menditik, bichta bat bada guziz ederra. Lekhu sainduen zathi edo pharte handi bat ageri da : handik ikhusten da Galileako itsasoa, Mediterraneko itsasoa, Jurdaneko ur handia, Hermoneko mendi gora, bethi gaina elhurrean daukana; ageri ere dira Samariako mendiak eta asko herri.

Thaborreko mendian lehen izan dira elizak, Fraiden komentuak, murru gorak; orai denak aurthikiak dira etsaiez edo berak eroriak.

Chizmatikoek badute berriki egina eliza bat, Frantchichkanoek kapera bat; bainan azken haukiek egin gogo dute eliza handi bat Jesus loriaz inguratua mendi hartan agertu zen lekhuaren berean.

HIRUGARREN KAPITULUA

ARRAINTZA ESPANTAGARRIA.
JONDONI PETRI AITA SAINDU EGINA.
KAFARNAUMEN HIRIA.**Arraintza espantagarria.**

Thaborreko mendiaz ongi gozatu ondoan, bazkaldu eta, jautsi ginen mendia behera; ez baitzen errech.

Behar ginen jua Tiberiadera : sei lekho bide baginuen egiteko, jadanik hiru oren bidean ibiliak. Goizean Nazarethetik abiatuak, ilhun-aitzineko choilki heltzen ginen Tiberiadera, akhituak, lehertuak eta oraino prosésionean sarthu behar hiri hortan elizaraino!

Eliza hori egin da Jesusek Jondoni Petri Aita Saindu egin zuen tokian : huna nola izan zen Jondoni Petri Aita Saindu egin.

Han berean den Galileako itsas-hegian zagon goiz batez Jesus, jadanik hiletarik phiztua. Jondoni Petri. Jondoni Joani, San Thomas eta bertze zombait dizipulu arrainzarat juanak ziren Galileako itsaso hartarat. Jesusek erran zioten : « Haurrak, ez duzue deusik jateko? » — Ihardetsi zioten ezetz. Orduan, erran zioten aurthikitzeaz eskuineko alderat sarea.

Aurthiki zuten eta khausitu zituzten betbetan ehun eta berrogoi eta hamahiru arrain handi. Aphairu bat egin zuen Jesusek han ur hegian dizipuluekin.

Jondoni Petri Aita Saindu egina

Jan zutenean, Jesusek erran zion Petriri : « Maite nuk haukiek baino gehiago? » Ihardesten dio Petrik : « Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. » Jesusek erraiten dio : « Alha zaik ene bildotsak. » Berriz erraiten dio Jesusek Petriri : « Maite nuk? » Eta harrek ihardesten dio : « Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala. » Orduan ere erraten dio Jesusek : « Alha zaik ene bildotsak. » Hirugarren aldiko erraiten dio Jondoni Petriri : « Maite nuk? » Trichtatu zen Petri, erran ziolakotz hirugarren aldiko : « Maite nuk? » eta erran zion : « Jauna, gauza guziez jakintsun zare; badakizu maite zaitudala. » Jesusek erran zion : « Alha zaik ene ardiak. »

Bildotsek erran nahi zuten aphezak eta bertze girichtinoak; ardiek erran nahi zuten Apostoluak, eta Apüezpikuak : guzien phazkatzeaz, eta gidatzeaz kargatua da Jondoni Petri, bai Elizako aitzindariak, gorenak berak, bai herronka apha-lagokoan diren fededunak; erran nahi baita Jondoni Petri Aita Saindu establitua izan zela Jesusen hitz horietaz. Tiberiade, Galileako itsas-hegian da; lakhet zaion Jesusi itsaso horren

inguruetan izaitea : hanitz mila arima han khau-
sitzen zituen arthatzeko : hamabortz hiri baziren
itsaso haren inguruan, eta bazohan Artzain on
hori ardi errebelatuen ondotik ; bere egoitza
bizkitartean Kafarnaum deitzen zen hirian egi-
ten zuen maiz, Jondoni Petriren etchean.

Kafarnaumeko hiria.

Kafarnaumeko hiri hortan populua hamabortz,
hogoi miletaraino bazohan. khondatu gabe ha-
nitz bazter-herrietako jende, bai eta urrunekoak
berak, heldu zirenak hiri hortarat beren tratuen
egiterat. Jesusek predikatzen zuen bai zinago-
getan, bai zinagogezen kampo Juduen eta paganoen
aitzinean ; eta harat heldu ziren jende estranje-
rek, beren herrietarat itzultzean, ezagutaraz
zezaketen Kafarnaumen, Jesusen ahotik aditu
erakuspen ederrak. Etzuen bertzerik bilhatzen
Salbatzaile maite horrek. Ardura mirakuluez
frogatzen zuen erakusten zuen doktrina egia
zela. Bertze asko mirakulu, hiri hartan egin
dituenen artean, huna zombait, hemen ekharriko
ditudanak laburzki, segidako kapituluan.

LAUGARREN KAPITULUA

PARALITIKOA SENDATUA. — SOLDADO AITZINDARIAREN ZERBITZARIA SENDATUA. — EMAZTEKI BAT SUKHARRETIK SENDATUA. BERTZE ASKO SENDATZE. — ARRAINAREN AHOAN DIRU PHEZA KHAUSITUA.

Paralitikoa sendatua

Aldi batez, Jesus predikatzen ari zelarik etche batean, ekharri zioten aitzinerat gizon bat paralesiaz hartua, eta ez baitzezaketen bertzela aitzinerat Jesusi eman, teilak aldaraturik, etche gaineratik jauts arazi zuten embaitu hori bere ohearekin Jesusen ganaino. Jesusek ikhusi zuenean heien sinheste handia, erran zion eritari : « Ene haurra, barkhatuak zaik hire bekhatuak. » Han zirenetarik zombaitek zioten beren baithan Jesus hola nola mintza zaiteken; blasfemio erraiten zuela; nork barkha zetzaken bekhatuak Jainkoak baizik? Jesusek nahi izan zuen heier frogatu etzuela blasfematzen, baina Jainko zela eta bazuela beraz ahala bekhatuen barkhatzeko; eta bekhatuak eritari barkhatu zituela ezagutarazteko, erran zion gizon embaitu horri : « Erraiten deat : altcha hadi, eremak hire ohea eta habil hire etcherat. » Eta berehala altchaturik, ereman

zuen ohea guzien bichtan. Oro harritu ziren eta ohoratzen zuten Jainkoa, erranez : « Egundaino ez dugu holakorik ikusi! »

Soldado aitzindariaren zerbitzaria sendatua

Kafarnaumeko hiri berean zelarik, soldado aitzindari bat hurbildu zitzaion Jesusi erranez bazuela sehi bat etchean hanitz eria. Jesusek erran zion : « Etborriko naiz eta sendatuko dut. » Bainan ihardetsi zion aitzindariak : « Jauna, ez naiz digne ene atherbean sar zaiten, bainan bakharririk errazu hitzez, eta sendatua izanen da ene sehia. » Oraino bertze asko elhe erran zituen aitzindari horrek ezagutarazten zutenak haren fede eta umilitatea. Jesusek, guzien aitzinean miretsi zituen fede handi hori eta aphaltune hori, eta erran zion aitzindari horri : « Zohaz, eta sinhetsi duzun bezala egin bekizu; » eta sendatu izan zen sehi hori ordu berean.

Emazteki bat sukharretik sendatua — Bertze asko sendatze

Kafarnaumeko hirian oraino sendatu zuen sukhar handi bätetarik Joudoni Petriren amaginarreba, eta emazte hura jaikirik, eman zen mahainaren zerbitzatzen. Bada, iguzkia etzan zenean, eririkzuten guziek, asko eritasunez hartuak ekhartzen zaizkoten Jesusi, eta Jesus onak bakhotchari eskuak gainean ezarriz, sendatzen zituen oro. Hanitzen ganik ere atheratzen ziren

izpiritu gaichtoak oihuka eta erranez : « Zu zira Jainkoaren Semea. » Bainan Jesusek larderiutzen zituen izpiritu gaichto horiek eta etzituen uzten erraiterat bazakitela hura zela Kristo.

Arrainaren ahoan diru pheza khausitua

Jesus Kafarnaumeko hiri hortan zen batez, gizon batzu jin zaizkon Jondoni Petriri erraiterat ea etzuenetz Jesusek pagatzen zerga suerte didrachma izena zuen bat. « Bai, » zuen ihardetsi Apostolu horrek; eta etchean sarthu zenean, aitzindu zaion Jesus, erranez : « Zer zaik, Simon, lurreko erregeek noren ganik hartzen ohi ditek zerga? Beren haurretarik ala atzetarik? » Eta ihardetsi zion : « Atzetarik. » Erran zion Jesusek : « Beraz ez ditek zor hurrek? Bainan amorea gatik eta, ez ditzagun eskandalisa, habil itsasorat, eta aurthikak amua; eta lehenik jiten den arraina athera zak, eta hari ahoa ideki eta, aurkhituko duk estater bat; hura harturik, emotek enetzat eta hiretzat. » Jesus Jauna ongi segur behar zen izan, Jainko behar zen izan hola mintza ahal izaiteko Jondoni Petriri eta hura itsasorat igortzeko arraintza mirakuluzko horren egiterat, erranez zer gerthatuko zen.

Estatera diru pheza bat zen, zoinarekin pagatu baitzuen Jondoni Petrik galdata zitzaien zerga suerte.

BORTZGARREN KAPITULUA

JESUSEN MEHATCHUAK — JESUSEN HITZ
EZTIAK

Jesusen mehatchuak

Aiphatu ditugun mirakulu horiek ikhusirik ere, Kafarnaumgo jendeak etziren on bilhakatu. Jesusek madarikatu behar izan zuen hiri hori, bertze bi hiriekin, zoinak baitira Korozaïn eta Bethsaïda, hek ere itsaso beraren hegikoak; beraz bere kolera sainduan Salbatzailea hasi zen erreportchuen egiten hirier, zoinetan haren hainbertze botherezko ikhusgarri eginak izan baitziren, eta hala ere etzutelakoan egin penitentzia : « Zorigaitz hiri, Korozaïn; zorigaitz hiri, Bethsaïda, zeren eta Tyren eta Sidonen eginak izan balire zuetan eginak izan diren botherezko ikhusgarriak, aspaldian zurdatzan eta hautsean penitentzia egina izanen baitzuten ! » Hargatik erraiten derautzuet : Tyri eta Sidoni eztikiago egina izanen zaiotek juiamenduko egunean zuer baino. « Eta hi Kafarnaum, zeruraino altchatuko othe haiz? Ifernuraino jautsiko haiz; zeren eta Sodomán eginak izan balire hitan eginak izan diren botherezko ikhusgarriak, menturaz iraunen baitzuen egun huntaraino. » Hargatik erraiten derau-

tzuet Sodomako lurrari eztikiago egina izanen zaiola juiamenduko egunean hiri baino!

Jesusen hitz eztiak

Orduan, Jesusek erran zuen : « Laudoriozko eskerrak bihurtzen daizkitzut, Aita, zeru-lurren Jauna, zeren gorde baiditutzu gauza horiek jakiner eta zuhurrer, eta agertu baiditutzu ttipier. Bai, Aita, ezen hola izan da onhetsia zure aitzi-nean. Gauza guziak niri emanak zait ene Aitaz. Eta nehork ez du ezagutzen Semea Aitak baizik, ez eta ere Aita nehork ez du ezagutzen Semeak baizik, eta nori ere Semeak nahiko baitu erakutsi.

« Zatozte ene ganat penatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik soleituko zaituztet. Har azue ene uztarria zuen soinerat, eta ikhas azue ni ganik ezti eta umil naizela bihotzez, eta aurkhituko duzue sosegua zuen arimentzat. Ezen, ene uztarria ezti da, eta ene karga arina. »

Mundu huni estekatuak bizi ziren bekhatorosak madarikatu ondoan, Jesus Jaunak bere bihotzeko dolorea ezitzen zuen orhoituz bazirela hanitzak haren erakuspenez baliatuko zirenak; heien artean bazen asko, pobre bezen umil zirenak; bertze batzu baziren aberatsak eta bizkitartean, hek ere, umilak, hala nola Maria Magdalena, zoina Galileako itsasoaren inguruan den hiri batetakoa baitzen; hiri harren izena zen

Magdala, eta hortik Maria deithua zen *Madalena* ; geroko demboretan ere izanen ziren pobreak eta aberatsak Jesus Jauna segituko zutenak eta jua- nen ere zombait Jesus bizi izan den lekhu heteraino : hala nola san Frantses Asiskoa, santa Brijita erregina, san Luis Frantziako erregea, eta bertze asko, amodiorekin ibili direnak Jainko- Gizonak bere presentziaz santifikatu dituen lekhu hetan : hek eta heien idurikoak izan bebar ziren girichtino onek soleitzen zuten Jesusen bihotza, hek benedikatzen zituen Jesusek : heier erraiten zuen amodiorekin har zezaten beren gainera haren legeko uztarri ezta.



SEIGARREN KAPITULUA

GALILEAKO ITSASOA. — TIBERIADE
INGURUEKIN ASKO MIRAKULU.

Galileako itsasoaren inguruan ikhusten ziren Jesuzen demboran bertze asko hiri, santa Maria Madalena zagon hiriaz bertzalde; guziak ezeztatuak dira Tiberiade salbu.

Salbatzaleaz madarikatuak izan ziren; eta Jainkoak madarikatzen duena, nork benedikatuko du? Tiberiade da choilki beraz hainbertze hiri hain ederrak zirenen artean oraino ikhusten dena; baina hiri hori ere kaskaildua, lur ikharak non nahi khordokatua; hanitz murru zathi eroriak, hiria bera zikhina, Juduez bereziki betha; badira bizkitartean hiri hortan hiru ehun eta hiruretan hogoi katoliko. Hiri hits hartaz baino gehiago lilluratuak ziren gure begiak han berean ikhusten ginuen Galileako edo Tiberiadeko itsasoaz; ttipia da itsaso hori, baina munduko itsasorik handiena baino miragarriagoa da han gerthatu diren mirakuluen gatik.

Mirakuluzko arraintza aberatsa

Jadanik khondatu dudan arraintza mirakuluzkoaz bertze alde, huna bertze arraintza bat, ez guti mirestekoa; Jesus itsas-hegian zagon, jende

oste batez inguratua; bainan ikhusiz etzela lekhurik aski mundu harri errechki predikatzeko, igan zen Jondoni Petriren untzirat, huni erranez ur-hegitik barnachago ereman araztea untzia; eta orduan, jarririk untzian, eman zen predikatzeten jende oste handi harri. Bere erakuspen ederrak predikatu ondoan, erran zion Petriri : « Eremak itsas-betherat eta aurthik zatzue zuen sareak arrain hatzematoko. » Ihardetsi zion Petrik, erranez : « Nagusia, gau guzia nekhatu ondoan, deusik ez dugu hatzeman; bainan zure erranaren gainean, hedatuko dut sarea. »

Petriren obedientzia izan zen saristatua; gau guzian egin etzutena, mement batez egin zuten; ezen sarea botatu orduko, bildu zuten hain bertze arrain non zartatzen baitzaioten sarea; eta kheinu egin behar izan zuten bigarren untzi batetako lagunere heien ekhar arazteko sokhorri emaiterat.

Ethorri ziren, bainan bazen heien guzien beharra; hain arraintza handia egin zuten non bi untziak bethe baitzituzten hegiraino, ur-zolarat hondatzeko heinean. Mirakulu horren bichtan, erori zen Petri ahuspez Jesus Jaunaren oinetara, erraiten ziola : « Zohaz ni ganik, zeren gizon bekhatoros bat bainaiz, Jauna ! » Ezen, izialdura handi batek joa zen bera, bai eta harekin ziren guziak ere mirakuluzko arraintza horren gatik. Jondoni Jakobe eta Jondoni Joani bi anaiak izituak zauden, hek ere. Jesusek erran zion Petriri :

« Ez izi ; hemendik aitzina gizon-hatzemaile izanen haiz. » Ordu berean untziak leihorrerat hurbiltzearekin, oro utzirik jarraiki zitzaizkon Jesusi. Huna Galileako itsaso berean gerthatu bertze mirakulu espantagarri batzu, zoinetaz frogatzen baitzuen Salbatzale eztiak bere Jainkotasuna.

Tempesta apazegatua

Jesus Galileako itsasoan zelarik untzi batean, itsaso hori handitu zen, borthiztu, eta lanjerostu. Untzi hori azkarki uhinez joa zen eta gainditua ; bizkitartean, Jesus lo zagon. Eta hurbildu zaizkon dizipuluak eta iratzararazi zuten erranez : « Jau-na, salba gaitzatzu ; galtzen ari gira ! »

Eta Jesusek erran zioten : « Zertako izitzen zarete, fede ttipikoak ? » Eta bere Jainkozko ahalean manatu zuen jaikirik haizer eta itsasoari, eta egina izan zen jabaldura handi bat. Oro harritu ziren mirakulu horren aitzinean eta zioten : « Zerika da hau, haizeek eta itsasoak obeditzen baitiote ! »

Jondoni Petri urgainean ibilki

Gau batez, Jondoni Petriren eta dizipuluen untzia uhinek joa eta zebatua zerabilaten itsasbethean ; ezen haizea kontra zen. Horra non Jesus ethortzen zaioten, oinez zabilala itsasoaren gainean. Eta ikhusiz Jesus itsasoaren gainean ibilki, asaldata ziren eta erran zuten : « Mamua da ! » eta beren izialduran, hasi ziren oihuz. Ordu

berean Jesus mintzatu zitzaioten, erranez : « Zaudete gogoan onik : ni naiz, ez izi. » Petrik errau zion berehala : « Jauna, zu bazare, mana zazu ni zu ganat jin nadin uren gainean. » Jesusek erran zion : « Haugi. Salto egin zuen Petrik untzitik, eta, o mirakulua ! bazabilan uraren gainean Jesus ganat juaiteko ; baina ikhusiz haizea azkarra zela, izitu zen, eta urean sartzen hasi baitzen, oihu egin zuen Jesusi : « Jauna, salba nezazu ! » Eta berehala Jesus, eskua hedatuz, lothu zitzaion erranez : « Sinheste ttipikoa, zertako dudatu duk ? » Eta igan zenean untzirat, gelditu zen haizea. Untzian zirenak aldiz jin zaizkon Jesusi eta hura adoratu zuten, ziotela : « Egiazki Jainkoaren Semea zare. » Eta uraren bertze alderat iraganik, heldu ziren Jenesargo lurrera. Ezagutu zutenean toki hartako gizonak Jesus han zela, berri on hori adiarazi zuten inguru hetako herrietan, eta eri ziren guziak ekharri zaizkoten aitzinerat, eta othoizten zuten Salbatzalea hek uzteaz bederen hunkitzera haren beztimendaren hegia, eta hunkitzen zuten guziak sendatuak izan ziren. Horra nola ari zen Jesus ongi egiten.

San Mathiu kombertitua

Galileako itsaso horren hegian, ikhusi zuen egun batez Salbatzaileak gizon bat Mathiu izena zuena, mahainean jarria ; zerga diru biltzen hari zen. Eta erran zion Jesusek : « Jarraik zakizkit. »

Eta berehala, graziaren bozari obedituz, jarriki zitzaion. Bere orhoitzapenaren erakusteko, eman zion Jesusi bazkari bat, eta jaten ari zirelarik, horra non zauden farisau batzu beha eta zioten Jesusen dizipuluer : « Zertako publikanoekin eta bekhatorosekin jaten du zuen Nausiak ? » Bainan Jesusek hori aditurik, erran zioten : « Ez dute sendoek midiku beharrik, bainan bai eriek. Zohazte beraz eta ikhas azue zer den : miserikordia nahi dut, eta ez sakrifizioa. Ezen, ez naiz ethorri justuen deitzera, bainan bai bekhatorosen. » Horra Jesus zoin zen ona. Ez dago ez, Jesus bekhatoros heien erdian, heien bizi-modua maitez; bainan bai hek nahiz athera arazi beren bide hain makhurretarik; konfidantza emaiten diote, nahi badute, barkhatuko diotela, itzul dittezela beraz Jainkoa ganat. San Mathiu osoki itzuli zēn bere Kreatzaile eta Salbatzailearen ganat, eta bilhakatu Apostolu eta Ebanjelista. Guazin gu ere Jesus onaren ganat eta bihotz guziz barkhatuko dauku.

Horra bertze asko gauzen artean, zer egin duen gure Salbatzaleak Galileako itsasoan eta ingurunetan.

Galileako itsaso maiteari azken behako bat!

Itsaso hori guziz arraintsu da. Itsaso hortan harrapatu arrainak eman zituzten arats batez mahainean afariteko gu han gaindi ginen dem-

boran. Gutarik askok mainhu osoa hartu zuten itsaso hortan; niri erran zautaten ez mainhu osoa hartzeko, bertzenaz ere dembora etzen be-roegia, eta aski behar izan zautan ene zangoen-tzat mainhu erdi bat hartzea. Jastatu nuen aldi bat baino gehiago ur hartarik eta edan daiteke; ezen, ez da gazia, bertze itsasoetako urak bezala. Zombait urhatsetan, gorachago ikhusten ginuen mainhu bero hartzeko etche bat, eta handik itsa-sora johan zen ura nahi izan nuen ikhusi zem-batetaraino beroa zen; nik uste baino beroago khausitu nuen. Jurdaneko ur handiak Galileako itsaso hori alderen alde chuchenean iragaiten edo phasatzen du, bere urak nahastekatu gabe, eta atchikiz bere kolorea eta freskura. O! zoin lakhet zaukun ibiltzea itsaso horren hegian, orhoituz zombat eta zombat aldiz ibiltzen zen Jesus itsaso horren beraren inguruan, han ziren hama-bortz bat hiri bere presentziaz santifikatuz. Jali ginenean Tiberiadeko hiritik, abiatu ginen mendichka, batzu gora; bainan zer amodiorekin, gibelerat itzuliz, behatzen ginuen artetan, sekulan gehiago ikhusiko ez ginuen itsaso maiteari!

ZAZPIGARREN KAPITULUA

LAU MILA ETA GEHIAGO JENDE ASEAK
MIRAKULUZKI

Mendi-bide beltz, harritsu bat segituz, heldu ginen Jesusék mirakulu handi bat egin zuen lekhura : huna ichtorioa : Egun batez, ethorri zen Jesus Galileako itsaz aldera, eta hurbilean ikhusten den mendi baterat igan zen eta han zagon jarririk; eta horra non ethortzen edo jiten zaizkon jende oste haudi batzu berekin ekhartzen zituztela mutuak, itsuak, mainguak, flakoak eta bertze asko, eta hek guziak ezarri zaizkoten oinetan, sendatuak izaiteko, eta Jesus onak oro sendatu zituen.

Jende oste hek guziak han zauden espantituak, ikhusiz mutuak mintzo zirela, mainguak chuchen zabilzala; itsuek ikhusten zutela, eta laudatzen, handiesten zuten Israelgo Jainkoa. Salbatzaileak sendatu zituen eriak, bainan etzituen ahanzten sendoak. Jesusék beraz bere dizipuluak deithurik, erran zioten : Urrikaltzen natzaio populu huni, zeren hiru egun hautan enekin baitaude, eta ez dute zer jan, eta ez ditut barurik igorri nahi, beldurrez eta ahuldurak aurthik detzan bidean. Eta erraiten diote dizipuluek : Nondik bada ginuke desertuan aski ogi, asetzeko

holako jende oste handia? Eta erraiten diote Jesusek: Zombat ogi ditutzue? Eta erran zioten: Zazpi, eta arrain ttipi zombait bakhar. Eta manatu zuen populuari jar zitezzen lurraren gainean.

Eta hartuz zazpi ogiak eta arrain bakhar hek, eskerrak bihurtuz, hautsi zituen eta eman ziotzaten bere dizipuluer, eta dizipuluek eman ziozkaten populuari, eta jan zuten guziek eta ase ziren, eta gelditu ziren pusketarik, ereman zituzten gibelerrat zazpi saskitara betheak. Baziren bada jan izan zutenak lau mila gizon, haur chehez eta emaztekiez kampo. Eta Jesusek igorri zituen jende oste horiek beren etchetarat. Hori zen hori mirakulua! Lau mila gizon asetzen ditu gainerako emazteki eta haur chehe guziekin, zoinak bethi bilkhura guzietan ikhusten baitira nombre handian. Eta Jesusek zertaz asetzen ditu jende horiek guziak? Zazpi ogiz eta zombait arrain ttipiz, eta arrain hek iduri guzien arabera han begien aitzinean zen Galileako itsasoan khausituak ziren. Ehun gizonek ausarki jan letzazkete zazpi ogi; hemen badira berrogoi aldiz ehun gizon, menturaz hainbertze edo gehiago haur eta emazte, eta guziak ase dira; zer mirakulua! Baina huna bertze mirakulua ez ttipiagokoa edo chumeagokoa: goithietarik bethetzen dira zazpi saski, erran nahi baita jaten hastean baino ogi gehiago gelditu zela. Horiek ez badira mirakuluak, erradazuet zer den beraz mirakulua. Bai,

Jesus maitea, zuk baxharrik dakizu holako mirakuluen egiten : hola frogatu dankuzu ona zinela eta Jainko zinela ! Eta egungo egunean oraino mirakulu berak egiten ditutzu, mundu guzia hazten baituzu zure probidentzian, guk zure ganik dugun hazi pochi bat ereinez landetan, eta zuk landa heier ekhararaziz gu guzien hazteko aski den ogia. Izan zaite, o Jesus, maithatua, laudatua, adoratua menderen mendetan !

ZORTZIGARREN KAPITULUA

JESUSEN PREDIKU EDERRA

Bertze mendi baten gainean, doidoia aipatu menditik ez hanitz urrun, Jesusek egin zuen prediku bat guziz ederra.

Prediku hartarik zerbait nahi dut aipatu, eta errechki ezagutuko dugu prediku hura zela guziz miragarria eta gauza ederrez bethea.

Juan zen beraz Salbaitzaile ona mendi baten gainerat; mendi ahal bat, bi adar bezala dituenak; hortik izena du mendi harrek *Kurn-Hattine* (Hattineko adarrak).

Jesus jarri zen majestate handirekin, eta bere aho adoragarria idekiz egiarik salbagarrienen erraiteko, bere dizipuluez eta mundu oste hartaz inguratua zelarik, segidako egia saindu hauk adiarazi zaizkoten :

Dohatsu izpirituz pobreak, zeren eta, hekiena baita zeruetako erresuma.

Dohatsu eztiak, zeren eta, lurraren jabe izanen baitira.

Dohatsu nigarrez daudenak, zeren eta, kontsolatuak izanen baitira.

Dohatsu justiziaren gose eta egarri direnak, zeren eta, izanen baitira aseak.

Dohatsu urrikalkor direnak, zeren eta, berek ere urrikalmendu ardietsiko baitute.

Dohatsu bihotz garbikoak, zeren eta, hek Jainkoa ikhusiko baitute.

Dohatsu baketiarrak, zeren eta, Jainkoaren haur izanen baitira deithuak.

Dohatsu pertsekuzioea pairatzen dutenak justiziarentzat, zeren eta, hekiena baita zeruetako erresuma.

Dohatsu zarete madarikatzen zaituztenean, eta pertsekutatzen zaituztenean, eta erraiten dutenean zer nahi gaizki zuen kontra, gezurrez, ene gatik. Alegera zaitezte eta bozkarioz jauz zaitezte, zeren eta zuen saria nasaia baita zeruetan; ezen hola pertsekutatu dituzte zuen aitzonean izan diren profetak.

Horra prediku guziz eder horren hastea. Hemendik goiti ere prediku hori ez da gutiago miragarria. Han hemenka zombait hitz erranen ditut : Jesusek dio dizipuluer : hek direla, lur-raren gatza; hek munduaren argia; argitu behar dutela gizonen begietan, haukiek ikhusteko heien obra onak.

Jin dela hura mundurat legearen bethetzerat; legeak manutzen dituen guziak behar direla egin; heien justizia eskribauena eta farisauena baino handiagoa ez bada, ez direla zeruetako erresuman sarthuko; dio ere Jesusek ez dela nehor hil behar, ez samurgo edo hasarredurarik izan be-

har, ez elhe gaichtorik nihori erran, ez hasarre-
duran edo samurgoan nihorekin egon; ez dela
garbitasunaren kontrako bekhatuik egin behar,
eskandalazko gauza guziak behar direla urrundu,
naturalezari zer nahi gostarik ere; erraiten du
ere ezkontzako sakramendu handiak zembateta-
raino manatzen duen bi esposer, elgarrekin bizi-
tzea; erakusten ere du zombat urrundu behar
den Jainkoa lekuko hartzetik juramentua egi-
nez ariukiegi edo behar ez den moldean; nola
behar dugun lagunarekin bakean bizi, haren
alderat on izan, hura gaichto izanik ere guretat;
laguna behar dela maithatu ez choilki gure adich-
kidea denean, baina oraino gure etsaia denean,
guri zuzen-kontra zerbait egiten daukudean,
hola imitatuz gure Aita zerukoa, zoinak bere
iguzkia altcharazten bailu, bai eta bere uria jau-
tsarazten onen eta gaichtoen gainerat, justuen
eta injustuen gainerat. Behar ere ditugula gure
obra onak, amoinak, othoitzak eta barurak egin
ez gizez ikhusiak izaiteko, baina abalaz ichi-
lik eta Jainkoaren aitzinean, harorik gabe; eta
hemen erakusten du *Gure Aitaren erraiten*, othoi-
tzean ederrena. Olibetako mendian ere erakutsi
duena, ikhusiko dugun bezala gerochago. Orhoi-
tarazten gaitu araino prediku hortan Jesusek ez
ditugula mundu huntako aberastasun gal-erre-
chak bilhatu edo chekhatu behar, baina bai
zeruko aberastasun segurean dauden heiek; ez

sobera burua haustea zer behar othe dugun jan, nola beztia bilhatu; behatzeko zeruko hegastiner nola Aita zerukoak beztitzen eta hazten dituen; behatzeko lurreko loreer, Salomon erregea baino ederkiago bezti direner; khondatzeko beraz Jainkoaren probidentzian; hegastinez eta laster phikatuak eta surat botatuak izanen diren loreez Jainkoak hambat artha balinbadu, gutaz artha gehiago izanen duela; ez gaitezen beraz izan haren gainean fidantzia eskasekoak; bilhateaz beraz lehenik Jainkoaren erresuma eta haren justizia, eta bertze gauza eta laguntza guziak jinen zaizkula gainerako. Dio Jesusek nehor ez juiatzeko, ez kondenatzeko; zer ere izari egiten baitugu bertzen alderat, eta izari berean izanen girela izartuak; gauza sainduak sainduki erabiltzeko, eta ez hek profanatzeko; gure galdeak eta beharrak fidantzia handirekin Jainkoari ezagutarazteko, eta ardietsiko ditugula galdatu guziak; entsea gaitezen zeruko bortha edo athe hertchitik sartzera; hanitzek bide zabala segitzen dutela eta hola galtzen direla; begiratzea gure burua profeta enganakorretarik; heien fruituatarik hek zoin diren ezagutuko ditugula; arbola onak fruitu onak ekhartzen dituela, eta arbola gaichtoak fruitu gaichtoak; ez dela aski zeruetako erresumarat sartzeko Jainko hari erraitea : Jauna, Jauna! bainan behar dela egin haren Aita zeruetan denaren nahia, zeruetako

erresumara sartzeko. Zombat gauza eder prediku hortan, doidoia baizik hunkitu ez ditudanak, eta bertze asko batere! O zoin ederki eta zoin sarkhorki mintzo zen Jesus! Hura izan da mundu huntako lehen predikaria, bertze predira guzietarako diotena zer erran eta nola erran, arimak nabi badituzte salbatu beren predikuez.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

OGI LANDAK. — GERTHAKARI BATZU

Prediku saindu hori emana izan zen lekhotik Nazareth alderat, ikhusi ginintuen ogi landa eder batzu; egun batez, gure bide beraz zohatzilarik Jesusekin apostoluak, gosez behartuak baitziren, hasi ziren landa hetako zombait ogi-buru hartuz, heien jaten. Ikhusten dugu hortik Jesus eta haren dizipuluak ongi behartuak zabilzala beren piaietan; Jesusen etsaiek etzuten hambat urrikalmendu haren dizipuluez, eta zioten Jesusi etzela haizu hola ogi bururik biltzea larumbata zelakotz erran nahi baita Jainkoari kontsekratu eguna, guretzat igandea bezala. Jesussek aditzerat eman zioten haren etsaier haizu zitzaioleta haren dizipuluer ogi-buru heien biltzea. Ogi-landa hek egango egunean ere guziz gizenak dira. Han gaindika johan ginelarik, bi erbi altchatu ziren zaldidun baten ondotik. Segitu zitzaioten, nahiz hek khausitu edo hil, bainan laster galdu zituen hatzemaiteko menetik. Bertze ihiztari bati hobekiago gerthatu zaion. Ezen, su egin zuen hegastin larri bat hil nahiz. Tiroak khausitu zuen hegastin gaichoa eta aurdi hila gure oinetarat. Mirua bezen handia zen eta gutarik baten ustearen arabera, *cygne*

izena duen hegastin bat zen. Ogi landa hetan chimichta bezala zabiltzan beren zaldietan gure lagun eta sokhorri ginintuen soldado turko batzu.

Etzuten hambat artha ogiaren ez funditzeaz; artetan ere uzten zituzten beren zaldiak ogi-buruak jaterat. Ez ahal baitziren ogi-landetako langileak ari heien benedikatzen! hek hainbertze arthatzen landa heiek, eta soldado hek beren landetan bezala edo sorjeskiago, alharazten han gaindi beren abereak. Gero; tarrapata zombait egin arazten zuten berriz ere beren zamarier. Turko egiazkoak!

Bat bizkitartean, etzen sobera ongi heldu. Bere tarrapata eta espantu hetan, ohartu gabe erori zen edo funtsik gabe, eta gelditu zen haur bat bezala ahalgetua.

HAMARGAREN KAPITULUA

KANA. — URA ARNO BILHAKATUA.
HAUR BAT SENDATUA — ZALDIAK KHECHU

Aiphatu ogi landa hetan barna, hurbildu ginen Kana izena duen herri ttipi batetarat. Harat heldu baino lehen, khausitu gintuen han hemenka haur andana batzu khantuz ari zaizkunak, oihal bat lurrean hedaturik. Hastean uste nuen haur hek jinak zirela bakharrik gure ohoratze-ko; bainan, lur-gainean hedatuak zituzten oihal hetarik ageri zen etzirela bakharrik gure gatik ari khantuz; zombait baktchitch uahi zituztela. Heldu ginenean Kanarat, jautsi ginen gure abere-tarik, eta juan Frantchichkanoen elizarat; eliza ttipi hura egina da Jesusek ura arnorat khambiatu zuen lekhuon. Eztei batzuetan zen Jesus, eta esposak khausitzen ziren arnoaren eskasian.

Ama Birjina ere han baitzen bere Seme Jainkoarekin, ohartu zen esposak ahalgearekin gelditzerat zohatzila arnoa eskasterat zohalakoan. Orduan Ama Birjina, bethi ongi egiterat ekharria, lehiatu zen heen laguntzerat, eta erran zuen bere Seme adoragarriari : arnorik ez dute! Eta baitzakien Jesusen ontasuna zoin zen handia, erran zuen zerbitzarier, bere Semeaz mintzo

zelarik : zer ere erranen baitarotzue, eta hura egizue.

Baziren bada han sei harrizko untzi edo pegar. Dio Jesusek zerbitzarier : bethe zaitzue untziak urez ; eta bethe zituzten gaineraino. Eta erraiten diote Jesusek : Erauts azue orai, eta eremozue mahain-arthatzaleari, eta ereman zuten. Hunek jastatu zuenean arnoa, hauta khausitu zuen eta guziak ohartu ziren mirakulua egin zuela Salbatzaleak. Hori izan da Jesusek egin dituen mirakuluetarik lehena, eta sinhetsi zuten hura baithan haren dizipuluek.

Alegera gaiten ikhusiz Jesusek bere Amaren othoitzerat egin duela bere lehen mirakulua, eta jakin dezagun ez dela azkena izan ; jakin ere dezagun badugula Ama Birjiua baithan ararteko bat guziz botheretsua, nahi dituen guziak ardies-ten dituen bere Semearen ganik, eta goazin haren ganat gure behar guzietan, eta entzunak izanen gira.

Frantchichkanoek eman zaukuten edaterat sei untzi hek urez bethe zituzten ithurri beretik. Eman ere zaukuten edaterat arnoa. Ez ginuen guk Jesusek bezala khambiatu ura arnorat ; bizkitartean, Jesusek guri apheztu ginen egunean eman bothereaz, guk ere goiz hartan Tiberiaden egina ginuen mirakulu bat : arnoa Jesusen odol-lerat khambiatua ginuen meza saindua emaitan, Frantchichkanoen elizan. Aiphatu sei untzi he-

tarik biga badirela diote han hurbilean ikhusten ginuen chizmatiko batzuen elizan. Bertze aldi batez Jesusek egin zuen herri berean bertze mirakulu bat soldado aitzindari baten semea sendatuz bera Kanan zelarik, urrunerat, hanitz orenen bidean : Kafarnaumen : aita eta familia guzia konbertitu ziren mirakulu horren bichtan. Kanatik abiatu eta laster, Jaun aphez bat zalditik erori zen eta begithartetik odola zarion; han gelditu ziren bertzeak hari beha edo haren arthatzeko. Dembora hortan, bertze gibeletik heldu ziren zaldidunak oihuka eman ziren aitzina juaiteko; zertako hola bidea hesten zuten; bertze ondoko zaldidunek ez baitzakiten zertako gelditzen ziren aitzinekoak, oihuka gauza bera zioten. Gure zaldiak, multzoan elgarretaratuak, uliez akhituak, iguzkiaz berotuak, etzauden geldirik.

Bi zamari ausikika hasi ziren elgarri eta biak gibeledko zangoen gainerat chutitu; hetarik bat erori zen gainean zuen Jaun aphezarekin eta lehertzer zuen apheza. Hura bezembat segurik beha zaudenak harritu ziren. Altchatu zen apheza. Etzuen bat ere minhartu; bada piaietako aingeru begiralea, hanitz lanjeretarik eskaparazten duena.

HAMEKAGARREN KAPITULUA

ORAINO ERE NAZARETH! ESKUALDUNAK
LUR SAINDUETAN. — JAFAKO HIRIA. JON-
DONI PETRI. — JERUSALEMERAKO BIDEA.

Oraino ere Nazareth! Eskualdunak Lur Sainduetan

Heldu ginen azkenekotz Nazaretherat. Ilhuntea zen eta juan ginen Jesus, Maria eta Josepe-
ren etchea zen lekhuana egin den elizarat maia-
tzeko debozionearen hasterat, ezen aphiñilaren
azken egunean ginen. Nazareth hiri maitea, fa-
milia sainduaren herria eta egon lekhuana! Zoin
lakhet zen han khausitzea eta phausatzea akhi-
dura handien ondotik! Hango jendeak lorietan
zauden gu berriz ikhusiz. Frantsesek khantuak
khantatzen zituzten: ezen, Frantchichkanoek,
Frerek eta Serorek Lur Sainduetan erakusten
dute Jainkoaren maithatzen eta Frantziako hiz-
khuntzan mintzatzen. Hain urrun baditugu Fran-
tziatik juanak erlijionearen erakusterat eta se-
giarazterat, bereziki haurretarik hasiz. Hamar,
hamabi bat eskualdun han gaindi khausitu ditut
Fraide edo Serora heien artean, bat Azpandarra,
Serora Karmelita, bertzeak Espainiako Eskual-
Herrietakoak; eta egin dautate laguntza bat
baino gehiago. Lekhu urrun hetan lakhet da
herritarrekin khausitzea.

Jafako hiria. Jondoni Petri. Jerusalemeko bidea.

Nazarethgo hiritik, batzu juan ziren Jerusalem-merat, Samarian barna, bertzeak Kaifarat berriz itzulirik, handik itsasoz Jafan sarthu ziren; gutarik askok bisitatu zuten hiri huntan lekhoa, non Jondoni Petriri, loak hartua zelarik, amets saindu batean, agertu baizitzaion oihal bat, zerutik lurrerat zagona, lau hegietarik, alimale suerte guzietaz bethea; eta ezagutu zuen ikhugarri hortarik, Jainkoaren nahia zela Jesusen erlijio-nea segī zezaten ez choilki Juduek, bainan oraino munduko gizon guziek, paganoek berek. Jondoni Petrik Jafan phiztu zuen emazte obra on eta amoina egile prestu bat, Tabitha izena zuena; hala nola sendatu baitzuen handik hanitz urrun ez den Lydako hirian hamar urthe hartan paralesiak hartua zaukan gizon bat, Ene izena zuena.

Jafan hanitz baratze eder bada, guziak fruituz betheak, bereziki liranjez, zoinak ongi onak baitira eta urrunerat ere aiphatuak. Jafatik juan ginen Jerusalem-merat orga suerte batzuetan, bakhar batzu karrosa aski onetan; bidea doidoia karrosa-bidea da: harri handiegi batzuz sobera bethea. Bortz aldiz segurki inhaurresiak ginen gure orgetan; ongi kontent ez baginen erortzen orgen edo karrosen jauzietan, buruan eta lephoko zainetan zombait kraska harturik ere. Jafaren

eta Jerusalemen artean ikhusten dira Saroneko landak, guziz gizenak, lore ederrez sasoinen betheak. Saronen edertasuna hanitz laudatzen du Isaias profetak.

Sansonen acheriak

Saroneko landak famatuak gelditu dira Sansonek han egin gauza espantagarri batez : hiru ehun acheri estekaturik buztanetarik birazka, eta heier su emanik, haizatu zituen Filistinen ogi-landetarat eta hek erre.

Arimathia. Josepe eta Nikodeme

Luzaz bidean akhitu ondoan, heldu ginen Arimathia izena duen herri baterat, nongoak baitziren Josepe eta Nikodeme; hauk biek ehortzi zuten Jesus thomban, lehenik baltsamaturik; biak elgarren ondo ondoan bizi ziren. Bi eliza ttipi eginak dituzte Frantchichkanoek heien egon-lekhuan, eta han eman ginintuen gure mezak.

HAMABIGARREN KAPITULUA

DAVIT ETA GOLIATH

Jerusalemetik aski hurbil iragan ginuen Terebintheko ur-erreka. Erreka haren bi aldetan badira bi mendi eta mendi hetarat bilduak ziren gerla egiteko Israeldarrak eta egun batez Filiztindarrak. Azken hautarik bat bazen Goliath izena zuena; indarrez bethea, gaitza gorputzez eta gerlau trebatua. Hau ari zen Jainkoaren populuaren desafiatzen, erranez nahi zutena heien artetik haren kontra jua arazteko, ikhusteko nork, buruz buruka, garhaituko zuen. Harrituak zauden Israeldar guziak Goliath hetaz trufatzen eta heien desafiatzen adituz. Bainan Davit jin zen Saul Erregeari erraitera juanen zela hura eta hileu zuela Goliath. Jainkoaz lagundua urkhatu zuela bere eskuz lehoi bat eta hartz bat, haren arthaldetik ahari bat eremaiten ziotenean; alimale heer bezala eginen zuela Goliathi; eta erregeren baiarekin, haren gerla-arropak eta harmak gaizki johan zaizkonak bazterrerat utzirik, hartu zuen bethi berekin zabilan makhila, bai eta ere habala; jautsi zen ur-errekarat, han hautatu bortz harri guziz leguak, jua Goliathen biderat, zoina bertze aldetik heldu baitzen, irri egiten ziolarik, tcharra zelakoa haren begietan; eta madarikatu zuen Davit, eta erran zion: «Chakhurra naiz othe ni, hi ni ganat jiteko makhilare-

kin? » Eta Davitek erran zion Goliathi : « Hi heldu haiz ni ganat ezpatarekin, lantzarekin eta erre-dolarekin; baina ni heldu nitzai armadetako Jaunaren, Israelgo tropen Jainkoaren izenean. » Geroago eta gehiago elgarretarat hurbiltzen ari ziren bi gerlariak; baina Davitek emanik bere habalan hautatu zituen bostz harri hetarik bat, itzulika erabilirik habala, azkarki aurthiki zion Goliathi harria, eta hura jo zuen kopetaren erdi erdian; sarthu zen harria Goliathen kopetan, eta mustupilka erori zen lurrerat; bi jauziz juan zitzaion Davit gainerat, eta Goliathen ezpata harturik, lephoa ebaki zion etsai horri. Ene lagunetarik biga juan ziren ur-errekarat, harri bilha; hetarik batek eman zautan harri biribil bat, erranez : « Harri horrekin Davitek hil zuen Goliath; eta horra odol thonak. » Erran gabe doha ez nuela harreu errana sinhetsi, baina enekin daukat harri hori eta atchikiko ere dut, baitakit non bildua den, eta zertaz orhoitarazten nauen. Emeki, emeki, errege-bide patar batzutan gora iganez, bethi gure orga suerte eta karrosetan, heldu ginen Jerusalemeko gainetarat, eta gure begiek azkenekotz ikhusi zuten Hiri saindua! Ez ditake lamaz aski ezagutaraz zer senditzen duen bihotzak Jerusalem ikhusten denean lehen aldikotz!

Agur Jerusalem, Hiri Saindua, Jainko-Gizonaren presentziaz santifikatua! Agur! Urrunda-

nik heldu gira akhitsuak, zure ikhusterat. Azke-
nekotz ardietsi dugu galdegiten ginuen grazia!
Bai, zu zare guk bilhatzen ginuen Hiri maitea;
zutaz laster gozatuko gare, zutan deskantsatuko
gare : Bozkarioz gairidituak, erraiten dugu, zuri
behatus : *Lætatus sum in his quæ dicta sunt mihi :*
In domum Domini ibimus! Bozkariatu naiz erra-
nak izan zaitan hitz hautan : Jaunaren etcherat
juanen gira! Oi, zori-ona! Jerusalem! Jerusa-
lem! Horra Jerusalem!!!

Gure biderat jinak ziren Jerusalemen diren
eskola katolikoetako haurrak beren nagusiekin.
Amodiorekin, musu eman ginuen Jesusen odol
preziatuak kontsekratu lurrari, eta eman ginen
bi lerrotan, hirian sartzeko. Mundu bat bazen
gure ikhusterat jina, Frantziako konzul jenerala
han zen guri ohore eta ongi-ethorri egiteko.
Gero ere asko aldiz gurekin gerthatu da. Hanitz
aldiz mintzatu zauku, guziz ederki, aphez bat
bezala, ahalgerik gabe, erlijionearen laudorioak
agerian eginez. Halako gizon asko balu Fran-
tziak, orai den baino gorago litake.

Juan ginen hirian barna Salbatzaile Saindua-
ren eliza deitzen denerat : hura zen gure eliza.
Frantchichkanoeck guziz ongi errezibitu gini-
tuzten. Gu jadanik Jerusalemen ginen, bainan
bertze asko Samari barna heldu ziren Jerusale-
merat. Zuzen da hetaz ere mintza nadin, eta hori
egin gogo dut orai.

HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

SAMARIA, ETA SAMARIAKO BIDEAN
BARNA GERTHATU GAUZAK

Samarian gaindi Jerusalemerat jin zirenek lau egunen bidea bazuten : akhitzeko bidea, harritsua eta jauste eta igaite hanitz. Hek iragan duten bidean asko gauza bazen ikhusteko; aski da jakitea gure Salbatzaile adoragarria hanitz aldi ibili dela han gaindi Judeatik Galilearat juaiteko edo jiteko; hortakotz ere ekharria naiz Samariatz mintzatzerat. Samaria lehenago Jainkoaren populuarena zen Galileako eta Judeako probintziak bezala, baina geroago, nonbaitik ekharri zuten Samariarat bertze jende mota bat; eta handik goiti, Samaria galdua bezala zen Judu edo Israelitarrentzat; baina ez da guti egoia lehenbizian Samaria Israelitarrena zela eta hanitz gauza han gerthatu direla eta hanitz lekhu ikhusten direla balio dutenak ni hemen gerthakari eta lekhu horietaz mintzatu nahi izaitea.

Nazarethetik Samariako alderat har eta, aski laster, ikhusten da Naïm; han, Jesus onak phiztu zuen ama alharguntsa baten Semea, hila zera-matena hilherrietarat. Mirakulu horrek nigarretan zagon ama hura bozkariatu zuen eta aho-

kian ziren jende guziak espantitu ziren, eta guziek zioten Jainkoak bere populuari igorri ziola profeta handi bat Jesusen presunan. Etzuten harentzat benedikzionerik baizik.

Naïmetik ez da urrun Sunam, non, Elisek phiztu baitzuen haur bat berriki hila zera Gero bazohatz Djenineko eskualderat; han sendatu zituen Salbatzaileak hamar lepradunak, Ebanjelioak dion bezala.

Han gaindi ikhusten ere da Nabothén mahastiaren tokia. Mahasti hura gizon pobre horri ebatsi zioten erregek eta erreginak eta bera hilarazi zuten; baina biak izan ziren Jainkoaren justiziaz joak, eta mundutik eremanak. Lekhu hetan, Jedeonek irabazi zuen bitoria handi bat, bakharrik trompeta soinuak eta argiak eskuetan zauzkatelarik haren hiru ehun gerlariek. Bertze gerlari lagunak, gostuan ezarririk eta aphaldurik edateko ura hartzen zuten demboran, hiru ehun horiek urean phasatzean doidoia ahurraz ura hartuz, edan zuten; eta Jainkoak erran zion Gedeoni soldado mortifikatu hek bakharrik behar zituela hartu gerla egiteko etsaiari.

Ikhusten ere dira Jelboeko mendiak, non hil baitziren gerla batean Saul eta Jonataz haren semea. Davit erregeak nigar saminak egin zituen aita semeak hil zirela aditurik. Eskualde hetan da Bethuliako hiria, Holofernek hartu nahi zuena; baina Judithek ebaki zion burua, ezpata

batekin, eta hola, Juduak libratu zituen beren etsaietarik. Judithek Ama Birjina seinalatzen zuen, zoinak burua lehertu baitio Satani. Bethuliatik ikhusten dira Dothaingo bazterrak. Harat juan zen Josepe gaztea, bere anaietarat Jakob bere aitak igorriarik.

Anaiek han saldu zuten Josepe, haren nigarrez hunkituak izan gabe; haur gaikhoa juan zen esklabo Ejiptorat eta Ejiptoa gosetei batean salbatu zuen, hanitz bihi aitzinetik bildurik, Josepe hunek seinalatzen zuen aldiz geroago agertu behar zen bertze Josepe bat, Jesus eman daukuna gure arimen hazkurritzat. Eskualde hetan agertu den hiririk aipatuena izan da Samaria, bere izena probintzia guziari eman duena, erregen egonlekhua izana, bainan orai nonbait han ez-deusetarat eroria. Samarian izan dira ehortziak doidoia aipatu eta oraino dudan Josepe, Jakobben seme, Ejiptoko ministro handia, Elise profeta saindua, bai eta ere Jondoni Joani Batista, Jesusen ezagutarazterat eta hari bideak egiterat jina zena mundu huntarat. Samariatik zombait orenen bidean, dira bi mendi: Hebal eta Garisim. Bi mendi horien bi aldetan, ezarri ziren Moisen manuaren arabera, sei ehun mila gerlari eta Jainkoaren populu guzia hamabi zathitan, sei sathi hemen, sei zathi hor. Bi mendien artean ezarria zuten Arkha saindua, Jurdaneko hibaian gaindi phasatua, mirakuluzki urak baztertuz bertze alderat

ereman ahal izaiteko. Han, Arkha Saindu horren aitzinean, Jainkoaren presentzian, Josuek altchatu zuen boza eta izendatu goraki benedikziorneak Jainkoaren legeari leial egonen zirener erresalbatuak zirenak, eta Garizineko mendian ziren sei tribu edo zathiek ihardetsi zuten : *Amen!* Gero Hebaleko mendiaren alderat^oitzuliz, madariziorneak deithu zituen legea hautsiko zuteneu gainerat, eta bertze sei tribu edo zathiek ihardetsi zuten orok boz batez : *Amen!* Erraiten izan balute bezala : Bai, *Amen*, izan gitezela benedikatuak edo madarikatuak legea begiratzen edo hausten dugunaren arabera. *Amen,*

Ez dut ahantzi behar hemen Jakobben phutzua.

HAMALAUGARREN KAPITULUA

JAKOBEN PHUTZUA. EMAZTEKI SAMARITANO BAT KONBERTITZEN DA, BERTZE ASKOREKIN

Bai, han da Jakob patriarkaren phutzu hura, gure demboretaino kontserbatua. Han, phutzu harren hegian Jesus onak konbertitu zuen Samariako emazteki bat, phutzu hartarat urketa jina zena. Dizipuluak juanak ziren Sicharreko hirirat jatekoen erosterat. Hiri hortakoa zen emazteki hori; Jesus zagon aiphatu phutzu horren hegian, eguerdi-irian, akhitua bide borthitz hetan ibiliarren bortchaz; eta erran zion emazteki horri : « Emadazut edaterat. » Eta emaztekiak ihardetsi zion : « Nola, zu Judua zirelarik edaterat niri galdegiten dautazu naizelarik emazteki Samaritanoa. Ezen Juduek eta Samaritanoek etzuten elgarrekin ihardokitzen. » Jesusek ihardetsi zion eta erran : « Ezagutzen bazinu Jainkoaren dohaina eta nor den erraiten darotzuna : Emadazut edatera, zuk behar bada galdatuko zinakon eta emanen zautzun ur bizi batetarik. » Erran zion emaztekiak : « Jauna, ez duzu eta, zertaz athera ere, eta phutzua barna da; nondik zinuuke beraz ur bizia? Ala zu gehiago othe zare gure aita Jakob baino, zoinak eman baitaroku phutzua, eta berak



huntarik edan du eta harren haurrek eta haren azindek ere? » Jesusek ihardetsi zion eta erran zion : « Edo zoinek edan dezan ur huntarik, egarrituren da berriz, bainan nik emanen diotan uretik edanen duena, ez da nihoitz egarrituren. Bainan nik emanen diotan ura, bilbakaturen da hura baithan ur ithurri bat ekharriko duena bizitze bethierekoraino. » Erraiten dio emaztekiak : « Jauna, emadazu ur hori, ez nadin egarri, eta ez nadin jin hunat urketa. » Erran zion Jesusek : « Zazi; deith zazu zure senharra eta zathunat. » Ihardetsi zion emaztekiak eta erran : « Ez dut senharrik. » Erraiten dio Jesusek : « Ongi diozu : ez dut senharrik; ezen bortz senhar izan ditutzu eta orai duzuna, ez da zure senharra : hori egia erran duzu. » Erraiten dio emaztekiak : « Jauna, ikhusten dut profeta zarela zu. Gure aitek mendi huntan adoratu dute, eta zuek diozue Jerusalem dela tokia non adoratu behar baita. » Erraiten dio Jesusek : « Emaztekoa, sinhets nezazu heldu dela ordua, non ez baituzue ez mendi huntan, ez Jerusalem adoraturen Aita. Zuek adorutzen duzue ezagutzen ez duzuenena; guk adorutzen dugu ezagutzen duguna, ezen salbamendua Juduetarik dathor. Bainan heldu da ordua, eta orai da, non egiazko adoratzailek, adoraturen baitute Aita izpirituz, eta egiaz. Alabainan eta, Aitak holako baren adoratzaileak bilhatzen ditu. Jainkoa Izpiritu

da, eta hura adoratzen dutenek izpirituz eta egiazki behar dute adoratu. » Erraiten dio emaztekiak : « Badakit Messias heldu dela (Kristo deitzen dena); beraz ethortzen denean hura, orotaz argituren gaitu. » Erraiten dio Jesusek : « Hura ni naiz, zurekin mintzo naizen berbera. »

Eta ordu berean jin ziren haren dizipuluak, eta espantitzen ziren emazteki batekin mintzo zelakoan. Halarik ere nehork etzuen erran : « Zer galdatzen duzu, edo zertako mintzo zira horrekin? » Bada, utzi zuen bere pegarra emazteak, eta juan zen hirirat, eta erraiten diote hango jender : « Zatozte eta ikhus azue gizon bat, zoinak erran baitait egin izan ditudan gauza guziak. Ez othe da hura bera Kristo? Jali ziren beraz hiritik haren ganat. » Dembora hartan, othoizten zuten dizipuluek, erranez : « Nausia, jan zazu. » Baina harrek erraiten diote : « Nik badut janhari bat jateko, zuek ezagutzen ez duzuenena. » Zioten beraz dizipuluek elgarri : « Norbaitek ekharri othe dio jaterat? » Erraiten diote Jesusek : « Ene janharia da egin dezadan ni igorri nauenaren nahia, osoki egin dezadan haren lana. »

Ez duzuea zuek erraiten oraino badirela lau hilabethe, eta heldu dela uzta? Huna non erraiten dautzuetadan : « Goiti zaitzue begiak, eta ikhus zatzue bazterrak jadanik churituak direla uztaren egiteko heineraino. Eta uzta biltzen duenak, saria izaiten du, eta biltzen du fruitua bizitze

bethierekotzat; amoreagatik eta erailea bozkaria dadin betan uzta-biltzailearekin. » Ezen, huntan egia da erran hau : « Bertzerik dela erailea, eta bertzerik dela uzta-biltzailea. Nik ígorri zaituztet biltzerat lanthu ez duzuen; bertze batzuek lanthu dute, eta zuek heien lanetarar sarthu zarete. »

Bada, hiri hartarik hanitz Samaritanok hura baithan sinhetsi zuten, lekhukotasuna bihurtzen zuen emaztekiaren hitzarengatik : Baizik-eta, erran baiterazkit egin izan ditudanak oro. Jin zirenean beraz haren ganat Samaritanoak, othoiztu zuten han egon zadin. Eta egon zen han bi egun. Eta hanitz gehiagok sinhetsi zuten hura baithan, bera entzun zutelakotz. Eta emaztekiari erraiten zuten : « Oraikotik ez dugu zure erranaren gatik sinhesten; ezen guhonek entzun dugu, eta bada-kigu hau dela egiazki munduaren Salbatzalea. » Erradazut, irakurtzailea, ez dea ederra Ebanjelio Saindutik hartu dudan ichtorio hori? Horra emazteki bat Jainkoa ezagutzen ez duena eta bekhatorosa dena. Jesusek ur chorta bat galdatzen dio : « Bainan badu bertze egarri bat handiagoa. » Emazteki horren bere herritarrekin salbatu nahizko egarria, eta han egoiten da bi egun heien argitzen eta konbertitzen. O Jesusen ontasun handia! Zombat holako ichtorio eder, utzi behar ditudanak bazterrerat, beldurrez eta liburu hau handiegi izan dadin!

HAMABORTZGARREN KAPITULUA

SILO, BETHEL, BEROETH, SKOPUS, BEREN
ORHOITZAPENEKIN

Sicharretik lau orenen bidean da Silo, lekhu omen handikoa. Arkha saindua luzaz han atchikia izan da. Han bizi izan da bere haurtasunean Samuel profeta. Huna orai non khausitzen garen Bethel deitzen zen hiri baten lekhu eta inguruetan. Han Jainkoak hitz-eman zion Abrahami lur hura emanen ziotela haren ondokoer. Han berezi zen eta urrundu Abraham bere iloba Lotenganik gerla biderik etzezaten izan gehiago osaba-iloben artzainek. Jakobek Bethelen kontsekratu zuen aldare bat Jainkoari Mesopotamiarat juaitean, ikhusi zuelakoan amets saindu batean zerua idekia eta zurubi batean gora behera ibilki aingernak. Mesopotamiatik itzultzean Bethelen kontsekratu zuen Jainkoaren adoratzeko oraino bertze aldare bat. Samuel urte guziez heldu zen Bethelerat popularen juaitzeko, eta alde guzietarik Bethelerat zohazin Izraeldarrat edo Juduak Jerusalemeko temploa egin aitzinean. Hurbiltzen ari gira Jerusalemeko hirirat. Huna Beroeth izena zuen tokia, non Ama Birjinak eta san Josepek, egun baten bidea egin ondolan Jerusalemetik Nazaretherakoan, ohartu

baitziren dolu-min handirekin Jesus Haurra etzutela berekin. Lagunak utzirik, itzuli ziren Jerusalemerat deboilatuak, nigarra begian, eta hiru egun handi ibili ondoan Jesusen bilha, azkenekotz khausitu zuten beren Seme maitea temploan, doktorren erdian. Harrekin itzuli ziren Nazaretherat eta han urthe luzaz bizi izan zen Jesus Mariarekin eta Josepekin, heien nahi guzietarat osoki eroria. *Et erat subditus illis!*

Azkenekotz huna Skopuz deitzen den mendia. Lekhu gora hartarat jin zen lehenago Jaddus aphez nausia, Alexandre handiaren biderat, ornament ederrez bezi, eta hanitz aphezez eta lebitez segitua. Apazegatu zuen Alexandre, eta hau ona izan zen Jerusalemeko hiriarentzat. Samarian gairdi Jerusalemerat heldu ziren gure lagunak Skopuz mendiaren gainetik ikhusi zuten Jerusalemeko hiria. O heien bozkarioa, heien khantika sainduak! Guretzat bezperan bezala, han ziren heientzat ere jinak multzoka jendeak. Bozkariatu ginen akhituak heldu ziren gure lagun horiekin, eta prosesionean, sarthu ginen Hiri sainduan, eta juan gure eliza izan behar zen Salbatzaile Sainduaren elizarat, eta han sakramendu sainduaren benedikzioea harturik, itzuli ginen zoin gure tokietarat.

HAMASEIGARREN KAPITULUA

JERUSALEMEN HIRIA

Galdeginen dautate hea Jerusalem hiri ederra denetz. Hhardetsiko dut ez dela Jerusalem hiri ederra : ez da izan behar ere hiri ederra. Egun-daino lur hunen gainean egina izan den krimarik handiena Jerusalemen egina izan da : Jainko-Gizona han hila izan da eta haren hiltzalea da Jerusalem : Jesusek erreportchu saminak egiteu zaizkon hiri horri egun batez, erranez : « Jerusalem, Jerusalem, zoinak hiltzen baitituk profetak, eta harrikatzen hire ganat igorriak zaizkanak, zombat aldiz nahi izan ditiat bildu hire haurrak, oiloak bere chitoak hegalean azpirat biltzen ditiuen bezala, eta ez duk nahi izan ! Huna non utzia izanen dautzueten zuen etchea hutsa. » Erreportchu oraino saminagoa merezi zuen hiri dohakabe harrek profeten igortzailea, Jesus hil araziz. Jerusalem hiri ederra denetz :

Bai, egia da, urrunchko danik behatzen denean hiri horri, hango dorre gorak, eliza gainak, eta hiriainduratzen duten murrak azkarrak ikhusi eta, erran ditake : « Jerusalem oraino zerbait bada ! » Bai, oraino zerbait bada, baina zer da izan denaren aldean ? Lehen, lurreko perla eta edergailua zen Jerusalem ; Melkizedek erregeak egin

hiria, Davitek eta Salomonek hain bertze edertua; bainan geroztik bilhakatua da thomba baten pare. Jainkoaren madarizioneaz joa da. Haren karriketan ibiltzean, iduri du Jesus hil duten Juduak direla zure inguruetan diren edo zuri buruz heldu zaitzun jendeak, beren begitharte pheradaratsarekin. Etzira kasik menturatzen zure bidean aitzina juaitera beldurrez eta zure zangoen azpian profana Jesusen odol chortak edo khausi karrika hetan Salbatzailea bere khurutzeaz kargatua. Hiri horrek ez du etche ederrik, ez karrika ederrik. Karrika hek harriz azkarki zolatnak dira; eta noia Jerusalem bortz mendien gainean delakoan, karrika hek jeneralean goiti edo bebeiti baitohatzi, aski lan dute jendek eta bereziki abere kargatuek erori gabe karrika lerra hek barna ibiltzea; etche kaskail, zabartu hetan bada zerbaiten itchura dutenik ere, beren itsusian. Artetan, khausitzen da etche bat edo bertze karrikako bi aldetako etcher dagona eta heien gainean, zubi gisa. Bainan nahiz Jerusalemek ez duen gure hirien edertasuna, hek guziak baino maiteago du girichtinoak hiri hori, baitaki dela hiri saindua, Jesusek bere presentziaz santifikatua. Bai, Jerusalem, izanen zare bethi gure amodioa! Zu ikhusi zaituztenen nahi handia izanen da bethi zu berriz ikhus ahal izaitea.

HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

SEPULTURA SAINDUKO ELIZA. CHIZMATI-
KOAK, BEREZIKI RUSIANOAK

Jerusalemerat heldu ginenean, gogo onez ordu berean juanen ginen Sepultura Sainduko Elizarat; bainan Rusiako, Greziako eta alde guzietako chizmatikoak jinak ziren Jerusalemerat, Phazkoko phesten han zelebratzerat; ezen, hek oraino orduan zuten beren Phazkoa guk asko egun hentan Frantzian izana ginuena, Lur Saindura juan baino lehen.

Gure lehen Elizako-sartzea egin ginuen Frantchichkanoen elizan, zoina baitzen bertzenaz ere gure eliza, gorachago erran dudan bezala. Bainan ahal bezen laster juan ginen Jesusen thomba edo sepultura daukan elizara. Zer eliza handia! edo hobeki erraiteko, han bada hanitz eliza eta kapera guziek eliza bat egiten dutena. Sepultura sainduko eliza hori, ez da baitezpada ederra; hanitz egile izan du bakhotcha bere gustu khambioekin, eta ez bethi hoberenekin. Badu gaingainean, hanitz metra gora, kupola handi bat, idekiduraz edo leihoz bethea argiaren ausarki emaiteko Sepultura Sainduari. Bertze kupola bat ere bada ttipiagokoa, santa Elenaren kapera-gainean, argiaren emaiteko han gaindi diren

barne ilhun heier; halarik ere, asko lekhu eta kapera hainbertzetaraino ilhunbetan dira, non han irakurtzeko ezko chirio ttipi batzu hartzen baitira, aski ikhusten ez den lekhuetan heien phizteko. Gerochago mintzatuko naiz kapera he-taz.

Norbaitek galdeginen daut ea Jesusen thom-ba daukan eliza guziz sainduan errespeturekin egoiten denetz jendea. Guziek ez dute ekhartzen eliza horri behar den errespetua. Ezen, elizan sartzean, ikhusten dira soldado turkoak gostuz kafearen hartzen ari direnak edo pipan eliza borthan. Eliza barnean diren jendek jeneralean errespetu badute lekhu saindu horrentzat. Han dabilta aldarez aldare, kaperaz kapera othoi-tzean; heietarik asko katolikoak dira gu bezala, bainan bertze hanitz eta hanitz Rusiako chizmatikoak dira, Greziako chizmatikoak, Abizinia-koak eta bertze asko lekhutakoak. Chizmatiko hek gure kontrakoak dira; bizkitartean behar da esperantza izan hetarik nombre handian fede onean direla eta salbatuko direla. Othoitz egin dezagun chede hortarat heientzat. Hetarik asko guti argituak behar dira izan. Badakite hargatik guziek khurutzearen seinale handi bat egiten kopetatik estomakarat eta eskuineko sorbaldatik eskerrekorat, guk ez bezala; norbaitek erraiten zautan etzakitela bertzerik hetarik hanitzek khurutzearen seinale horren egiten baizik; bainan,

badakite ere pleinuak egiten aldaren bisitan; eta gauza horrek ezagutarazten dauku badutela sinhestea, eta beren moldean amodioa Jesusentzat.

Ezen, Jesus maite dutelakotz juaiten dira urrun danik, Rusia zolatik beretik Salbatzailearen thombaren ohoratzerat. Desiratzeko litake bizkitartean Rusia ez balitz hainbertze agertzen lekhu hetan.

Sobera ardura eta sobera nombre handian ikhusten dira non nahi Rusianoen eta Rusiako gobernamentuaren etcheak eta elizak.

Olibetako baratzearen gaineko aldean eta hurbil hurbilean badute eliza bat. Bertze eliza bat badute Olibetako mendiaren gainean, fara gora-gora batekin urrunean ikhusteko, eta bertze holako zombat establimentu milaka eta milaka Rusianoak atchik detzaketenak! Gure gobernadore jeneralak goraki erraiten zuen guzier eta gu guzien bichtan Rusia zela han gaindi gure etsai handia! Beldur izaiteko da gutaz nagusi dadin, zangoa guri gainean emanaz eta aitzina juanez. Frantziatik, hiru, lau, gorenaz bortz ehun jende badohatzi urthe bakhotchekan Lur Sainduen bisitatzerat; Rusiatik johan dira milaka, urthe oroz; menturaz zortzi, hamar mila! Hola, Rusianoek ikhasten dute Jerusalemeko bidea; guk bederatzi, hamar ehun libera despendatzen dugun demboran Jerusalemeko itzuliaren egiteko, hetarik bakhotchak ez du ehun

bat liberaren gastua baizik, nahiz gu baino biziki urrunagotik piaia horri lotzen diren; eta Rusiano horiek, jadanik bidea ikhasia, behar orduan soldado bilhakatuko dira gure edo nor nahiren kontra. Lekhu Sainduen beretzeko, gu Frantsesak gibelerat gauden edo egonen giren demboran. Hala Rusia chizmatikoa izanen da Jerusalemeren eta inguruen jabe, ostiko batez lehenik aurdiki ondoan orai nagusi diren Turkiako soldadoak, edo bertze erresumetakoak, batere balinbada baren kontra lekhu hetarat juanik. Chizmatiko grekez bezenbatean, Rusianoekin bat eginen date gerlan, erlijione chizmatikoan elgarrekin bat egiten duten bezala. Hambat gaichtoago Europako erresuma katolikoentzat! Zertako ez dira iratzartzen, ikhusteko bere onetan behar dutela artha gehiago hartu Lur Sainduak ez uzteko chizmatikoer, zoinek azkenekotz nahiko baitute beren erlijione chizmatikoak lekhu hetan har dezan. Frantziak balu Lur Sainduentzat leheneko kharra, gauzak bertzela juan litazke han gaindi.

Rusiano horietarik sobera baizik ez da sepulturako elizan. Ba da oraino hetaz bertzalde bertze asko, lekhu saindu hortan, hala nola Grekak, Armenianoak, Kostak, Ethiopianoak, Abisinia-koak. Gu katolikoak Latinak deitzen gituzte, eta hala gira. Aita Sainduaren erlijionea dugu, erran nahi baita Jesusen erlijione *guzia*, eta ez *pharte*

bat heretikoek bezala, eta batzuen arabera, chizmatikoek bezala; ezen, aditu dut erraiten chizmatikoek ja ez dituztela fedezko egia guziak sinhesten. Sinhesten balituzte ere, elizaz kampo dira, beraz damnazioneko bidean, ez dutelakotz Aitzindaritzat ezagutu eta onhetsi nahi Jesuzen plazan den, eta haren lurreko Bikario den Aita Saindua.

Bai Latinek, bai chizmatikoek gabaz eta egunaz egiten dituzte Sepultura Sainduko Elizan beren ofizioetako zeremoniak. Chizmatiko horien zeremoniak ez dira gureak bezen ederrak. Egia da, ikhusten dira chizmatiko horien aphezak han gaindi ibilki beren insentsu-untziekin, al-dare edo bertze zerbait lekhu errespetagarrien insensatzen; heien ornamentek majestate ere badute; bainan heien ofizioetako khantuak zoin diren eskasak, zoin hotzak! Haur batzu ari dira, sudur-khantu batean, oihuka; gizon-boz bat ere adituko da, artetan pluska bat betbetan khantua goratuko duena, ez dakit zertako, ala denetz gorago eta bitoria handiago izaiteko, ala Jainkoa hobekiago hunkitzeko khantu garrasiazko hetaz. Khantu horien artean aditu izan dut gau minean Sepultura Sainduko eliza hortan khantu bat asko bozek emaiten zutena arras apha eta eztiki, akort handitan, eta choragarriki. Loria tua egon zitaken khantu haren aditzen.

Norena othe zen khantu hura? ez dakit; bel-

dur naiz Rusianoena zela; agian ez, baina bai katolikoena; ezen, badira Latinez edo gutaz kampo, bertze batzu ere, hala nola Maronitak, gu bezala katoliko direnak. Musikaz bezembatean, chizmatikoek ez dute musika deusik balio duenik. Bai, Armenianoek badute atabala bat eta Grekek timbala bat. Aditu ere dut heien Phazko eguanean ez dakit zoin barne edo kaperetarik burdin harrabots bat bezala. Iduri zuen bi burdin puska mehe joiten zituztela elgarren kontra, lehenik arraposki, eta gero, lasterrago, azkenekotz ezin segituzko heinean. Mundu guziaz balakike musika horren egiten edo joiten!

Ez da hala Latinen musikaz; ezen, Frantchichkanoek badituzte beren kaperan organoak, zoinen soinua eztiak bilarazten baititu chizmatikoak berak gure kaperarat; badakite bizkitartean beren aphezez debekatua zaiotela katolikoaren zeremonietarat juaitea; choratuak han dauden demboran gure zeremonia eta musika ederren ikhusten eta aditzen, jinen zaiote beren erlijioneko aitzindaria, heien biltzerat beren zeremonietako, baina akhabatu dutenean beren ofizioa, berriz ere badohatzi katolikoaren arterat.

Sepultura Sainduko eliza hortan, chizmatikoek daukate beretua lekhurik ederrena, eliza erdian, Sepultura Sainduaren parrean. Urheria eta gauza ederra frango barne hartan ikhusten da. Ez dira chizmatikoak han baxharrik jabetuak lekhurik

hoberenez; Bethleemen ere gauza bera egin dute. Asko balitake hemen erraiteko Sepultura Sainduko elizaz, eta han gaindi diren kaperez eta lekhuez; hetarik hanitzez mintzatuko naiz gerochago, ene suietak manatzen dautanean, erran nahi dut Jesusen Pasioniaz eta Phizteaz mintzatu naizenean; hemen baxharrik erranen dut Franchichkauoen sakristian ikhusi ditugula Godfroy de Bouillonon ezproinak eta sabrea, arras ongi kontserbatuak.

HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

PELEGRINAK BI KHURUTZE HANDIREKIN.
SANTA ANNAREN ETCHEA.
ARDIENITHURRIA — GIZON BAT SENDATUA

Goazin orai Olibetako mendiaren eskualderat. Gure lehia zen ardura juaitea Sepultura Sainduko elizarat eta Olibetako baratze inguruetarat. Arte hortan khausitzen da Jesusek khurutzeaz kargatua iragan edo phasatu zuen bidea ortzirale sainduz. Asko aldiz, bereziki lehenbizian, Jesusek bere odolaz santifikatu karrika hetan barna ibili naiz jakin gabe edo obartu gabe non nintzen; geroztik, ezagutza gehiagorekin egun gehienez bide saindu hura phasatu dut, izpiriturat ekharriz zer gerthatu den karrika hetan Jesus Galberiorakoan. Bi ortziralez, egin ere dugu khurutzearen bidea Jerusalemerat juanak ginea lau ehun pelegrinek. Mundu bat bazagon karriketari eta leihoetan guri beha, batzu juduak bertze batzu mahometanoak, bertze batzu chizmatikoak, baina guzier lakhet zitzaieten guri beha egoitea, eta urrun ziren gu kontrariatetik, gutaz truffatetik. Frantzian, hanitz eta hanitz lekhotan ez ginuke holako libertaterik gure erlijionezko sendimenduen kaporat agertzeko. Bertzenaz ere, judu edo chizmatiko edo

mahometano hek berek beren erlijione suertea erakusten dute eta pratikan emaiten, non nahi, bide hegietan beretan belhaunikatuz beren othoitzaren egiteko, batere ahalgerik gabe. Choilki, oudikotz bide gaichtoan dira erlijione faltsuan direlakotz; hemen ere erranen dut behar dugula othoitz egin ilhunbetan diren dohakabe heientzat amoreagatik eta, Jainkoak argi ditzan eta sar-araz bere arthaldean, erlijione egiazkoa heier besarkaraziz. Heientzat othoitz egitea izan bedi gure artha berezia; gure anaia arrebak dira, ilhunbetan izanik ere; bilaraz ditzagun zeruko ororen Aitaren familiarat!

Khurutzearen bidea egin ginuen bi ortziraletan, kharreatu ginuen ortziraletan bakhotchekan khurutze handi bat; lehena lehen ortziraletan, bertze khurutzea bigarren ortziraletan. Bi khurutze hek garekin eremanak ginintuen untzian. Hain ziren handiak eta phizuak non hogoi eta hamar bat gizon behar baitzen hetarik bakhotcharen eremaiteko.

Guziek nahiko zuketan khurutze heien kharreatzaileak lagundu; baina sobera ginen! nik ene burua dohatsu naukan doidoia ene eskuaz khurutzea hunkituz, karga eremaileak lagundu nintuelakotz. Olibetako mendi alderat juaitean, bidearen gainean khausitzen dira hanitz lekhu eta eliza edo kapera gero aiphatuko ditudanak.

Hemen erranen dut hiritik jali gabe, ikhusten

dela Olibetarakoan ezker Santa Annaren egon lekhua. San Joachim eta Santa Anna ziren Ama Birjinaren aita amak. Batzuen arabera, Andre-dena-Maria sorthu zen Nazarethen; bertze askoren arabera Jerusalem. eta azken opinione hunek egiaren itchura gehiago du askoren begietan. Baditake Jerusalemeko etche *Santa Annarena* deitzen den hortan Ama Birjinak bere egoitza egin duken zombait demboraz. Ikhusi dut Nazaretheko egon lekhua; ikhusi ere dut Santa Anna, Jerusalemekoa, eta bietan meza saindua erran izan dut. Santa Annan, bertze aldare guziak utziz, hautatu nahi izan dut mezaren emaiteko, santa Annaren gambara zena, non Maria bekhatu orijinalik gabe izan baitzen kontzebitua, eta gero munduratua, aipatu dudan opinionearen arabera. Santa Annan egina izan da eliza eder bat, non zeremonia handitan meza bat khantatu baikinuen. Santa Annan bizi dira Jaun kardinale Lavijerie Baionakoaren misionestak, Aita churiak deitzen dituztenak sotana churia dutelakoan. Eskola egiten dute Santa Annan ichtudianter.

Santa Annatik hurbil khausitzen zen Jesusen demboran ithurri, edo ur-lekhu bat, ardiu ithurria edo ur-lekhua izena zuena. Ur haren inguruan bazauden hanitz eri, itsu, mainkhu, paralitiko, beha noiz ur hori higitukozen; zeren eta, Jaunaren Aingerua noizetik noizera jausten

zen ur-toki hartarat, uraren higitzerat, eta lehena jausten zena erien artean ur hortarat ura higitua izan ondoan, uretik sendatua jalitzen zen edo zein eritasun izanik ere.

Bazen bada gizon bat ur hegian, hogoi eta hemezortzi urthe hetan eria zena. Gizon hori ikhusi zuenean Jesusek etzana, eta jakin zuenean jadanik hanitz dembora hartan eria zela, erraten dio : « Nahi duzu sendatua izan ? » Ihardetsi zion eriak : « Jauna, nehor ez dut ura nahasia izaiten denean, ni aurthikiko nauenik ur-tokirat; ezen ni heldu naizen demboran, bertze bat ni baino lehen jausten da. » Jesusek nahi baitzuen eri hori sendatu, erraiten dio : « Chuti zaite, harzazu zure ohea, eta ibil zaite. » Eta gauza miragarria ! Berehala sendatua izan zen gizon hura; hartu zuen bere ohea eta berekin ereman. Holako mirakuluez frogatzen zuen Jesusek bere Jainkotasuna eta konbertitzen jendeak.

HEMERETZIGARREN KAPITULUA

JONDONI ECHEBE. JOSAFATEKO HARANA

Zombait urhats egin ditzagun Santa Annatik eta doi doia aipatu ardien ur-toki hortarik Olibetarako alderat. Horra Jerusalemeko hiria-ren akhabantza; horra alde hortarik hiria hesten duen bortha edo athe handia, Jondoni Echteberen bortha deitzen dena.

Bortha edo atke hortarik laster, hasten da bide bat, dohana geroago eta patarrago, eta Josafateko haranerat eremaiten duena. Horra beraz haran famatu eta omen handiko hura, non guziak azken juiamenduan izan behar baikira juiak. Bi mendiren artean da erreka bat, bi aldetarik, zolaraino dena barri-thombaz bethea.

Han da Juduen hilherria; han nahi dute ehortziak izan, han nahi dute phausatu beren arbasoekin, azken eguneraino. Alde guzietarik harat biltzen dira, eta urhearen phizuan erosten dute estranjerari, erran nahi dut Mahometanoari, lehenago heien arbasoena izana zen lurretik pochi bat, han ehortziak izaiteko. Zer lekhu tristea, nigarrezko lekhu, Josafateko haran hori!

Zertako deitzen da Josafateko harana? Zeren eta Josafat erregeari, egin baitzioten hobia eder bat haran hortan, nahiz Sioneko mendian hastapenean ehortzia izan zen. Baditake demborarekin errege horren gorphutza eremana izan zen thomba hortarat eta hor ehortzia.

Bertze arrazoin batez ere haran hori Josafateko harana deithua izan ditake, zeren eta *Josafat* hitz horrek erran nahi du Juie Jauna, eta egiazki gu guzien Juie Jauna han agertuko da gure juiatzeko; ezen huna zer dion Jainkoak Joel profetaren ahoz : « Bilduko ditut nazione guziak, eta eremanen ditut Josafateko haranerat, eta juiamendutan sarthuko naiz han heiekin... Jaiki daitezela eta igan daitezela nazioneak Josafateko haranerat; ezen han jarriko naiz juiatzeko nazione guziak. » Ez da juiamenduko lekhuaren gainean dudarik izaiten ahal; eta osoki badohako lekhu horri juiamenduko lekhu izaitea; zeren eta, haran hortan izan da Jesus agonia tua, ezen han berean da Olibetako baratzea.

Haran hortan izan da Jesus Judasen musuaz trahitua, han preso hartua, han zubitik Zedroneko ugola edo hibaiarat aurdikia : *De torrente in viâ bibet*; zor zaion beraz Jesusi aphaldua, osoki umiliatua izan den lekhu hortan izaitea alchatua, goratua, loriaz bethea. Bai, Jesus maittea, juie ikharagarri bilhakatua, jautsiko da Josafateko haran hortarat, eta hor goraki altchatuko du bere burua zangoen azpian bere etsaiak ezartzeko : *Propterea exaltabit caput!* eta arras justu da! Orduan izanen da haren aldia bere etsaien kontra. O Jesus urrikalmendutsua, ezar gaitzatzu egun ikharagarri hartan, othoi, zure eskuinean, gero haran hortarik zurekin hegaldatzeko zerurat!

Erran dut hiritik jalitzean khausitzen den bortha dela deithua Jondoni Echteberen bortha. Borthatik urruntzean, laster patarrari behera abiatzen da jendea, eta Josafateko harauerat juaitean, ikhusten du, lur-arras, harri zabal bat. Tradizioneak dio han izan dela Jondoni Echtebe harrikatua heriotzeraino. Bertze batzuek diote saildu hori izan dela Jesusentzat martirisatua hiriaren ipharreko edo norteko aldean. Zoinek dute arrazoin? Hautz neke izanen da gauza horren osoki argitzea. Hemen, ene opinione flakoa agertuko dut erranez hiriaren norteko alde hortan izan ahal ditakela Jondoni Echtebe hartua, gaizki tratatua, bainan gero eremana Josafateko haran ingururat eta han harrikatua. Niri segurrago zaut erraitea azken toki huntan izan dela heriotzeraino harrikatua. Breviario erromanoak, mintzo delarik diakre saildu horren heriotzeaz, erraiten du *hibaia*ko harriak harrentzat ezti izan zirela : *Lapides torrentis illi dulces fuerunt*. Zedroneko hibaia, doi-doia zombait urhatsetan da azken aiphatu lekhu hortarik. Bertze tokia, Zedroneko hibaia tik oren laurden baten edo gehiagoen urruntasunean da, eta ez da hurbilago bertze hibaia rik. Bi lekhu diferent horietan izan gira Jondoni Echteberen ohoretan ; hola ez ginuen trompatzeko beldurrik, bi lekhu aiphatu horietan haren martirioa ohoratuz.

HOGOIGARREN KAPITULUA

OLIBETACO BARATZEA. AGONIAKO
LEKHUA

Jauts gaiten oraino zombait urhats; goazin zubian gaindi Zedroneko hibaiaz bertze alderat. Olibetako mendirat deraman bideak sepharutzen gaitu Olibetako baratzetik, eta Jesusen agoniako tokitik, nahiz erran ditakeen agoniako toki hori Olibetako baratzearen zathi bat dela. Baratze hartarat bazohan salbatzailea ardura, han, mundutik urrun, hiriko harrabotsetarik urrun, othoiztean egoiteko. Nork khonda Jesusek mendi-zola hartan, Olibetako baretze hartan phasatzen zituena orenak, gabak? Baratze saindu hartan phausatzen zen Jainko-Gizon hori egunazko akhiduretarik. Bertzenaz ere templotik berehala zen baratze hori; aski zen pochi bat patarra behera jaustea. Han zen, temploari kontra, hiriko bortha doble, handi eta ederra, izena zuena bortha urbeztatua, egungo egunean oraino ikhusten dena; bainan mahometanoek hetsia daukate, eta erraiten dute bortha hura idekitzen denean, Frantsesak handik sarthuko direla eta Jerusalemeko hiriaz nausituko direla. Agian bai!

Ikhusten da oraino egungo egunean aiphatududan Olibetako baratze hura, ederki Fraide

Frantchichkanoek arthatua, lorez edo liliez bethea, khurutzearen bidea egiteko hamalau harri Khurutzedunekin.

Baratze hori harrasiz hetsia da eta burdin hetsiz. Bortha apha! bat egina diote, amoreagatik eta alimaleak ez ditetzen han sar-ahal, gertbatzen zen bezala, asko aldiz mahometanoen maleziaz edo artha eskasez. Han ikhusten dira zortzi arbola oliba, hanitzen arabera Jesusen demborakoak. Zahartuaren bortchaz kofoituak dira, eta barnea hustua dutelakotz, beldur izaiteko baitzen haizeak adarrak behartuz, edo adarren phisutasunaz, trunko hustuak zarta zitetzen, harritz eta morteroz bethe dituzte arbola heien barneak, eta oraino kampotik ere inguratu dituzte lurrez. Zortzi oliba arbola horien trunkoak guziz espantagarriak dira beren loditasunaz. Batek baditu zortzi metra inguru. Khurutze sainduaz kampo, deusik ez da hain errespetagarririk nola arbola horiek. Horietarik den pochi ttipiena edo chumeena balute, handizki preza lezakete baratze hartarat sartzen direnek, baina ez dira hartzerat menturatzen; zeren eskumikuzko gaztigua bada handik deusik hartzen dutenen kontra; haizu uzten balute girichtino bakhotcha baratze hartan eta bertze Lur Sainduko lekhu askotan nabi duenaren hartzerat, laster kalte handiak eginak litazke. Bizkitartean, Fraide Frantchichkanoek emaiten dute berek asko gauza; hola,

Jerusalemerat juanak ginen guzier eman zaizkuten arrosario pare bat Olibetako baratzean diren zortzi arbola heien zuretik eginak. Olibetako baratze saindu hortan guziz ezti da othoitzean egoitea, khurutzearen bidea egitea, orhoitzea hanitz eta hanitz aldiz lekhu hartarat bererat heldu zela gure Nagusi adoragarria. Orai hetsia den Olibetako baratze hortan sartzean, Jesusek utzi zituen bere Apostoluetarik zortzi, erraiten ziotelarik han egoiteko othoitzean. Judas jadanik juana zen haren trahitzerat eta etsaier libratzerat; berekin gorachago eremanarazi zituen hiru Apostolu, eta horiek ziren Jondoni Petri, Jondoni Jakōbe eta Jondoni Joani. Hiru hauk ere Salbatzaileak geldiarazi zituen harri zabal, lur-arras den baten ondoan. Jesus bera juan zen hiru Apostolu hetarik haratchago, besogainka igortzen den harri-ukhaldi baten bidean, eta urruntasunean. Han bazen grota edo lurpeko barne handi bat, egungo egunean ere orduan bezala dena : edergailurik, ez marbrerik ez da han ikhusten Jesusen agoniako gau ikharagarri hartan baino gehiago : harria, lurra, bertze gainerako guziak hala hala utziak dira. Harrokatik dauden hiru harriak, ernai chutik daudenen gisa, atchikitzen dute agoniako barne haren gaina, bardin eta gain harrek atchikia edo sustentatua izaitearen beharra balu; ezen, gain harrokazko harrek iduri luke bera egon laite-

kela; bainan nesesarioki hiru ernai harrizko horiek azkartzen dute grota edo barne horren gaina.

Demboraz agoniako barne horren gainean eliza bat egina izan da; bainan egungo egunean kampoko eliza hori ezeztatua da. Lurpeko barne horren gibelean, gaina zilhatua da, eta zilho handi hortarik sartzen da argia barne bartarat. Agoniako barne horrek baditu luzean hamar, hamabi metra nonbait han, eta largoan zazpi, zortzi. Eskaler ttipi zortzi bat mailetako batetarik sartzen da Agoniako barne hortarat, eta aitzina jua ondoan, ikhusten da Jesusen agoniako lekhoa lurtean izkirio huñekin : *Hic factus est sudor ejus sicut guttæ sanguinis decurrentis in terram*; edo eskuaraz : *Hemen atheratu zitzaion izerdi bat odol hortak bezala lurrerat zariona.*

Izkirio horrea lekhu eta gainean khausitzen da aldare nagusia. Nahi izan nuen eman meza agoniako lekhu hartan berean; hortakotz ene gambarako bi lagunekin adituz, hiruek elgarren ondolik erran ginintuen gure mezak, bertze aphez batzuek berenak erraiten zituzten demboran agoniako barne hartan bi aldetarik diren bi aldaretan. O zer amodiorekin, zer fede biziarekin emaiten den musu agoniako lekhu harri, zoina izan baita Jesus maitearen odol preziatuaz santifikatua! Nola, bai guk, bai bertze askok hunkiarazten ginintuen agoniako lekhu saindu

harri gure khurutsefikak, gure arrosarioak, medailak eta Frantziarat ezaguner ekharri behar ginintuen bertze erlijionezko gauzak! Hola hola egiten giuen bertze hanitz tokitan, zombait orhoitzapen saindu balinbazuten toki hek. Agoniako lekhu hura guziz hunkigarria da, eta han, othoitzak khartsu egiten da, nigarra nagusitzen, Jesus agoniakua hobekiago maithatzen. Jali gaiten orai agoniako lekhu saindu hortarik, eta igan gaiten aiphatu zortzi bat mailetan gora, Ama Birjinaren thombako alderat.

HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

AMA BIRJINAREN HERIOTZEA, THOMBA
ETA ZERURAT EREMANA IZAITEA

Han berean, zombait urhatsetan khausitzen da Ama Birjinaren thombako eliza. Lehen, eliza hori handia eta ederra bezen, orai aphala eta hitsa da; ez du iduri ere eliza, bainan kapera ttipi bat. Han dira, Ama Birjinaren thombaz bertalde, haren aita-amen thombak ere, bai eta ere san Joseperena eta Simeon profetarena. Josapateko haranean izan zen beraz gure Ama ona ehortzia eta haren thomba hutsa dago. Hutsa izana gatik ere, nahiko ginuken thomba hori ikhusi, bainan chizmatikoen eskuetan da thomba hori; hortik, askok gure artean bazuten beren herabea eta ezin menturatua juaiteko bai kapera hortarat, bai bertze zombait eliza edo komentutarat chizmatikoen eskuan zirelakotz. Bertze lagun batzu, bazohazin lekhu hetarat *kuriostatez bezala*, bainan batere han erlijioneko seinalerik eman gabe chizmatikoen lekhuak baitziren, eta ez baikinuen eman behar iduripenik ere, ez itchurarrik gure erlijionea heienarekin bat egiten ginuela.

Erran dut Ama Birjinaren thomba hutsa dela. Huna nola : Jesus Jauna zerurat iganez geroz, Ama on hori egon zen urthe luzez, autor baten

arabera hogoi eta hiru urthe, lurraren gainean. Dembora hortan, bisitatzen zituen ardura Jesussek bere presentziaz santifikatu tokiak, hala nola Bethleem, Nazareth, bereziki Galberioa, Olibetako baratzea eta mendia. Bazuten Apostoluek eta bertze fededunek Ama on haren kontseiluen eta argien beharra. Ama maite hori Jerusalemen zagon, Jondoni Joani Ebanjelistaren etchean; ezen, Apostolu hunek hartu zuen berekin Jesusen Ama, ja haren Ama eta gurea bilhakatua khurutzearen oinetan. Jesus zerurat iganez geroztik, aihen-minetan zagon Maria Saindua, galdeka bere Semeari othoi zerurat har zezan, han gozatzeko hartaz eternitate guzian. Azkene-kotz Salbatzaileak entzun zituen bere Ama onaren galdeak. Ezagutarazi zion beraz Ama Birjinari hurbildua zela oren dohatsua, nigarrezko haran huntarik igaiteko zeruko egoitza bethierekorat. Munduaren konbertitzerat juanak ziren Apostoluak, bainan khausitu ziren, mirakulu handi batez, san Tomas salbu, Maria Sainduaren hil-oherearen inguruan. Oi, heien nigarrak ikhusiz beren Ama galtzerat johan zirela! Batek galdatzen zion grazia berezi bat, bertze batek bertze zerbait fagore; bertze bat hurbiltzen zitzaion haren benedizionearen galdetzeko. Ama Birjinak kotsolafzen zituen guziak, eta erraiten zioten har zezaten kuraie! Heien aldia ere laster jinen edo ethorriko zela; lehenik behar zirela berriz.

juan munduaren konbertitzerat eta santifikatzerat; gerochago juanen zirela zero ederrerat, han pausatzerat beren akhiduretarik; han elgar ikhusiko zutela, han elgarrekin Jesus Jaunaz gozatuko zirela. Maria geroago eta gehiago ari zen azken mementorat hurbiltzen. Etzuen oin-hazerik gorphutzean ez penarik bihotzean, ez baitzen haren heriotzea bekhatuaren gaztigua, gurea izanen den bezala; bainan hil izan zen bake handi batean, gozo ezin erranezko batekin. Argi eder bat eztiki errez-errez hiltzen den bezala, Ama on hori hil izan zen Jainkoaren ganako amodioaz gainditua. Fruitu ongi onthu bat bere baitharik eskapatzen den bezala bere adarretik, hala-hala eskapatu zen gure Ama maitearen arima bere gorphutzetik. Iguzkia zero gorarat altchatzen den bezala eguerdiraino, halaber Ama Birjina ederrik juan da bere berthuten eguerdiraino; bainan bere eguerdian ez da abiatu gure iguzkia bezala jausten; altchatu da Mariaren arima eta hegaldatu zero goraraino; eta laster, haren gorphutzak ere hartu du zerurako bidea. Ezen huna zer den oraino errana : San Tomas etzen han khausitu bertze Apostoluekin Ama Birjinaren heriotzean. Erraiten diote Apostoluer ai! harrek ere ongi nahi lukela ikusi Jesusen Ama, bedereu thomban! Fagore hori egin nahi diote bere Apostolu lagunek; bertze alde ere hor bada misterio bat : zertako ez ahal da khausitu

Apostolu hori bertze Apostoluekin? Juaiten dira beraz guziak Ama Birjinaren thombarat, bainan, oh! gauzaren miragarria! Andre-dena-Mariaren gorputza ez da han! Jainkoak ezagutarazten diote Ama on hori eremana izan dela thombatik zerurat; eta hori da Elizaren sinhestea : Jesusen Ama juan dela zerurat gorputz eta arima, eta bere sinheste horren orhoitzapenetan, establitu du Elizak bere phesta handienetarik bat : Andre-dena-Maria, hori da agostuaren edo agorri-laren hamabortzeko phesta eder, hainbertze maite duguna. Ama zeruetan gora altchatzean, etzohan bera : mila, miliunka aingeruak haren inguruetan zohatzin, bere khanta errepika eta zerutiar musika ederrak adiaraziz. Laster Jesus ethorri zitzaion biderat bere Amari; eta eremana-raziz zuen Ama maite hori Trinitate Sainduaren oinetarat, eta Trinitate adoragarriak ezarri zuen Birjina Mariaren buruaren gainean khoro eder, distiant bat, erranez : Izan zaite zeruaren e'a lurraren Erregina, Aingeruen eta gizonen Erregina. Beraz Ama Birjina gorputz eta arima zeruan da; bainan zuzen zen Ama maite horren thomba, nahiz hutsa, izan zadio ohoratua. Thomba hartarat jausten da berrogoi eta zortzi eskaler-mail phasatuz; ezen lurrean arras barna da thomba hori, eta errespetuz, bethi phiztuak daude lampak thomba horren aitzinean.



HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

JOSAFATEKO HARANA ETA INGURUAK

Ama Birjinaren thombako eliza ttipitik zombait urhats egin eta, olibetako baratzerako, bai eta Olibetako mendirako bidea da. Bide hartan, bethi ikhusten dira pobre lepradun parrasta bat, batek duela erhi bat leprak jana eta eremana, bertze batek begitartearen zathi bat falta, edo beso bat bihurrikatua, edo zango bat baliorik gabe. Hetarik hanitzek gophor bat edo zerbait untzi eskuan daukate amoina biltzeko. Guziek diote, iduri eta nigarrez : Siñor, Madam, bakchich!!! *Bakchich* hori da edo amoina diru bat, edo zerbitzu baten sari bat edo emaitza bat. Bethi adituko duzu lekhu hetan guzietan galdezko akta : Bakchich ! Lepradun hek, hain pietate egingarriak, ba othe dute behin ere alegrantziarik edo bozkariorik lur hunen gainean? iduri luke ezetz. Bainan bai, heientzat ere bada zombait aldiz jabaldura edo eztitze bat heien penetan eta zerbait urustasun : huna nola. Hek dolumenekin ari zaitzunean galdez : bakchich ! Siñor, Madam, bakchich ! emozute orduan bakchich on bat, erran nahi dut amoina handi bat : Eginen dautzute irri gozo bat.

Heien egon-lekhua Olibetako mendi-zolan da ;

handik ez dira haizu jalitzerat, Jerusalemerat juaiteko, beldur baitira jendeak lepradun hek heier lepra-khotsua eman. Jauts gaiten pochi bat Josafateko haran huntan behera, eta goazin Zedroneko hibaia lekhuana barna bertze alderat: Olibetako mendi-zolan gira. Zer da eta norena da harri-thomba kapera ttipi bat iduri duen hori? Hori da Absalonen thomba.

Absalon Daviten semetarik bat zen; bainan aitaren kontra egiten zuen gerla batean, hil zuten seme gaichto hori; eta nola madarikatua baita aita baten kontra alchatzen den semea, eta harrikatua izaitea merezi baitu, thomba horren ondotik phasatzen diren aita amek bere haurrer harri ukhaldi bat tira arazten dute thomba horri, heier erakusteko ez dela aita amen kontra alchatu behar; berek ere haurrek bezala harria botatzen dute thomba horri; hortik, ikhusten dira Absalonen thomba horren inguruan hanitz harri.

Hemen erran behar dut Absalon thomba hortarik hanitz orenen bidean urrunago hil zutela Jordaneke ur-handiaren hegian; baditake bizkitartean thomba hortarat hil ondoko demboretan ekharria izan den. Handik hurbil, ikhusten da Josafat erregearen thomba, zoinetaz gorago mintzatu bainaiz; han ere da san Jakobe Apostolu Jerusalemeke lehen Aphezpikuaren thomba, edo lurpeko barnea; barne hartarak ihes

juan zen Apostolu hori Jesus preso hartua izan zenean, eta egin zuen botu, dio san Jeromek, etzuela deusik janen ez edanen Jesus phiztua ikhus artino. Phazko egunean Jesus agertu zitzaion Apostolu horri, eta bozkarioz gainditu zuen haren bihotza. Han da ere Zacharias aphez-nagusiaren thomba. Eta bertze zombat thomba ez dira ikhusten Josafateko haran hortan, eta haran hortarik urrunago ere? Ehunka, eta milaka diren thomba hek idekiko dira azken juiamenduko egunean; bainan thomba hek bezen segur gure thombak ere idekiko dira egun lazgarri hartan, gu jalitzerat uzteko, eta khausituko gira gu ere juiamenduko lekhu. Goazen orai Zedroneko hibaiaren bertze alderat, orhoituz guk bertze alderat phasatzen dugun zubiaren gainetik aurdikia izan zela Jesus urerat, preso ere mana izan zen ortzegun sainduko gau deithoragarri hartan, bere erorikoan, harriaren gainean uzten zituelarik zangoen, eskuen, eta belhaunen hatzak edo seinaleak. Jerusalemeko templotik hurbil, da ithurri bat Ama Birjinaren ithurria deitzen dena, Ama on hori juaiten zelakotz ithurri horren urean Jesus Haurraren churiketen egitera, templotik hurbil Simeon profetaren egoitzan eman zituen zombait egunetan, Jesus presentatua izan zenean temploan. Ama Birjinaren ithurri hortarik johan den urak bethetzen du mainhu-hartzeko lekhu bat, zoinetarar igorri

baitzuen begien garbitzerat Jesusek itsu bat, hari begietan ezarriz herrauts ahogozoaz bustia, erraiten ziolarik : « Habil, garbi hadi Siloeko mainha-tokian. » Itsuak ur hartan ikhuzi zituen begiak, eta bichta, sortzetik eskas zuena, betbetan ethorri zitzaion. Sendatze mirakuluzko horrek aski lan eman zioten Jesusen etsaier, hek nahi gorde mirakulu hori Juduen begietan, eta ezin gorde. Espantagarriki ederra laiteke ichtorio hori eta ororen gogorakoa, bainan luzegi juan gintazke. Ama Birginaren ithurriaren eta mainha - toki horren artean bada baratze on, fresko bat, lehen Davit erregearena zena. Hiritik ez da hanitz urrun. Erregeren baratzea deitzen dute.

Mainha-toki aipatu dudan hortarik hurbil, da lekhua, non, dorre batek bere erorikoan lehertu baitzituen hemezortzi gizon, Jesusek bere Ebanjelio sainduan erraiten daukun bezala.

Han ere da hurbilean Nehemiren phutzua, zoinetan gorde baitzuten Juduek temploko sua, johan zirelarik esklabo Perziarat; eta hanitz urtheren buruan, juan ziren phutzu hartarat zombait judu; etzuten surik khausitu, bainan bai ur lohí bat; ichuri zuten ur hortarik mement hartan Jainkoari ofreitzen zituzten sakrifizioen gainerat; eta horra non, iguzkia agertzearekin sakrifizio heien gainerat, mirakuluzko su bat agertzen den eta erretzen dituen ofreituak ziren

sakrifizioak; mirakulu horrek hian ziren jende guziak espantitu zituen. Phutzu hortarik zombait urbatsetan, da arbola bat, orboitarazten duena hian izan zela phikatua erditik sega zurzko batez Isaías profeta, errege Manases gaichtoaren manuz. Igaiten bagira gorachago, sartzen gira Jehenako haranean eta ikhusten dugu non egon ziren gordeak hameketarik zortzi Apostolu Jesusen pasioneko demboran. Jondoni Petri eta Jondoni Joani Jesus ganat jua ziren; Jondoni Jakobe egon zen gero ehortzia izan zen thomban, erran dudan bezala jadanik. Judasez bezembatean, Josafateko haranetik goiti dohan Olibetako mendian erakusten zaukuten lekhu bat, erranez; hara non Judasek bere burua urkhatu zuen. Eta hemen, khasu gauza sainduak profanatzen dituztener, gaizki kofesatuz, gaizki komuniatuz, Jesus hola salduz bere etsaier. Gaztigua goiz edo berant izanen da, mundu huntan ez bada ere, bederen bertzean. Judasek mundu huntarik beretik izan zuen gaztigua. Ezen, Jesusen azken aphairuan hartu zuen ostia saindua, ezin gehiago hura baithan egon ahalez bezala, jali zen Judasen barnetik; ezen, urkhatze hartan, erditik lehertu zen Judas, eta haren hertzek kampa egin zuten. Sakrileioan biziz, gaizki komuniatzen duzun dohakabea, izi zaite gaztigu horren bichtan, bainan desesperamenduan sartzeko plazan Judas bezala, itzul zaite Jesus ganat, eta barkhatuko dautzu.

Judasek botatu zituen templo barnerat Jesus trahitzeko izan zituen hogoi eta hamar diru phezak, eta erran zuen hek botatzean : bekhatu egin dut, libratuz odol justua. Jesusen odolaren prezio hortaz eresia izan zen bachera egilearen landa, estranjerak han ehorzteko, eta hortik deitzen da landa hori orai artino : « Haceldama, erran nahi da : odol landa. » Erakutsi zaukuten landa hura, zoina baita lekhu gora batean. Han da ere kontseilu gaichtoko mendia, non baitzen Kaifasen etche bat, zoinetan elgar aditu baitzuten Jesusen etsaiek haren hilarazteko. Josafateko haranaren ondotik heldu den bertze haran horrek izena du Jehena, ochtian erran dudan bezala; haran hortan, askotan, Molok jainko falsuari sakrifikatzen zituzten jadu itsuek beren haurrak, hek erre araziz Moloken potretaren besoetan edo potret harren barnean, eta atabala joaraziz ez jendek aditzeko haur gaicho erretzen zituzten heien nigar-marraskak. Jesussek izendatua da haran hura Jehena, erran nahi baita auhenen harana, guri gogorarazteko ifernua, non ez baita aubenik, nigarrik, heiagorarik eta marraskarik baizik. Orai giren lekhotik, sarthu ginen Jerusalemerat; baginuen bazkaritearen eta gure akhiduretarik pansatzearen edo deskantsatzearen beharra..... Orai goazen Salomonen templorat, edo hobeki erraiteko, temploa zen tokirat.

HOGOI ETA HIRUGARREN KAPITULUA

JERUSALEMENKO TEMPLOA

Jerusalemeko templo eder guziz aiphatua Moria izena duen mendiaren gainean zen. Mendi hura jadanik ordukotz omen handikoa zen. Jainkoak nahi izan zuenean tentatu Abraham ikhusteko zombatetaraino hura maite zuen, erranzion : « Har zak hire seme bakhar maite dukana, Isaak, eta habil bisioneko (edo ikhuspeneko) lurrrerat, eta han ofreituko dautak hori holokostan erakutsiko deatan mendietarik baten gainean. » Zer bihotz-min ikharagarria Abrahamentzat ! Maite du Isaak bere semea ; maite du bere burua bezembat eta gehiago, eta horra non Jainkoak erraiten dion seme bakhar guziz maithatu hori imolatzeko. Jainkoa mintzatu da : Aski da. Obedituko du Abrahamek osoki. Gabaz jaikirik, chuchendu edo antolatu zuen bere astoa, eta ereman zituen berekin bi gizon gazte Isaak bere semearekin. Phikatu zuen holokostaren erretzeko egurra eta juan izan zen Jainkoak manatu zion lekhurat.

Eta hirugarren egunean, begiak altchaturik, ikhusi zuen lekhua urrunerat, eta erran zioten bi zerbitzarier : Igurik zazue hemen astoarekin : ni eta semea harachetaraino lehiarekin juanez,

adoratu dugun ondoan, itzuliko gira zuen ganat. Hartu ere zuen holokostako egurra, eta ezarri zuen Isaak bere semearen gainean; eta berak eremaiten zituen eskuetan sua eta ezpata. Isaak orhoitarazten gaitu Jesusez, zoina bere khurutzeaz kargatua, igan baita Galberiorat. Jesus da egiazko biktima imolatua izan dena. Hola zohatzilarik aita semeak, Moriako mendirat, Isaak erran zion aitari : « Ene aita, ... huna... sua eta egurra : non da holokostako biktima? » Eaur gaichoak etzakien hura bera zela biktima. Aitak ihardetsi zion : « Jainkoak artha hartuko dik berak holokostako biktimaz, ene semea! » Heldu zirenean beraz Jainkoak erakutsi tokirat, han egin zuen Abrahamek aldare bat, eta antolatu zuen aldarearen gainean egurra, eta gauza lazgarria, hartzen du Isaak bere semea, estekatzen du, ezartzen du aldare hortako egur metaren gainean; orduan hedatu zuen eskua, eta hartu zuen ezpata bere semearen imolatzeko. Aski zen : Jainkoak erran zion : « Etzakala heda eskua haurraren gainerat eta etzakola deusik egin : orai ezagutu diat Jainkoaren beldurra badukala eta ez duk gupidetsi hire seme bakharra ene gatik. » Altchatzen ditu begiak Abrahamek; ezagutzen du Jainkoari aski zaiola harren obedientzia, eta Semea salbu duela, eta oharturik ahari bat dilindan zagola adarretarik laphar batzuer lothua, hura harturik holokostan ofreitu zuen bere semearen plazan. Isaak Jesusen figura edo iduri bat zen.

Moriako mendi horren gainean, ofreituak izan dira geroko demboretan milaka biktimak : aratcheak edo chahalak, idiak, bildotsak edo achuriak, ardiak, abariak ; usoak : biktima horiek guziek seinalatzen edo figuratzen zuten Jesus Salbatzailea.

Jainkoak berak manatu zuen mendi saindu hortan egin zezoten templo bat, zoinetan bakharrik ofreituak izanen baitziren Jesus figuratzen zuten biktimak : Bazohakon templo hari izan zadin osoki ederra eta hala gerthatu zen. Egundaino gizonaren eskuetarik ez da athera obra hain espantagarriki ederrik. Bainan Nabukodonozor errege gaichtoak erre zuen templo hori. Hiruretan hogoi eta hamar urtheren buruan, hasi zuen Zorobabelek bertze templo bat. Lehen temploa ikhusi zutenak nigarrez zauden ezagutuz bigarren templo hori etzela, hurbiltzeko ere, Salomonek egin lehen templo hura bezen ederra ; eta lehen temploa ikhusi etzutenak oihuka zauden bozkarioz gaindituak bigarren templo hori hainitz gogorakoa baitzaioten. Bigarren templo hori izan zen gerochago edertua Herodesen manuz. Zorobabelen templo Herodesek edertu hortan izan zen Jesus Haurra presentatua sorthu eta berrogoi garren eganean ; templo hortan oraino khausitu zuten Jesus legeko doktorren erdian hamabi urthe zituelarik. Templo hortarat juan izan da hanitz aldiz Jesus, hau ardura mintzatu

la; han frogatu izan diote bere etsaier egiazki Jainko zela; eta profeta batek erran ahal izan du bigarren templo horren loria handiagoa izanenu zela lehen temploarena baino, ikhusten baitzuen, Jainkoaren izpirituaz argitua, bigarren templo hori santifikatua izanenu zela Salbatzaile adoraragarriaren presentziaz.

Lehen temploa, Salomon erregeak egin zuen zazpi urthez. Ehun eta berrogoi mila langile baziren templo horren egiteko. Hogoi eta hamar mila ari ziren egur ondo phikatzen, kharreatzen eta lantzen. Berrogoi eta hamar mila ari ziren harri atheratzen eta harri phikatu gisa chichelaz lantzen. Hiruetan hogoi mila gizon bazen kargen eremaiteko.

Aiphatu langile horiek guziek bazituzten manatzailetzat eta gidaritzat hiru mila gizon, edo langile-aitzindari. Behar da bizkitartean erran gizon horiek guziak etzirela oro betan lanean ari; aldizkatzen ziren hamar milaka hilabete guziez. Nork daki zombat ehun miliun libera diru gusta izan den Salomonen temploa! Templo horren dedikazioneko phestan, Salomon erregeak imolatu zituen Jainkoari hogoi eta bi mila idi bai eta ehun eta hogoi mila ardi. Gisa hortako ostiak edo sakrifizioak ofreitzen ziren dembora hetan Jainkoari, eta biktima horiek guziek seinalatzen zuten gure aldaretako Biktima adoragarria. Aratche, bildots, uso, idi, ardi eta

bertze alimale biktima gisa imolatzen zituzten horiek Jainko handiaren gogorako ziren, baina ez osoki. Behar zen, osoki Kreatzailearen gogorako izaiteko, bertze Biktima bat : gure aldare-tako Biktima, meza saildian imolatzen dena; eta Jesusek bere Aitari mintzo delarik, erran ahal izan ditu segidako hitz hauk : « Ostiarik eta obla-zionerik ez duzu nahi izan; baina gorphutz bat formatu dautazu : Holokostak bekhatuarentzat ez dira zure gogorako izan. Orduan erran dut : Huna ni; heldu naiz; liburuaren buruan (edo hastean) izkribatua da nitaz : egin dezadantzat, Jainkoa, zure nahia. » Eta Jesusek bethi obeditu du bere Aitaren nahiari, khurutzearen gaineko heriotzeraino; eta hola imolatu izan da Jesus Biktima Saildua Jainko Aitaren loriako eta gure salbamenduko.

Bigarren templo, Herodesek edertuan ere imolatzen ziren Jainkoaren ohoretan biktimak, Salomonen temploan lehenago imolatuak izan ziren bezala. Bazohakon bigarren templo horri ere ederra izaitea biktima horien gatik, eta bereziki Jesus behar zelakoan ethorri edo jin templo hortarat. Herodesek eman zuen hogoi urthe bigarren templo horren edertzen. Templo eder hortan ikhusten ziren harri phikatuak espantagarriki handiak. Egun batez dizipuluek erraiten zioten Jesusi templo hortan zoin harri phikatu ederrak ziren, eta zoin miragarria zen templo

hori; baina Jesusek erran zuen dizipu'uer ikhus en zituzten gauza handi hek guziak aurthikiak izanen zirela, eta etzela egonen harria harriaren gainean; eta hala gerthatu zen. Nahi zuen, bai, Jesusek temploa eta hiria, hainbertze maite zituenak iraupen luzazko izan zitezen, baina ikhusten zuen gaztigurik ikharagarrienak mehatchatzen zuela Jerusalem, etzuelakotz baliatu nahi Jainko-Gizonak ekhartzen zaizkon graziez, ez eta ere hura ezagutu nahi bere Salbatzailetzat; eta ikhusiz hiri dohakabe horren itsumendua, erran zituen Jesus Jaunak hitz sarkor hauk: « Jerusalem, Jerusalem, hiltzen ditukana profetak eta harrikatzen ditukana hire ganat igorriak direnak, zombat aldiz nahi izan ditiat bildu hire haurrak, oiloak biltzen dituen bezala bere chitoak begalen azpirat, eta ez duk nahi izan! » Eta bertze aldi batez, Jerusalemerat hurbiltzearekin, Olibetako mendian gaindi, hiri hori ikhustean, nigar egin zuen hiriaren gainean, zioela: « Ezagutzen hahu hik ere emana zaikan egun huntan zerk hiri bakea ekhar dezakean! Baina orai gauza horiek gordeak dituk hire beg'entzat! Ezen jinen dituk egunak hire gainerrat, eta hire etsaiek itzulikatuko haute errekaez, eta inguratuko haute, eta hertsatuko haute alde orotarik, eta lurrerat aurthikiko haute hi eta hire barnean diren hire haurrak, eta ez ditek utziko hitan harria harriaren gainean, zeren eta ez baituk ezagutu hire bisitako dembora. »

Eta Jesusek errana gerthatu zen : Salbatzaila hil arazi zuen hiri dohakabe hori izan zen ondoko demboretan erromano soldadoez sethiatua, hartua, aurthikia bere temploarekin.

Templo hori zen lekhuana, badira mahometanoen bi templo, mozkeak deitzen direnak. Mozkea hetan bada asko orhoitzapen gure erlijioneari behatzen direnak : Hetarik baten tokian zen sainduen Saindua deitzen zen lekhuana, bai eta Arkha Saindua, barnean zituena demboraz mana, Aaronen zaharoa eta legeko bi harri-lauzak ; orai hetarik orotarik deusik ez da han ! Bertze mozkean erakusten da non bizi izan zen Ama Birjina, temploan ereman zituen haurtasuneko urtheetan ; lekhu hartan izan ere zen presentatua Jesus-Haurra bere Aita Jainkoari Gandeilu deitzen dugun egunean, berrogoi egun zituelarik sortua zela. Bi mozkea edo templo horien ikhusterat juan ginen ; bainan erran zaukuten behar zirela zapatak soinetik khendu. Ez ginen sendimendu hortako. Zer ! Mahomet tzar, jende engatzailearen ohoretan oinetakoak khen ! Ez ! ahal baten ez !

Bainan alfer zen barnerat abiatzea. Gibelat igortzen ginintuzten. Etzen barnerat sartzeko ahalik oihuts baizik edo espartina suerte batzu hartuz baizik. Beraz hanitzek hartu ginintuen espartinak gure zapaten gainetik. Bainan han gaindi deusik ez da egiten urririk : Bakchicha

galdegin zaukuten espartinentzat; hamar bat sos eman eta, libro ginen sartzerat. Hain zikhinak eta tcharrak ziren espartina horiek nou emanen bainuen gogotik hamar sos ez hek hunkitzeko ere. Temploan sarthu eta, laster ohartu nintzen edo ohartarazi nintuzten ene espartinetarik bat gibelerat gelditua nuela. Juan izan behar nintzen haren bilha.

Temploa bisitatu ginuen batzuek gure espartinak soinean eta bertze batzu oinhuts, bainan guziek gure chapelak buruan, hola ibiltzea haizu baitzen. Templo hartarik jahtzean, khendu nintuen gogo onez espartina zikhin hek; bainan ene zorigaitzetan! Bertze templo edo mozkean sartzean, behar zen espartinekin sarthu edo oinhuts, han ere. Ah! orduan ene espartina tzarrak nahiko nintuen enekin izan; bainan urrunegi ziren. Ohartu nintzen ene lagunetarik bat, bere bi zapatak gora eskuan, sartzen ari zela bertze-kin. Hartu nion bi zapata hetarik bat, eta bertzearen parrean atchikiz, ni ere sarthu nintzen; bainan zombait urhats egin ondoan, sotana zolatik hasi zaitan harat tira, hunat tira. Ez nuen komprenitu nahi zertako hala ari zaizkidan. Aitzina jua nahi nintzan, bainan etzautan haizu izan nahi nuenaren egitea.

Ene mesprezioa handitu zen Mahomet profeta faltsuaren alderat; ezen mozkearen zaintzale hek, bai eta milaka, miliunka Mahometanoak

erlijione faltsuan bizi dira, Mahometen erakuspen gezurrezkoez enganatuak. Azkenekotz jalinginen Jainko Jaunaren temploa egina izan zen lekhu guziz zelhai, luze, zabal eta ederretik. Orai Mahometanoen eskuetan da lekhu hura. Bizkitartean, Juduak heldu dira ortziraie guziez templo egiazkoa egina izan zen lekhurat, eta han, begien aitzinean dituztelarik templo sainduaren harri eta hondar zombait, emaiten dira othoitzari, nigarrari, liburu sainduen irakurtzeari, eta Judu itsuek ez dute ikhusten liburu saindu hek diotela hek chekhatzen duten Mesias jadanik jina dela, demborak aspaldian betheak direla, eta bardin Judea eta Jerusalem galdu badituzte, Jesus beren Erregea eta Salbatzalea hil arazi dutelakotz galdu dituztela eta direla hola gaztigatuak. Heien deboilamendua ikhusiz, heien boz dalamena adituz, heien nigarrak begithartean behera johan zaizkotenak kontsideratuz, beharier ere hanitzetan nigarra jauzten da begietarat, eta girichtino gisa, bakhotcha ekbarria da Judu itsuentzat othoitz egiterat konberti ditezentzat!

HOGOI ETA LAUGARREN KAPITULUA

OLIBETAKO MENDIA. BETHFAJE. BETHANIA. BAZKAL ONDOAK

Olibetako Mendia

Jondoni Salvatore bezperan, juan ginen Olibetako mendirat, Jozafateko haranean gaindi eta Zedroneko hibaia lekhuan barna, Olibetako baratzearen bazterretik. Handik hurbilean da harria, zoinaren gainerat utzi baitzuen Ama Birjinak bere zintura erortzerat, zerurat zohalarik gorphutz eta arima. San Tomasentzat uzten zuen orhoitzapen hori Maria Sainduak, eta zuzen zen, etzuen San Tomasek Ama maite horren azken adioak aditzeko zori ona izan.

Olibetako mendia inguruna hetako mendirik ederrenetarik bat da, nahiz ez den arras gora. Mendi horren gain-gainean da lekhua, zoinetarik Jesus zerurat hegaldatu baitzen, utziz harrian bere oinen hatzak. Bi oinen hatzak lehenago ageri ziren, bainan edo harriari musu emanaren bortchaz eta hola harria higatuz, edo harri puchkak jauzaraziz, edo harriaren erdia eremanez zango baten hatzarekin, jadanik ez da han ikhusuten ezkerreko sangoaren seinalea baizik.

Lehenago, han bazen eliza eder bat Santa Elena emperatrizak eginarazia, erdian kupola

batekin; San Jeromek eta bertze askok erraiten dute eliza horren gain-gainean eta erdi-erdian gelditu zela zilho bat, zerratu nahi zutena langilek, bainan egundaino etzuten zilhoa ezeztarazi ahal izan. Jesus Jaunak nahi zuen mirakulu hori egin, ezagutarazteko lekhu hortan gora igan zela zerurat. Santa Elenaren eliza ederra aurtikia izan da, eta orai ez da han ikhusten Mahometanoen mozkea ttipi-ttipi bat baizik, hura ere gainetik hetsi gabea, eta barnean duelarik aiphatu harri hori, Jesusen zango-hatzarekin. Amodiorekin hurbiltzen ginen emaitako errespetuz musu oin-hatz horri. Jondoni Salvatore bezperan lekhu hartarat juanak, gaba iragan ginen othoitzean eta ofizioaren gora erraiten Aita Frautchichkanoekin. Gau erditik goiti hasi ginen mezen emaiten mozkea ttipi hartan eta haren inguruan ere argitu ondoan. Hanitz girichino katoliko ezkoletakoak, eta bertze asko, jin ziren Jondoni Salvatoreko mezaren entzuterat. Iguzkia agertu zenean, ohartu ginen bichtarik miragarriena ginuela begien aitzinean. Ageri zen Jerusalemeko hiria eta bereziki temploa izan zen lekhoa. Iguzkiaz urhestatua bezala, iduri zuen hiri horrek oraino zerbait bazela.

Amodiorekin gain hartarik behatzen da Siongo mendiari, Galberioko mendiari, Davit erregearen dorre gorari. Ezkerrean, bi orenen bidean ikhusten da Bethleem, Jesusen sor-lekhua;

iguzki-jalitzeko alderat itzuliz, aitzinean dira Judeako desertua, Arabiako mendiak, Neboko mendia, Jurdaneko ur-handiaren inguruak eta itsaso Hila.

Olibetako mendian berean erakutsi zaukuten *Vivi Galilæi* deitzen den lekhoa, hola deithua edo Galileatik Jerusalemerat ethortzen zirenek han egon-lekhoa hautatzen zutelakotz, edo aingeruak Apostoluer han agertu zirelakotz Jesus zerurat igan zenean. Olibetako mendi hori behera, ezker hartuz, jautsi ginen bi ehun urhats, eta juan ginen karmeliten kapera ederrerat. Kapera hortan sarthu baino lehen, bada lili-baratze eder bat, murruz inguratua : luzerat eta largorrat murru hek edertuak dira hogoi eta hamabi faianza-harri ederki lantuz, zoinetan izkribatua baita hogoi eta hamabi lenguaietan *Gure Aita*, othoitzetan ederrena. Lekhu hartan erakutsia izan da Jesus Jaunaz *Gure Aita*, nahiz othoitz bera erakutsi ere duen Galilean, mendi baten gainean, bere demboran gauza hori erran dugun bezala.

Bainan ez da sobera holako othoitz aberatsa eta miragarria bietan erakutsia izanik ere. Hortik ezagutarazten dauku Salbatzaleak zombat atchikitzen zion othoitz hoin aberats, hoin miragarri, hoin eder horri. Huna zoin hizkuntza edo lenguaietan izkribatua den *Gure Aita* Olibetako mendiaren gainean : Izraeldarrez, Grekez,

Latinez, Frantsesez, Españolez, Italiano, Portugesez, Angelesez, Alemanez, Flamanez, Polonenez, Jeorjianoz, Zamaritanoz, Etiopianoz, Armenianoz, Thibetanoz, Bretoinez, Zuedosez, Industanoz, Kurdez, Koptez, Zanzkritez, Tartaroz, Kaldeanoz, Ziriakoz, Slavonez, Danuasez, Mozkovitez, Turkoz, Norvejianoz, eta oraino Arabiako eta Chiniako lenguaiaz.

Latinez *Gure Aita* izkribatua den tokian izan da othoitz hori erakutsia. Latinak edo katolikoak gu gira, Aita Sainduaren aldekoak girenak; eta bozkariatu behar gira Jainkoak nahi izan duela-kotz othoitz baliok hori izan zedin erakutsia ez haratago, edo huratago, bainan latinez othoitz hori izkribatua den gure harri ederraren tokian. Jerusalemerat jua baino lehen, izan nuen chedea othoitz hori izkribarazteko eskuaraz Olibetako mendian, bertze lenguaia edo hizkuntza aipatu ditudan horien artean. Banuen Bikario Jeneralaren *baia*.

Galdegin nuen beraz karmeliten Serora Superioraren ikhustea; huni erran nion zer zen ene chedea; osoki haren nahiaren araberakoa zen ere. Etzen aski haren *baia* izaitea; behar zen ikhusi bazenetz gasturik egiteko eta zer gastu. Ene galdeari ihardetsiz, erran zautan baietz bazirela gastuak eta gastu hek juaen zirela bortz-sei ehun liberetarat. Bortz edo sei ehun libera eman behar izaitea, ez-baian, zerbait bazen, bereziki

hain bertze diru ordu artean gastatuak nintue-
nean, eta oraino gastatzeko bide frango. Erran
nion Karmeliten Serora Superior horri ongi zela,
geroago, behar bazen, izkribatuko niola. Beraz,
bortz edo sei ehun liberaren eskasean, *Gure Aita*
ez da izkribatua, hogoi eta hamabi hizkuntza edo
lenguaia diferentez othoitz hori izkribatua den
tokian; eta bizkitartean gure eskuara da aipatu
lenguaia hetan ederrenetarik, eta zaharrenetarik,
menturaz ederrena eta zaharrena, Jainkoaren
populuaren lenguaiaz kampo. Hemen, oihu egi-
ten dut Eskualdun fede handikoer, bai eta es-
kuararen amodioa dutener. Batere galderik egin
gabe, eman dautate soma ttipi bat. *Orai, galdea*
egiten dut, eta esperantza dut ez dela alferretan
izanen; zerbait emaiten duten guzien izenak
izkribatuko ditut. Beraz, paper batean eskuaraz
izkribatuko dut lehenik *Gure Aita*, eta paper be-
rean izkribatuak izanen dira chede hortarat zer-
bait igortzen dautaten guzien izenak. Othoitz
horrekin izen horiek igorriko ditut Olibetako
mendian egoiten diren karmeliten komenturat,
han komentuko paperen artean begiratuak izai-
teko; eta egun batez juaiten bada zombait Es-
kualdun Lekhu Sainduetarat, ikhusiko du, nahi
badu, zoin diren Eskualdun jainkotiarrek *Gure*
Aita harri lauza eder batean izkribarazi dutenak
komentu hartako lore-baratzean edo kaperan.
Sobera diru biltzen bada, gaindia igorriko dut
komentu bererat karmelitentzat.

Gure Aita erakutsia izan den toki hortarik beherachago, hogoi eta hamar metretan, khausitzen da grota edo lur-peko barne bat, zoinetan Apostoluek *Sinhesten dut* formatu edo egin baitzuten, othoitz ederra gure erlijione sailduko egia printzipalak erakusten daizkuna. Huna Apostolu bakhotcharen artikulua ene eskuz han be-rean kopiatu dudana bezala :

Jondoni Petrik erran du : « Sinhesten dut Jainko Aita bothere guzia duena baithan. » Jondoni Joanik erran du : « Zeruairen eta lurraren Kreatzailean. » San Jakobek erran du : « Eta Jesu-Kristo haren Seme bakhar gure Jauna baithan. » San Andresek erran du : « Zoin kontzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren berthutez, sorthu zen Maria Birjina ganik. » San Filipek erran du : « Pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, khurutzelikatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten. » San Tomasek erran du : « Jautsi zen ifernuetarat; hirugarren egunean jaiki zen bizirik hilen artetik. » San Bartolomek erran du : « Igan zen zeruetarat; jarria dago Jainko Aita bothere guzia duenaren eskuinean. » San Matink erran du : « Handik ethorriko da bizien eta hilen juiatzerat. » Bigarren San Jakobek erran du : « Sinhesten dut Izpiritu Saindua baithan, Eliza katoliko sailduan. » San Simonek erran du : « Sailduen partaliertasunean, bekhatuen barkhamenduan. » San Judek erran du : « Haragia-

ren phiztean. » San Matias, Judasen ordain Apostoluzat hautatua izan zenak erran du : « Bethi irannen duen bizitzean. Halabiz. »

Apostoluek *Credo*, edo Sinhesten dut egin zuten lekhan orai bada kapera ttipi bat. *Pater* eta *Credo* eginak eta erranak izan diren eskualdean, da oraino lekhuia, non Jesusek, hiria begien aitzinean zuelarik, nigar egin baitzuen, erran dudan bezala gorachago, ikhusiz hiri dohakabe hura izanen zela aurdikia. Salbatzaile adoragarriaren nigarren gatik izendatua da lekhu hura *Dominus fleuit*, eta haa bazen lehen eliza bat, Jesusen nigarren ohoretan; bainan egungo egunean ezeztatua da eliza hori. Goazin oraino aitzinat. Horra Olibetako mendiaren lekhuia, deitzen dena Eskaudaiako mendia. Haa, templo sainduaren parrean, Salomonek, erregetan zuhurrenak, jakintsunenak, hain Jainkoaren gogorako izan zenak, egin zuen templo handi bat jainko faltsuen ohoretan, eta han jainko faltsu horier ofreitzen zuen inseasua, bazakielarik etzirela idola horiek jainkoak, eta hori, zahartua zelarik ordukotz, lizunkeriazko eta tzarkeriazko izpiritu lohiaz nagusitua zelakotz. Horra zer den gizona ez badu gerla egiten jaidura tzarrer!

Bethfaje

Salbatore goizean, juan ginen Bethfajerat eta Bethaniarat. Kausitu uen Bethfaje arras urrun

zela. Ez da han gehiago harri bat baizik, berriki egina izan den kapera pobre baten barnean. Erran zukuten harri haren gainetik igan zela Jesus Jerusalemeko alderat hura ereman behar zuen abere eztiaren gainerat. Baditake eta sinhesten ere dut, harri hartako diseinuak eta markak ikhusiz, Jainko Gizon egina harri hortaz baliatu dela, bainan ez dezaket sinhets Bethfaje hain urrun zela Jerusalemetik : erran nahi dut : oren baten edo gehiagoren bidean. Bethi. Ebanjelio saildua irakurtu dudanean, uste izan dut Bethfaje Jerusalemetik hurbil hurbilean zela. Mizlin deitzen den autor, Lur Sainduen gainean hiru liburu izkribatu dituenak dio Bethania Jerusalemetik hiru oren laurdenen bidean dela, eta oren laurden baten bidean Olibetako mendia- ren gainetik, eta dio Bethfaje mendi gain hor- tarik hurbil zela.

San Jerome sendimendu bereko zen; ezen, dio : « Bethfaje hiri chume bat zela Olibetako mendian *Villula in Monte Oliveti*. » Lehen bazen mendi hortan eliza bat Bethfaje deitzen zena. Aipatu dudan harri handi eder hori ikhusi ondoan, abiatu ginen Jerusalemeko alderat. Errana izan zukun goizean bide aski luzea egin behar- ko zela.

Gehienak oinez ginen; bazen bizkitartean ber- tzen artean Jaun aphez bat abere baten gainean; uste nuke beharri luze bat zuen; behinik bat,

alimalea eztia zen, bainan haren gainekoa etzen mirakuluzko kabaliera edo zaldiduna. Uzten zuen abere hori juaiterat pochi bat nahi zuen bezala; eta nola arbola apha! batzuen azpitik bai-ginohazin, abere hori adarren artetik zabilan bere asmuaren arabera. Uruski, etzohan aberea Absalonen mandoa bezen laster. Ohartzen zen beraz gure zaldiduna, adar horiek akhitzen zutela : hortik, ahantziz eztitasuna, aire bizi batean erran zion bere lekhaio edo gidariari zertako etzuen aberea bide onetik juanarazten, iduri eta zaldidun batek ez duela zaldia guti bat bederen gidatu behar!

Heldu izan ginen azkenekotz Bethaniaren bichtarat.

Bethania

Bethania ikhustearekin, gelditu ginen *Elheketako Harrian*. Han Martak eta Maria Madalenak erran zioten Jesus Jaunari anaia Lazaro hil zizaiotela.

Guziek badakigu nola Maria Madalenak eta Marta haren ahizpak adiarazi zioten Jesusi harrek maite zuen Lazaro heien anaia eri zela. Jesus aski urrun zen handik. Juan zen beraz Bethaniarat anaia arreba horien egon lekura; bainan Salbatzailea ethorri zen herri hortarat Lazaro lau egun hartan jadanik hila zelarik. Arraposki juan zen gure Nagusi adoragarria mi-

rakulu bat egiteko guziz espantagarria; hortik frogatzeko bere etsaier Jainko zela. Jesus ethorri zenean erran dudan harri horren ondorat, han gelditu zen, Bethaniatik oren laurdentsu baten bidean. Aditu zuenean Martak Jesus jina zela, juan zen haren biderat, eta erran zion Jesusi: « Jauna, izan bazine hemen, ene anaia etzen hilen! » Bainan oraino ere badakit ezen Jainkoari galdatuko ditutzun guziak, emanen daitzula Jainkoak.

Ihardetsi zion Jesusek : « Phiztuko da zure anaia ». Erraiten dio Martak : « Badakit phiztuko dela hilen phiztean azken egunean ». Dio Jesusek : « Ni naiz phiztea eta bizitzea. Ni baithan sinhesten duena, hila balitz ere, phiztuko da. Eta nor ere bizi baita, eta sinhesten baitu ni baithan, ez da hilen nehoiz ere. Sinhesten duzu hori? » Martak ihardetsi zion : « Bai Jauna, sinhetsia dut zu zarela Kristo, Jainko biziaren Semea, mundu huntarat jin izan zarena ». Eta horiek erran zituen ondoan, juan zen eta deithu zuen Maria bere ahizpa ahapetik, erranez : « Nagusia hemendun eta hire galdea din ». Hura, aditu zueneko, jaiki zen berehala, eta jin zen haren ganat. Ezen, oraino etzen jina Jesus Lazaro hila zagon etchera, bainan Marta biderat atheratu zitzaion toki hartan zen.

Baziren hanitz jende jinak Jerusalemetik Bethaniarat, Maria Madalenaren eta Martaren kon-

tsolatzerat. Haukiek, ikhusi zutenean nola berehala chutitu zen Maria Madalena eta kamporat abiata, uste izan zuten Lazaroen thombarat zohala; eta ondotik abiatu zitzaizkon.

Bainan thombarat juaiteko bidean, juan zen Jesus zagon tokirat, eta Jesusen oinetan ahuspez emanek, erran zion : « Jauna, hemen izan bazine, etzen hilen ene anaia ! » Jesusen Bihotz onak ez zezaken utz kontsolatu gabe Maria Madalena eta Marta haren ahizpa. Nahi izan zuen beraz Lazaro heien anaia phiztu ; eta erran zuen : « Non ezarri duzue ? » Erraiten diote : « Jauna, zato eta ikhusazu. » Hurbildu zen beraz Jesus thombako alderat ; eta nigarrez hasi zen. Hori ikhusirik, han ziren Juduek erran zuten : « Beha nola zuen maite ». Aldiz, heien artean zombaitek erran zuten : « Ez othe zezaken, sortzetik itsua zenaren begiak ideki dituenak, hau debeka hiltzetik ? » Jin zenean hobirat, zoina baitzen harpe-zilho bat, eta harri bat zuen gainean, erran zuen Jesussek : « Khen zazue harria ». Erraiten dio Martak, hil zenaren arrebak : « Jauna, oraikotz usaindua da, ezen laugarren egunekoa da ». Erraiten dio Jesussek : « Ez othe derantzut erran ezen sinhesten baduzu, ikhusiren duzula Jainkoaren loria ? » Khendu zuten beraz harria. Mirakuluaren dembora zen ; bainan mirakulu esantagarri hura egin baino lehen, nahi izan zuen Jesussek frogatu Jainko zela ; segur zela hil har-

ren phizteaz, eta Aita Jainkoak bethi entzuten zuela eta osoki on hartzen haren egiteko moldeak. Beraz, Jesusek begiak zerurat alchaturik, erran zuen : « Aita, eskerrak darozkitzut zeren entzun bainauzu. Nik banakien bethi ni entzuten nauzula, bainan inguruan dagon populuaren gatik mintzo naiz, sinbets dezatentzat zuk igorria naitzela. » Hitz horiek erran zituenean, boz handi batekin oihuka erran zuen : « Lazaro, hangi kamporat! » Eta berehala, jali zen thombatik Lazaro oinak eta eskuak lokharri cherrendez estekatuak; eta begithartea gordea zuen hil oihalaz. Erran zioten Jesusek : « Khen diozkotzue lokharriak eta utzazue joaiterat ». Laztu eta harritu ziren han ziren guziak. Hanitz beraz Juduetarik jinak zirenak Mariaren eta Martaren ganat, eta ikhusi zutenak Jesusek egin zuen mirakulu handi hori, koibertitu ziren eta siahetsi zuten Jesus baithan. Nik hemen izkribatu dudan Ebanjelioa diakreak, edo aphezak pharte khantatzen du hila ehorzteko den meza guzietan. Orhoit gaiten Ebanjelioko demboran ichtorio eder hortaz, erranez gure buruari gu ere phiztuko girela Lazaro bezala azken juiamenduan.

Urthean behin aphez batek goraki eta kampoan khantatzen du Ebanjelio hori Bethaniako herrian, eta Mahometanoek berek atseinekin eta errespiturekin entzuten dute ichtorio hori, heien lenguaian khantatua; eta heien herrian gertha-

tua izan dena. Ichtorio hortaz orhoituz, bai eta Jesusek zuen estekamendu bereziaz hain ardura bisitatzen zituen anaia-arreba horien alderat, baginohatzin amodiorekin Bethaniarat. Bainan ez da han gehiago zombait etche tchar baizik. Maria Madalenaren eta haren bi haurriden gaztelua bera eroria da, bai eta han izan den eliza ere. Demborak oro garbaitzen ditu eta ezeztarazten. Choilki ageri dira oraino harri kolona ederki lanthuak izan diren hondar zombait.

Lazaro ehortzia izan zen thomba nahi izan ginuen ikhusi. Gazteluaren hurbilean da. Bideko aldetik, eta kampoz, egina da harrizko eskaler bat hogoi eta lau mail dituen eta lur-barnera dohana. Nola beherago eta ilhunago baita barne hartan, eman zaukuten chirio bat eskuetan, bainan bakchicha galdatzen zaukutelarik ordaintzát.

Hogoi eta lau eskaler mail jautsi ondoan da Lazaroren thomba, bainan ez ginen guziak juan barne ilhun hartarat. Gazteluko aldetik ez da hoin bertze mail jausteko; alde huntarik hurbildu zen Jesus thomba hortarat; eta phiztu zue-nean Lazaro, phesta saildu eta handia egin zen gaztelu hartan; bazkaltiarretarik bat zen Lazaro, eta hola, phiztua zelako frogantza egiazkoak emaiten zituen.

Bethaniatik itzuli ginen Jerusalemerat eguerdi heineko. Olibetako mendi bazterra barna iganez,

jautsiz, berriz iganez, heldu ginuen landa hegi batetarat, non baitzen phiko-ondo bat. Egun batez Jesus hurbildu zen phiko-ondo hartarat, nahiz zombait phiko jan; eta khausitu baitzuen fruiturik gabe, baxharrik hostoekin, erran zion : « Sekulan hitarik ez bedi nihoiz fruiturik sor! Eta ihartu zen ordu berean phiko-ondoa.

Mirakulu hori ikhusiz, harritu ziren dizipuluak, eta erran zuten : « Nola betbetan ihartu den! » Jesusek erran zioten : « Egiaz erraiten dautzuet, bazinute sinhestea eta ez bazinete khordokatzen, ez duzue baxharrik phiko-ondoaz eginen, bainan mendi horri berari erraiten bazinute : habil eta aurthik hadi itsasorat, egina izanen da ». Eta othoitzean sinhetsiz galdatuko ditutzuen guziak, ardietsiko ditutzue. Ikhas dezagun hemen sinheste azkarra baginu, hanitz grazia eta laguntza ardiets ginetzazkeela, ardies ten ez ditugunak fede eskasez. Erran dudan phiko-ondoaren tokian, bada sorthua bertze phiko-ondo bat; hortarik eman zautaten hosto bat edo bertze, bainan zombat gauza hain urrundantik ekharri nabiko gintuenak, bainan ezin ekhar!

Bazkal ondoak

Bazkal ondoan, orhoitu nintzan Jondoni Salvatore zela, behar nintzela bezperetarat juan. Aratsaldetan, baginohatzin eliza batetarat edo bertzerat, eta khausitzen ginuen edo benedikzio-

ne bat, edo prediku bat, edo bezperak. Aldi batez, jua nahi izan nintzen Jerusalemeko katedralerat, eta sakristian gerthatzen nintzelarik, norbait, aplez edo kalonje, hurbildu zautan eta erran : behar duzu Sakramendu Sainduaren benedikzioea eman. Urrun nintzen, arrazoinekin, ohore horren igurikitzetik. Bainan alferretan izan ziren ene entseiuak, eta erori nintzen bertzen nahirat, bereziki erran zautatenean : Emazu benedikzioea zuek eta guk elgarrekin dugun fede beraren seinaleztat, eta hala egina izan zen. Bertze aratsalde batzuez juaiten ginen edo Freretarat; eta Don Beloniren eskolarat, edo Sioneko Seroren komenturat, ikhusteko guregatik, eskola horietan guzietan egiten zuten phesta handia, Frantzian eskolako urthe akhabatzen den azken egunean egiten den bezala. Jerusalemeko haur horiek hanitz ongi frantsesez mintzo ziren elgarren artean ditchoka, eta artetan khantatuz. Mintzo ere ziren italianoz eta arabez. Erran gabe doha deusik ez ginuela komprenitzen azken lenguaia hortan. Bizkitartean, arabe hizkuntza adituz, erran zinezake eskuaraz mintzo direla. Nihaurek aditu ditut segidako hitz hauk edo haukien iduriak : *Nik huro, hik hau. Bazen haro,* eta holako zombat hitz! Choilki zer nahi zuten hitz heiek erran, hortan da lana. Nahi izan nuen khantu arabe bat izkribarazi gure izkribu molderan, eta ez arabez; hanitz eta hanitz hitz eskuara



iduriak bazituen, baina erran zautan Siongo Serora batek etzaitekela gure hitzetan ezar kantua.

Aratsaldetan oraino, lau orenetan juaiten ginen nahi ginuen guziak Frantchichkanoekin Sepultura Sainduko elizarat. Han, egun oroz Fraide saindu horiek egiten dute prosesione bat Jesussek bere pasionean eta hil ondoan bere presentziaz santifikatu dituen lekhetan; lakhet zaikun Fraide heiekin prosesione horren egitea, eta emaiten zaizkuten ezko chirio batzu, lekhu ilhuetan irakurtzen ikhusteko.

HOGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

BETHLEEM

Jadanik Jerusalem ikhusia, nahi izan ginuen ikhusi Bethleem ere. Bethleem, Jesus Haurraren sor-lekhua, Davit erregearen sor-lekhua, Bethleem hiri ttipia, bainan Jesusen eta Daviten gatik hain aiphatua izan behar zena, emana zukun beraz ikhus ahal izaita Bethleem, bere establiarekin, guhauren begiez ! O zoriona ! Jerusalemetik Bethleemera nonbait han oren bat eta erdi bide da. Harat heltzeko banuen karrosa. Bidea ederra da. Ez dut Judean ikhusi bi karrosa-bide baizik, eta hetarik bat da Bethleemerat Jerusalemetik dohana. Goiz ondoan abiatuak, tenorez Bethleemen ginen. Egun hura eta bihar amuna gure eskuko ginintuen. Asko gauza badira hemen aiphatzeko, Jerusalemen eta Bethleemen artean gerthatu direnak edo ikhusten direnak. Jerusalemetik jali eta, laster da lekhua, zoinetan Davitek bi bitoria handi irabazi baitzitu Filiztindarren kontra. Han ere errana da zela Simeon zaharraren etchea. Profeta saindu horrek besoetan atchiki zuen temploan Jesus Haurra, sorthu eta berrogoigarren egunean izan zenean presentatua temploan.

Haratchago zen lehen arbola bat, zoinaren

adarrak aphaudu baitziren Jesusi *agur* egiteko. Ama Birjinak eta san Josepek Jesus ereman zutenean templorat. Arbola haren itzalean phausatu zen familia saindua. Jerusalemen eta Bethleemen artean, bidez erditan da errege Magoen phutzua. Haren ondorat heldu zirenean, agertu zaioten izarra, Jerusalemerrat hurbiltzean bichtatik galdu zutena.

Haratchago juaitearekin, ikhusten dira eliza erori baten zombait hondar, lehenago Habakuk profetaren etchea zen lekhuau. Bere langiler eremaiten zioten jaterat; horra non Aingeru bat agertzen zaion erraiteko ereman zezan berekin zeraman janharria, Babiloniarat, Daniel profeta lehoinen zilhorat aurdikia zenari.

Eta baitzion Habakuk profetak etzuela Babilonia ikhusi, eta etzakiela non zen lehoinen zilhoa, Aingeruak, hartarik bere buruko letarik, airez aire ereman zuen Habakuk eta ezarri lehoinlekhuairen gainean; eta gero Danieli jatera eman zuenean, Aingeru beraz izan zen Habakuk itzulia aitzineko lekhu bererat. Ehunka eta ehunka lekhoak badira Babiloniaren eta Judearen artean, bainan Babiloniako bide luze hura egina izan zen mement batez; ezen Aingeruek laster bidea iragaiten edo egiten badakite.

Hurbilean, bidearen bazter-bazterrean erakutsi zaukuten Elias profetaren gorputz-seinaleak dituen harria. Harri harren gainean pausatu zen,

arbola baten maldan eta lokhartu zen. Aingeru batek iratzararazi zuen, erranez : « Jaiki zaite eta jan zazu ». Eliasek behatu zuen eta ikhusi bu-ruaren ondoan hautspear erre ogi bat eta untzi bat urarekin. Jan zuen beraz eta edan, eta berriz lokhartu zen.

Eta oraino itzuli zen Jaunaren Aingerua bigar-
ren aldikotz, eta Elias hunkitu zuen, eta erran
zion : « Jaiki zaite; jan zazu, ezen bide handia
egiteko gelditzen zaitzu ». Hunek, jaiki zen ou-
doan, jan zuen eta edan, eta ibili izan zen haz-
kurri horren indarrean berrogoi egunez eta ber-
rogoi gauez Horeb Jainkoaren mendiraino hel
arte. Eliasek jan ogiak eta edan urak seinalatzen
zuten komunioea, zoinetan arima azkartzen
baita, hazkurri horren indarrean juaiteko, gu-
ere, mendi sailduraino, erran nahi baita, zeru-
raino. Dohatsuak ardura komuniatzen dutenak
behar den saildutasunarekin ! Dohatsuak azken
eritasunean biatiko salbagarriaz azkartuak ba-
dohatzinak lur huntarik eternitateraino dohan
bidaia handian !

Bethlemeratchago da lekhua *etchilarren landa*
izena duena. Jakobek landa hartan bildu etchi-
larretarik eman zion jatera Esau bere anaiari
hunen premutasunaren bere gainera jautsaraz-
teko. Zombat girichtino ahul, zeruko etche-
phartea saltzen eta galtzen dutenak janthoruntza
edo ase baten gatik, mement bat baizik irauten

ez duen bekhatuaren gatik, beren buruak hola kondenatuz gose eterualerat, tormentu bethierekoetarat!

Orai garen tokitik ikhusten da Rachelen thomba, Jakobe patriarkak, heldu zelarik Mesopotamiatik Kanaango lurrerat, han hil zitzaion haurregitetik, bere espos maitea Rachel, Josepen eta Benjaminen ama, eta bera Ejiptoan, urrun, hil baino lehenago, erran zion Josep bere semeari haren ama Bethleemgo ondoan ehortzia izan zela, eta hala da; han da lekhuko, thomba hori, kapera churi ttipi bat iduri.

Huna non heltzen ari giren Bethleemera. Agur Bethleem, *Ogiaren etchea!* Hik hazkurritzat behar daukuk eman Ogi bizia, Berbo eternala hire baitan sorthu dena! Bethleem hiri ttipi bat da, bainan alde hetako ederrenerarik, bere etche churi eta handiekin : gauza arradoa, han gaindika. Bortz mila jende bada Bethleemen, eta hetarik hiru mila katolikoak dira. Jaiak ziren guziak gu ikhusteko bi lerrotan johaki Jesus Haurraren sor-establiarat. Eliza eder bat bada Salbatzailearen sor-lekhuaren gainean. Sor-lekhu hori lurpean da. Baditu hamabi metra luzean eta lar-goan lau, guti gora behera. Jesus sorthu zen establia horren buru batean. Gainean den elizatik bi eskaler badira bakhotcha hamasei mailetakoa, bi aldetarik dohatzinak itzulian lekhu bererat, erran nahi dut : Jesusen sor lekhuat.

Jainko Gizon eginaren sor-tokian bada izar zilharrezko bat, hitz latin haukiekin :

Hic de Virgine Maria Jesus Christus natus est.

Erran nahi da :

Hemen Birjina Mariaren gainik Jesu Kristo sortu da.

Chizmatiko grekek ez lukete nahi ikhusi latinezko izkribo hori establian, ezagutarazten baitu Latinak, erran nahi da Katolikoak establiaren nagusi direla, edo izan behar laitezkeela; ezen, ez dira bethi nagusi lekhu saindu heietan Latinak. Chizmatiko grekak nagusituak dira, dretcho guzien kontra, Bethleemgo establiaren gainean den eliza guziz ederraz, zoina profanatu baita. Ezen, eliza hortarik zathi ttipi bat baizik ez da ofizioentzat, eta oraino chizmatikoen ofizioentzat, zoinak baitira profanazione batzu Jainkoak kondenatzen dituenak. Eliza hartan den gainerako toki a merkhatu tokia bilhakatua, da eta elheka artzeko barne bat. Jesus Haurraren sor-lekhua beraz chizmatiko horien eskuetan da, eta, nahiz Jesusen sor-lekhuko aldarea gurea den, ez du gutarik nehork meza aldare hartan eman ahal izan. Eman ditugu gure mezak, nik San Josepen aldarean, bertzek nik bezala, edo han gaindi diren lur-barne batzuetako aldaretan. Han erakutsi daukute lekhua, non, haur inozentak hil zituztenean, hetarik asko martirisatu baitzituzten. Harat ereman zituzten amek beren haurrak lur

zilho hetan heien gordetzeko; bainan haur heien gorde-lekhua ezagutua izan zen eta haur bakhotcha herio kolpeaz joa.

Thomba berean izan ziren guziak ehortziak, eta heien erlikien aitzinean emaiten da meza. Lurreko barne hetarik batean bizi izan da urthe luzez San Jerome, Elizako dotor guziz aipatua. Barne ilhun eta ttipi hartarik igorri ditu mundu zabalerat, mundu itsu hau argitu behar zituzten hainbertze izkribo eder. Erran dut eliza printzipala chizmatikoen eskuetan dela. Katolikoek edo Latinek badute hurbilean beren eliza, hura ere aski ederra. Santa Katalinaren eliza deitzen dena; eta eliza huntarik ere bada bidea Jesusen sor-lekhura.

Nahiz eliza ederrena chizmatikoen eskuetan den, oraino zerbait gehiago nahi lukete. Berriki, ari zelarik fraide frantchichkano bat jatsarekin garbitzen katolikoek toki bat, chizmatiko bat jin zitzaion hura ere jats batekin, erranez frantchichkanoari garbitzen lagunduko zuela. Baitezakien arras ongi frantchichkanoak ondoko egunetan jinen zitzaiola chizmatikoa erraiterat lekhu hura berriki harrek garbitua zela, beraz harena zela, juan zadin handik, etzen sendimendu bereko izan frantchichkanoa. Chilintcha jo zuen bere lagunak bilarazteko; oren onean, egun hetan baziren auzo komentuetako fraide batzu Bethleemerat jinak. Frantchichkano hau guziak juan

ziren bere lagunaren alde, eta nola dretchoa baitugu ohoin baten ihes emaitako, frantchichkano horiek frogatu zuten chizmatikoer hek baino azkarrago zirela, eta chizmatikoak itzuli behar izan ziren jin bidez beren egon-lekhura. Ez da lehen aldikotz orduan gerthatua chizmatikoek liphizta asmatzea katoliken kontra. Hortik Turkiak badauzka bethi bi soldado, bat chizmatikoek ebatsi eliza borthan, bertzea eliza banean, katoliken elizatik hurbil. Eaneko soldado hori, aski hitski beztí, eta espartin suerte batzu zangoetan, han zagon eneatua, akhitua, begira noiz jineu zen haren plazan egon behar zen soldadoa, hau jitearekin, ernerik kaporat juaiteko. Erran dudán ichtorio hortarik ezagutzen dugu soldado horien beharra badela bakean atchikarazteko chizmatikoak.

Bainan goazín orai Jesus Haurrari ongi-ethorri egiterat. Zertako dago Salba zailea establia pobre hortan? Ez othe zen Davit erregearen arrazatik, eta ez othe ziren Bethleemdarrek haren ahaideak, Davitenak bezala? Eta bizkitartean Bethleemdarrek ez dute nahi izan Jainko-Gizon horri bortha ideki eta atherbea eman : *In propria venit, et sui eum non receperunt*. Etzen harrentzat lekhurik, ez haren aita amentzat : *Non erat eis locus in diversorio*. Egia da, Bethleemgo hiria, harat beren izenak san Josepek bezala emaitako jinak ziren jendez, bethea zen, bainan

uste izan balute Bethleemdarrek onthi Maria, Josepe eta sortu behar zen Jesus Haurrarekin, khausituko zuten bai lekhu : aberatsentzat bethi khausitcen da lekhu; baina behar-itxura baitzuten, orok erraiten zioten : « *Ez da lekhurik!* »

Guhaurek ere menturaz gauza bera erraiten dugu eskale edo jende behar hari! Errech da erraitea *Jainkoak lagun zaitzala!* Ahal badugu, guk ere behar dugu beharra lagundu. Etzen beraz heientzat lekhurik! Juan behar izan ziren establia edo lur-zilho pobre batetarat. Hara non saitzen den Zeru-Lurren Kreatzailea. Mundu huntako urbe-mien jabea, pobreziarik handiengan sortuko da, guri maitharazteko pobreziatzko berthutea. Mundu guzia bakean zen demboran, gizonak pausuan lo zaudelarik, bakezko Errege hori sortu zen gauaren erditan.

Jesusen sor-lekhua establiaren zola zolan eta buruan da. Ama Birjinak hartu zuen maiteki besoetan bere Haurra eta Jainkoa; trochetan ezarri zuen, eta pausatu haratchago zen aberen aska batean; han ikhusten da aska harria; harriaskaren gainean zen zura Erroman da, Ama Birjinaren elizan, eta zur-aska haren aitzinean eman dut meza, jadanik errana dudan bezala, Erromaz mintzatzean.

Fainan negu-bihotza baitzen, eta Haur-dibino horrez ikharetan baitzagon, uste izaiteko da su puchka bat san Josepek egin zuela Haur-

raren berotzeko; etzaut iduritzen hargatik so-
leimendu handirik hartu zuela hala ere Jainko
Gizon eginak. Ezen, ez da han khearen kampo-
rat uzteko biderik. Nesesarioki kheaz behar zen
barne hura guzia hartua izan : hortik ere paira-
mena edo sofrikarioa Jesus Haurarentzat.

Tradizioneak hemen agerarazten ditu bi ali-
male ezti, zoinak hurbildurik, Jesus berotzen
baitzuten beren hatsaz. Isaias profetak erran
zuen zazpi bat ehun urthe lehenago : Ezagutu
du idiak bere jabea, eta astoak bere Nagusiaren
heia. Alimalek ezagutzen zuten Haur hori beren
Jainkotzat, erran ahal baditake, baina adimen-
dua duten gizonak etzuten nahi izan ezagutu.
*Cognovit bos possessorem suum, et asinus præsepe
Domini sui; Istuel autem me non cognovit, et po-
pulus meus non intellexit!* Bizkitartean, Jainko-
Gizon eginak khausitu zituen populu esker-
gabeko hortan zombait adoratzale. Aingeru bat
bet-betan agertu zen gau erditan beren arthal-
dearen zain zauden artzain batzuer, eta Jainkoa-
ren argi distiant miragarri batek inguratu zituen,
eta izialdura handi batek izitu zituen. Eta erran
zioten Aingeruak : «Etzieztela izi; ezen huna non
ekhartzen dautzuetan bozkario handi baten berri
ona, izanen dena populu guziarentzat : sorthu
zantzuela egun Daviten hirian Salbatzailea, zoina
baita Kristo Jauna. Eta hau izanen da zuentzat
seinalea : khausituko duzue Haur bat chathar-

rez inguratua, eta ezarria aska batean. » Eta ordu berean hola mintzo zen Aingeruarekin hasi ziren zerutikako Aingeru aralde handi bat khanta errepiketari, ziotela Jainkoa laudatuz : « Loria zeru gorenetan Jainkoari, eta lurrean bakea borondate oneko gizoner. » Khanturik miragarriena hola khantatu ondoan, Aingeruak urrundu ziren eta juan zerurat edo hobeki Jesusen establiarar, zeru berri batetarar bezala. Orduan hasi ziren artzainak elgarren sustatzen, erranez : Goazin Bethleemeraino, eta ikhus dezagun gertatu izan den gauza hau, zoina Jaunak ezagutarazi baitarauku. Juan ziren beraz artzain dohatsu horiek lehiatuki Bethleemeko alderat. Artzain horien herria ikhusi dut. Bethleemetik aski hurbil da; bainan ardien alhatzeko lekhua puska bat urrunago behar zen izan, heien herriak beherago ageri diren landa handietan.

Patarra gora jin behar izan ziren beraz oren erdi batez edo gehiagoz. Gero beren herriratzearekin bidea alde zuten Bethleemerat jaus-tean. Bainan guti zitzaioeten bidean akhitzea khausitzen bazuten Jainko Salbatzailea. Etziren alferretan ibili : Establia pobre batean aurkhitu zituzten Maria eta Josepe, eta Haur sorthu berria, ezarria aberen jan-aska edo othe lako batean.

Nork erran zoin handiak izan ziren artzain horien erlijionezko sendimenduak Jesus Haur-raren alderat! Zer amodio eta fede biziarekin

adoratzen duten Salbatzailea! Establia pobre hartarik itzuli ziren beren egon-lekhuetarat; ikhustea zuten ez zirela alferretan jin Bethlemerat, eta ezagutu zuten egia zela Haur hortaz Aingeruak errana zitzaiotena; ahal zuten guzier erran zioten zer gerthatu zen, eta entzun zuten guziek miretsi zituzten artzainek heier erran ziotzaten gauzak. Birjina Mariaz bezembatean, Ama dohatsu horrek maiteki begiratzen zituen bere baithan gauza horiek guziak eta artha handirekin hek erabiltzen zituen izpirituan eta bihotzean.

Eta itzuli ziren artzainak beren egon-lekhuetarat, goresten eta laudatzen zutelarik Jainkoa aditu eta ikhusi zituzten gauza guziez, errana izan zitzaiotenaren arabera. Goazin gu ere gure aldian Haur maithagarri horren oinetarat, eta khanta ditzagun haren oinetan gure haurtasunean ikhasi ditugan segidako khantu hauk, bertze khantu berri, khantatzea lakhet zaizkun batzuekin.

NOELAK edo EGUBERRI KHANTUAK :

1

I

2

Oi! gau dohatsua,	Hots! Angeruekin,
Jainkoaz hautatua,	Arkanjeluekin,
Zaukuna hurbiltzen; <i>(bis)</i>	Gaur khantatzera. <i>(bis)</i>
Mesias maitea,	G re Erregearen,
Graziaz bethea,	Jainko eternalaren <i>(bis)</i>
Da munduratzen. <i>(bis)</i>	Adoratzera. <i>(bis)</i>

3

Ez izotza gatik,
 Ez ilhuna gatik,
 Ez egon herabez, *(bis)*
 Har fedea gida,
 Jesus baithan fida; *(bis)*
 Goazen lasterrez. }

4

Hemen dut sinhesten,
 Begiez ikhusten
 Banu bezala, *(bis)*
 Mariak umea, *(bis)*
 Ume hain maitea, *(bis)*
 Jainko duela, }

1

O! Eguberri gaua,
 Bozkariozko gaua,
 Alegeratzen duzu
 Bihotzean Krichtaua.

5

Harentzat lekhurik,
 Hain guti oherik
 Ez zen aurkhitu; *(bis)*
 Tresoren jabea, *(bis)*
 Guzien printzea *(bis)*
 Zen arbuiatu. }

6

Erregek etcheak
 Dituzte betheak
 Gauza ederrez *(bis)*
 Jesus, zu lurrean *(bis)*
 Eta lasto-pean *(bis)*
 Zaude nigarrez. }

II

2

Mundu guzia duzu
 Zorionez bethetzen,
 Zeren zuk baidiozu
 Mesias dela sortzen.

III

Atzar gaiten, atzar lotarik,
 Gau huntan da Jesus sortzen;
 Amodioak garhaiturik,
 Gure gatik da ethortzen.

1

Gu zerurat nahiz alchatu
 Jesus jausten da lurrerat;
 Heldu da, gu nahiz sal-
 [batu,
 Gorphutz hilkor bat har-
 [tzerat.

2

Erregen Errege delarik,
 Ez du nahi distiatu;
 Ez du nahi palaziorik;
 Heia tchar bat du hau-
 [tatu.

IV

Oi! Bethleem!	Gure gatik
Ala egun zure loriak,	Jainko bat botherez be-
Oi! Bethleem!	Gure gatik, [thea,
Ongi baitu distiatzen!	Jausten da zeru goratik;
Zuganik helduden argiak	Bai! sortzen da Jesus
Bethetzen tu bazter gu-	[maitea
[ziak.	Biktima notarik gabea,
Oi! Bethleem! <i>(bis)</i>	Gure gatik. <i>(bis)</i>

V

Hel gaiten guziak,	Aingeruek dute
Hel Bethlemera,	Han dela erran,
Jesus maitearen	Krichtauak, zatozte,
Adoratzera.	Han da mañiateran!

VI

Gure chamelekin,	Haurrak eta gazteak
Goazen Bethlemera,	Juan beitez lasterka;
Jesusi Artzainekin	Baita ere zaharrak
Agur egitera.	Oro zoin lehenka.

VII

Urtheberri eguneko

Egun estrainatu gaitu Haurrak odolaz.
 Jesus, Haurtcho larru delikatua,
 Gure gatik zare doloratua,
 Sorthuta zortzian odolstatua!
 Egun estrainatu gaitu haurrak odolaz
 Egun estrainatu gaitu haurrak odolaz.

VIII

Trufania eguneko

Krichto guziek dezagun egun adora *(bis)*.
 Hauche da izarra agertzen dena!
 Berri bat dakharke den handiena,
 Jesus maitearen sortzearena.
 Krichto guziek dezagun egun adora.
 Krichto guziek dezagun egun adora.

IX

Eguberri demborako bertze khantika bat

ERREPIKA

Dugun guziek adora
Jesus Haurra trochetan;
Hura dezagun ohora
Imitatuz obretan.

1

Eguberri, Eguberri!
Gaitezen alegera!
Jainko batzauku ethorri
Guzien salbatzera!

2

Eternala zauku sorthu;
Haur ttipi bat da egin!
Zeruak aphaldu ditu
Bizi nahi gurekin!

3

Jainko handia da sortzen
Gau minaren erditan;
Ama Birjinak du hartzen
Maiteki besoetan.

4

Ama maitea, zer pena!
Ez dukezu etcherik!
Ama desolatuena!
Ez duzu ohakorik!

5

Aska bat du ohakotzat!
O hau da pobrezia!
Tresorren Jabearentzat
Hauche da eskasia!

6

Pobre guzien artean
Othe da hoin pobrerik?
Nori othe zen sortzean
Faltatu ohakorik?

7

Haur gaichoa! hotza dago,
Guzia ikharetan!
Haizea ezti balago
Haurraren lagoretan!!!

8

Bi alimale dituzte
Ingurutan ikhusten;
Beren hats ezti az dute
Jesus Haurra berotzen!

9

Aingeruak dira ari
Khanta errepiketari:
Loria Jainko Jaunari
Zerurik gorenetan!

10

O zoin artzain presatuak!
Lasterka dira heldu!
Erran deie Aingeruak
Mesias dela sorthu.

11

Ahuspez dira emaiten
Haurraren aitzaiean;
Hura dute adoratzen
Jaingo kalitatean.

12

Jendeak dira ethortzen
Tropaka etcholarat;
Sainduki hek lehiatzen
Haurraren ikhusterat.

13

O zoin den charmargarria,
Haurretan ederrena!
Ez dea maithagarria
Gu maitez heldu dena!

14

San Josepe, erraguzu
Etzaren urusena;
Besoetan deraukazu
Zu egin zaituena.

15

Zer diozu, o Maria?
Etzarea dohatsu
Ikhuziz Jaingo ezta
Zu ganik dela sortu.

16

Gaiten oro bozkaria
Ama Birjinarekin:
Jainkoa da ethorria
Bizitzera gurekin!!!...

Bethleemgo establiatik hiru ehun urhatsetan khausitzen da kapera ttipi, pobre bat lurperat dagona. Haren barnerat jausteko badira hama-hiru eskaler mail. Errana da Ama Birjina Jesus Haurrarekin eta san Josepekin zohalarik ihes Ejiptora, sarthu zela grota edo lurpeko barne hortarat, eta Jesus Haurrari bulharra har-araztean, zombait esne chorta erori zirela lurrerat; hortik izendatua izan da barne hori *Esneko Grota*. Esne chorta hek eratchiki zioten grota hartako harriari berthutea amer esnearen emendatzeko edo emaiteko. Ikhusten dira esne guti duten amak heldu alde guzietarik kapera hartarat; harri hura churia da eta errechki puchkatzen da; harri churi harren herrautsa hartzen dute amek urarekin edo nahi den edariarekin, Ama Birjinari

gomeendatzen direlarik, eta diote ama betarik hanitzek ardiesten dutela esnearen izaitea edo emendatzea. Hara hartarik eman zautaten pochi bat, artharekin daukadana.

Ama Birjinaren Esneko barne hortarik hurbil da Daviten zitherna edo urtegia. Davit erregea, gerlan ari zelarik Filiztindarren kontra, egarritu zen, eta nahi zuen edan.

Orduan, orhoituz bazela Bethleemgo hiritik hurbil, borthan bezala urtegi bat, erran zuen : « O norbaitek emaita : balaut ura Bethleemgo zithernatik ! » Hiru gerlari, hitz horiek aditurik, juan ziren biziaren lanjerean etsaien artetik ur hartaraino, eta ekharri zioten Daviti edaterat. Baina errege horrek ikhusiz biziaren irriskuan ekharri ziotela hiru gerlari horiek ur hori, etzuen nahi izan edan eta ichuri zuen lurrerat, Jainkoaren ohoretan eta sakrifizio gisa, erranez : « Urran izan bedi ni ganik holakorik ene Jainkoaren aitzinean egin dezadan, eta gizon horien odola edan dezadan; zeren eta beren biziaren lanjerean ekharri baidarautet ura. » Eta gauza horren gatik etzuen nahi izan edan.

Haratchago ikhusten da lekhoa, non baidiote zela lehen san Josepen etchea, ezen Bethleemgoa zen san Josepe eta Daviten odoletik, baina pobre zen eta lanetik bizi.

Ez dut uzi behar erran gabe segidako gertakari hau. Hurbilean bada zitherna edo urtegi

bat. Urtegi hortan ari zelarik gizon bat ur athera-
tzen zithernatik, gerthatu zen Ama Birjina han
gaindi juaitea; eta erran zion gizon horri eman
zeton othoi ur hortarik edaterat. Bihotz-gogor-
reko gizon horrek, bere untzitik edaterat emai-
tetik urrun, erran zion Maria Sainduari : « Eda-
zan. » Ama Birjina, Jainkoa baithan fidantziaz
bethea, hurbildu zen ur toki hortarat, eta ura
altchatu zen zolatik gaineko hegiraino, eta Jesu-
sen Ama maiteak errecki edan ahal izan zuen.
Ur toki hura deitzen da oraino egungo egunean
Mariaren Zitherna. Ez gira urrun artzainen her-
ritik. Etche multcho bat da, osoki pobrea; etche
hetarik bakhotchean ikhusiko ditutzu bi zilho :
zilho batek izena du *boriha*; berize zilhoak *leihoa*;
etche tcharrak, pobreak, han gaindi ikhusten
diren bezala. Jauts gaiten orai landa eta phazka-
lekhu batzu barna, larre behera batzuetarat.
Han agertu ziren Eguberri gauean Aingeruak
artzainer. Han ere zen gure begien aitzinean
Booz izena zuen baten landa. Ruth Moabitarra
jin zen ogi sartze batzuez landa hartarat, ogi
buruchka biltzerat, beretzat eta Noemi bere
amagin arrearentzat.

Ruth, naliz oraino gaztea zen, jadanik alhar-
gandua zen. Boozek ikhusiz zoin zen ichila eta
manera onetakoa. erran zioten ogi biltzaler uz-
teko erortzerat buruchkak; zombait demboraren
buruan, esposatu zuen Boozek Ruth, eta Jain-

koak eman zioten seme bat, Obed izendatu zutena : huren semearen semea zen Davit erregea. Hala Ruth pobrea bilhakatu zen Davit erregearen eta Jesu-Kristoren arbasoetarik bat.

Nola utziko ahal dugu Bethleem errege Magoez hitz bat bederen erran gabe? Pa, jin ziren hiru Errege Magoak urrun danik Jesus ganat : Izar eder bat agertu zitzaioten zeruetan, eta Izpiritu Sainduaz argituak, ezagutu zuten izar harrek seinalatzen zuela Jainko Gizon eginaren sortzea. Beren kamelu eta dromedarioen gainean, jin ziren Bethleemeko alderat, izarra segituz ; baina Jerusalemeko hurbiltzearekin, galdu zuten bichtatik izar hori. Sorthu ziren Jerusalemeko hirirat, eta galdegia zuten : « Non da juduen Errege sorthu dena? Ezen, ikhusi dugu haren izarra orien ean, eta jin izan gira haren adoratzerat. » Elhe horiek aditzean, Herodes erregea asaldatu zen, eta Jerusalem guzia ere bai harekin. Eta bilarazirik apez aitzindari guziak, eta populua-ren iskribanak, galdez zagoketen non sorthuren zen Jesu-Kristo. Eta haukiek erran zioten Bethleem Judakoan ; ezen hola izkribatua izan da Profetaz : « Eta hi, Bethleem Judako lurra, ez haiz segurki ttipiena Judako (hiri) printzipalen artean ; ezen, hitarik jaliko duk Israelgo ene populua gidatuko duen Buruzagia. » Bazakien orduan Herodesek non sorthua zitaken Errege berri hori, eta haren batzemaiteko eta hilaraz-

teko segurtantza gehiago nahiz, ekhar-arazi zitu-
tuen ichilka eta abalaz haro gutirekin errege
Magoak bere aitzinerat; artha handirekin gal-
degin zioten izarra agertu zitzaioteneko dembo-
ra, jakiteko zertsu adin zuken Errege sorthu-
berriak; eta hek igorritz Bethleemerat, erran
zioten : « Zoazte, eta galda zazue artha handire-
kin haurraz eta aurkhitu duzuenean, adiaraz die-
zadazue niri, amoreagatik eta, ni ere jin nadin
haren adoratzerat. » Etzuen ez, Herodes faltsuak,
Haur sorthu-berriaren adoratzeko gutiziarik!
kanibet marrazarekin ba, edo ezpata hari sar-
thuz!

Errege hola mintzatzen aditu zuten ondoan,
lothu ziren Bethleemerat zeraman bideari, eta,
o gauzaren miragarria! horra non orientean,
edo iguzki jalitzeko aldetan ikhusi zuten izarra
agertzen zaioten! Heien aitzinean zohan izarra,
eta gelditu zen Haurra zen tokiaren gainean.
Ikhusi zutenean bada izarra, bozkariatu ziren
bozkario handi batez azkarki. Eta sarthurik
etchean, aurkhitu zuten Haurra Maria bere ama-
rekin, eta ahuspez emanik, adonatu zuten Jain-
ko-Gizon egina; eta beren tresorak idekirik,
ofreitu zaizkoten presentak : urhea, insentsua
eta mirha.

Urhea hari eskainiz, ezagutzerat emaiten zu-
ten, nahiz berak erregeak ziren, Jesus Haurra
hek baino Errege handiagoa zela, eta hari urhea

emanez pagatzen ziotela zerga, suiet kalitatean.

Insentsua hari eskainiz, ezagutzerat emaiten zuten Jesus Haurra Jainko zela, eta adoratzeko ziotela Jainko kalitatean.

Mirba hari eskainiz, ezagutzerat emaiten zuten Jesus Haurra hilkor zela, eta gure salbamendua egin behar zuela guretzat hilez. Zer errespetuekin hurbildu ziren errege Magoak Jesusen gauat haren adoratzeko eta hari beren eskaintza aberatsak egiteko! O nola ahuspez beren Nagusi sobe-ranoaren aitzinean eman ziren! Zer amodiorekin behatzen zioten haur guzien artean miragarriena, ederrena zen Haur Jainko horri! Jesus Haurrak ere behatzen zioten ezagutzarekin. Errechki ohartzen ziren errege Magoak ichilik zagon Haur hori zela gizonari hitzkuntza edo mintzatzeko ahala emaiten ziona. O zoin dohatsu zaukaten beren burua urrundarik jinik azkenekotz khausitu zutelakotz hainbertze artharekin eta bidean ongi akhiturik bilhatu zuten Jainko sorthu berria! Hanitzek kondenatu zituzten; bek, nahi zuenak nahi zuena erranik ere, aitzina juan ziren, eta jadanik ezagutzen zuten etzirela alferretan hain urrundarik Bethleemerat ethorri. O zoin laburrak khausitu zituzten Haur maithagarri horrekin iragan zituzten egunak! Bainen itzuli behar zen herrira! Azken adioak egin zituzten Salbatzaile sorthu-berriari. Heien chedea zen juaitea Jerusalem gaindi, Herodesi

erraiteko non zen Haurra, harrek ere, heien nstez, adoratu nahi zuena : etzuten ezagutzen haren malezia beltza; baina Jainkoak, lo zaudelarik, ezagutarazi zioten ez zutela jua behar Herodesen ganat; eta bertze bide batetarik itzuli ziren beren herrirat.

Tradizioneak edo ichtorio sainduak dio ge-roago, San Tomas apostolua jua zela errege Magoen herrirat, hek bathaiatu zituela eta Aphez-piku ordenatu; Jesus ezagutarazi zutela hanitzi, eta Jainko sortha-berriari lekhukotasuna bihurtuz, martir jeneros bil zirela. Kornelius a Lapide deitzen den Jesuist aiphatuak erraiten dauku Errege Magoen erlikiak ohoratu dituela Koloñan, non baitira erlikia saindu hek.

Zer bilhakatu zen Jesus Haurra errege Magoak urrundu zirenean Bethleemetik? Huna zer : Aingeru bat agertu izan zen San Josepi, lo zagolarik, eta erran zion : « Jaiki zaite eta har zazu Haurra eta haren Ama, eta ihes egizu Ejiptorat, eta egon zaite han nik erran artino; ezen gerthatuko da Herodesek bilhatzea Haurra, haren galtzeko. » San Josepe obediencia ordu berean jaiki zen, hartu zituen Haurra eta haren Ama gau minean, eta urrundu zen Ejiptorat. Perrogoi gau-egunen bidea bazen eta heientzat gehiago, desertu bideak, bide gaitzak! Errana da ihes zobatzilarik Jesus Haurrarekin Maria eta Josepe, ohoinen eskuetarat erori zirela; ohoin hetarik batek bi-

hotz-ontasun berezi bat erakutsi zuen Jesus Haur-raren alderat, eta baitaki Jesusek harentzat on denarentzat hura ere on eta hobe izaiten, ohoín hura gerthatu zen, Jesusen Pasionean, haren eskuinean izaitea, eta galdegiten baitzión Jesusi urrikizko sendimendurik bizienekin othoi orhoit zadin hartaz bere erresumarat jiten zenean. Jesus onak barkhatu zaizkon bekhatuak, eta erran zion : « Egun enekin izanen haiz parabisuan; » eta hala izan zen eгина. Familia saindua Ejiptoan egon zen Herodes hil arte, bethe zadiutzat Jaunak erran zuena Profetaren ahoz : « Ejiptotik deithu izan dut ene Semea. » Orduan Herodesek ikhusiz jostatu zirela hartaz Magoak eta hura zela hatzimana eta ez hek, hasarretu edo samurtu zen azkarki, eta igorri zituen soldadoak Bethleemerat eta inguruetarat, eta hilarazi zituen bi urthez azpiko haur guziak, batzuen arabera hamalau mila haur ttipi! Alde guzietarik etzen aditzen nigar marraskarik baizen. Haurrak marraskaz hiltzeko kolpearekin; amak marraskaz haurrak nahiz salbatu, erranez : « Ez du ene haurrak hobenik; ene haurra hiltzekoz, ni ere hil nezazue, eta ama eta haurra hola libra gaitzatzue, bizia guri eremanez. Bat bilhatzen duzue : Mesias; eta baxharrik hura eskapatzen dantzue! »

Nola, erran dudan bezala lehenago, Rachel ehortzia izan baitzen Bethleemgo ondoan, haur,

heriotzeaz joak izan diren horien gainerat, nigarririk saminenak ichurtzen ditu bere thombatik. Orduan bethea izan zen Jeremiaz profetak erran izan zuena, zioela : « Boz bat Raman aditua izan da, marraskak eta marrubia hanitz : Rachel marraskaz bere haurren gainean eta ez du nahi izan kontsolatua, zeren eta ez diren. »

Ikhusi ditugu Jesus, Maria eta Josepe Ejiptor-
rat ihes juaiten. Askoren arabera zazpi urthe
egon ziren Ejiptoan, paganoen erdian; lanetik
bizi, ahal zen bezala, guzien gogorako, guzier
emanen beren bizi sainduaren etsemplu ona, era-
kutsiz guzier zeruko bidea. Herodes hil zenean,
Jaunaren Aingerua agertu izan zen lo zagolarik
Josepi Ejiptoan, eta erran zion : « Jaiki zaite, eta
har zazu Haurra eta haren Ama, eta zazi Israelgo
lurrerat; hil izan dira ez du Haurraren biziaren
ondotik zabiltzanak. » Berehala jaiki zen san Jo-
sepe, eta Haurra eta Ama harturik, eman zen
bideari. Jadanik erran dut : berrogoi bat egunen
bidea bazen nor nahirentzat; heientzat gehiago.
Jesus handituegia zen besoetan eremana izai-
teko, Ejiptorakoan bezala; tipiegi eta hurregi
zen holako bidea oinez egiteko; abere baten gai-
nean ere nor nahi bide luze hortan akhit laiteke;
arrazoin gehiagoz haur bat. Hortik ikhus deza-
gun zoin nekharri izan zen bereziki Jesusen-
tzat, gero Ama Birjinarentzat, bai eta ere san
Josepe berarentzat Ejiptotik Judearat itzultzea

beren jan ahularekin, atherberik gabe hanitzetan, bai pausatzeko, bai lo guti baten egiteko?

Azkenekotz heldu zen bada Familia Saindua Israelgo lurrerat. Bainan huna oraino hemen nahi gabeak. Aditzen du san Josepek Arkelaus zela Judean errege bere aita Herodesen ondotik. Beldur izan zen beraz Judean gelditzea, nahiko zuken bezala; eta mezua izanik lotan, aldaratu zen Galileako erremuetarat eta egotu Nazarethgo hirian, bethea izan zadiatzat profetez errana izan zena : « Deithua izanen da Nazaretharra. » Hiri tipiti eta pobre hortan biziko da zeru-lurren Egiptea Jesus Jauna, Mariari eta Josepi obedituz, heien nahi guziak eginez, guziez maithatua. Han Jainko-Gizona, Haur adoragarria, gure Salbatzalea handitu zen, azkartu, zuhurtziaz bethea, eta Jainkoaren grazia hura baithan zen. Eta Jesus Haur maite hori geroago eta gehiago aitzinatuz zohau zuhurtzian, eta adinean, eta grazian Jainkoaren eta gizonen begietan. Haur dibinoa, Haur maithagarria, nork emanen dauku zure ikhustea handitzen, lehen aldikotz elhea egiten, Amaren eskuetarik chutik abiatzen, Maria sainduak eta san Josepek erranak egiten, lanean gaztetik hasten, gero lan azkarretan bizia irabazten kopetako izerdiaren gostuz!

Bethleem alderat utzi gabe, goazin ikhusterat baratze zerratua, ithurri zigilatua, eta Salomonen urtegiak. Bethleemetik oren baten bidean, ikhus-

ten da *baratze zerratua* : *hortus conclusus*, lur aberatsa, lau errekolta urthean emaiten dituena.

Hau ere da, ez urrun, *ithurri zigilatua* : *fons signatus*. Jainkoaren ministroek amodiorekin bi izen horiek ezpainetan ibiltzen dituzte Maria bekhatu orijinalik gabekoaren ofizioan : Ama Birjina deithua da *Baratze zerratua*, *Ithurri zigilatua* : *Hortus conclusus*, *Fons signatus*. Ez da *Baratze* hortarat suge enganatzailea sarthu ahal izan, eta hetsia da guzier Printzeari salbu, erran nahi dut Jesusi salbu. Ez da ere *Ithurri* hortako ura bekhatuaren lohidoraz nahasia eta zikhindua izanen; bere zigiluaren seinalea Jainkoak ezarria da *Ithurri* horren gainean, ez dadin izan profanatu. Salomonen ithurri hori mendietan da, eta horren urak dohatzi Salomonen aska edo urtegietarat. Errege horrek, ikhusiz etzela urik aski ez Jerusalemen, ez Bethleemen, egin zituen Bethleemgo mendietan hiru ur-aska, deitzen direnak *Vasques de Salomon* : *Salomonen Baskak* edo ur-askak. Hiru naza handi dira, harri bihotzean zilhatuak. Naza edo aska heien ura jausten da harat bereziki aiphatu dugun ithurririk, gero urietan mendia behera jausten den uretik; badohatzi ur horiek Bethleemerat eta Jerusalemerat, non ez baitira guti prezatuak. Hiru aska horiek guziz handiak dira.

Handiena eliu eta hiruetan hamazazpi metra luze da; hiruetan hogoi eta bi metra largo, eta

hamabortz metra barna. Bigarren aska ehun eta hogoi eta bederatzi metra luze da; hiruetan hogoi eta hamar metra largo, eta hamabi metra barna. Hirugarrena ehun eta hamasei metra luze da; hiruetan hogoi eta hamar metra largo, eta zortzi metra barna. Hiru naza handi dira beraz, beren soberakinez batek bertzea bethetzen dutenak eta gaindia igortzen Bethleemerat, gero Jerusalemerat.

Lakhet zitzaion Salomoni egun oroz Bethleemerat jitea bere karrosa arin eta zalhuan, kapa churi bat bizkarretik eta soldado ongi harmatuez inguratua; eta bazohan bere baratzearekin, ithurriaren eta asken ikhusterat. Horra zer nuen erraiteko Bethleemen ganean.

HOGOI ETA SEIGARREN KAPITULUA

JONDONI JOANIREN SOR-TOKIA

Goazin egun Jondoni Joaniren sor-lekhurat, zoinak izena baitu *Ain-Karim*, bainan guk, latinek, deitzen dugu Jondoni Joani mendietakoa (*Saint-Jean in montana*).

Argia hasi orduko, hartu ginintuen egun guziko, edo zaldiak, edo beharri luzeak; batzu oinez zohatzen.

Bi oren ezkasen bidea da Jerusalemetik Jondoni Joani Batistaren herrirat.

Jerusalemetik jalitzean, ikhusten, da lekhua non Davit erregearen manuz, Salomon izan baitzen Daviten ondoko egina eta errege khoroa-tua, lekhu zabal hartarat bildua zen mundu baten aitzinean.

Han ere da lekhua, non Isaias profetak erran baitzion Achaz errege gaichtoari Ama Birjinak, birjinitateko lore ederra galdu gabe, emanen zuela mundurat Salbatzailea : *Ecce Virgo concipiet et pariet Filium*.

Zombait urhats oraino, eta horra tokia, non Melchisedech Jainko handiaren Apheza, eta Jerusalemeko Erregea jin baitzitzaion Abrahami, biderat, patriarkha saindu hau itzultzen zelarik

berè lurretarat errege batzu gerlan bentzutu ondoan.

Hurbilean ere ageri da eremu handia, non Jaunaren Aingeruak hil baitzituen gau batez ehun eta lauetan hogoi eta bortz mila soldado Jerusalem erhautsetan eman nahi zutenak. Goiza jin zenean, Sennacherib harritua bere armada funditua ikhusiz, ihes juan zen Jerusalemetik bere lur aldetarat.

Azkenean, zola betean ikhusten da Jesusen khurutze Sainduaren arbola phikatua izan zen tokia. Bada han eginia komentu bat, bainan zorigaitzetan, chizmatikoen eskuetan da komentu hori! Jerusalemetik urruntzean, bidea dena harri da, eta dena goiti-beheiti. Aberek aski lan badute ibiltzea bereziki eskaler mailka johan den bide hertchi batean. Bagohatzi aitzina, bide nekharri batzu barna. Jerusalemek kontra Jainkoak erran madarizioneak hedatzen dira hiri hobendun, Jainko-Gizona hilarazi duen horren inguruetarat ere. Johan ginen mendi aphas batzu gora, behera. Zola batean azkenekotz agertzen da Jondoni Joaniren sor-lekhua. Harat beltzeko mendia hain da patarra, non gure aberetarik jautsi behar izan ba kinen. Jende, zaldi, beharri luze, guziak lasterka johan ginen ezin eztikiago jautsiz. Horra non khausitzen den zilho bat gure bidean. Zilho hortarat ez juaitea enseiatzen ginen; bainan beharri luzen artean, bazen bat ne-

hondik ere eskapa etzitakena zillhotik. Orduan zer eginen du gure beharri luzeak? Biziaren irriskuan dela ikhusten du!!!

Boltadan, jauzi handi bat egiten du, eta badoha, bere onetan, jauzian zilhoaren bertze alde-raino. Bitoria zuen! Guziak eman ginen irriz, eta ez gutienik asto-zainetarik bat. Holako lasterretan dembora laburrez heldu ginen Jondoni Joaniren sor-etchearen lekhuari egina den elizarat. Amodiorekin eta errespeturekin bisitatu ginuen Jondoni Joaniren sor-gambara. Nindabilarik han egoiten diren Frantchizkanoen komentuan, jin zaukun Jaun aphez bat begitarte guzia odoletan. Doidoia aiphatu mendi-bide hura beheara jautsi zen zamariz, bainan aberea erori zitzaion lurreraino, eta berak kopetaz jo zuen lurra.

Aldi huntan, etzen irririk, nahiz kolpea etzen iduriz lanjerosa. Nahi nuken Jondoni Joaniren sor-etchean eman meza, ezen harur nintzen. Bainan egin nuen ene buruarekin hobeko nuela meza erraitea Bisitazionean; ezen, graziaren hastapena Jondoni Joani Batistarentzat Bisitazionean hasi zen. Hemen erran behar dut Santa Elizabethek bi etche bazituela, biak aski harbi-lean; eta bigarren etchean, zen Maria Saindua haren ganat jin zenean; eta hortik, bigarren etche hunek edo etchearen tokian den kaperak izena du Bisitazionea. Nik kapera huntan meza



erraiten, Bisitazionearen lekhan den aldarean, jin ziren ene laguak kapera saindu huen bisitatzera.

Hemen mintzatu behar naiz Bisitazioneko gertakariez eta bereziki Jondoni Joani Batistaz.

Andre-dena Mariak jakin zuen Gabriel Arkanjeluaren ganik Santa Elizabethek eman behar zuela mundurat mirakuluzko haur bat : Jondoni Joani Batista; juan zen Ama Birjiua lehiatuki mendiak-gaindi Judeako hiri batetarat eta sarthu zen Zakariasen etchean eta egin zion Elizabethi agur. Agur hortako hitzak entzutearekin, o gertakari mirestekoa, salto egin zuen Elizabethen sabelean Jondoni Joani Batistak eta izan zen ordu berean bekhatu orijinaletik garbitua. Elizabethek, Izpiritu Sainduaz bethea, oihu handi batekin erran zion : « Benedikatua zare emazten artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua! Eta nondik heldu zaut ni ganat ethortzea ene Jaunaren ama! Ezen, huna non zure agurra-
ren boza entzuna izan den bezen laster ene beharrietan, salto egin du bozkarioz haurrak ene sabelean. Eta dohatsua zu, sinhetsi duzuna, zeren eta betheko baitira zuri Jainkoaz erranak izan zaitzunak! » Orduan Ama Birjinak adi arazi zuen Liburu Sainduetan diren kantika guzietako ederrena, *Magnificat*, igande oroz kantatzen duguna Bezperetan. Huna khantika hura :

Handiesten du ene arimak Jauna. Eta bozka-

rioz jauzi da ene izpiritua ene Jainko Salbatzailearen baithan. Zeren eta behatu baitio bere sehiaren aphaltasunari. Ezen huna non gaurgoitik dobatsua deithuko nauten jenerazione guziek. Zeren eta egin baitaizkit gauza handiak botheretsu denak, eta saindua da haren izena. Eta haren urrikalmendua jenerazionetik jenerazionetarat hedatzen da haren beldurra dutenen gainerat. Erakutsi du bere besoaren indarra; haizatu ditu beren bihotzeko gogoetetan altchatzen zirenak. Jautsarazi ditu botheretsuak beren jar-lekhutik, eta goratu ditu ahalak. Gose zirenak bethe ditu onthasunez eta aberatsak igorri ditu hutsik. Eskutik hartu du Israel bere zerbitzaria, orhoituz bere urrikalmenduaz, hitz-eman zioten bezala gure arbasoer, Abrahami eta haren ondokoer menderen mendetako. O! Ama Birjinaren kha'ika hau zoin den ederra! Ardura izan da dila gure ezpainetan. Andre-dena Maria egon zen hiru hilabeteren ingurua bere kusia Elizabethekin, hunen laguntzeko bere khausitzen zeu estatuan eta behar-orduan.

Sinhesteko ere da. Jondoni Joani sorthu artean eta gehiago, egon zela Ama karitatez bethe hori bere kusiaren etchean. Zombat aldiz bere besoetan ez du ibili, eta maiteki arthatu Joani ttipia, haren Seme Jainkoaren ezagutarazterat ethorria zen, profeten arteko handien hori! Nola Jesusek Ama Birjinaren sabeletik santifikatzen,

benedikatzen zuen bere Bide-Igilea! O zoin sailduak ziren elgarren artean Mar'ak eta Elizabethtekin ardura erabilzen zituzten elheak!

Gero itzuli zen Jainkoaren Ama Nazareth bere egon-lekharat. Jondoni Joaniz bezembatean, sortu zen Haur saildu hori, eta haren sortzeak bozkario handitan eman zituen Elizabethen auzoak eta ahaideak, ikhuz zer agorea egin zion Jainkoak. Sortu eta zortzigarren egunean behar baitzen legearen arabera izena eman Haurrari, nahi zuten deithu Zakariak, aita bezala; baina amak ihardetsi zuen: « Ez, baina deithuko da Joanes. » Eta erran zioten: « Nehor ez da zure ahaidegoan deithua denik izen hortaz. » Eta galdegiten zioten kheinuz haren aitari nola nahi zuen izendatua izan zadin. Etzitaken mintza Zakarias Joanes Batistaren aita. Mutu gelditua zen gaztiguz, etzuelakotz sinhetsi Jaunaren Aingerua, erran zionean aita bilbakatuko zela. Galdegin zituen beraz aita hurek izkribatzeko behar zirenak, eta izkribatu zuen: « Joanes da huren izena. » Eta miretsi zuten guziek, zeren eta elgar aditu gabe izen bera emaiten zioten aita eta amak beren semeari. Bada, ordu berean ideki zitzaion aitari ahoa eta deslothu mihia, eta mintzo zen benedikatu Jainkoa. Eta beldur saildu batekin hartu zituen heien auzo guziak, eta Judeako mendi-herri guzietan barreatu ziren berri espantagarri hauk oro.

Eta berri hauk aditu zituzten guziek, hartu zituzten barna bihotzean, ziotelarik : « Zerika, daukazu, izanen dela haur hori ? Ezen Jaunaren eskua harekin zen ! » Eta Zakariaz haren aita, izpiritu Sainduaz bethea eta gidatua, hasi zen erraiten : « Benedikatua izan bedi Israelgo Jainko Jauna, zeren eta bisitatu eta erosi baitu bere populua. » Eta bertze asko gauza eder erran zituen Jainkoak bere Semea igortzen zuelakotz bere miseriak bere populuaren salbatzerat. Eta bere haurrari mintzatuz, erran zion Zakariasek : « Eta hi, haurra, Guziz-Gorakoaren profeta deithua izanen haiz ; ezen juanen baiz Jaunaren begithartearen aitzinean, haren biden aphaintzeko. » Zer ohorea Jondoni Joanirentzat hautatua izaita eta berechia bertze guzien artean bideak aphaintzeko Jesusi eta oihu egiteko Jesus dela gure salbatzailea ! Haur saindu hori handituz zohan eta azkartzen ari zen izpirituz ; eta desertuetan zagon Israelgo populuaren aitzinean agertu beharko zen eguneraino.

Bisitazioneko kaperan eman nuen beraz meza saindua, eta Bisitazionea gerthatu zen lekhu ber-berean, han ezarria den aldare batean. Begien aitzinean ginuen guziek lekhua, zoinetan harria guritu baitzen Jondoni Joani gordetzeko harri zilhoan Herodesen soldadoak haren ondolik zabiltzalarik, eta hola eskapatu zen haurra heriotzeari. Jesusen eta Joanes Batistaren ondo-

tik zabiltzan bereziki soldado horiek, eta justu justua, hek biak eskapatu zitzaizkoten; ez da estonatzeko edo miresteko; ezen, ez da irabazten ahal Jainkoaren kontra. Nik Bizitazionean meza eman nuenean, aski berant zen. Goizean goiz jaikia eta argia hasteko Jerusalemgo bertza handiez kampo, bideari lothua, meza akhabatu eta, gogotik askalduko edo gosalduko nintzen; baina ez nintaken itzul Frantchichkanoen komenturat, ez eta ere Aita Batisbonen seroren etcherat. Jadanik ene lagunak abiatzerat zohazin, aitzinago juaiteko. Bisitazionetik zombait urbatsetan bazen serora batzuen egon-lekhua, baina serora hek chizmatikoak ziren. Hatarat askaiterat juaitea baino, hobe zen gosea edo ahuldua ibiltzea.

Norat ginhoaziu oro, batzu oinez, bertze batzu aberen gainean? Jondoni Joaniren desertuaren ikhusterat. Zer harri eta mendi bideak! Oren batea buruan heldu ginen profeta handi hori urthe luzez bizi izan zen tokirat. Bidea mendia behera hain patar abiatu zen non guziek jautsi izan behar baikinuen gure aberetarik. Aski lan bazen chutik egoitea, beheiti juaitean. Khausitu ginuen thomba handi bat gure bide bertchiaren aldean; erran zukuten santa Elizabeth, Jondoni Joaniren ama han chortzia zela. Laster, heldu ginen Jondoni Joaniren egon lekhurat. Nihun ere lur hunen gainean balinbada deser-

turik, han da! Khasu egin behar da zangoa non ezartzen den; bertzenaz bazohazi errekek behera. Mendiaren zolan ikhusten da hibaiak uri demboretan egin ur-bidea, iduri baitu urrundantik errege-bidea; bainan errege-bide hartarik behin ere uehor guti phasatu edo iragan izan da. Ez dira mendi eta larre hek jende-bide. Agorrak dira Jondoni Joaniren egon-lekhu hek. Bizkitartean han bizi izan da penitent handi hori hogoi eta hamar urthetaraino. Beztimenda zuen kamelu ilez egina eta gerrikotzat larruzko uhal bat zuen.

Haren janharia ezti basa zen, bai eta ere ottheak edo ttirittak. Bada arbola baten fruitu bat otthen itchura duena; hortik, uste dute hanitzek Jondoni Joanik fruitu hau zuela jaten edo hunekin egiazko otthe edo ttirittak; Joanes Batistaren egon-lekhua barne bat da bortz metra luze dena eta hiru metra largo; etzan-tokitizat harri bat zuen, pochi bat aitzina dagona, iduri eta, harrizko mahain bat. Probidentziak ezarri du zombait urhatsetan ithurri bat, zoinaren ura baitzen bakharrik Joanes Batistaren edaria; ezen ez du egundaino profeta saindu horrek jastatu ere arnorik, ez bertze edari, hordi dezakenik. Zer erakutspena guretzat, hanitzek, beren arimaren kaltetan, ikhasi nabiko ez dutena!

Joanes Batistaren bizia hain zen mortifikatua

etapenitenta, non errana izan baita etzuela jaten ez edaten. Gure dembora hotan jua izan da Jondoni Joaniren deserturat oraino bizi den gizon saindu Aita Viallet deitzen dena.

Harrek ere behar zuela bada penitentzia egin, hasi zen hura ere ezti basa eta ttirritta jaten. Sei ilhabetez galdu zituen phisuan berrogoi eta hamar kilo, erran nahi baita kintal bat.

Hola juanez, laster hilen zen : nor nahik ez dezake Joanes Batistak bezala egin. Gelditu zen beraz penitentzia garratz horren egitetik, beiratz bizkitartean oraino laueta hogoi eta hamar kilo phisuan, edo ehun eta laueta hogoi libera. Hura zerbait bazen penitentzia hori egin aitzinean ! Ez da hola gizentzen jan gabe egonez. Jondoni Joaniren egoitza hartarik itzuli ginen gure aberetarat jitean baino bide eztiago batarik. Behar zen izan hurbil eguerdi, eta eman ginen bideari Jondoni Joaniren sor-tokirat heltzeko. Enekin nuen hamabi, hamalau urhetako muthiko bat, lekhaio edo hobeki erraiteko lagun bezala. Horra non ene aberearen gainetik erortzen zautan zerbait, mokanesa, edo makhila, ez dakit zer. Erraiten diot lekhaioari : « He ! ekhar dezadazu erori zautan gauza hori. » Harrek berehala : *Bakchich!* Pagarazi nahi zautan erori gauzaren biltzea. « Zer *Bakchich!* diot erraiten bizi-bizia ! Frantzian nor nahik lehiarekin bihurtuko zautan zerbitzu hori, eta zuk diozu *Bakchich!*

Jausten naiz, eta nihauk bilduko dut erori zautana ! » — « Ah ! dio harrek, nahi nuen jakin zer erranen zinuen. » Eta nik ikhusten nuen zeren ondotik zabilan ! Ez da lekhu hetan deusik egiten bakchich gabe. Egun batez, meza emaitan, eskuen garbitzerat juana nintzelarik aldare hegirat, meza-laguntzaleak erran zautan : Bakchich ! emanen duzu Bakchich ! Ez nion deusik ihardetsi ; etzen dembora eta tokia. Erran behar dut bizkitartean bi aldiz ez dautatela deusik galdatu : Lehenbizikorik Bethleemen, niri lore batzu eta Ama Birjinaren esne-harritik eman eta ; bigarrenekorik Jerusalemen, haur batek meza zerbitzatu eta. Nik bakchich eman nahi eta harrek ezetz etzuela hartuko. Harritu nintzan. Erran nion Siongo Seroretarik bati : Ene meza-laguntzaleak deusik ez daut hartu nahi izan. Eta harrek ihardesten daut : Errana dakogu deusik ez hartzeko. Bainan ahazten nuen Jondoni Joaniren desertutik haren sor-lekhura johan nintzala beharri luze baten gainean. Azkenekotz heldu ginen Frantchichkanoen komenturat. Eguerditik oren bat bazitaken : bazkariteko tenorra goizean askaldua ez denarentzat, eta ni askaldu gabea nintzen. Frantchichkanoek bethi ongi arthatu gaituzte han gaindika dituzten beren komentuetan. Hemen ere bardin. Eman zaukuten edaterat Jondoni Joani Batistaren sor-herri hartan egin arno churi eta ezitik. Aphez batek boteila bat arno

handik ekharri zuen bere Jaun Erretorarentzat Jondoni Joaniren herriko arnoa zelakoan eta haren herriak Patrointzat baitu Jondoni Joani Batista, eta haren Jaun erretorak berak ere izena baitzuen Joanes Batista. Nik ere arrazoin berak banintuen Jondoni Joaniren herriko arnotia ekhartzeko ene herriko Jaun Erretorari, ene herriak Patrointzat duelakoan Jondoni Joani Batista eta ene Erretorak Joanes Batista baitu izena.

Banintuen asko ongi-egin eta orhoitzapen ene Jaun Erretor onaren ganik izanak, bereziki Jerusalemerrat juaitean, bainan boteila bat arno ehuuka, milaka lekhoetarik *osorik* ekhartzea ene herriraino, lanak ziren. Iduritzen zaut ikhusten dudala betbetan ene Erretor maitea, jiten, nintzen jan-tokirat, erraiten dautalarik irri maleziatu batekin : utz zazu hor zure boteila arnoa eta itzul zaizkigu zuhoni herrirat *osorik!*

Banuke hemen hanitz gauza erraiteko Jondoni Joaniren berthuten eta egitate ederren gainean, bainan luzeki ezin hedatu ahalez liburu huntan, uzten dut hemen irakurtzaleari khantika baitu Jondoni Joani Batistaren bizia laburzki ekhartzen duena.

Ihun aitzintcheko itzuli ginen Jerusalemerrat; akhituak ginen eta baginuen gabazko pausua-ren eta loaren beharra gure indarren erreberritzeko.

HUNA JONDONI JOANIREN KHANTUA

ERREPIKA

O Jondoni Joani, zu gazten modela!
 Orai eta bethi izan zaitezela
 Gutaz laudatua, gutaz segitua,
 Osoki imitatua!

1

Fededunen Patroin saindua,
 Patroin guretzat hain ona,
 Ardiets zaguzu zerua,
 Egon-lekhu hoberena.

2

Jainko Jaunak zuen goizdanik
 Bere graziez dohatu,
 Bekhatu orijinaletik
 Sor-aitzinean garbitu...

3

Haren sortzeak eman zuen
 Mundua bozkariotan,
 Jainkoaren eskua baitzen
 Agertzen haur saindu hartan...

4

Haur-haurretik du desertuan
 Phasatu bere bizia
 Barurean, penitentzian,
 Beiratuz inozentzia.

5

Mundutarren gurikeriak
 Hola ditu kondenatzen;
 Ez detzaten maitha aisiak
 Heier hola erakhusten.

6

Hogoi eta hamar urthetan
 Abiatu zen agertzen;
 Othoitzean, ordu artean,
 Egotu zen preparatzen.

7

Khartsuki du penitentzia
 Gizoneri predikatu;
 Senditu dute urrikia,
 Eta ditu bathaiatu.

8

Bathaiatzen ari delarik
 Egun batez da lotsatu,
 Jesus sobera aphaldurik
 Nahi baita bathaiatu.

9

O Jesus! norat heldu zare!
 Zer! nik zu bathaiatuko!
 Ez Jauna! handiegi zare
 Hola umiliatzeko!...

10

Utz nezazu, Joanes umila,
 Behar nauzu bathaiatu,
 Justizia guzia hola
 Behar baitugu komplitu.

11

Orduan zuen bathaiatu
Joanesez Salbatzailea,
Jesusek hola ohoratu
Hari bide Egilea.

12

Gizonetan ez da izatu
Profeta handiagorik;
Egia hortaz utzi gaitu
Jesusek eguraturik.

13

Erraguzu, Saindu handia,
Beia zaren Jesu-Kristo:
Haren zapata lokharria,
Ez naiz digne lachatzeko.

14

Haren zerbitzaria naiz ni,
Hura da Bi dots justua,
Harrek du khentzen jeneroski
Munduaren bekhatua.

15

Sinhets-zazue Jesus baithan,
Hori da ene manua,
Hola duzue mundu huntan
Egienen salbamendua.

16

Sinheste onak deraitzue
Obrak egin araziko,
Obretarik juja zazue
Zaretenetz salbatuko.

17

Pobreari, aberatsari,
Erakutsi du legea;
Guzien argitzen zen ari
Ahantzi gabe gorthea.

18

Erregeri berari dio
Goraki erran egia;
Herodes tzarrak eman dio
Ordainez presondegia.

19

Presondegiaren barnean
Harrabots bat da aditu:
Joaniri zaio aitzinean
Soldado bat presentatu.

20

Norat hoa, dohakabea!
Ez nauk ez ikharatuko!
Bai, haugi! zeruko athea
Hik derautak idekiko!

21

Jo zak ezpataz, to lephoa!
Bainan ez nuk ichilduren!
Idek daiteno en' ahoa,
Huna zer dudan erranen:

22

Errege ahalge gabea,
Rizitez khambia hadi!
Desohoratzen duk gorthea!
Etzauk haizu bizi hori!

23

Bekhatu duk lohikeria,
Eskandala duk emaiten!
Gosta dakidala bizia!
Hola mintzatuz nuk hi tzen!

24

O Jesus, o gure Biktima,
Zuri dautzut gomendatzen
Bihotz guziz ene arima!
Jesus, zuretzat naiz hiltzen!!!

25

Zer da buru hori lurrean?

Joanes Batista, bil zaitu!

Bai! adinik hoberenean

Biziaz gabetu zaitu!!!

26

Amaren alaba galdua,

Izan du dantzaren sari

Joanes Batistaren burua.

Eta hik eman amari.

27

Krimaren gaztigu handia

Etzen, ez, hambat luzatu.

Hilarazlek zuten bizia

Guziz trichteki finitu.

28

O dantza madarikatua,

Josteta lanjerosena!

Hire segidez duk mundua

Eskandalaz gaindiegina!

29

Adio, Joani, gazte garbia!

Bethi zaitut segituko:

Nik ere bethi modestia

Osoki dut beiratuko!

HOGOI ETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

HEBRON — ITSASO HILA

Hebron

Norbaitek erranen daut deithu dudala Jondoni Joaniren sor-tokia *Ain-karim* eta ez *Hebron*. Ihardetsiko dut askok uste izan dutela Hebron dela Profeta handi horren sor-tokia; baina bertze hanitz eta hanitz autor argituk, azken dembora hotakoek bereziki, diote ausarki Jondoni Joani sorthu dela Jerusalemetik hurbil, *Ain-karim* edo Jondoni Joani mendietakoa izena duen herri batean. Testament-Berri guzian ez da aiphatzen ere Hebron. Izen hori baxharrik irakurtzen da Testament-Zaharrean. Baina aithortu behar da Hebron eta inguruak fama handitakoak direla, ez beraz Jondoni Joani Batista han sorthu delakoan, ez baita hala, baina bertze asko arrazoinez, ikhusiko dugun bezala laburzki: Hebron eta Hebrongo inguruetan aldi bat baino gehiago mintzatu izan da Jainko Jaina. Ezen, aldi batez, Jainkoak erran zion Abrahami, edo hobeki Abrami, zeren eta, geroago Jainkoak deithu baitzuen Abram *Abraham*, hari erraitea baitzen hanitz nazionen aita izanen zela.

Erran zion beraz Jainkoak Abrami: « Ez izan

beldurrik, Abram, ni hire begiratzaila nuk, eta hire saria handia soberanioki : *Ego protector tuus sum, et merces tua magna nimis.* »

Eta seme bat izanen zuela hitz-emanen, athera arazi zuen bere etcholaz kaporat eta erran zion : « Beha zak zeruari, eta khonda zaik izarrak, ahal baduk ». Eta erran zion : « Hola izanen duk hire ondoregoa ». Sinhetsi zuen Abrahamek Jainkoa baithan, eta Jainkoak errana gertatu zen : populu hanitzen Aita bilhakatu zen Abraham. Patu saindu bat ere egin zuen Jainkoak Abrahamekin, erranez : « Hire ondoregoari emanen zakoiat lur hau Ejiptoko hibaiatik Eulrateko hibai handiraino. » Bertze aldi batez, agertu zen Jainkoa Abrahami eta erran zion : « Ni Jainko guziz botheretsua nuk ; ibil hadi ene aitzinean eta izan hadi perfet. *Ambula coram me, et esto perfectus.* Eta ezarriko diat ene patua ene eta hire artean, eta populatuko haut guziz soberanioki ; » erran nahi baita Jainkoak hitz emaiten ziola Abrahami hura nombrean handituko zuela, hanitz nazionen aita bilhakaraziko, erregeak ere hartarik jautsiko zirela, hartarik jautsi zen bezala geroago erregen Erregea, Jesus Jaina. Bertze hanitz aldiz oraino Jainko eternalak hitz eman zion Abrahami populu osoak hartarik jinen zirela eta emanen ziotela sekulakotz hari eta haren ondokoer Kanaango lur guzia. Promesdo hitz-emaite horiek Jainkoak egin zaizkon Abrahami Hebrongo aldetan zelarik.

Egun batez, agertu zitzaion Jainko Jauna bi Aingeruekin Abrahami, hau jarria zagolarik bere etcholako borthan, Mambreko Haranean. Egun hartako beroaren erdian zen. Abrahamek erran zion: « Jauna, aurkhitu badut grazia zure begietan, etzaitela juan zure zerbitzariaren ganik aitzinago; eta aratche guri on bat hilarazirik, eta errearazirik, aratche hura eman zuen jaterat burrarekin eta esnearekin. Sara haren esposak orhatu zituen presan eta errearazi ophilak hauspean. Han zagon Abraham chutik zerbitzatzeko arbola baten azpian; arbola hori guziz aiphatua da. Oraino egungo egunean bada arbola eder, handi bat Abrahamen arbola deitzen dena. Janthorontzaren ondoan, Jainkoak hitzeman zioten Abrahami eta haren espos Sarari haur bat izanen zutela beren zahartzean, mirakuluzko haur bat, ez baita deusik Jainkoak egin ezdionik; eta hala gerthatu zen. Isaak izan zen haur hura.

Egun hartan, Jainko Jauna, bazohan Mambreko Haranetik Sodomako alderat Abrahamekin, eta erran izan zion Abrahami: « Gordetuko ahal othe diot Abrahami egin gogo dudana, izan beharra delarik jenerazione handi eta arras azkar baten aita, eta *benedikatuak behar direnaz geroz* izan hura baithan lurreko nazione guziak? Segretu hura zen Abrahami ezagutaraztea Sodomak eta Gomorra kriminelen gaztigatzerat eta

ezeztatzerat zohala. Erran zion beraz Jainkoak : « Sodomako eta Gomorrako deihadarra nom-brean handitu da eta heien bekhatua phizutu da soberanioki. Jautsiko naiz eta ikhusiko dut heia niri jin zautan deihadarra egintzez komplitu dutenez : ala ez den hala, jakin dezadan. » Abrahamek pena handia zuen ikhusiz Sodoma ezeztatua izaiterat zohala; hiri hartan zuen Lot bere iloba. Hurbildu zen beraz Jainkoaren ganat, eta erran zion : « Galduko othe duzu justua gaichtaginarekin? Balinbadira berrogoi eta hamar justu hirian galduko othe dira bertzeekin, eta ez othe duzu barkhatuko lekhu hari berrogoi eta hamar justuren gatik, aurkhitzen badira hartan? Urrun izan bedi zu ganik gauza hori egitea, eta hiltzea justua gaichtagina bezala; hori ez da zurea; zuk juiatzen duzuna lur guzia, nehola ez duzu ekharriko juiamendu hori. » Eta erran zion Jainko Jaunak Abrahami : « Aurkhitzen baditut Sodomak berrogoi eta hamar justu, hiriaren barnean, barkhatuko zioat lekhu guziari heien gatik. » Abraham jua zen oraino ahalago.

Erran zion Jainkoari : « Behin hasi naizenaz geroz, mintzatuko naiz ene Jaunari, nahiz naizen erhauts eta hauts. Zer laiteke balinbadira berrogoi eta hamar justuetarat bortz guti ! ezeztatuko duzu berrogoi eta bortzen gatik hiri guzia? » Eta

erran zion : « Ez diat ezeztatuko, aurkhitzen baditut han berrogoi eta bortz. » Berriz ere mintzatu zitzaion erranez : « Bainan berrogoi han aurkhitzen badira, zer eginen duzu ? » Jainkoak iharde-tsi zion : « Ez diat joko berrogoien gatik. » Abrahamek erran zion : « Ez, othoi, samur, Jauna, mintzutzen banaiz : Zer laiteke han aurkhitzen badira hogoi eta hamar ? » Jainko Jaunak iharde-tsi zion : « Ez diat eginen, aurkhitzen baditut han hogoi eta hamar. » Behin hasi naizenaz geroz, dio Abrahamek, mintzatuko naiz ene Jaunari : « Zer laiteke han aurkhitzen badira hogoi ? » Dio Jainkoak : « Ez diat hilen hogoiien gatik » : « Erre-keitzen zaitut, dio Abrahamek, etzaitezen kolera, Jauna, mintzo banaiz oraino aldi bat : Zer laiteke aurkhitzen badira han hamar ? » Eta Jainko mi-serikordiosak, bethi barkhatu nahi lukenak er-raiten dio : « Ez diat ezeztatuko. » Etzen men-turatu ahal Abraham bere galdetan beherago jaustea, eta hiri hobendun hura zeruko suak erre zuen, laster ikusiko dugun bezala, ez zela-koan hamar justu hau khausitu. Eta juan izan zen Jainko Jauna, Abrahami mintzatzetik gel-ditu zen ondoan, eta hau itzuli zen bere lekhu-ra, erran nahi baita, Hebroneko eta Mambreko haran aldetarat.

Hebronen zagolarik Abraham, eta Sodoma Jainkoak gaztigatu eta ezeztatu baino lehenago, izan zen gerla bat Sodomako inguruetan. Lau

errege altchatu ziren bortz erregen kontra, eta bortz errege hauk izan ziren bentzutuak, eta ihesari eman ziren. Lau erregek zernahi gauza berekin ereman zuten. Norbait jin zaion Abrahami erraiterat haren iloba Lot juañ zutela berekin lau errege heiek. Zer egiten du Abrahamek? Nola hanitz aberatsa baitzen eta hanitz sehi baitzuen, hautatu zituen bere sehien artean zalhuenetik hiru ehun eta hemezortzi, eta juañ zen heiekin erregen ondotik, eta azkenekotz hek hatzeman zituen eta heien gainerat erori zen, hek bentzutu zituen, eta gibelerat itzuli zen bitorios Lotekin eta lau erregek eremaiten zituzten onthasun gerlan hartu guziekin. Melkisedek, Jerusalemgo Erregea, eta Jainko Guziz-Goraren Apheza jin zitzaion Abrahami biderat eta hau benedikatu zuen, eta hui laudorio handiak egin zaizkon zeren-eta, Jainko Jaunak irabazarazi zion bitoria. Hortik ikhusten dugu zer gizona zen Abraham, onthasunez gainditua, eta hanitz sehi zituena, behar orduan gerlari handia, Jainkoaren adichkide berezia, Jainkoa jausten zenaz geroz zerutik harekin solas egiterat Hebronan, eta hari erraiterat populu handien aita eta buruzagia izanen zela. Ez dut ahantzi behar erraitea Hebron izan dela Davit Erregearen egon-tokia. Han izan zen Errege eгина Judako populuaren gainean, eta handik gobernatu zuen Judako populu hori sei urthe eta erdiz. Hebronek izan du

beraz ohorea Jainko Jaunaz ardura bisitatua izaiteko, eta bilhakatzeke Abraham Patriarkaren eta Davit Erregearen egon-lekhua. Ez balinbada ere beraz Hebron Jondoni Joaniren sortokia, lekhu guziz aiphatua da, hemen haren gainean erran ditudanetarik ageri den bezala.

Itsaso Hila

Bada lekhu bat Jainko Jaunak goraki madarikatu duena, duela lau mila urtheren ingurua, eta Jainkoaren madarizione hori lekhu horri jarraitzen zaio zorrozki. Mintzo naiz orai itsaso Hila den lekhuaz, eta itsaso hortaz. Itsaso Hilaren lekhu hori zea guziz miragarria; iduri zuen lurreko pharabisu bat Jainkoak egina: *Sicut paradisus Domini*. Bainan, o! zoin higuina den bekhatua Jainkoaren begietan, eta nola behar giren bekhatutik urrundu! Jainkoak bere justiziaren kolpez, jo zituen Sodoma, Gomorrha, bertze hiri batzu, eta inguruak hango jendekin. Sufrezko eta suzko uri bat jautsarazi zuen hiri heietarat eta inguruetarat, eta bazter guziak suntsitu zituen gaztiguzko su ikharagarri horrek. Bi Aingeruek Lot, bai eta haren esposa eta haren bi alabak jaliarazi zituzten presan Sodomatik, bainan Loten esposa bazohalarik ihes, itchura guzien arabera su ikharagarri harrek egiten zuen horrabotsaz harritua, edo beldurrez su harrek hatzeman zezan, edo kuriostate sobe-

ino batez hartua, behatu zuen gibelerat, et
Jainkoak gaztigatu edo punitu zuen emazteki
hori, eta izan zen khambiatua gatzezko portret
atatarat; hori da gauza bat espantagarria, eta
izkitartean arras egia. Jaikitzearekin Abraham
hizean, jua zen bezperan Jainkoa Sodomaren
a inguruen gaztigu hortaz mintzatu zitzaion
kirat, eta behatzearekin Sodomari, Gomorrari
a inguruer, ikhusi zuen khe izigarri bat, la-
eko khe iduri. Ezagutu zuen beren bekhata
guinen gatik Jainko justuak galdu zituela So-
oma, Gomorra, bertze hiriak eta inguruak.
iri madarizioneaz joak izan ziren horien le-
uan eta inguruan, agertu zen itsaso bat, dei-
en dena *itsaso hila*; bai, egiazki *itsaso hila*: ez
i arrain bat ikhusten itsaso hartan, eta baldin
a, Jurdaneko hibaian behera phasatzen badira
ombait arrain itsaso hortarat, berehala hiltzen
ra; eta hartzen baduzu ahurrean itsaso hileko
retik, jastatzeko, ohartuko zira madarizonezko
e bat dela ur hori; aski lan izanen duzu ahotik
: gustu horren khentzea; zer laiteke beraz ur
artarik edaten bazinu! Eskua bera, olioztatua
alitz bezala ez daiteke errechki garbi ur harta-
k atheratzean; bizkitartean mainhatzen dire-
ak itsaso hortan badira; ithotzeko lanjerik ez
a, ur lodi horrek gorphutza, nahi eta ez, airean
tehikitzen baitu; bainan mainhu hori hartzen
uenari larrua khambiatzea gertha daiteke.

Jerusalemetik itsas hilerá hamar orenen bidea bada. Ithurririk, hambat segurik, ez den lekhu hetan, zaldiak egarrituak juan ditezela lehian ur hortarik edaterat; laster hasiko dira harat, hunat muthurra ibilki nahiz kaporat botatu ahoan hartu duten itsaso hileko ur phozoinda-tua.

Nombait han hogoi eta bortz lekho luze eta lau edo bortz lekho largo den itsaso hortan ez da ikhusten bertze itsasoetan bezala ez untzirik ez chaluparik. Zeruko hegastinak berak ez dira menturatzen itsaso hortarat hurbiltzerat eta han gaindi airean ibiltzerat. Itsaso horren inguruetan leben ausarki ziren bai alimalen alha-lekhuak, bai ba ter pherde aberatsak; orai harri idorra, gatzezko sable suerte bat, hormak egiten duen harrabotsa zangoen azpian. Ez da han gaindika arbolarik, zombait tipi banaka baizik. Arbola chume, tchar, idor heien artean bada bat fruitu hori pollit bat ekhartzen duena, Sodomako sagarra deitzen da. Hurbil zaite, zure egarrían ahoa bederen freskatzeko. Idek zazu kanibet edo nabalarekin sagar hori : ufa da; usteldurazko khe edo herrants beltz bat jaliko da fruitu madarizioneaz jo hortarik. Itsaso hilaren urak, plomua bezen phisu, han daude bigitu gabe; edo tempesta ikharagarri zombaiték pochi bat nahasten duenean ur hil hori, egiten du harrabots bat hain lazarria non erran baitzinezake itsaso

haren azpian hilak dauden bekhatorosak nigar marrasketan daudela ifernuko zolan bezala. Itsaso harek bi sahetsetarik baditu nortetik eguerdi alderat bi harri-peñazko mendi, hogoi bat lekho luze hedatzen direnak, bainan ez dira arras gora, Neboko mendia salbu, zoina baita hango mendi handienetarik. Mendi horren gainetik, behatu zuen Moisek Lur-Sainduari. Ikhusi zuen itsaso hilaren bertze aldean Jainkoak bere populuari hitz-eman zion Kanaango lurra; eta nahiz hanitz urthe hetan Jainkoaren populua desertuaa barna gidatzen zuen Lur Agindurat, bera etzen sarthu Lur Saindu hortan, eta zertako? Bekhatu benial baten, konfientzia eskaz baten gatik!

Eta gero goazin zoro batzu bezala erraiterat bekhatu beniala gauza arina dela! Eta zer erran beraz bekhatu mortalaz, bereziki lohikeriazko bekhatu higuinaz, zoinaren gatik Sodoma eta inguruak izan baitziren ezeztatuak! eta hango bekhatorosak damnatuak! etsemplu bat guretzat : *Facti sunt exemplum, ignis aeterni penam sustinentes*. Hambat gaichtoago guri bekhatuan bizi bagira! Jainkoa ona da, bainan justua ere da. Zorigaitz guri haren justiziaren kolpen azpian lehertuak izaiten bagira, bereziki lohikeriazko bekhatuaren gatik! Dembora deno, apazega dezagun gure juie koleratua, bihotzez eta egiazki orai beretik bertze batzu bilhakatuz!

HOGOI ETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

JURDANEKO HIBAIA — JERIKO — HAI
GABAONITEN ABILEZIA

Jurdaneko hibaia

Itsaso hila higuigarri den bezain maithagarri da Jurdaneko ur-handia, edo hibaia. Hiba horrek nortetik eguerdiko alderat trebesatzen ditu Galilea, Samaria, eta Judea, bere urez freskatuz, onthuz, gizenduz, aberastuz hiru Probintzia horiek, erran nahi baitut Lur Saindua.

Hibaia horren urak hori aire dira, edateko onak eta eztiak, eta arraintsu.

Haren bi hegiak edo bi bazterrak arbola pherdez eta alha lekhu gizenez edertuak eta aberastuak dira. Hanitz gauza miragarri gerthatu da Jurdaneko hibaian eta hurbilean, ikhusiko dugun bezala.

Jainkoaren populua Ejiptotik Arabian barna jin zenean Lur Sainduaren hurbilerat, khausitu zuen Jurdaneko ur-handia. Arkha saindua berekin zuten; nola phasa bertze alderat! ehun milaka baziren oro khondatuz: gizon, emazteki eta haur; lanac ziren; baina Jainkoak egin zuen mirakulu espantagarri bat. Israelgo populua phasarazteko itsaso gorrian, urak baztertu zituen bezala, hala hala Jurdaneko urak baztertu zituen.

edo hobeki erraiteko, gaineko aldetik heldu ziren urak mundoi gisa gelditu ziren; eta beheiti aldekoak, juan ziren itsas hilerat; hola, Arkha Saindua eta harekin populu guzia phasatu zen hibaiaiko bertze aldera. Josuek hamabi harri Jurdanetik harturik, hek leihorrean ezarri zituen artha handirekin, amoreagatik eta gero galdegiten zutenean ondokoek zer erran nahi zuten hamabi harri heiek, ezagutaraz zezaten zer mirakulua egin zuen Jainko handiak Jurdaneko hibaia hartan gaindi Israelgo hamabi tribu edo zahiak phasaraziz. Hibaia hartako urak izan dira oraino bi aldiz baztertuak, lehenik Elias profetaren phasatzerat uzteko, bigarrenekorik Elise profetari bidea egiteko. Jurdaneko ur-handiaz bertze alderatu zenean Jainkoaren populua, berrogoi urthe hetan populu hau hazten zuen mana gelditu zen lurraren gainerat erortzetik. Mana hori zen churia elhurra bezala edo barazua chehe bat bezala. Goztu guziak berekin zituen, jalearen nahiaren arabera. Zer mirakulu handia egin zuena Jainko maiteak bere populua-
ren onetan! Ejiptotik jiteko Kanaango lur Jainkoak hitz-emanerat, desertu gaitzak, mendi lekhu gaitzak ziren phasatzeko. Nola bizi lekhu agor hetan! Jainkoak egin zuen mirakulu handi hori: Mana zerutik jauts arazi zuen ez zombait egunez edo ilhabetez, bainan berrogoi urthez! Iguzkia agertu baino lehenago behar zen bildu mana;

bertzenaz iguzkiak urtharazten zuen. Egunean egunekoa baizik etzen bildu behar; ezen, bi egunentzat biltzen balinbazen, bigarren egunean harrez bethetzen zen eta ez zitaken jan. Choilki asteko zazpi egunetarik bat baitzen osoki Jainkoari kontsekratua zena, eta Jainkoaren ohoretan iragan edo phasatu behar zena, bezperatik biltzen zuten phesta-eguneko mana, eta orduan bakharrik usteldu gabe kontserbatzen zen.

Hori ere bertze mirakulu bat zen. Mana horrek seinalatzen zuen guk komunione sainduan erre-zibitzen dugun Ostia adoragarria. Haz gaiten gure aldaretako Mana sakratu huntaz, grazian azkartzeko, eta gu ere heltzeko janhari hunen indarrean mundu huntako desertuan barna lur hitz emaneraino, erran nahi baita zeruraino.

Jeriko, Hai.

Jainkoaren populua jadanik bere lurrean zen, erran nahi dut Jainkoak hitz-eman zion Kana-ango herrian. Bainan etzen errech lur hartaz nagusitzea. Hogoi eta dotzena bat errege bere populuekin heien kontra ziren, eta guziek gerla egin zuten Israeldarren kontra, populu batek salbu, ikhusiko dugun bezala gerochago. Bere aldetik, Josuek hartu zituen prekozione edo bide guziak ez bentzutua izaiteko; bazituen beraz milaka eta milaka soldadoak, bere populutik hartuak, soldado onak, eta nor nahiren kontra prest

gerla egiterat. Hala ere izanen ziren ene arabera bentzutuak Jainkoak, ez balitu egin mirakuluak mirakuluen gainean, bitoria irabazteko. Jurdaneko hibaia bertze alderatu eta, hurbilean zen Jeriko, hiri azkarra, ongi zerratua eta soldado onez zaindua. Hanitz mila gerlari han hil zitazken hiri hori beretu artean. Jainkoak egin zuen mirakulu handi bat, hiriaren bentzutzeko, gizon bat baxharra gosta gabe Israeldarrer. Behar zuten Jainkoaren manuz gerlari guziek sei egunez egunean aldi bat hiriaren itzulia kampoz egin, segituak zirelarik aphezez, zoinetarik batzuek trompeta soinuak adiaraziko baitzituzten, eta bertze aphezek eremanen baitzuten Arkha Saindua. Arkha Sainduaren ondotik, heldu zen populua : gizon, emazteki eta haur. Jeriko barranean, beren ustez segurean zirenek, duda gabe irri egiten zuten prosesione hortaz eta gerla egiteko molde berri hortaz. Bainan zer gerthatu zen : Sei egunez hiriaren itzulia egin ondoan, jin zen zazpigarren eguna, zoinetan, Jainkoaren manuz behar baitzen Jerikoren itzulia egin egun berean zazpi aldiz. Ichilik behar zen egon populua Josuek erran arte oihu azkarki egin zezaten. Beraz, zazpigarren egunean, zazpigarren itzulia populuak Jerikoren inguruan egitearekin, trompeta soinuak azkarki adituak zirelarik, Jainkoaren manuaren arabera, Josuek erran zuen goraki populu guziari : oihuka eman ziezte azkarki;

ezen Jaunak libratu dautzue te hiria. Oihuka hasi zen populua, eta gauza espantagarria, hiriko murru handiak ordu berean erori ziren zola raino. Sarthu ziren Israeldarrak hiri barnean, eta hil zituzten harrapatu guziak.

Bazen bertze hiri bat Hai izena zuena. Hiri hortara Josuek igorri zituen hiru mila gerlari, ustez azki izanen ziren bitoriaren irabazteko.

Bainan, gerlan hasi orduko ihes eman ziren Israeldarrak. Jainkoak ezagutarazi zion bitoria galdua izan zela, norbaitek zerbait beretu zuelakotz Jainkoaren manuren kontra. Chortea tiratu zuten, eta erori zen chorte hori Achan izena zuen baten gainerat; eta hunek aithortu zuen hartu eta gorde zituela eskarlatazko kapuzuz on bat, bai eta zilhar diru soma bat, eta urhezko erregela bat ere. Juan ziren ebatsi gauz horien bilhatzerat, eta khausitu zituzten gordeak. Gizon hori izan zen harrika hila, eta Jainkoaren kolera saindua apazegatu zen.

Juan ziren beraz berriz Hai izena zuen hiriare hartzerat. Josuek segurtanza bazuen Jainkoareganik bitoria irabaziko zuela. Jeneral aditu gisa gorde arazi zituen hiriaren bertze aldetik hogo eta hamar mila gizon; bera bertze aldetik juatu zen bere nombre handiko gerlariekin Haiko hiri horren bichtarat. Haiko erregeak ikhusi zituenean Israeldarrak gerlarat jinak, juan zen hiritik bere soldado guziekin Israeldarren kou-

tra. Uste zuen lehen aldian bezala, bitoria irabaziko zuela. Itchurak ere hortakoak ziren; ezen, gerlan hasi orduko, ihesari eman ziren Israeldarrak alegia eta, zinez; jua zen heien ondotik errege hori armada guziarekin. Orduan gordeak zauden hogoi eta hamar miletarik bortz mila sarthu ziren Haiko hirian, eta su eman zuten hiriari. Haiko erregek eta haren gerlariak ikhusi zutenean khea eta suak hartua Hai beren hiria, harritu ziren. Etzen aski: Alegia eta, ihes juanak ziren gerlariak itzuli ziren Josuerekin Haiko erregeren eta haren soldadoen kontra. Etzen oraino aski: horra non gordeak ziren Israeldarrak, hiriari su eman izan zen ondoan, jin zaizkoten gainerat Haiko gerlarier. Hauk, hiria sutan ikusten zuten eta ez jakin norat jo; bi aldetarik artean hartuak Israeldarrez, azkeneraino, guziak chehatuak izan ziren.

Gabaoniten abilezia

Hemen behar dut khondatu ichtorio bat guziz pullita. Gabaon deitzen zen hiri bateko jendek, ikhusiz Israeldarrek bentzutuko zituztela eskualde hartako populu guziak, jua ziren Josue ganat harekin bakea egiterat eta elgarren adichkide eta laguntzaile izaiteko. Baina huna zer malezia asmatu eta segitu zuten. Iduri eta, urrundarik jinak, berekin ekharzen zituzten jatekoak, asto edo beharri luzen gainean ezarriz

zakhu zabar batzu, eta arno zahagiak urratuak eta antolatuak josiz. Oinetakoak ere zaharkituak zituzten, pedachuz betheak, heien zahartasunaren erakusteko, soineko arropak higatuak zituzten. Bideko ekhartzen zituzten ogiak ere gogorak ziren eta pusketan hautsiak. Hola agertu ziren Josueren eta Israeldarren aitzinerat, eta nahiz hurbilekoak ziren, hasi ziren beren gezurren erraiten, ziotela : « Lur urruneko batetarik jinak gira bakea zuekin egin nahiz. »

Eta Israelgo gizonak ihardetsi zioten eta erran : « Behar bada zortheak guri zor daukun lurrean zaudezte, eta ez dezakegu bake-paturik egin zuekin. » Bainan hek erran zioten legunki Josueri : « Zure zerbitzariak gitutzu. » Eta Josuek erraiten diote : « Nor ziezte zuek? eta nondik heldu ziezte? » Ihardesten diote : « Lur osoki urruneko batetarik jinak dira zure zerbitzariak zure Jainko Jaunaren izenean. » Entzun dugu ezen harren botherearen omena, Ejiptoan egin dituen guziak eta Jurdanez haindian ziren bi errege Amorreendarrer, Sheou Hesebongo erregeari, et Og Basango erregeari, zoina baitzen Astaroten.

Eta erran daukute zaharrek, eta gure tokiko egoiliar (edo habitant) guziek : Har zaitzue eskuetan jatekoak bide guziz luze (horren) gatik, eta zoazte heien biderat, eta errozute : Zuen zerbitzari gira, bake-patu egizue gurekin. Huna ogiak, jali girenean gure etchetarik, zuen ganat

jiteko, bero-beroak hartu ditugu, orai idortuak dira eta zaharregiz phorroskatuak. Arno zahagiak bethe ditugu berriak (zirelarik), orai chehatuak dira eta urratuak. Bezi giren soinekoak eta zangoetan ditugun oinetakoak bide luzearen luzez higatuak dira eta hurran ezeztatuak. Israeldarrak behar ziren Jainkoari gomendatu, jakiteko zer egin behar zuten, eia enganioz edo tromperiaz ari ziren Gabaonitak; bainan etzuten hala egin.

Sinhetsi zituzten mintzatzaile gezurti horiek. Hartu zituzten beraz heien jatekoetarik, ezagutzeko, duda gabe, eia bada hain zaharrak zirenetz; eta ustez egiaz ari ziren, egin zuen Josuek heiekin bakea, eta bake-patua, eta hitz eman zioten etzirela hilak izanen; eta populuaren printzek ere juramentu egin zuten gauza beraren gainean. Bainan handik hirugarren egunean, entzun zuten Israeldarrek auzoan zaudela Gabaonitak eta heien artean behar zirela bizi. Israeldarrak, ziren tokitik urrundu ziren, eta hirugarren egunean, khausitu ziren Gabaonen; bainan populuaren printzek, erran dugun bezala, juramentu egin baitzuten etzituztela Gabaonitak hilen, bizia utzi zaioten. Hortik, jende chehea erasiaka eman zen printzen kontra; ezen, etzezaketen minik egin Gabaoniter, etzaitezken ere goza haukien onthasunez. Printzek ihardesten zioten Israeldarrer : « Zin egin diotegu Israelgo Jainko Jaunaren izenean, eta hortakotz ez ditzakegu



hauk hunki. » Bainan hauchet eginen diotegu : « Utziko diotegu bai bizia, beldurrez eta, gure kontra Jaunaren kolera altcha dadin, baldin hitza jaten baginu. » Bainan halako moldez bizi daiteke non populu guziaren beharretako egurra phikatuko baitute eta ura kharreatuko. Hala mintzo zirelarik printze horiek, deithu zituen Josuek Gabaonitak, eta erran zioten : « Zertako nahi izan gaituzue enganioz gu trompatu, erraiteranokoan : « Guziz urrun gaude zuetarik, gure artean zieztelarik? Hortakotz madarizionearen azpian izanen ziezte eta ez da faltatuko zuen arrazatik norbait egur phikatzeko eta ur kharreatzeko ene Jainkoaren etcherat. » Haukiek ihardetsi zioten Josueri : « Berria ekharria izan zaukun guri zure zerbitzarier hitzeman zuela zure Jainko Jaunak Moï's bere zerbitzariari zuer emaita lur (hau) guzia, eta chahutuko zituela hango egoiliar (edo habitant) guziak. Izialdura handitan sartu gira beraz, eta bilhatu dugu bizitza, zuen beldurraz phusatuak eta bide hori hartu dugu. Eta orai zure eskuan gira : Zuri on eta zuzen zautzuna, egin zazu. » Egin zuen beraz Josuek erran zuen bezala, eta atheratu zituen Israelgo semen eskutik, hilak izan etzitezentzat. Eta egun hartan ekharri zuen legea Gabaonitak populu guziaren eta Jainko Jaunaren aldarearen zerbitzuko zirela, egurrak phikatuz eta urak kharreatuz, orai artino, Jaunak hautatu zuen tokian.

Horra nola, zerbait gostarik ere, eman hitza atchikia izan zen Gabaoniten onetan. Ikhas dezagun gure hitza guk ere atchikitzen, traidorekeria guzietarik urrunduz. Ikhusiko dugu orai nola Gabaoniten kariarat eginak izan diren bi mirakulu handi, bat harria egitea Josueren etsaien gainerat; bigarrena iguzkia Josuek baratzea.

HOGOI ETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

ISRAELDARREN ETSIAK ZERUTIK HARRIKATUAK
 IGUZKIA BARATUA — HANITZ GERLA
 JESUSEN BATHAIOA, BARURAK
 TENTATUA DA — ITSU BAT — ZACHE
 ERREGEN THOMBAK—JEREMI—PROFETA

Israeldarren etsaiak zerutik harrikatuak. Iguzkia baratua.

Jerusalemeko erregeak ikhusiz Gabaonitek Josuerekin bakea egin zutela eta haren aldeko zirela, mezutu zuen bertze lau erregerigan zitela harren ganat, heien laguntzarekin gerla egiteko Gabaoniter. Etziren sobera bortz erregeak Gabaon hiri handi eta azkarraren hartzeko.

Gabaonitek ikhusi zutenean heien hiria erregehek sethiratu zutela, adiarazi zioten Josueri zer gerthatzen zen, eta erraiten zioten : « Ez gibela zure eskuak zure zerbitzarien laguntzetik : Igan zaite laster, eta libra gaitzazu eta ekhar aguzu laguntza! ezen bildu dira gure kontra mendietan dauden Amorrearren errege guziak. » Igan zen Josue Gabaoniten laguntzerat : Berekin johan zituen hanitz gerlari kuraietsu. Jainko Jaunak erran zion Josueri : « Etzakala horien beldurrik izan : Ezen hire eskuetarats largatu ditiat : Hetarik nehork ez dik hiri buru

eginen ahalko.» Beraz, gau guzia bidean emanik, erori zitzaioten etsaiak betbetan gainera.

Eta Jainkoak harritu zituen etsaiak hek, eta hai-zatu Israeldarren aitzinean. Josue heien ondotik jua zen eta ukhaldi handiez hek jo zituen, heier desmasia handiak egin, segituz ondotik eta hek chehakatuz. Bazoatzen etsaiak Israeldarren ihesi, eta gain beheara johan ziren, noiz eta ere harria azkarki hasi baitzen heien kontra. Ezen, Jainkoak harri handi batzu igorri zituen zerutik heien gainerat, eta hanitz gehiago hil ziren harriaz ezenetz eta Israeldarren ezpataz. Bainan ohartu zen Josue etzezakela bitoria akhaba egun hartan; orduan, Jainkoaren inspirazionez phusatua, iguzkia geldiarazi zuen, bai eta ere ilhargia, erranez: Iguzkia, ez higi Gabaonen parretik, eta hilargia Ajalongo haranaren parretik. Eta, o mirakulu espantagarria! gelditu ziren iguzkia eta ilhargia, Israeldarren etsaiak osoki bentzutuak izan arte; etsai guziak herio kolpeaz joak izan ziren zombait banaka salbu, zoinek ahal zuten tokirat ihes egin baitzuten.

Iguzkia egun baten espazioa egon zen bere lekhuari. Ez da behin ere izan ez lehenago, ez geroztik, hain egun luzerik, obedituz hola Jainkoak gizon baten bozari: *Obediente Domino voci hominis*, eta Jainko harrek berak gerla eginez Israelentzat. Mundu guziak ezagutzen du mirakulu hori.

Bortz erregez bezembatean, iheska gorde ziren grota edo lurpean; laster ekharri zioten errege horien berria Josueri; hets arazi zuen lurpeko barne haren ahoa harri handi batzuez, eta gerla aitzina phusatu zuen etsaien kontra. Bitoria osoki ereman ondoan, ekhar arazi zituen errege horiek, haukhil zituen eta dilindan ezarri zituen arats artean eta orduan ehortz arazi gordeak egon ziren lur-zilho berean, barne haren ahoa hetsiz harri handi batzuez. Bertze asko gerla egin izan behar zituen Josuek Kanaango populu guzien kontra. Gabaonitak kampo; ezin salbu hauk, bertze populu guziak altchatu ziren Israeldarren kontra, eta behar izan zen dembora puska bat heien guzien garhaitzeko. Etsai hek hanitz ziren, eta gerlari onak; bainan Jainkoa Israeldarrekin zen eta ez da lurraren gainean indarrik, ez gerlari aski azkarrik armadetako Jainko Jaunaren kontra. Askotan Jainkoak berak aitzinetik segurtatzen zuen Josue bitoria eremaneen zuela etsaien gainean.

Jabetu zen beraz Josue Jainkoak Israel bere populu maitearentzat begiztatua zuen lurraz: gudukatzeak gelditu ziren eta lurra bakean jarri zen.

Israeldarrek benzutu erregeak baziren hogoi eta hameka.

Alderat nahi izan naiz mintzatu gerla horietaz, Jerikotik hasirik, ez berriz itzultzeko gudu

hetaz mintzatzerat. Gerla horien ondotik, Jainkoaren populua gozatu zen Kanaango lur Jainkoak hitzemanaz zitzaionaz; edo aitzineko populuetarik gelditu balinbazen, nombre ttipian izan zen. Orhoit gaiten Jurdanetik abiatu girela gerla horietaz mintzatzen. Itzul gaiten berriz hibaia horren inguruetarat.

Jesus bathaiatua. Barurtzen du, Tentatua da

Jurdaneko hibaia hori da guziz aiphatua Jesus han bathaiatua izan delakotz.

Jadanik Jondoni Joani Batista Galileatik ethorria edo jina zen Judearat eta ari zen bathaiatzen Jurdaneko urean.

Horra nou ohartzen den Jesus umila, bekhatosen artean emana, heldu dela haren ganat, bathaiatua izaiteko. Jondoni Joanik etzuken nehola ere nahi bathaiatu Jesus, eta erraiten zion: « Ni zutaz behar naiz izan bathaiatua, eta zu heldu zira ni ganat! » Eta Jesusek ihardetsiz erran zion: « Utzazu orai; ezen hola dohako bethe dezagun justizia guzia. » Orduan Jondoni Joani Batista erori zen Jesusen nahira. Baina Jesus lurraren erraietaraino aphaltzen bazen, Aita eternalak hartzen zuen artha Jainko Gizonaren altchatzeko populuaren begietan. Ezen, Jesus bathaiatua uretik atheratzean, zeruak ideki ziren haren gainerat, et ikhusi zuen Salbatzaileak Izpiritu

Saindua jausten haren gainerat uso baten forman eta egoiten haren gainean : Eta Aita eternalak zerutik boza adiaraziz, erran zuen : « Zu zira ene Seme maitea; zutan da ene gozoa. »

Jesusen barura. Tentatua da

Orduan, Jesus eremana izan zen deserturat Izpiritu Sainduaz eta berrogoi gau egunez barur egon zen. Bere enganio guziekin debrua hurbildu zitzaion tentatzerat, bainan Jesusek bentzutu zuen izpiritu gaichtoa, tentazione bakhotchean hartuz Liburu Sainduetako hitzak, eta hortik guri erakutsiz nola behar giren othoitzaz eta hitz sainduaz azkartu tentatzalearen kontra. Jesusek bere penitentziaz santifikatu mendia, dena harroka, han da. Ikhusten ere dira hanitz grota edo barne harrokan, demboraz sainduak eta penitenteak Jesus Jaunaren harroka zilhoaren inguruetan. Grota edo harroka zilho hetan lakhet zaioten sainduak eta penitenter egoitea eta han bizitzea, Jesus Jaunaren barur zorrotzen orhoitzapenetan. Jauts gaiten mendi hortarik eta goazin oraino Jurdaneko hibaia hegira. Ikhusten da Jesus bathaiatua izan den lekhua. Demboran, hibaia erdian egin izan zen Jesusen bathaioaren orhoitzapenetan harrizko khurutze bat, zoinaren oinetarat jausten baitziren eskaler batetarik alde hetarat gu bezala jua-

nak ziren pelegrinak, eta khurutze haren oinetan erreberitzen zituzten beren bathaioko promesak edo agintzak. Asko saindu bizi izan dira Jurdaneko hibaiaren hegian, Jesuzen bathaioaren orhoitzapenetan; hala nola santa Maria Ejipzianoa, zoina penitentzia gogorrean bizi izan baitzen Jurdango hegian hogoi eta hamabortz urtez.

Jerusalemerakoan, eman dezogun behako bat Jerikori. Ikhusi dugu hiri hori mirakuluzki lurerrat eroria, Israeldarrek etzutelarik hiri horren kontra ezpataz eta harmez usaiarik egin. Josuek Jainkoaren madarizioneak galdatu zituen hiri hori berriz altchatuko zuenaren gainerat. Hala ere hiri hori berriz eginga izan zen, eta Jesus Jauna jin zen egun batez Jerikorat.

Itsu bat sendatua

Hiri hortarat zohalarik Jesus, itsu bat, aditurik han gandi zohala Jesus Nazaretharra, oiuhuka hasi zen Salbatzaileari, erranez : « Jesus, Daviten Semea, urrikal zakizkit. » Gelditu zen Jesus eta manatu zuen ekhar zioten gizon itsu hori. Eta hurbildu zenean, galdegin zion : « Zer nahi duzu egin dezazudan? » Eta erran zion : « Jauna, ikhus dezadan! » Eta Jesus onak erran zion : « Ikhus zazu; zure fedeak salbatu zaitu. » Eta ordu berean ikhusi zuen, eta haren ondotik zohan, goretsiz, benedikatuz Jainkoa. Populu

guziak, mirakulu hori ikhusiz, laudatzen zuen Jainkoa.

Zache konbertitzen da

Nola Jesusen omena edo fama handia baitzen, eta milaka jendeak baitzizkion ondotik, Zache deitzen zen publikanoen aitzindari edo printze aberats batek, eginez bere buruarekin etzuela mundu horren gatik Jesus ikhusiko ahal, tipia baitzen, igan zen arbola baten gainerat.

Han gaindi phasatzean, Jesusek behatu zion eta erran : « Zache, jauts zaite laster; zeren eta, egun zure etchean behar naiz egon. » Eta lehia-tuki jautsi zen arbolatik, eta etcherat hartu zuen bozkario eta lehia handirekin Jesu-Kristo Jauna. Eta han zauden guziak erasian, erranez gizon bekhatoros baten ganat aldaratu zela. Egia da, Zache publikanoa zen; bainan frogatu zuen bekhatorosa izan bazen ere, jadanik konbertitzen zela; ezen, erran zuen Jesusen, aitzinean : « Huna non, ene onthasunen erdia, Jauna, emaiten dudan pobrer; eta uehori zerbait bidegabe egin badiot, lau aldiz gehiago itzultzen diot. » Erran zion Jesus Jaunak Zacheri : « Egun salbamendua etche huntan sarthu da; zeren eta, hau ere Abrahamen seme da. » Ezen ethorri da gizonaren Semea bilhatzerat eta salbatzerat galdua zena.

Hurbil gaiten emeki, emeki Jerusalemerat.

Erregen thombak — Jeremi — Profetak

Beha dezotegun, phasatzean, erregen thomber, Jeremias profetaren grotta eta lur-barneko zilho handiari, non hiru lau ehun jenderen lekhua baita. Han preparatzen, ontzen, Jainkoaren benedikzioenez aberasten zituen bere profezia sarkorrek. Loaz akhitua zenean, phausatzerat bazohan eskaler suerte batzu gora lur arrasetik goitichago ikhusten ginuen gaintto batetarat. Bertze eskualde batean ikhus detzagun profeten thombak. Ez dakit segur denetz Jainkoak bere populuari igortzen zituen gizon saindu hek thomba hetan direnetz oro. Nik dakidana da Israelgo populu itsuak haren argitzerat igorriak ziren profetak hil arazten zituela, eta edertzen zituzten heien arbasoek hil profeten thombak. Jerusalemen gerthatzen zen hori; ez baidohako bada profeta bati Jerusalemez kambo hiltzea, halahala gerthatuko zaion bezala profeten Igorleari, profeten Profetari : Jesusi. Ohore, errespetu, amodio, zueri, o profeta sainduak. Zuen izpirituaz izan gaitela gu ere gidatuak!

Hemen da lekhua eta dembora begikolpe bat botatzeko Lur Sainduari, hemengo egoiliar edo habitant dembora guzietakoer; zerbait erranen dut ere lurraren kalitatez, errekoltez, alimalez, eta bertze asko gauzez, eta azkenetarik heldu den kapitulu hau ez da menturaz izanen gutienik irakurtzalearen gostukoa.

HOGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

LUR SAINDUAZ. HANGO JENDEZ, ALIMALEZ, ERREKOLTEZ, USAIEZ...

Jainkoak bere populuarentzat begiztatua zuen egon-lekhuak izan ditu asko izen : Izendatu dute eta oraino ere izendatzen Paleztina, Kanaango lurra, Lur agindua, Hebroen edo Israelarren Lurra, Judea, Lur Saindua. Lekhu hetan lehen bizi zirenak Josue kapitain, gerlari handi eta jainkotiarrak bentzutu populuak ziren ; gero, Josueren bitorien demboratik goiti, hanitz ehun urthez Israeldarrak gozatu dira Lur Sainduaz, ezen hura zen Lurra Jainkoak hitz emaua Abrahami. Jesusen demboran, Lur Saindua Israelarren eskuko zen; baina beren kaltetan, Israelarrek edo Juduek etzuten nahi izan ezagutu Jesus Jauna beren Salbatzailetzat. Harrek egiten zituen mirakulu miretsagarriak ikhusiz, behar zuten hura ezagutu Mesiaz dibinoarentzat. Baina, beren faltaz eta beren maleziaz, hetsi zituzten begiak haren Jainkotasunaren gainean, eta hura hil zuten gizon choil bat izan balitz bezala. Hortik, etzuten merezi Jainkoaren populua izaitea. Uzten zuten bazterrerat egiazko Mesias : Jesus. Egiazko Mesias Jesusek hek baztertzen zituen, hark ere. Handik goiti, etzen Lur Saindua

heiena, eta juan zitazken Palestinatik nahi zuten eskualderat; bainan, norat nahi juan ziten, bethi berekin zerabilaten Jainkoaren madarizionea; eta madarizione hori izkribatua bezala zen heien begitartean. Oraino egungo egunean, hanitz errech zauku bereztea Juduak, hek ezagutzea; eta Jainko-Gizonaren hiltzale horiek ez dira nihon begi onez ikhusiak. Oraino ez du urthe lerro handirik etzirela Juduak haizu Bayonan gauá phasatzera. Ihuntzearekin, juan behar ziren Santispiritako alderat. Nihork gutik nahi ditu hek utzi egoitza hartzera gure hirietan, gure auzoetan, gure etcheetan. Asko aldiz, harat, hunat dabilta Juduak, bederen ibili dira, herratuak, jenden konfientziarik ez, eta hetarik askok frogatzen beren abarizioaz, beren diruarendako duten amodio soberanioaz, diru prestatuaren intres soberanio tiratzen dutenaz, zombait aldiz khurutzefikatuz haurrak, Jesus egin duten bezala, bai, egitate hits horietaz frogatzen dute heien alderako gure hoztasuna, urruntasuna, ez dela arrazoinik gabekoa.

Munduaren bazter guzietarat beraz herratuki barraiatuak dira: Horra nondik uste nuken deitzen dugun hetarik bat Judu herratua; ez, sinhesten dugulakoan badela Judu herratua deitzen den norbait, zahartua, borthaz bortha dabilana, erresumaz erresuma, ezin hila; ez da holako gizonik. Juduak herratuak deith ditazke nik

erran dudan gauzen gatik. Juduen arraza da Jainkoaz madarikatua, ibilki bethi nombait urustasunaren eta bakearen ondotik; bainan ez da bake eta dohatsutasun egiazkorik Jainkoan baizik, eta hek ez dute Jainkorik : Hil dute Jainko-Gizona; balukete Jainko Salbatzaile hori, nahi balute, bainan ez dute nahi beren gostuaren araberako Mesias bat baizik. Bilhatzen dute beren Liburu Sainduetan. Liburu Saindu hek erraiten diote ethorria dela Mesias; bainan bada heien begien aitzinean oihal bat bezala. Ikhus-ten dute eta ez dute ikhusten; irakurtzen dute eta ez dute komprenitzen Mesiasen lurraren gainean agertzeko demborak phasatuak edo iraganak direla : Hek bilhatzen duten edo bilhatu behar luketen Jainko Salbatzailea jadanik jina dela, eta harrek egiten duela gu girichtinoen gozoa eta salbamendua.

Othoitz egin dezagun gure anaia errebelatu horientzat, amoreagatik eta, ezagut dezaten hek salbatu nahi dituen Jainkoa; eta egina izan dadila hetaz eta gutaz arthalde bakhar bat Artzain berarekin, erran nahi dut *Jesus Buruzagiarekin*. Egun batez, Liburu Sainduen arabera, itzuli behar dira Jainkoa ganat eta ezagutuko dute orduan hek hilarazi duten Jesus zela preseski hek bilhatzen zuten Mesias dibinoa.

Israeldarren edo Juduen plazan nor da orai Judean? Han bada nazione hanitzetarik. Bada

Frantses, ez hanitz; bada Rusiano; soberachko, bada turko, bada bereziki Arabe.

Erlijioneaz bezembatean, bada katoliko par-rasta bat, chizmatiko gehiago, milaka juduak; ezen, jadanik errana izan dudan bezala, alde guzietarik heldu dira judu adinean aitzinatuak, nahiz azken hatsa eman beren arbasoen lekhuari eta lehenago heiena izan zen lurrean.

Turkoen, Araben eta bertze batzuen erlijio-nea Mahometen erlijioea da. Badakigu bizkitar-tean Mahomet gizonetan azkena zela, jende en-ganatzaille bat; harren erlijioea, indarraren, sabrearen, zarkeriaren erlijioea da. Badu erli-jione horrek bertze asko erlijionetarik harturik zerbait, juduen, katolikoen eta bertzen erlijio-netarik; gaineratikoa Mahometek asmatu erho-keria eta gezurretarik. Mahometanoek ezagutzen dute Jesus profetatzat, baina Mahomet profeta handiago daukate. Jesus ez da heltzen haren zango-aztalerat baino gorago. Diote noiz nahi: Jainkoa baxharrik handia da, eta Mahomet haren profeta da! Ama Birjina ere errespetatzen dute Jesus profetaren Ama bezala eta hura deitzen dute Andere Maria. Hobe guretzat; ezen uzten gituzte Jesusen eta Mariaren ohoratzerat, nahi dugun bezala, European eta Frantzian baino li-bertate gehiagorekin. Frantzian asko lekhuari debekatuak dira profesioak; han, guk egiten ginintuen profesioetan, Mahometanoak ichil

eta serios guri beha zauden. Othoitz egin dezagun heientzat ere! Ez dute sakramendurik eta salbatzeko biderik beren erlijione faltuan.

Oraí han gaindi Turkoa da nagusi. Lehenago, gu ginen Lur Sainduaren jabe gu Europako Girichtinoak; aspaldian galdua dugu eta galdua da katolikoentzat; nonbait bere izkiribuetan Maria d'Agreda serorak erraiten du gu girichtinoen bekhatuen gatik dela Lur Saindua infidelen eskuetan, erran nahi da erlijione onaz kampo diren Mahometanoen eskuetan.

Zer jende da alde hetako jendea? Han gaindi gizen guti. Jende meharrak, kolorez pherdaratsak, zainhartak, ezin akhituak, bethi prest edo ekharriak ongi egitera bidaiantari, hari jatera emaitera, berek balinbadute. Beztimendaz bezenbatean, guziz onhesta da, ene inguruetan erraiten aditzen nuen bezala. Lephotik lurreraino badoha gain-gainean buruaren phasarazteko zilho batekin. Guziek, gizon ala emazte, badute arropa handi hori.

Hanitzek badute bigarren, eta hirugarren beztimenda laburragoko bat, beztimenda guziek duten handi hartaz bertzalde. Beztimenda horiek, bakhotcha asko koloretakoak dira. Sainduen potretak ikhusten ditugunean, hala nola Jesusena, Ama Birjinarena, jakin dezagun hala hala bezi direla alde hetan, oraino egungo egunean. Han ez da deusik khambiatzen. Arropa, ederrak

laitezken horiek, berri egoiten balire, chahartzearekin, tchartzen, ihechten dira, gure lekhuetan bezala. Orduan, jende pobre heier ikhusiko diozute hementchet arropan pedachu bat, hor zilho bat. Oinetakoez bezenbatean, hanitz eta hanitzek Adamek eman oinetakoak dituzte, erran nahi dut zango-has direla. Ez han bilha galtzerdirik, bederen sobera. Iduri lukete bizkitartean hanitzek zerbait badutela zangarretan; zer da? galtzerdia? Ez; zoldra beltz bat, ez bailezake edo zoin ur chortak ezeztaraz. Han gaindika ur eta ithurri guti da, uraz usai handia egin ahal izaiteko. Zithernak edo urtegiak egiten dira, urietan hetarak ura biltzeko.

Ez da han chapelik, ez kofiarik; ez da bonet edo gapelurik. Zombait aldiz buru has dohatzi gizonak eta maizago buruaren inguruan itzulikatua dutela mokanes suerte bat. Izan dadila hegoa, izan dadila iguzki beroena. Ez dute khebduko bere arropetarik deusik. Orduan, duda gabe izerdiaren arthatzeko, hobekiago itzulikatuko dira beren beztimendez. Parasolari irri egin lezakete. Hoinbertze arropaz kargatuak, gurekin zabiltzan zerbitzariak oinez zohazin. Guk aberen gainean ere aski lan, eta hek jeneralean oinez, maiz urhats bizian edo trostan. Guk bidea itzulan aberez hartzen ginuen demboran, hek chendraz eta bethi laburrenetik. Kargen eremaiteko zituzten astoek eta kameluek bide chendra hek

hartzen zituzten, hek ere. Arras ithurri guti den lekhu hetan, noizetik noizerat khausitzen denean bidetik hurbil ur bat. lehiarekin bazohatzen harat lekhaioak, kameluak, beharri luzeak. Gure zamariak ez gintuen uzten ur hetan edaterat. Guhaur ere ez ginen johan edaterat, ongi egarriak ginelarik; debekatuak ginen gure aitzindarietz, baitira ur hetan odol edaleak, edo uchadan edo itchainak. Alde hetako jendek eskaa ahotik zintzurreraino sartzen diote aberer, haukiek edan eta berehala, eta ahurraz ahoz kaporat atheratzen dituzte jadanik aberen zintzurrer lothuak diren odol edaleak.

Emazteki guti ikhusiko da lekhu hetan kampoan. Ongi beharrez eta arradoki ikhusten dira bidetan edo karriketan. Batzuek begithartea gordea dute, bertze batzuek tatue seinalekin : erran nahi baita, asko deseinu badituztela begitartean, gutiago edo gehiago gustu onaren arabera atheratuak. Zertako ez utz begithartea Jainkoak egin daukun bezala !

Jendez mintzatu gira ; mintza gaiten orai alimalez. Gure aldetako alimale gutiz gehienetarik bada Lur-Sainduan, eta zombait gehiago.

Hola, ikhusten da han zaldia, mandoa, astoa, kamelua, idia, behia, ardia, ahuntza, orkhaitza, lehoia, tigrea, hartza, otsoa, acheria, chakala, chakhurra, gathua, pantera, hiena, basurdea, erbia, ulia, chinhaurria, choria, usoa, pelika-

noa, ziña, epherra, kalla, arranoa, belea, buzo-
ka, gau-ainhera, sagarroia, eta bertze asko.

Mendi lekhu hetan, harri lekhu hetan, alde
kameluak, hartako zaldiak, mandoak, eta astoak
hemengoak baino biziki hobeak dira. Begiztatu-
ko dute aitzinerik non behar duten zangoa phau-
satu. Banuen zaldi bat, chortheak emana; ttipia
eta hertchia zen, mehea beraziki, ene ustean
erdi-gosea egona. Eta ez dut enekin zen egun
guzietan aldi bat ikhusi jateu. Hartaz artha zuen
lekhaioak emaiten zion jaterat, bainan itchuraz
ez sobera. Behin ere etzen baitezpada hala be-
thea. Ene zaldi gaichoak mement guziez behaz-
topak egiten zaiztan; etzen hargatik behinere
erortzen; brida kolpe batek chuchentzen zuen.
Noiz nahi eztulka arizen; fuchus hutsa zen. Ber-
tze estakuru guzien gainerat, ohartu nintzen
okherra zela. Bainan, bazena bai toki lanjeros
bat, orduan uzten ahal nuen bera. Ezagutzen
zuen berak patituko zuela erortzen bazen. Janz-
terietan, lotzen nintzen zela gibelari, ene burua-
rekin erranez: « Ni, zaldia eta zela, hiruak itzu-
lian buruz gain juan behar gira! » Uruski etzen
hala gertbatzen. Hango abereak, mandoak, eta
astoak gora beheretan eta atheketan ibiltzen gu-
ziz usatuak dira.

Egun batez, Bethleemeko karmeliten kome-
tura juaitean, behar ginen eskaler mail lerro bat
gora igan eta bertze aldetik jautsi. Suertez egun

hartan astoa nuen. Uzten dut asto hori harri eskaler heien zolan, ustez eta, etzen iganen abalko gurekin. Bainan zer egiten du ene beharri luzeak? Chakhur bat bezen zalhu eta erechki guri segitzen da. Gauza horri ohartzearekin, etzen gure omore ona ttipitu. Kameluek ere badakite ibiltzen phausu segur batekin; kintalka kargak, menturaz hamabi, hamabortz kintal karga bizkarrean eremaiten dituzte; zure ondoan phasatzean, behatuko dantzute beren buru gora zure ganat itzuliz eta aire gaizo batekin. Alimale hori arras ezta da; bainan egun batez, bat furian eman zen. Nazarethen ikhusi dut kamelu bat kargatzen. Lehenik, etzanik eman zioten karga; gero belhaunen gainera altcharazi zuten, eta azkenekotz osoki chutitu zen, zombait orro eta zinkhurina eginez. Lana eta akhitzea nehoi ere ez lakhet, ez eta, alimaler ere.

Chakurrez bezenbatean, nagusirik ez cute jeneralean. Milaka urthe hautan bere gain bizi dira, harrapatzen dutena harrapa. Hirietan hanitz chakhur bada. Nehor ez da hetaz antsiatzen edo okupatzen, ez eta hek ere bertzez. Bada heien beharra garbitzeko karrikak jaten dituzten zikhinkerietarik. Jerusalem, komparazione, han daude egunaz karrika bazterretan sekulan hauma bat egin gabe, eta nehoi sekulan oldartu gabe beren baitharik; kameluek eta bertze alimale karriketan dabilzanek artha dute zangoen

azpian ez hartzeko chakhur hek. Egun batez, uste gabean ene makhila phausatu edo bermatu nuen chakhur baten gainean. Hortzak erakutsi zaiztan ausiki gabe; bere dretchoan zen, eta urus nintzan ez baitzautan hartu ene arropen izaria; kuarterka dira chakhur hek. Gabaz kurri emaiten dira hirian, zerbaiten bilha. Ilhunbetan karriketarat botatzen diren zikhinkeriak edo alimale hilak janez, bizi dira.

Hetarik bat hiltzen denean, lagunez jana da. Chakhur horietarik bat juaiten bada bere chakhur lagunetarik bertze karrika batetarat, karrika huntako chakhurrez ausikia, kolpatua da eta batzuetan hetaz jana. Jendeak berak ez ditezela ibil gabaz karriketan; gabaz karriken jabe chakhurak dira eta gizon bat edo bertze hil lezakete eta jan, tenor gaitzean khausitzen balute bera.

Bada ez acheri ez chakhur, chakal deitzen den alimale mota bat. Nombre handian dira chakal hek. Kolpeka artzen dira chakhurrekin. Nazarethen, gau batez kampoan ginelarik oihalezko tentorio edo etchola suerte batzuetan, begirik etzitaken hets, luzaz chakhurak eta chakalak kalapitan haumaka ari zirelakoan. Nazarethen oraino, ene ondo ondoan ikhusten nuen chakal hetarik bat; bere muthur mehatsetik ageri zen etzela chakhur ordenarioa, baina bai chakal bat.

Arbola gure herrietan ez denetarik frango bada

Paleztinan. Bada hemengoetarik ere, hala nola phiko ondoa, oliba ondoa bereziki, amanda ondoa, sagar ondoa, intzaur ondoa, platana ondoa, zurchuri ondoa, granada ondoa, zedroa, gehienik Libango mendian; gaztena ondorik badenetz, ez dakit. Haitz ondoa ba omen da; nahi nuken ikhusi, baina ezin ikhusi ahal izandut. Alhorretan badira ogia, mahats ondoa, etchilarra edo ilhar chehea, ilhar biribila, lihoa, garagarra, zikomora, ziprea, akazia, tulipa, mandragora, nardoa, zinamona, kanela, mirha eta insentsua.

Lili suerte guzietarik bada, eta zoin ederrak! Lehen egunean hasi nintzen lore biltzen hunat ekhartzeko; baina nola hek enekin ibil lunditu gabe piaieta! Etzakote gaitz erler ezti ona egiteko liliak khausitzea.

Hau gaindika hanitz egon-lekhu bada harrorkapean. Harrien barnean diren etche horiek ardura badute aldean bargin eta maachtura lanaz egin etche bat, gordetzen duena harrokan den egonlekhu. Hala zen Nazarethen Jesus, Maria eta Josepen etchea, egoitza doblearekin. Aingeruek bigarren egoitza hau ereman zuten airean Nazarethetik Loretarat, utziz bere lekhu-oraino han ikhusten den lehen egon lekhu-lurpeko hori, zoinak ez baitzuen bigarrenak bezala lanjerik ezeztatua izaiteko. Ez da lehen kolpean desegiten eta aurdikitzen harri-peñazko egoitza

bat. Jendeak, alimoleak, arthaldeak, guziak bortha beretik sartzen dira, eta guziak betan daude, eta diote batzuek ez dela ezagutzen hor osagarriarentzat abachurik, irabazirik baizen. Ez naiz gauza hortan trenchor edo juie izan nahi. Erranen dut bakharrak uste nukela hobe den osasunarentzat abereak izan ditezten jendetarik baztertuak.

Ongi hazia dea Lur Sainduko jendea? Ene arabera arras flakoki. Haragi guti ikhusi dut alde hetako bizitiar edo egoiliarren ahoan; kontrarat, ikhusi dut gurekin zabilan gidari baten salda; hain zen mehea non gure ortzi-raletako salda bertzerik baita; eta ez nuen ikhusten bertze platik edo jakirik. Arnoa guti edana da han. Ez da bada khario; boteila arnoa, arno churi ona, bi edo hiru sosetan da. Huna nolaz ez den arnoa han gaindika hanitz edana. Mahometanoak nagusi dira nombrean Lur Sainduan. Mahometek debekatu zuen haren erlijio-nekoer arnorik edatea. Manu hori aski segitua da. Gutarik batek nahi zion edaterat eman aguardienta mahometano bati; hunek galdatu zion arnoa zenetz. Gure lagunak ihardetsi zion ezetz, etzela arnoa. Orduan edan zuen aguardienta mahometano horrek. Duda dut holako dizipulua Mahometen gostukoa izanen zen profeta faltsu hunen demboran gerthatu izan balitz ichtorio hori. Mahometano horiek edanean bezala, janean

ere badituzte beren penitentzia suerteak ; eta garratzak. Badute beren garizuma, radaman deitzen dutena. Barur egun hetako egunetan, ez dira haizu deus jaterat, ez edaterat iguzkia jalitzetik sar artean. Pheza tiro batek ezagutarazten du noiz sartzen den aratsalde aphalean iguzkia. Lehen aldikotz sarthu nintzenean Jerusalem, lerroan, prosesionean johan ginelarik gure bidera ethorria zen Frantziako kontzularekin, adituenen pheza tiro bat. Etzautan itsusi pheza tiro horren aditzea ; ezen, uste nuen gure ohoratzeke zela tiro hori.

Bainan horra non ondoko goizean, argi urratzean, aditzen dudan bertze pheza tiro bat. Espantitua nintzen hoinbertze ohore emaiten zautkenetz, eta ene buruari erraiten nuen ez othe zen bertze zerbait chedez pheza tiro hori adiarazten. Galdatu nuen beraz zer ziren pheza tiro hek, eta ezagutarazi zautaten ilhuntzeko pheza tiroak adiarazten zuela mahometanoer barura hauts zezaketela ; goizeko pheza tiroak ezagutarazten zuen laster etzela janen ahalko, eta demboraz baliatzea. Baliatzen omen dira demboraz : ez badute egunaz jaten beren baruretan, gabaz ez dauda bethi lo. Ederki asetzen dira, eskrupularik gabe. Badira mahometanoak, hainbertzetaraino fidelak beren barur garratzer, non ahoa bortchaz idekitzen baliote ere, ez bailezakete ahamen bat jan iguzkia kampoan deno. Guziak

hargatik ez dira hain delikatuak. Bati erran zioten jan zezan jateko pochi bat. Behatu zuen alde orotarat ikhusteko zombait mahometanoz etzenez ikhusia; gordetu zen eta emana zitzaion janharia jan zuen gostuz. Egin zuen gure girichtino lazo hek egiten dutena : jan zuen kontzientziaren kontra. Bederen mahometano hori gorde zen. Eta zombait girichtino ez da gure artean, gordetzen ez direnak, bainan odol freskoan janen dutenak gizen mehe egunean ororen bichitan, hord tzeraino edanea dutenak ez ichilka ez, hek, bainan ostatu bethean, karrika bethean. Aiphatu mahometanoa baino meziprezagarriago zait girichtino lazo horiek. Azken juiamenduan, girichtinoen kontra alchatuko dira mahometanoak hek beren erlijione faltsuan penitentzia gehiago egin dutelakotz hanitz girichtinok baino.

Arnoaren prezioaz mintzatu naizenean, estonatuia izan da irakurtzalea, ikhusiz boteila arnoa hoin merke. Asko gauza badira Judean edo Lur Sainduan gure eskualde hotan baino merkeago. Huna zombait chehetasun. Gu han ginenean, dotzena arroltzeak egiten zuen choilki bi-hirusos. Oilo parean, erran nahi baitut bi oilo, hamabortz, hamasei sosetan. Ardi bat bortz liberetan. Gure lagun batek igorri zuen Santa Anarat Baionako Jaun Lavigerie kardinalearen aphezer ardi bat, bortz libera pagatua. Tenorean, juan zen Jaun hetarat bazkariterat : Ardi hartarik jan

zuten guziek. Bortz libera gosta ardia ederra bide zen; ezen, bere laguner erran zuen biharamunean; banoha oraino ere aita on horiekin bazkariterat; oraino ene ardi hartarik behar dugu jan. Nola gauzak hain merke pagatzen dira Lur Sainduan? Ene arabera, dirua han gairi arrado delakoan eta chuhur. Uste dut hango hogoi sosekoak gehiago balio duela han ezinez eta berrogoi sosekoak gure herrietan. Han berean ere badute beren dirua, baina guti estimatua da. Ahurra bethoko dautzute hango hamar sosek. Baitez bada diru frantsesa nahi dute, ez ditake erran zoin heinetaraino. Ez da estonatzeko bethi gure ganik bakchich nahi baitzuten. Gutaz opinione handia dute; uste dute diruz kargatuak girela. Heien begietan aberatsak ginen. Ez baitzen bada gauza hori egia, eta artetan erran behar baitzen ez ginuela dirurik; etzuten gure errana komprenitzen ez eta ere sinhesten. Frantses batek dirurik ez! hori michterio bat zen heientzat.

Zer erran Lur Sainduko jenden karakteraz? Eztiak dira, naski alde hotan baino gehiago. Artetan bizkitartean elgarrekin mokoka ikhusi ditut. Nintagon aldi batez noiz hasiko othe ziren puñalean; zombait oihu egin eta, bakean eman ziren. Egun batez, hetarik bat jin zen furian, oihuka, Lievin gure Aitzindari Frantchiskano bati. Iduri zuen zernahi egin behar ziola. Fraide

Saindu hori etzen ligitu. Paziencia handirekin aditu zituen gizon horrek arabe lenguaian egiten zaizkon elheak. Erran nion gero ondoan Lievin Frantchiskanoari : « Espantitua izan naiz zure paziencia ikhusiz gizon horren mehatchu eta oihuetan. » Arras ongi egin zuen ichilik egoitea; ezen, lekhu hetan, gorena mintzo denak du arrazoin, eta neke izanen zitzaion furian zen gizon hori baino gorago mintzatzea. Egiazki gizon hori furian zena, ez dut uste samurrarena egiten zuen. Ortzegun-Saindu aratseko sala ederren ikhusterat juanak ginen, eta handik hurbil eskaler mail batzuetarik igan behar baita Davit erregearen thombarat heltzeko, zion, ene arabera, harat igaiteko behar zela zombait bakchich gehiago eman. Iduritzen zaut han gaindiko jendea, jende sendimendu bizirik gabekoa dela, aphaldua, makhurtua, prest ukhaldiaren hartzerat. Gurekin zabiltzan zombait aitzindarik artetan emaiten zuten muthil zerbitzari bati edo bertzeari zaharo ukhaldi bat. Hauk, azkarrago zirelarik hanitzetan, zaharo zarta hek hartzen zituzten deus erran, ez egin gabe. Batek choilki aldi batez hedatzen zuen eskua kolpen beiratzeko.

Ez nuke uste ohoin lanjeros harmatu hanitz baden heien artean. Bizkitartean, on da bakharrik ez ibiltzea. Orhoitzen naiz bertze lagun batekin Olibetako mendiaren gainerat juan nintze-

la, aski beldurtu gabe han zitazken lanjerez. Mendi horren beraren zolan, gizon adineko bat, gure lagunetarik, bera zabilan Josafateko haranean. Horra non lau gizon gazte edo mutbiko larritu hurbiltzen zaizkon geroago eta gehiago; harri batzu eskuan zituzten. Zer egiten du? Egun hetan ibili ziren zombait gizon, guri kanibet marraza eta puñal saltzen; hetarik bat erositu berekin zuen. Hartzen du bere kanibet edo puñala, eta hartaz mehatchatzen ditu. Ihesari eman ziren. Gure gizon horrek gaizki egiten zuen marraza edo puñala hola gorderik ibiltzea. Behar da han gaindi atchiki agerian eta gerritik dilindan puñala, kanibeta, pichtoleta; orduan, beldur dira. Lehenago, juañten ziren Europako gerlariak Lur Sainduaren libratzerat. Aldi batez, gerla hasi baino lehenago, juañ zen Tankrede Olibetako mendira. Aitzindari printzipaletarik bat zen. Bortz gizon jin zaizkon harmatuak haren hiltzerat. Bainan gerlari handi horrek bortzetarik hiru garbitu zituen eta bertze biak ihesari juañ ziren beren onetan.

Orai galdeginen dautate Lur Saindua lur aberatsa denetz. Segur dena da lur hori osoki aberatsa zela. Jainkoak, miñtzo zelarik lur hortaz, erran zion Moisi Ejiptoko lurretik eremanen zuela bere populua lur on eta eremu handiko batera, lur esnea eta ezta zarion batera. Lur Sainduan heldu ziren errekolta aberatsak, gi-

zenak, abundantak Jainkoari fidel baziren Israeldarrak. Huna Jainkoak Moïsen ahoz zer erraiten zuen bere populuari lur aberats hattarat zohalarik desertuan barna: Ene manamendue:tan ibiltzen bazarete eta ene manuak begiratzen eta hek egiten baditutzue, emanen daitzuet uriak beren demboretan, eta lurak sor-araziko du bere fruitua, eta fruituz arbolak betheak izanen dira. Hatzemanen du uzta-biltzeak mahats-biltzea, eta mahats-biltzeak hatzemanen du hazien-aroa: eta janen duzue zuen ogia asean, eta beldurrik gabe biziko zarete zuen lurrean. Ezarriko dut bakea zuen bazterretan, lo eginen duzue, eta ez da izanen iziaraztailerik. Suntsituko ditut alimale gaich' oak, eta ezpata ez da phasauko zuen bazterretan barna... Janen ditutzue fruitu zaharretako zaharrenak eta berriak jitearekin zaharrak aurthikiko ditutzue. Horra nola Jainko Jaunak hitz-eman zion bere populuari Lur Sainduan sartzen zenean abondatziarik handiena errekoletan. Eta hala gerthatu zen.

Populu hori Jainko bere Kreatzailearen alde rat leial zenean, lurreko onthasunez igeri zen. Baina populu horrek Jainko Saindu horren legea kolpatzen zuenean, gaztigu handiak jautsarazten zituen Jainko Justuak populu horren gainerat.

Huna mehatchuak, gaztigu bilhakatzen zirenak, populu hori bide onetik makhurtzen edo zei-

hartzen zenean : Ez banauzue entzuten, eta ez badituzue komplitzen ene manamendu guziak, nik ere hauchet eginen dut zuer : Bisitatuko zaituztet laster behartasunaz.

Alferretan erainen duzue hazia, zoina etsaiez iretsia izanen baita. Iraungiko da alferretan zuen lana, ez du ekharriko bihia, eta ez dute arbolek fruiturik ekharriko. Jainkoak erranak bethi gerthatu izan dira : Populua fidel izan da bai, erre-kolta aberatsak; populua gaizki zohan bai, sa-soinak tcharrak. Egungo egunean, oraino gauzak hola gerthatzen dira : Jainkoak gu ere abundantziaz edo beharraz bisitatzen gaitu gure obra on edo gaichtoen arabera.

Lur, berenaz hain gizena zen hori zazpi urthetarik pausan uzten zen eta hala lur horren indarra handitzen zen. Errekoltak eta fruituak hain ziren nasaiak, non, mahats mulkho baten bi gizonak eremaiteko bere aihenarekin, hartu behar izan baitzuten haga bat, ereman ahal izaiteko mahats mulkho hura haga hartarik dilindan. Oraino egungo egunean han khausitzen ahal da hain mahats mulkho handia non familia baten asetzeko aski baita, dio autor batek. Lur hain gizena zen hura, Juduen eta gure bekhatuengatik madarizionezko lur bat bilhakatua da.

Hala ere, ezagutarazten du lur horrek oraino zerbait balio lukela, ez balute Turkoek lur hartarik egin desertu bat.

Kanaango lur horrek egiten zuen erresuma eder bat, zohana Ejiptoko hibaiatik Eufrateko hibaia handirat, eta erresuma hortan baziren ehun milaka, miliunka suietak. Etzuten behin ere bilhatzen Israeldarrek erresuma horren handitzea. Aski zitzaioten Jainkoak eman zioten erresuma hori. Heien etsaiek nahi bazioten beretu erresuma horren zathi bat edo guzia, orduan arrazoinekin gerla egiten zioten ebasler eta justuzen. Batzuetan, Jainkoak igortzen zaizkon urrundarik etsaiak : Ejiptotik, Kaldeatik gaztigatzeko bere populua Jainkoa ahanzten zuenean. Orduan batzuetan eremana zen Israelgo populua preso urrungo erresuma baterat, nondik baitzen itzultzen aski gaztigatua zenean edo Jainkoa ganat itzultzen zenean.

Lehen bizian, Jainkoak berak gidatzen zuen bere populua Moisez, Juiez, eta haukien artean bereziki Samuelez. Gero, populu horrek bere kaltetan galdegin zuen errege bat bertze nazione edo populuek bezala. Jainkoa bera izaki Gida eta Errege, eta hala ere bertze erregerik galdatzen, gauza hori gaitzit uzitzaion Jainkoari. Erori zen hala ere populu gogortu horren nahirat, eta eman zion erregetzat Saul, erranez bizkitartean Samueleen ahoz errege horrek paga araziko ziozkotela zergak, eta eremanen zituela familietako haurrak bere zerbitzurat eta bere armadetako soldado izaiterat; oraino bazen ber-



tze hanitz kalte ere errege bat hartze horri eratchikiak, Samuelen erranen arabera. Saulen ondotik populu horrek izan zuen erregetzat Davit guziz errege handia, gero jin zen Salomon, egundaino gizonetan izan den izpiriturik argituena, gauza guzietan aditua, gauza guziak zakitzaia espanti edo estona araz artean haren ganatjiten zirenak, haren zuhurtziaren, prudentziaren jakitatearen frogantza egiterat, hala nola Sabako Erregina, zoina jin baitzen Salomonen omena aditurik, eta erran baitzion errege horri, berak frogatu ondoan, haren zuhurtzia handiagoa zela omenak edo famak erraiten zuena baino.

Salomonek bere eskuko zituen asko erresuma eta heien erregeak, eta guziekin bakea zuen, eta haren populua Danetik Bersaberaino bakean eta beldurrik gabe bizi zen, bakhotcha bere mahastiren eta phiko ondoaren azpian eta itzalean eta zerbait behar-orduz baliabazen zorrik eginik, onthasun guzia galdua balinbazen ere, Jubilau bakhotchean, erran nahi baita berrogoi eta hamar urthetarik, zorra kito zen eta onthasun hori guzia itzulia zen aitzineko jaber; etzen hola neke estekatzea bakhotcha bere etchaldettoari, ezin galdua baitzen. Zerbait bazen beraz populu hori! Zerbait bazen Salomon errege hori, eta errege bezala, behti zen jaunztura ederrenean; eta huna zer zen haren mahainean egun guziez: Hogoi eta hamar koro irin fin eta hiruetan ho-

goi koro irin ordinario; hamar idi gizendu, eta hogoi idi alhapidetakoak, eta ehun ahari, mintzatu gabe ihizin khausitzen ziren orkhaitz, basahuntz, basidi, eta ihizi gizenduez;... eta errege Salomonen mahaineko behar zirenak, artha handirekin ekhartzen zituzten lan hortako hautatuak zirenek.

Eta bazituen Salomonek berrogoi mila zaldi karrosetako bere establietan, eta hamabi mila zelako; eta hortako manua zutenek, ekhartzen zeieten jaterat garagarra eta lastoa zaldier eta bertze alimaler, errege zen lekhura, manuaren arabera. Hemen nigar egin behar dugu Salomon erregearen gainean, zeren eta, hain Jainkoaren gogorako izan ondoan, Jainko hori Salomoni mintzaterainokoan, hain gaizki itzuli baitzen bekhatuzko bidetarat, non batzuek baidiote damnatu zela; bizkitartean damnatu delako beldurra baino, salbatudelako esperantza handiago da, uste baitute hanitzek penitentzia egin zuela.

Israelgo populu hori hainbertze Jainkoaz arthatua izan dena, populu buru gogorreko bat izan da. Ez du ihardetsi Jainkoak egin zion hautuari; artetan on izan da, bainan sobera ardua gaichto Jainkoaren alderat; hain gaichto non, azkenekotz Jainko Salbatzale hori hil izan baitu. Populu horren erregeak ere nombre handian errege hits batzu izan dira, eta zombait osoki trichteak; izan da bizkitartean hetan onik, eta arras onik ere, baina guti!

Israelgo populua, Jainkoak berak hautatua. ezarria izan da bertze populuetarik berech bezala, Jainko Jaunak harentzat begiztatua zaukan Lur batean, okasionetarik, lanjeretarik urrun.

Lur Saindua ez da jende-bide. Gure ganatko aldetik itsasoa du; iguzki altchatzeko aldetik Jurdaneko hibaia; ipharretik edo nortetik mendi handi batzu; eguerditik desertuak. Jerusalem bera lekhu arras gora batean da; harat heltzeko, behar da mendi batzu gora juan. Alde guzietarik behar da igan Jerusalemerat heltzeko.

Jainkoak gerlen eta etsaien gerizean edo maldan ezarri duen hiri hori izan da demboran hiri guziz eta guziz eder bat : lurreko perla, bertze hiri guzietan lehena eta heien erregina.

Uste izan dut chehetasun hautan kapitulu huntan sartzea baitezpada premiatsu eta nesesario zela ezagutzeko gauzak ongi. Hemen norbaitek erranen dant ez naizela hoin luze izan Erromaz mintzatzean. Balitake non egin liburu bat osoa, eta gehiago, Erromaren gainean. Bainan ene piaian ez bainaiz egon Erroman zombait egun baizik, eta Jerusalemen aldiz asko egun, aste osoak ere, hortik laburzki mintzatu naiz Erromaz, luzakia-go Jerusalemez. Bertzenaz ere bihotzak badaki Erromaz erranak diren gauza sainduiek Jerusalem maitharazten daukutela, eta Jerusalemez erranak diren gauza sainduiek Erroma maitharazten daukutela. Bi amodio horiek ezin separatuak dira. Orai sar gaiten alderat Jerusalemen.

HOGOI ETA HAMEKAGARREN KAPITULUA

ARDURA TEMPLOAN DA — MARIA MADA-
LENA — ERRAMU — KOMUNIONEA
NOLAKOAK ZIREN JESUS ETA MARIA

Jesusek bere biziko azken demboretan, bazuen lehia handi bat ardura Jerusalemerat jiteko eta templo sainduan bere Aita eternala adoratu ondoan, egiarik salbagarrienak predikatzen zituen populuari, bere etsaiez izanik ere inguratua; heier ere erraiten zaizkoten egiarik gutienik aditu nahi zituztenak. Iklusiz beraz hurbildua zela harentzat dembora juaiteko mundu huntarik bere Aitaren ganat, bazohan egun batez urhats bizi batean Jerusalemeke alderat. Bazakien profeta bati etzitzaiola ongi johan Jerusalemez kampo hiltzea, eta hura profeten Profeta zen; bazakien han behar zela bathaiatua izan bere odolean, eta hortakotz zion: « Bathaio batez behar naiz bathaiatua izan eta zer hersturetan naizen egin dadin arte! » Erran ere zuen Salbatzaile onak Apostoluer: « Goazen Judearat berriz. » Ihardetsi zioten dizipuluek: « Nagusia, orai bilhatzen zuten Juduek zu harrikatzea, eta berriz bazohazi harat? » Bainan deusek etzezaken gibela Jesus guretzat heriotzerat juaitetik; bertzenaz ere bazakien etzutela hil-araziko ahal Aita zerukoak

nahi zuen orenean baizik; arte hartan, herio-
tzearen gau ilhuna ethor edo jin arte, nahi zen
demboraz baliatu eta ibili eguna zeno, dembora
zeno. Lurraren gainean phasatzeko zituen azken
egunetarik batean, Lazaro hiletarik phiztuak,
eta harren bi arreba Maria Madalena eta Martak
nahi izan zioten Jesus Jaunari aphairu bat egin
arazi. Mahainean zelarik, Maria Madaleuak, hur-
bildurik Jesusen ganat, ichuri zion zangoetarat
untzi batetarik ur usain onezko bat, guziz balio
handikoa; eta lehenago sobera arthatu zituen
ilez chukhatu zituen Salbatzalearen oin sakratu
horiek, eta etche guzia hartu zuen usain gozo
eta ezti horrek. Jesusen dizipuluak, bereziki
Judas erasian hasi ziren Maria Madalenaren
kontra zertako hanitz diru, saltzerat, eginen
zuen ur usain onezko hori hola, heien arabera
alferretan, ichuria izan zen, pobreak haren sal-
preziotik laguntzeko plazan. Jesusek erran zio-
ten uzteko Maria Madalena egiterat nahi zuen
bezala; haren ehorzteko eguneko egiten zuela
obra karitatezko hura; erran ere zioten pobreak
gero ere beren artean izanen zituztela heier
laguntza egiteko, bainan hura etzutela berekin
izanen, erraitea baitzen laster hilen zela.

Hil baino zombait egun lehenago, Jesusek
erran zioten bere dizipuluetarik bier Juan zite-
zela hurbilean zen herri Betfaje izena zuen ba-
tetarat, eta khausituko zituztela asto ama bat eta

harren umea; khausitu zituzten, errana izan zen bezala, eta hek estekatik khendurik, ereman zituzten Jesusi. Beztimendak lehenik ezarri zituzten bi alimale horien gainean; igan zen Jesus lehenik asto amaren gainerat, eta gero asto umearen gainerat. Asto amak, jadanik lanean usatuak, seinalatzen zituen Juduak; asto umeak, bethi libro ibili zenak, seinalatzen zituen paganoak. Egun hetan bazen mundu bat Jerusalemerrat jina Phazko-phestetako. Aditu zutenean Jesus, Profeta omen handiko hura heldu zela Jerusalemerrat, jali ziren jende oste hek Jesusen biderat, arbola aldachkak eskuetan, Jesusen ohoratzeke. Hedatzen ere zituzten aldachka hetarik Salbatzailea phasatu behar zen bidean, guk prosessionetan egiten dugun bezala. Agertu zenean Jesus, bakezko Erregea, alimale ezti horietarik baten gainean jarria, oihuka zioten guziek bozkarioz: « Hosanna Daviten Semeari! Benedikatua (izan bedi) Jaunaren izenean heldu dena! Hosanna zerurik gorenetan! » Loria horren erdian, sarthu zen Jesus Jerusalemeko hirian, zobatzilarik populuak nombre handian, batzu haren aitzinean, bertzeak haren ondotik. Jesus sartzearekin Jerusalemen, hiri guzia jaiki eta bigitu zen, zioela: « Nor da hau? » Eta populuek zioten: « Hau da Jesus Galilea Nazarethekoa. » Eta sarthu zen Jesus Jainkoaren temploan eta kasatzen zituen lekhu saindu hura beren sal-eroste-

tan profanatzen zuten guziak, eta aurthiki zituen diru khambiatzailen mahainak eta uso saltzailen alkhiak. Eta erran zioten : « Izkribatua da : Ene etchea, othoitzeko etchea deithua izanen da; zuek ordean egin duzue hartarik ohoin zilho bat! » Eta hurbildu ziren haren ganatitsuak eta mainguak, eta sendatu zituen.

Handik laster, Jesusek erran zioten bere dizipuluer : « Badakizue bi egunen buruan eginen dela Phazko, eta gizonaren Semea izanen dela saldua (bere etsaier eskuetaratua), khurutzelikatua izaiteko. » Orduan bildu ziren aphezen printzeak, eta populuko zaharrak aphezen printze Kaifas deitzen zenaren salarat. Eta elgar aditu zuten Jesus amarruz hartzeko eta hilarazteko. Bainan zioten : « Ez phesta egunean, beldurrez eta, asaldurarik izan dadin populuan. » Judas traidorea jin zitzaioten aphezen printzer erraiterat : « Zer nahi dautazue eman, eta nik eskuetaratuko dautzuet? » Eta hek hitzeman ziozkaten hogoi eta hamar diru pheza. Eta handik goiti parada bilha zabilan haren libratzeko bere etsaien eskuetarat. Eta trahizone hori egiten zuena zen apostolu bat, bere Nagusi ona hola bere etsaien eskuetara emaiten zuena. Ez da estonatzeko : Komunione gaichtoa egin zuen; ezen opinione serios baten arabera, komuniatu zuen eta gaizki, eta komunione gaichtoa egiten duena zer nahi egiterat ekharria daiteke, Jain-

koaren beraren saltzerat, bai eta ere hiltzerat. Gaizki komuniatzen duzun girichtinoa, izi, harri zaite, eta zohaz zure krimaren kofesatzerat, bel-durrez eta, zure sakrilejioak jauts araz dezan zure gainerat zerbait gaztigu, Judasi gerthatu zen bezala : Urkhatu zuen harrek bere burua desesperazionez, Jesus trahitu, eta etsaier eskuetaratu zuelakoan, eta ostia saindua, ez nahiz, zerbait ere gisaz, gehiago egon Judasen barne ustel hortan, haren baitharik atheratu zen; ezen erditik lehertu zen Judas, eta haren hertzek kamporat egin zuten. » Urrikitan sar zaite, irakurtzailea, edo aditzailea, sakrilejioan bizi izan bazare; orai osoki konberti zaite eta itzul Jainkoa ganat, utziz bekhatuzko bideak, bekhaturako okasioneak, eginez kofesio hek urrikizko sendimenduekin, sainduki hemendik goiti errezibituz profanatu duzun Gorphutz Saindua, erreparatuz komunione gaichtoak penitentziaz, mortifikazioneaz, othoitzaz, erreflekzione edo gogoeta sainduz. Zuretzat bakbarrik hemen erran ditudan hitz hauk balia daitela, agian, zure bihotz hortatu, Jainkoa trahitzen duen eta zu damnarazten zaituen horren khambiarazten. Kuraie! kofesa hortakotz ongi, Jainkoaren grazia galdatuz kofesio horren ongi egiteko, eta ez gehiago krima hortaz hobendun bilhaka. Jesusek maithatu izan gaitu amodioaren azken mugaraino. Desira egiazko batez desiratu izan du komunionearen

Phazko sakratua gurekin jatea guretzat sofritu eta hil baino lehen. Belztasunik higinena litake, hari hil kolpea emaita gu gonbidatzen gaituen demboran mahain saindurat, adichkide batek bere adichkidea mahainerat gonbidatzen duen bezala. Ez, Jesus, ez dugu krima hori eginen. Ardura komuniatuko dugu eta ongi.

Phazko hurbiltzearekin, dizipuluek erran zioten Jesusi : « Non nahi duzu prepara dezazugun Phazkoren jateko (behar dena)? » Jesusek ihardetsi zioten : « Zoazte hirirat holakoaren ganat, eta errozute : Nagusiak dio : Ene dembora hurbil da (erraita baitzen : hiltzera noha), zure etchean egiten dut Phazko ene dizipuluekin. » Eta egin zuten dizipuluek Jesusek manatu zioten bezala, eta preparatu zuten Phazkoa. Aratsa ethorri edo jin zenean beraz, mahainean jarria zagon bere hamabi dizipuluekin. Eta jaten ari zirelarik, erran zuen : « Egiaz erraiten darotzuet zuetarik batek trahituko nauela. » Eta handizki trichtatuak, hasi ziren bakhotcha erraiten : « Ni othe naiz, Jauna? » Jesus Jaunak ihardetsi zuen, erranez : « Emaiten duenak enekin eskua platerat, harrek trahituko nau. Gizonaren Semeaz bezembatean, badoha (heriotzerat) hartaz izkribatua izan den bezala; bainan zorigaitz gizon harri, zoinetaz gizonaren Semea trahitua izanen baita! Hobe zen harentzat sortu izan ez balitz gizon hura! » Orduan Judasek beldurrez ichilik

egoiten bazen, uste izan zezaten hura zela traïdorea, erran zion Jesusi : « Ni othe naiz, Jauna ? » Jesusek erran zion baietz, hitz hotaz : « Hik erran duk. »

Jesus onak ikhusten zuen hiltzerat zohala ; eta ortzegun saindu aratsean, gizonek haren hiltzeko bideak hartzen zituzten demboran, Salbatzaile maiteak establitu zuen gure aldaretako Sakramendu miragarria, zoinaren bidez hura hil nahi zutener emaiten baitzioten bizia. Gizonek beren artetik khendu nahi zuten demboran, Jesus heien onetan, eta gu guzien onetan, gordetzen bezala zen gure artean, izaiteko menderen mendetan gure janharia, gure erremedioa, gure indarra Ostia Sainduan. Beraz, ortzegun sainduko afarian, hartu zuen Jesus eztiak ogia bere esku saindu eta errespetagarrietan, benedikatu zuen ogi hura, khambiatu bere gorphutzerat, hautsi eta eman bere dizipuluer, erranez : « Har zazue eta jan zazue ; hau da ene gorphutza. »

Molde berean, hartuz kalitza arnoarekin bere esku saindu eta errespetagarrietan, benedikatu zuen kalitza, khambiatu han zen arnoa bere odolerat, eta eman hartarik edaterat erranez : « Har zazue eta edan zazue hortarik guziek. Hau da ezen ene odola, Testament Berrikoa, zoina hanitzentzat ichuria izanen baita bekhatuen bar-khamendutan. » Amodioz gainditu ziren Jesu-sentzat Apostoluak amodiozko sakramendu hor-

ren bichtan. Preparatuak ziren aitzinetik mirakuluzko janhari hortarat. Ezen Jesusek erran zituen egun batez hanitz dizipuluren bichtan segidako hitz hauk, ezagutarazten ziotenak Apostoluer Gorphutz Sainduko Sakramendua, egun batez establitu behar zuena. Huna hitz sakratu heiek; on da guk ere hitz berak entzun ditzagun gure amodioaren handiarazteko Sakramendu adoragarri horren alderat.

Beraz, Jesusek erran zuen egun batez bere dizipuluer eta bere inguruan zituen aditzailer : « Egiazki, egiazki erraiten dautzuet : Ez dautzue Moisek eman zerutikako ogia, bainan ene Aitak emaiten dautzue zerutikako ogi egiazkoa. Ezeu Jainkoaren ogia da, zerutik jausten dena eta emaiten duena bizia munduari. » Erran zioten beraz haren inguruekoek Jesusi : « Jauna, bethi emaguzu ogi hori. »

Erran zioten aldiz Jesusek : « Ni naiz biziko ogia : Ni ganat jiten dena, ez da goseturen : Eta ni baithan sinhesten duena ez da egarrituren behin ere. Bainan erran dautzuet, ikhusi ere nauzuela, eta ez duzue sinhesten. Aitak emaiten dautan guzia, ni ganat jinen da, eta ni ganat jiten dena, ez dut aurdikiren kamporat. Zeren jautsi bainaz zerutik, ez egin dezadantzat ene nahia, bainan ni igorri nauenaren nahia. Hau da bada ni igorri nauen Aitaren nahia : eman darozkidan guzietarik, ez dezadan gal,

bainan phitz araz detzadan azken egunean. Hau da bada ni igorri nauen ene Aitaren nahia : Semea ikhusten eta hartan sinhesten duten guziek, izan dezaten bizitze eternala, eta nik phizturen ditut azken egunean.»

Erafiaka zauden bada Juduak haren kontra, erran zuelakotz : « Ni naiz Ogi bizia, zerutik jautsi naizena. » Eta zioten : « Ez dea hau Jesus Josepen semea, zoinaren aita-amak guk ezagutzen baititugu ? Nola beraz dio hunek : « Zerutik jautsi naiz ? » Ihardetsi zioten beraz Jesusek, eta erran zioten : « Etzaitezela erasiaka arizan elgarren artean : Nehor ez daiteke ni ganat jin ez badu ni igorri nauen Aitak hura erakhartzen : Eta nik phiztuko dut hura azken egunean. Izkribatua da profetetan : Eta izanen dira guziak Jainkoaz erakutsiak. Nork ere entzun baitu Aita ganik eta ikhasi, heldu da niganat. Ez Aita norbaitek ikhasi duelakoan, ez bada Jainkoaren ganik denak; hunek ikhasi du Aita. Egiazki, egiazki erraiten dautzuet : Nitau sinhesten duenak, badu bizitze eternala. Ni naiz biziko ogia. Zuen aitek jan dute mana desertuan eta hil izan dira.

« Hau da ogi zerutik jausten dena, amoreagatik eta, norbaitek huntarik jaten badu, ez dadin hil. Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsi naizena.

« Norbaitek jaten badu ogi huntarik, biziko da bethiere; eta nik emanen dudau ogia ene haragia da munduaren biziarentzat.»

Beraz aharran ari ziren (edo disputan) Juduak elgarren artean, ziotela : « Nola hunek eman ahal diezaguke bere haragia jaterat. »

Erran zioten beraz Jesusek : « Egiazki, egiazki erraiten dautzuet : Ez baduzue jaten gizonaren Semearen haragia, et ez baduzue edaten haren odola, ez duzue izanen bizia zuen baithan. Nork ere jaten baitu ene haragia, eta edaten ene odola, badu bizi eternala : Eta nik phiztuko dut hura azken egunean. Ezen ene haragia, egiazki jan-haria da. Eta ene odola egiazki edaria da. Nork ere jaten baitu ene haragia, eta edaten baitu ene odola, ni baithan dago, eta ni hura baithan. Nola igorri bainau bizi den Aitak, eta ni bizi bainaiz Aita gatik, halaber ni jaten nauena biziko ere da ni gatik.

« Hlau da ogia zerutik jautsi dena. Ez zuen aitek jan duten bezala mana, eta hil izan dira : « Ogi « hau jaten duena biziren da bethi. » Horra zoin ederki mintzatu zen Jesus Gorphutz Sainduko Sakramendu handiaren gainean. Izpirituan eta bihotzetan ibil ditzagun erakuspen eder hauk ardura eta bereziki gure komunietako egunetan. Orhoit gaiten Jesus dela Biktima garbia gure gatik zerutik jausten dena meza baxhotchean, eta imolatzen dena gure aldaren gainean khurutzearen gainean bezala; choilki ez du mezan sofritzen eta ez da hiltzen; bainan sofritzen ahal balu eta hiltzen ahal balitz, bihotz onez sofri lezake

eta hil litake guretzat duen amodio izari gabe-koaren gatik. Egon giten meza sainduan azken afariko sala hartan bagine bezala.

Jesusek Gorphutz Sainduko Sakramendua est blitu zuen sala edo zenakle ederra han da oraino egungo egunean, bainan Jesus Jaunak ederki aphaindua khausitu zuen bezen guk trichteki profanatua khausitu ginuen. Ez da barne oraino ederra laiteken hartan erlijioneko deus seinalerik. Ez da han gehiago komuniatzen, ez da han mezarik erraiten. Turkoen emazteki batzu ari dira han nata egiten.

Zenaklea deitzen da Ortzegun Saindu aratsean Jesusek bere presentziaz santifikatu Sala hori. Arats hartan artha handirekin garbitua, beztitua, edertua zen. Bainan Jesus garbia orhoitzen zen bertze sala batez, erran nahi dut Apostoluen bihotzeko salaz, zoinetarar jausterat baitzohan komunionearen bidez. Mahainetik chuiturik, eta oihal bat gerrian estekaturik, hasi zen Apostoluen zangoen garbitzen, heier eta guri erakusteko behar dugula komuniatzeko izan garbi, graziazko estatuan, bai eta ere ezeztarazi gure debozioneaz eta othoitzez ariman dituzkegun bekhatu benialaren nota edo thatchak berak, hobekiago baliatzeko komunione sainduaz.

Hemen ezartzen ditut Sakramendu Sainduaren ohoretan diren segidako zombait phertsu, artetan irakurtuko edo khantatuko ditugunak :

1.

Oi! mirakulu guziz espantagarria!
 Ogiaren iduriz Jesus estalia!
 Hura dut adoratzen aldare gainean;
 Hura bera dut jaten komunionean.

2.

Jesusek egin zuen azken afaria,
 Janharitzat emanik bere haragia;
 Haragi saindu hura jaten dut nik ere;
 Hura janik uste dut bizi bethi ere.

3.

Israelek jan zuen desertuan mada,
 Gostu guziak bere haithan zituena;
 Jesusen Gorphutza da ene janharia
 Desertu huntan ene kontsolagarria.

1.

Zerutik jautsi zaren Biktima garbia,
 Zu zare Sakramendu, zu zare Ostia;
 Arimen janharia, Sakrifizioa;
 Bata nola bertzea, Jesus dibinoa.

2.

Ogia da itzultzen zure Gorphutzera,
 Arnoa khambiatzen zure Odolera:
 Kontsekrazioea han duzu obratzen;
 Zure botherea da guziz han agertzen.

1.

O Jesus gure gatik lurrerat jautsia,
Ostia hortan zare, Biktima garbia,
Amodioz guretzat bethea guzia.

Errepika

Ostian hor zaitugu, Jesus, adoratzan ;
Bihotzez barkhamendu dautzugu galdatzen !

2.

Zure Gorphutz Sainduaz, Jauna, haz gaitzazu,
Gure bihotz flakoak azkar, susta zaitzu ;
Hil ondoan zerua, othoi, emaguzu.

Errepika

Ostian hor zaitugu, Jesus, adoratzan ;
Bihotzez barkhamendu dautzugu galdatzen !

1.

Jainko Saindua, hor goibeldua
Zaitugu Ostia hortan ikhusten !
Maite zaitugu eta adoratzan
Bihotz guziaz, Jaun amultsua !

Errepika

Amodio ohore Jesus maiteari,
Sakramendu Sainduan !
Amodio, ohore orai eta bethi !

2.

Hautetsien Ogia zare zu ;
Zare birjinen Edari garbia !

Senda gaitzazu, oh! azkar gaitzazu
 Ereman dezagun bitoria!!!
 Amodio, ohore.....

3.

Orai lurrean molde gordean
 Zaitugu, Jesus, Ostia Sainduan!
 Noiz zaitugu bekhoz bekho zeruan
 Zu ikhusiko zure gorthean!!!...
 Amodio, ohore.....

Laudatua eta adoratua izan bedi Jesu-Kristo
 gure Jauna zeruan eta aldareko Sakramendu
 Sainduan! *Amen* dela orai eta bethi ere!!!

Jesus et: Maria Saindua nolakoak ziren

Jesus gure Nagusia segitu dugu bere bizi gu-
 zian, haren sortzetik hasirik. Jadanik sarthu
 gira harekin Jerusalem; azken afariko salan
 hura adortu dugu.

Orai da dembora mintzatzeko Jesusen Pasio-
 neaz eta Pasiene salbagarri hartan Jesusek bere
 odolaz kontsekratu dituen tokiez. Bainan, ortzi-
 rale sainduz Jesus ezin-ezagutua izanenu da, eta
 bizkitartean, nahi ginuke jakin Salbatzaile ado-
 ragarri hori nolakoa zen. Oraino bere edertasun
 guzia berekin dueno, hiltzeko bezperan, ikhus
 dezagun nolakoa zen. Ez dut nahi segurtatu

osoki nik hemen erranen dudan bezalakoa zela baitezpada, baina, ahalaz hurbilduko naiz egia-ri, erranez hemen Jesusen iduri horren gainean autor hanitzek erran dituztenak :

Nolakoa zen Jesus

Jesus Jauna handia zen : Metra bat eta hiruetan hogoi eta hamabortz zentimetra (1 m. 75). Bere umiltasun handian, burua pochi bat aphabetua zukan. Hogoi urthetako haren gorphutza bere handitasun guzirat heldua zen. Etzen Jesus lodia, baina indartsu eta zainharta. Ttipidanik lanean ari baitzen, eta bere bizi guzian akhitzeko lana baitzuen bethi, eta azken hiru urthetan herri herri predikatzen baitzabilan unhatua edo akhitua, eta ariman trichtezia handia baitzuen hanitz bekhatuz Aita zerkkoa mundu huntan laidoztatua, ofentsatua zelakoan, hortakotz begitar-tean aire serio bat bazuen, eta Liburu Saindue-tan ez da ikhusten aldi bat ere Jesusek irri egin duela ; ikhusten delarik kontrarat, aldi bat baino gehiago, Salbatzaileak nigar egin duela. Begitar-tean bazuen Jainkozko majestate handi bat, kampa distiratzen zuena. Hortik bihotzak irabazten zituen ; san Krisostomok dio populuak itzatuak bezala zirela Salbatzaileari, choratuak, hari beha admiratuak, sekulan akhitu gabe hari behatzeaz. San Jeromek dio haren begitar-tean distiratzen zuten argia eta majestatea kapable

zirela hari bihotz guziak irabazteko. San Bernatek dio populuek segitzen zutela, eta josiak bezala zaudela hari, haren grazia onaz eta arraitasunaz irabaziak, bai eta haren elhe eta prediku ezteiz, eta haren edertasunaren argiaz. Ezen, gizonen haurretan ederrena zen; haren begitartea zeru begitartea zen; seriosotasuna, prudentzia, ezlitasuna, urrikalmendua irakurtzen bezala ziren begitarte hortan.

Haren begitarteko majestate handi hori, behar zenean, bilhakatzen zen harrigarri haren etsaientzat: Hala nola kasatu zituenean temploaren profanatzaileak eta gibelaren gainera harrituak erorarazi Olibetako baratzean haren preso hartzerat jinedo ethorri zirenak. Jesusek jeneralean begiak umilki eta onheski aphanatuak zauzkan. Guziz ederrak ziren begi saildu hek. Ageri zen zoin ziren begi hek inozentak, garbiak, malezia gabekoak, haren barneko sendimenduen mirail fidelak. Haren etsaiak berak begi ezti eta inozent horier beha choratuak zauden. Jesusen begitarteak gorri aireño bat bazuen; haren ezpainak fin eta gorhats ziren. Haren ilea ogi bihi onthua-ren kolore zen, urhe kolore Ama Birjinarena bezala; ezen guziz bere Amaren iduriko zen Jesus. Behin ere ez du haichturrak Salbatzailearen ile hori phikatu. Buru gainetik ile hori bi aldetarat zagon; chingolatua jausten zen majestate handirekin haren bi sorbalden gainerat. Bere

demborako usaiaren arabera, Jesusek bizarra luze uzten zuen. Jesusen larrua osoki tendrea zen; den gutiena larrutzen bazen, odola zarion. Hortik, ukhaldiek, tratamendu gaichtoak ikhagarriki pairarazten edo sofriarazten zioten, haren Pasionen sainduko demboran gerthatu izan zen bezala. Osagarria ona zuen Jesusek, eta ez dugu Eskritura Sainduan nehon ikhusten eri egon dela. Haren gorphutzak etzuen batere thachtarik, ez eskasik. Gorphutz hori izan ahal bezen perfeta zen.

Nola zen bezi Jesus

Nola zen bezi Jesus? Bazuen bere populuko jende guziek bezala arropa handi bat, gainetik beherera zohana, mahunga labur eta largo batzuekin. Arropa hura orratzetan trikotatua zen edo egina; etzuen josia izaitaren beharrik. Jesusek zuen arropa handi hori Ama Birjinak bere esku garbi eta sainduz egina zuen, eta errana da arropa hori handitzen zela Jesus handitzearekin. Bertzenaz ere, hau zen Ametan arthatsuena, behar balinbazen, arropa edo sotana largo, handi horren trikotatuz luzatzeko. Hemen ikhusten dugu etzuela Jesusek arropa handi bakhar bat bera baizik eta ez khambiatzekorik; erakusten dauku chekatzen gure arropetan ez abundantzia eta moda berri zoroak, bainan bai bakharrik nesesario diren arropak.

Salbatzailearen arropa handi hori deitzen da Jesusen arropa kosturarik gabekoa (*la robe sans couture de Jésus*). Eliza Ama Sainduaren kontra diren girichtinoek, bereziki heretikoek eta chizmatikoek, urratzen dute Jesusen arropa kosturarik gabeko hori. Izan giten bakezko gizonak, bethi Elizarekin izanen girenak, haren erakuspen guzietan sumetituak, sekulan Eliza gure Amaren kontra altxatu gabe. Bethi beraz izan giten Aita Sainduarekin gure egintzetan, gure hitzetan eta gure phentsatzeko moldean. Erran dut askotan bertze beztimenda bat edo biga bazituztela gehiago Juduek. Hortik, ikhusten dugu nola Jesusek khendu zuen sorbalden gainetik arropa suerte bat, kapa edo mantoa, Apostoluer nahi izan zaizkotenean zangoak garbitu ortzegun saindu aratsean.

Gure Jainko Salbatzaile, gure gatik pobre bilhakatuak etzuen bertze oinetakorik, baizik eta ere Frantchichkanoer egungo egunean ikhusten daizkotegun abarkak, erran nahi baita zango bakhotcharen azpian bazituela, oinak ez kolpatzeko edo errechkiago ibiltzeko, zola bedera, zerbait larru khorda edo zerbait lietaz segurtatuak.

Nolakoa zen Jesusen arima

Ikhusi dugu nolakoa zen Jesus, nola beztiz zen; bainan, bazen Jesus baithan, guk dugun bezala,

Gorphutzaz bertzalde, Arima, eta zer Arima Jesusen Arima! Egundaino izan den eta izan den Arimarik sainduena; bekhaturik gabekoa; behin ere bekhaturik izan ez duena, eta izan etzezakena; kontrarat, bekhatuaren ezeztatzeko kreatua zena. Arima adoragarri hori berthute suerte guziez aberatstua eta berregindua zen; Jainkoaren dohain eta grazia aberatsenen bilduma zen. Jesus baithan bazen beraz guk dugun bezala Gorphutz bat, bazen Arima bat. Bainan Jesus Gizon zen demboran, zen ere Jainko. Trinitate Sainduko bigarren Presunak hartu du bere ganat Gizontasuna. Jainko zagolarik Gizon ere izan da Inkarnazioneko michterioaren bidez. Jautsi da beraz gure Jainkoa zerutik eta Gizon egin da : *Descendit de cœlis... et Homo factus est.* Bai, Jesus Jainko da, bizi eta egoki gurekin; hogoi eta hamahiru urtheren ingurua bizi izan da gizonen artean; ikhusi izan dute lur hunen gainean : *In terris visus est.* Bizitze gorde eta aphas bat ereman du lehenik; gero herriz herribili da artzain on hori, gu, ardi errebelatuen ondotik : gizonekin ihardoki du, heiekin bizi izan da, heiekin solas egin du : *Et cum hominibus conversatus est.* Oraino ere gurekin dago aldareko Sakramendu Sainduaren bidez : *Ecce ego vobiscum sum.*

Zer gauza miragarria : Jainko bat Gizon egina! Jainko bat gurekin bizi! Jesus *Jainko Gizon*

egina delakotz, hartan badira bi naturaleza : Jainkoarena eta Gizonarena, bainan ez da Presuna bai baizik, eta hura da Trinitate Sainduko bigarren Presuna.

Nola ez maitha gu maitez gure iduriko egin dena, gure artera jautsi dena gure etsemplua izaiteko gauza guzietan, guri erakusteko zeruko bidea, gure salbamenduaren egiteko? Eta aski zelarik gu salbatzeko umiliazionezko akta bat egin zezan, nahi izan ditu pairatu tormentarik ikharagarrienak guri hola ezagutarazteko maite gintuela. Diot berriz : Nola ez maitha gu hola maite gituena! *Sic nos amantem quis non redamaret!* Jesus Jainko zenaz geroztik, behar zen Salbatzaile adoragarri hori agertu distiraduraz inguratua Taborreko mendian bezala; bainan mirakulu handi bat egin du Jesus humilak, agertuz kampoz apha, barnez ere apha eta umil zen bezala. *Discite à me, quia mitis sum, et humilis Corde!*

Horra beraz Jesus nolakoa eta zer zen gorputzean, ariman, beztimendan.

Nolakoa zen Ama Birjina

Errech zaut orai Ama Birjinaren portreta egitea Jesusenaren ondotik; ezen, jadanik erran dudana, Jesus Amaren idurikoa zen. Jainkotasuna gehiago zen Jesus baithan, bainan Jainkotasunaz kampo, Maria eta Jesus elgarren idu-

rikoak ziren; Haurrak bezala zuen Amak ere ilea hori aire. ogi bihi kolore, urheztatua bezala. Ama Birjinaren Gorphutz Birjina, saindutasunezko Gorphutz bat zen, egun batez zerurat alchatua izaitea merezitu duena. Ama ou horren Arima, Jesusen Arimaren ondotik, mundu hontan izan den Arimarik Sainduena zen. Sainduago zen justu guzien arimak baino. Aingeruak baino ederrago, sainduago zen Ama miragarri hura bere Ariman : *Mater admirabilis, Regina Angelorum.*

Elizako Aitek egiten dankute Ama Birjinaz segidako pintura : Dio san Ambrosiok : Birjina zela ez choilki Gorphutzez, baina oraino Izpirituz : *Virgo erat non solum Corpore sed etiam Mente;* etzela hura baithan faltsokeriarik, baina egitiarra zela eta chimplea : *quæ nullo doli ambitu sincerum adulterare affectum;* umiltasunez bethea zela : *corde humilis;* bai eta ere prudentziaz, eta aplikatua zela lanari : *prudens; intenta operi;* emana zela irakurtze sainduer : *legendi studiosior;* etzuela bere esperantza ezartzen aberastasun enganakor edo trompakorretan, baina bai pobrearen othoitzean : *non in incerto divitiarum, sed in prece pauperis spem reponens;* guti mintzatzen zela : *loquendi parcior,* eta mintzatzen zenean ere etzuela alchatzen boza azkarkiegi : *non vox petulantior,* eta etzuela deusik erraiten ausartziarekin : *nihil in verbis procax;* baina

mintzo zela onhestrasun handi batekin, erresalbu handi batekin : *verecunda sermone*, phisatuz erraiten zituen elheak : *verbis gravis*; nehor etzuela kolpatzen bere elhez edo bere manerez : *nullum laedere*; guzier ona desiratzen ziotela : *benè velle omnibus*; jaikitzen zela errespetuz hura baino zaharragokoen aitzinean : *assurgere majoribus nutu*; eta etzuela jelsiarik ekhartzen bere kideko edo heinekoer : *aqualibus non invidere*; etzuela egiten behatze zorrotzik : *nihil torvum in oculis*; eta hemen bertze autor batek dio Mariak bethi begiak aphalduak zauzkala, eta etzituela behin ere altchatzen zeruari behatzeko baizik. San Ambrosiok erraiten da oraino Birjina Sainduaren maneretan eta egintzetan, etzela deusik gisa etzenik; *nihil in actu inverecundum*; haren moimenduak etzirela presatuegiak : *non gestus fractior*; haren bidean ibiltzeko manera etzela libroegia : *non incessus solutior*; eta norat zohan Birjina Maria bere etchetik atheratzen zen bakarretan? Edo zoin bilkhuretarat? Ah ez! San Ambrosiok horren gainean ere argituko gitiu : Dio Mariak etzuela usaiarik bisitatzeko presuna urrikalmendutsuak eta onhestak baizen : *Eos solos solita cætus virorum invisere quos misericordia non erubesceret, neque præteriret verecundia.*

Zer erran Maria Birjinaren beztimendaz? San Joani Damaskoak argituko gitiu gauza horren gainean : Dio Mariaren beztimenda onhesta zela :

erran nahi baita : garbia, pobrea izana gatik, haren estatuari, eta haren kondizioneari zohakona, batere mundanokeriarik eta urguluzko gurikeriarik gabe. Etzabilan Ama Birjina moden ondotik arropetan eta heien soinean ezartzeko eta heien erabiltzeko moldean ; baina ihes egiten zuen arropetako urgulu zoroari, eta urgulurekin agertzeari, bai eta bere buruaren altchatzeari : *fugere jactantiam*.

San Bernardin Sienekoak egiten du Maria Sainduaren ichiltasunaren laudorioa hitz eder hautaz : Birjina zuhurtziaz (edo prudentziaz) bethe hori berregindua (edo edertua) zela ichiltasun guziz diskret batez, eta etzela sekulan mintzatzen, non etzuen aitzinetik phisatzen zer behar zuen erran : *Sapientissima Virgo discretissima taciturnitate ornata erat; et nunquam locuta quod antea non premeditata*.

Salbatzaileaz eta haren Ama Sainduaz egin ditugun pinturetarik ikhusi dugu zerbait ere moldez nolakoak ziren, Jesus eta Maria, nola bezi, zer berthutez aberastuak. Orai guri da gu ere heien iduriko bilhakatzea mortificatuz gure gorphutzak, hauk santifikatuz sakramenduez, hauk beztituz ez moda zoro batzuen arabera, baina onheski eta despendio alferrik egin gabe; gure arimak bereziki arthatuko ditugu, guk ere berthutea segituz Jesusek eta Mariak bezala, othoitza, meditazionea, irakurtze sainduak mai-

thatuz. Hola bilhakatuko gira Jesusen eta Maria-
ren iduriko; hola salbatuko gira.

Zenaklea

Ortzegun Saindu aratsean, Jesusek bere dizi-
puluekin eskerrak eman zituen, komunionearen
ondoan : *hymno dicto*, eta jali zen azken afariko
barne maite Zenaklea izena duen hortarik. Eman
dezogun oraino behako bat sala horri. Han gar-
bitu zituen Nagusi dibinoak oinak Apostoluer,
han establitu zuen Gorphutz Sainduko Sakra-
mendua, eta Apheztasuneko edo Ordenako Sa-
kramendua, bai eta ere Penitentziakoa. Han
agertu izan zen Jesus Apostoluer Phazko egu-
nean eta Phazko zaharrez. Han jautsi zen Izpiritu
Saindua Apostoluen gainerat. Han izan zen hau-
tatua San Matias Judasen plazan, Apostolu izai-
teko. Girichtinoak Elizaran hastapenean maiz
Sala hartarat biltzen ziren, haizu zireno. Sala
horrek badu luzean hamalau m-tra eta langoan
bederatzi.

Jadanik aldi bat ikhusia nuen Sala hori, ene
lagun guz'ekin, lehenago erran dudau bezala.
Juan nahi izan nintzen berriz Sala maite hortarat
Mendekoste egunean, orhoituz egun hartan
jautsi zela lekhu hartan Izpiritu Saindua Apos-
toluen gainerat. Goizeko bederatzi oroneu heina
zen : oren solan la Zenakle sainduko. Ene lagu-
nek mezak eman zituzten Zenaklearen ondoan

direu katolikoan hilerrietan. Nik meza emana nuen Frantchiskanoen eliza gure zerbitzuko zenean; bainakien Zenakleko induljentzia guziak egun hartan irabazten zirela aipatu elizan. Johan nintzelarik Zenakleko alderat, galdegiten nuen eia ikhusiko ahal nuen Zenakle hori; irribat eginez, ihardesten zautaten nehor etzela haizu barne hartarat. Banoha aitzina konfidentziarekin, eta heltzen naiz Zenakle hegira. Igaiten dut harat deraman eskalerra. Laster ene bndotik heldu dira hiru edo lau jende Phentsu nuen zertan zabilzan. Erakusten diotet bakchich argi, zilhar bat; harren distiradurak begiak lilluratu zituen: uzten nute sartzerat. O zori ona! Behatzen dut ene bibotzeko amodio guziarekin barne maite horri: murruak osoki lutsak dira: ez dut han khausitzen khurutzesikarik, ez tabernaklerik lehen meza Jesusek eman zuen lekhu sakratu hortan. Emaiten naiz belhauniko; artetan behatzen dut zeruko alderat. Turko edo Arabe horiek niri beha zauden; etzakiten zertako ari nintzen hola belhauniko othoitzean. Etzen heien pazientzia luzakiegi frogatu behar. Jali nintzen sala Jesusen presentziak eta haren amodiozko Sakramenduak kontsekratu hortarik.

Ez nuela ikhusiko Sala hori! Uruski etziren profetak niri erran zautatenak ez nuela Sala hori ikhusiko.

Jesus guziz sainduki mintzo

Ortzegun Saindu aratsean, Sala hartan, bertze hanitz gauza eder eta hunkigarrien artean, Jesusek aditzerat eman zioten Apostoluer hiltzerat zohala; elgar maitha zezaten. Piarres Apostoluetan lehena espantuka eman baitzen hiltzera ere Jesusekin juanen zela. Salbatzaileak erranzion gau hartan berean oilarrak aldi bat khandatu gabe, hiru aldi arnegatuko zuela Jesus; eta hala gerthatu zen. Okasioneak galdu zuen Petri; ihes egin dezagun okasioneari.

Erran ere zioten Apostoluer ez trublitzeko; sinhesteko hura baithan, eta bazohala heier lekhuaren preparatzerat zeruan..., hura zela bidea (zerurat juaiteko) eta egia (sinhetsi behar duguna) eta bizia (eternitate guzian biziaraziko gizona); hura ikhusten duenak Aita ikhusten duela; Aitari galdatzen dituzten guziak harrek ardietsiko daizkotela, bai eta haren izenean galdatzen dituztenak. Othoitz eginen duela Aitari eta Aitaren ganik errezibituko dutela Izpiritu Saindua; Izpiritu Saindu hunek argituko dituela eta heier gauza guziak erakatsiko, ezagutaraziko. Bakea uzten diotela, badohala Aitaren ganat; ez dela jadanik hambat heiekin mintzatuko. Zenaklean zen oraino, hola mintzatu zenean, handik jali zen gero erranez Apostoluer: *Alcha zaitezte, guazen hemendik: Surgite, eamus hinc.* Zenakle-

tik Olibetako baratzerat badira hamabortz ehun urhats edo phausu nombait han. Bide hori egitean, Jesus guziz hunkigarriki mintzatu zen : Bertze asko gauza saindu eta ederren artean, erran zuen hura zela mahasti egiazkoa, et haren Aita zela mahasti zaina eta hek zirela chirmenduak (edo adarrak.) Egon zitezela hura baithan, ez izaiteko surat botatuak. Hemen orai o Jesusek erraiten diote elgar maitha dezaten, bai, oraino ere elgar maitha dezaten!... Izanen zirela persekutatuak, bainan konfidentzia har zezaten; harrek bentzutu zuela mundua! Orduan, Jesus eztiak begiak zerurat ahchatu zituen eta bere Aitari erran zion osoki hunkigarriki, othoi, hura lorifika zezan, harrek hura, Aita, lorifikatu zuela lurraren gainean; gizonez ezagutara zi zuela harren izena, othoitzez zagokiola bere dizipuluentzat, zoinak begiratu, kontserbatu baitzaizkon; Judas bakharririk galdu zela; hura bazohala mundutik; othoi, harrek kontserba zaitzala dizipuluak, hek santifika zaitzala; eta heientzat bere burua harrek Jesusek santifikatzen zuela, izan zitezentzat hek, berak, ere santifikatuak; othoi, guzak izan zitezela bat, eta munduak ezagut zezala Aitak Semea igorri zuela mundurat (hunen salbatzeko), eta maithatu zituela hek, hura ere maithatu zuen bezala. Aita, dio hemen Jesusek akhabatzean : Aita, niri eman daitzazunak, nahi dut non ere bainaiz ni, hek ere izan ditezen enekin ikhus



dezatentzat ene loria eman dautazuna; zeren eta, maithatu bainauzu mundua egina izan den baino lehenagotik. Aita justua, munduak etzaitu ezagutu, bainan nik zu ezagutu zaitut eta hauk ezagutu dute zuk ni igorri nauzula.

Eta ezagutarazi diotet zure izena, eta ezagutaraziko diotet, amoreagatik eta, amodioa zoinetaz maithatu bainauzu haukietan izan dadien eta Ni haukietan!

O Jesus, gure amodioa, Jainko bat baizik ez daiteke mintza zu bezen ederki, eta zu zira Jainko hura, gure ganat jautsi zinena zure Aitaren ezagutarazteko, hari pagatzeko gure bekhatuen zorra, guri Aita on hura maitharazteko eta gu salbatzeko. Bainan zertako hoinbertze sofritu nahi izan duzu gu ingratentzat! Gure salbamedua egin zinezaken doidoia aphalduz zure Aitaren aitzinean. Zertako beraz hoimbertze paira? Ah! guri ekhartzen zinnuen amodioaren ezagutarazteko! O! gu bihotz gabekoak bekhatuak gehiago egiten badugu! Ai! ene lana hemen akhabo balitz! Bainan, Jesusek haimbertze sofritu izan badu, bederen behar dut hartu kuraiea pairamen hetaz mintzatzeko. O Jesus, eginen dut nahi duzun bezala. Emaduzu grazia zure Pasione hunkigarriaz mintzatzeko.

HOGOI ETA HAMABIGARREN KAPITULUA

JESU-KRISTO GURE JAINKO JAUNAREN PASIONE SAINDU ETA SAKRATUA. — AGONIA. — PRESO HARTUA DA. — EREMANA DA ANNAREN, KAIFASEN, PILATUSEN, HERODESEN, AITZINERAT, AZOTATUA DA, KHORONATUA, KHURUTZEAZ KARGATUA. — HILTZEN DA, PHIZTEN, ZERURAT IGAITEN.

Agonia

Hola elhe sainduenak erraiten zituelarik Jesussek, bai bere Apostoluer, bai bereziki bere Aita Jainkoari, heldu zen Zedroneko hibaiaiat, phasatu zuen bertze alderat hibaia, eta sarthu zen Olibetako baratzean. Zortzi izipulu utzi zituen baratze hortan sar eta laster, erranez han egoiteko; bazohala hura haratchago othoitz egiterat; othoitz egiteaz hek ere etzitezen sar tentazio-nean. Bera aitzinachago juan zen Jondoni Petri, Jondoni Jakobe eta Jondoni Juanirekin, eta sarthu zen izialduran, eta gauza guzien desgustu handi batean; eta erran zioten hiru dizipulu horier: « Trichte da ene arima heriotzeraino! Igurikazue hemen eta zaudete atzarriak enekin. » Eta haratchago aitzinatu zen, harri besogainka igorri baten bidean eta belhaunikaturik, othoiztean zagon, erranez: « Aita, nahi baduzu, ere-

man zazu kalitz hau ni ganik! Bizkitartean ez ene nahia, baina zurea egin bedi!» Ikhusten zuen gure Nagusi dibinoak zombat pairatu behar zuen, eta zoin inutilki hanitzentzat! Ikhusgarri horren bichtan, nahi zuen, Gizon bezala, ez sofritu; baina ikhusten ere zuen haren heriotzeaz haren Aitari bekhatuak egin laidoa osoki erreparatua izanen zela eta arimak mila miliunka salbatuak izanen zirela. Badago beraz bere Aitaren nahiari. Alferretan erortzen da agonian, begitartean lurrerat; luzakiago othoitz egiten du eta dio: « Abba, Aita! gauza guziak zuri posible daitzu! Ereman zazu kalitz hau ni ganik! baina ez nik nahi dutana, baina zuk (nahi duzuna)! » Eta gauza mirestekoa! odolezko izerdi bat jauzi zitzaion gorputz guzian, eta odol chortak bazobazin lurreraino. O Jesus Jaunaren odol preziatua, adoraten zaitugu ichuria izan ziren lekhu guzietan! Garbi gaitzazu gure bekhatuetarik eta salba gaitzazu! Han agonian zagolarik, biziaren eta heriotzearen artean, Aita zeruko k igorri zion Aingeru bat haren kuraieztatzeko eta haren azkartzeko; hola lagundua eta sekorritua, altxatu zen Jesus othoitzean zagon lekhitik, eta jin zen dizipuluetarat. Hark, erne eta othoitzean egoiteko plazan, lo zauden trichteziatz. Jesusek erran zion Jondoni Petri: « Simoa, lo hago? » Ezin duk oren batez enekin irau atzarririk? Atzarririk zaudeste eta othoitz egizue etzaitzen.

sar tentazionean : izpiritua ezen ernea da, baina haragia flakoa. Eta berriz ere juanik, othoitz bera egin zuen, zioela : « Ene Aita, ez baditake kalitz hau ni ganik urrun non ez dudan edaten, egin bedi zure nahia! »

Eta berriz itzuli zen dizipuluetarat, baina hauk oraino ere lo khausitu zituen, ezen nagituak ziren heien begiak eta etzakiten zer ihardets Jesusi! Hau deboilatua eta hek lo! Horra gizonak. Utziko gaituzte gure nahigabetan laguntzarik gabe dizipuluek Jesus Jauna utzi zuten bezala. Ez dezagun gizonen gainean khonda. Jesus, hiru dizipulu horiek utzirik, itzuli zen berriz, trichterik, bere agoniako tokirat eta bere Aitari hirugarren aldikotz othoitz bera egin zion, erran nahi baita, othoi, dolorezko kalitz hori urrun zadin hañen ganik, baina bethi galde horri segiarazten zituen hitz hauk : ez dadila bizkitartean ene nahia egin izan, baina bai zurea! O nola Jesusek erakusten daukun haren borondaterat egoiten gure nahigabetan, gure sofrikarriotan, gure heriotzean. Bai, Jesus, egin bedi bethi zuk nahi duzuna, eta ez guk nahi duguna, ez balinbada gure nahia zure nahiaren arabera. Agoniako grota edo barne handi hura ikhusten da oraino egungo egunean, agoniako gauean bezala-bezala, jadanik lehenago erran izan dudanaren arabera.

Jali zen Salbatzailea agoniako lekbutik eta jin

zen dizipuluetarat. Hauk bethi lo zauden! Jesusek erran zioten : « Egin zazue jadanik lo eta phausa zaitezte. » Huna orena hurbildua, eta gizonaren Semea libratua izanen da bekhatoren eskuetarat.

Jaiki zaitezke guazen; huna non hurbildua den ni trahituko nauena. »

Jesus preso hartua

Mintzo zen oraino eta jadanik Judas beltza hurbildua zitzaion haren trahitzeko. Adichkidetasunaren kampo guziekin, hurbildu zen Jesusen ganat eta hari musu eman zion zioelarik : « Agur, Nagusia. » Errana zuen Jesusen etsaier nori ere musu emaiten baitzion, eta hura izanen zela hek bilhatzen zutena; hartzeko hura eta eremaiteko artha handirekin. Jesusek musu traidore hori errezibitu zuen, bainan erranez erreportchu hau : « Adichkidea, zertarat jina haiz? Judas, musu batez gizonaren Semea libratzen duk? » Judas etzen bera; bazituen berekin Jesusen etsai tropa bat, harat jinak Jesusen preso hartzerat lanternekin; gaua baitzen, ezpatekin eta makhilekin. Jesusek beraz ikhusiz zer behar zitzaion gerthatu, aitzinatu zen heien alderat, eta erran zioten : « Nor bilhatzen duzue? » Ihardetsi zioten : « Jesus Nazarethdarra. » Erraiten diote Jesusek : « Ni naiz. » Erran zuen bezen laster *Ni naiz*, gibelka juan ziren eta erori ziren

lurrerat. Hori zen mirakulu bat; ikhusgarri horren bichtan, behar ziren etsai hek konbertitu, baina graziari gogorrarena egin zuten eta etziren chutitzearekin eman, Jesusen oinetan. Berriz Salbatzaileak galdegin zioten : « Nor bilhatzen duzue ? Hek berriz ere erran zuten : « Jesus Nazarethdarra. » Ihardesten diote Jesusek : « Erran darotzuet ni naizela, beraz ni bilhatzen banauzue, utzaitzue haukiek juaiterat. » Bethe zandintzat erran zuen hitza : « Eman darozkidatzunetarik, ez dut galdu nehor. » Orduan hurbildu ziren etsaiak oraino gehiago, hari lotzeko.

Apostoluak lo egon ziren harri gorhatsetik hurbilean zen Judasek bere Nagusiari musu eman tokia; hurbilean ere zen Jesusek bere hitz choilaz etsaiak lurrerat eror arazi zituen lekhoa. Jesusekin zirenek, ikhusirik zer gertatzerat zohan, erran zioten : « Jauna, joiten baginu ezpataz ? » Errepostuaren beha egon gabe, Simon Petrik, ezpata bat baitzuen, jo zuen ezpata hortaz Aphez Nagusiaren zerbitzari bat, eta ebaki edo phikatu zion eskuineko beharria. Zerbitzari borrek Malchus zuen izena. Jesusek erran zuen : « Utzazue hunadino ; » eta Jesusen ondora jin zenean, kolpatuaren beharria lotharazi zuen phikatu lekhuana eta sendatu. Mirakulu horren ere bichtan behar zuketan Jesusen etsaiek konbertitu baina bekhatoros gogortua ez da hain errechki on bilhakatzen.

Erran zion Jesusek Petriri : « Emak hire ezpata mainan (edo moltsa-lekhuan); ez n ezpata hartzen duten guziak, ezpataz hilen dituk. Aitak niri eman dautan kalitza ez othe dat edanen? Ez duk uste othoitz dezakedala ene Aita, eta igor letzakedaia berehala hamabi lejion? Aingeru baino gehiago? Nola beraz betheko dira Iskriturak (diotenak gauzak), hola behar direla gerthatu? »

Bere etsai handiak han ikhusten baitzituen Jesusek, erran nahi baitut aphezen printzeak, temploko aitzindariak eta zaharrak, erran zioten : « Ohoin baten ganat bezala jali ziezte ezpatekin eta makhilekin ene hartzerat. Igun guziez zuen artean nintzen temploan irakasten ari, eta ez nauzue hartu, bainan hau da zuen orena eta ilhunbeen botherea. » Dizipuluak, Jesusi fidel egoiteko plazan, ihesari eman ziren oro. Jondoni Juan Apostolua bakharrrik segitzen zitzaion lehenbizian, bainan hau ere, ikhusi zuenean bera preso hartzen zutela, ihes juan zen. Jesus bera zen, orotaz abandonatua. Haren etsaiak, otso errabiatu batzuen pare, lothu zitzaizkon, estekatu zuten eta berekin ereman. Zedroneko bertze alderat phasatzean, aurdiki zuten Salbatzailea urerat; harriaren gainerat erori zen eta harriari utzi zituen eroriko horren seinaleak.

Josafateko haranean barna, eskuin hartuz, ereman zuten Salbatzailea Siongo mendi alderat. Han bizi ziren Anna eta Kaifa, Zenakletik hurbil.

Jesus Annaren eta Kaïfasen aitzinean

Anna aphez nagusi edo aphez-handi izana zen, eta Kaïfas, urthe hartako aphez-handia, haren suhia zen. Juiatzen ahal dugu etzenez bozkario-tan sarthu Anna, ikhusiz Jesus estekatua eta haren menean. Aski atchiki zuenan bere Bik-tima bere aitzinean, igorri zuen bere preso eremilen artean Kaïfasi. Huna hau ere bertze bat guti alegeratu etzena, Jesus haren etsai kapitala bere aztaparretan izaitezaz. Nola nahi baitzuen oroz gaintetik Jesus hilarazi, zerbait arrazoinitchura nahi zuen khausitu Jesusen kondena-tzeko. Hasi zen beraz Jesusi galdeak egiten bere doktrinaren eta bere dizipuluen gainean.

Jesus bere alde behar zen nesesarioki mintzatu; ezen haren doktrina edo erakuspenna guziz saindua zen; eta nola ez baitzaio johan akusatua den bati bere buruaren laudatzea, erran zion Kaïfasi etzela sekretuan edo ichilka mintzatu; galdetzeko hura entzun zutener; hek bazakitela zer erakutsi zuen. Guziz izartua eta errespetuz bethea zen mintzatzeko molde hori. Halarik ere paso handi eta ikharagarri bat eman zion Jesusi han zirenetarik batek, erranez hala ihardesten zuenez aphez handiari. Jesusek erran zion: « Gaizki mintzatu balin banaiz, erakutsazu erran dudan gaizkia; bainan ongi mintzatu banaiz, zertako joiten nauzu? » Aphez-handiak be-

har zuen erran zerbitzari horri gaizki egin zuela Jesusen joitea; bainan bere ichilik egoiteaz, onhesten zuen egitate hori. Ukhaldi hori hain zen azkarki emana, non pasoak Jesus jo eta, aurtiki baitzuen eta haren hortzak higitu baitzituen Jesus eztiari odola abiatu zitzaion ahotik, ukhaldi hortan. Ez ikusiaren eginez, Kaifasek, eta haren idurikoek bilhatzen zuten zombait lekhukotasun falsu Jesusen kontra, hunen hilazteko, bainan etzezaketan khausi. Agertzen ziren bai, asko lekhuko faltsu, bainan tribunalean ekhartzen zituzten lekhukotasunak ezin konponduak ziren. Azkenekotz, bi lekhuko faltsu agertu ziren bada, egiaren itchura zerbait ekhartzen zutenak. Erran zuten, ba eta, hek entzun zutela Jesus erraiten destrui edo aurtik zezakela Jainkoaren temploa, eta hiru egunen buruan berriz egin. Bainan etzuen Jesusek egundaino izan gogoan ere Jerusalemeko templo sainduaren aurtikitzea; sobera zuen maite lekhu saindua; bainan mintzo zen bere Gorphutzeko templo sakratuaz, Juduek hiltzerat johan zutenaz, eta zion alferretan hura hilen zutela; hiru egunik barnean phiztuko zuela Gorphutz hori, Phazko egunean egin zuen bezala. Aphez-nagusia, Jesusen kondenazionea khausitu balu bezala lekhuko faltsu horien hitzetan, erran zion Salbatzaileari: « Ez duzu ihardesten deusik haukietaz zure kontra erranak zaitzunetan. » Bainan Jesus ichilik

zagon. Zertako mintzatuko zen? haren kontra ziren etsaiek elgar etzezaketen adi, uzten zituen Jesusek arrazoinekin elgarren arteko ezin konpontze hortan.

Etzizaion johan aphez-handia lekhukoen elgarren artean ezin konpontze hori; bizkitartean zerbait ere gisaz nahi zuen Jesus hil arazi, eta khausitu zuen azkenekotz hortako bidea : Beraz, erran zion Jesusi urgulu handirekin : « Errekeitzen zaitut Jainko biziaren izenean erran diezaguzun zarenetz Kristo, Jainko benedikatuaren Semea. » Jesusi gostako zaio bizia, bainan Jainko handiaren izenean mintzatzera othoiztua da. Mintzatuko da beraz eta erranen du aphez handiari baietz Jainkoaren Semea dela; hura dela Kristo. Erran ere bazituen segidako hitz hau kapable zirenak hek ikhararazteko. Erraiten ere dantzuet : « Oraino ikusiko duzue gizonaren Semea jarria Jainkoaren Majestatearen eskuinean, eta ethorki zeruko hedoietan; » erraitea baitzen orduan hura izanen zela Juie, heien juiatzeko eta kondenatzeko. Orduan, aphez-handiak, blasfemio bat aditu izan balu bezala, Jesusek bere burua Jainko deklaritzen zuelakotz, bere arropak urratu zituen, erranez : « Blasfematu du; zer behar dugu oraino lekhukorik? horra non orai zehonik aditu duzuen blasfemioa! Zer zaitzue? » Eta hek ihardetsi zioten : « Hiltzea du merezi. »

Orduan, behar ziren ikhusi Jesusen etsaiak

z: khur edo tigre batzuen pare jazartzen Biktima inozent hari : hiltzerat kondenatua zela, beraz deusik etzaitekela sobera egin haren kontra, batzuek thu egiten zioten ; bertze batzuek trufa egiten zioten eta ukhaldika zerabilaten. Estekatu ere bazioten oihal bat begien inguruan, eta begitartea jotzen zioten, erranez : « Asma zaguk, Kristo, nor da hi jo hauena? » Eta bertze asko gauza blasfemioka erraiten zituzten haren kontra. O Jesus, izanen da egun batez zure aldia zure etşaiez zu trufatzeko, heien lehertzeko zure kolpen azpian, eta justu da. Behinik bat, Anna eta Kaifas miserableki hil ziren ; ezen, populua- ren errebolta eta asaldura batean, Anna urkhatu zuten guzien aitzinean, eta Kaifas Jesusen eta Apostoluen etsai hori izan zen errebokatua edo bere kargutik khendua. Aphez handi eta krimi- nel handi horrek bere burua hil zuen desespe- razionez. Pilatusek ere kargua galdu zuen eta bardin bere burua hil zuen desesperazionez, Frantzia Dofinerat igorria izan ondoan, Vieneko hirirat. Herodes izan zen Kaifas eta Pilatus be- zala, errebokatua edo kargutik khendua. Fran- tzia Lyonerat kasatu zuten ; ihes egin zuen Es- painiarat eta han miserableki hil zen. Annaren etchea bilhakatua da monazterio edo ospitale bat.

Erakusten da basakurtean oliba ondo zahar bat, zoinari estekatu baitzuten Jesus, Annari

presentatua izan aitzinean. Kaifasen etchea bilhakatua da, hura ere monasterio edo ospitale bat, Annarena bezala. Eliza bat egin Jesus, kriminel bat bezala, Kaifasen eta bere etsaien aitzinean egon zen lekhu. Han izan zen blasfematzaile deklaratu eta hiltzerat kondenatua. Ikhusten da Eliza hartan Salbatzailea preso ezarri zuten lekhu hertsia, hartaz haren etsaiak aski jostatu zirenean. Erakusten ere da basakurtean Petri Apostoluak su ondoan Jesus arnegatu zuen tokia.

Petrik arnegatu zuenean hirur alditaraino bere Nagusi ona, Jesusek behako ezti bat egin zion bere dizipulu flako eta ahulari. Lo phisu batarik iratzartze bat bezala izan zen Petrirentzat behatze urrikalmenduzko hori. Jauzi zitzaion nigarra, nigar kharatsa; bethi erreberitzen zena, dio tradizioeak, Petrik entzuten zuenean oilarra khantatzen. Nigar eginaren bortchaz, bazituen Jondoni Petrik bi arroila bi mathelefan. Ai! behatuan imitatu dugun bezala, imitatzen baginu penitent handi hori bere penitentzian!

Jesusez bezenbatean, luzaz hartaz jostatu ziren Kaifasen etchean. Haren etsai maleziatsuenak, eta Kaifasen kontseilukoak, juan ziren noizbait beren etchetarat. Heien osasuna sobera zen, heien ustean, nesariora erresumarentzat gau bat hantchet galtzeko. Juan ziren beraz Jesusen etsai *khondatzen* ziren hek beren phausu eta lo

preziatuaren hartzerat. Salbatzailearen etsai arrunt hek gelditu ziren Jesusekin, Bildots ezti hau tormentatzeko, huntaz trufatzeko, oraino behin. Bainan gaua phasatu zenean, gaichtagina bethi prest eta zalhu odol inozentaren ichurtzeko, han ziren Jesusen etsaiak. Jadanik kondenatua zuten bezperan, edo ortzegun saildu aratsean, Salbatzaile Jainkoa; bainan, haren kondenazioneak solemnitare gehiago izan zezan amoreagatik, bezperako galde bera egin zioten, baitzakiten Jesusek ihardeste bera nesesarioki egingen zuela : Erran zioten beraz : « Zu bazare Kristo, erraguzu. » Jesusek erran zioten : « Erraiten balinbadautzuet, ez nauzue sinhetsiko. Eta aldiz, ni ere galdeka hasten banaiz, ez dautazue ihardetsiko, eta ez nauzue (libro) igorriko. Bainan hemendik goiti, izanen da gizonaren Semea jarria Jainkoaren indarraren eskuinean. » Orduan erran zuten guziek : « Zu zira beraz Jainkoaren Semea? » Jesusek ihardetsi zuen : « Zihonik diozue : hala naiz. » Eta heiek erran zuten : « Zertako dugu oraino nahi lekhukotasunik? Ezen guhonik entzun dugu beraren ahotik. » Eta guziak altchaturik, ereman zuten Jesus estekatua Pilatusen ganat. Goiza zen.

Jesus Pilatusen aitzinean

Pilatusen ganat juan zirenean Jesusen etsaiak, oihuka gelditu ziren Pilatusen egon lekhutik

kampo. Beldur ziren pagano horren palazioan sartzen baziren, profanatuak bezala izanen zirela, eta etzutela janen ahalko phazkoa. Erran nahi baita, kriminel handi heiek etzutela ulitcha bat iretsi nahi, eta iresten zutela kamelua. Pilatus jin behar izan zen beraz heien aitzinerat. Pilatusen palazioa temploaren ezkina batean zen, bide hegian. Juan zitaken kampo, jua zitaken barnez Juduen aitzinerat, arkua batez azpitik sustengatua zen kaleria batetarik. Judu hauk edo karrika bethean ziren, edo nombre handi bat hala handi batean; hala edo barne handi hura egungo egunean eliza bilhakatua da eta eliza hartan eman dut meza. Pilatusek beraz, juduen aitzinerat jirik, galdegin zioten haukier : « Zer akusazione ekhartzen duzue gizon hunen kontra? »

Eta hek ihardetsi zioten : « Izan ez balitz hau gaichtagin bat, ez ginautzun eskuetaratu. » Ikhusten zuen Pilatusek etzezakela jua Jesus eta gutiago kondena jakin gabe zer erreportehu egiten zioten huni. Erran zioten beraz : « Harzazue zehonek, eta zuen legearen arabera jua zazue. » Ihardetsi zioten Juduek : « Guri etzauku haizu neboren hiltzea. » Aithortzea zen erregerik etzutela Juduek, baina Erromanoen esklabo zirela, eta erregetasuneko zeptrao edo seinalea eskuetarik erori zitzaiotela, eta orduan zela beraz dembora, zoinetan Mesias jin behar

baitzen, Liburu Sainduek erakusten zutenaren arabera. Dobatsu Juduak Jesus mement hartan ezagutu balute beren Salbatzaile eta Erregetzat! Bainan beren bihotzen gogortasunean, oihu eginen dute ez dutela Jesus ezagutzen beren Erregetzat; heien Erregetzat Zezar nahi dutela. Bizkitartean, zerbait estakuru nahi zuten khaisu Jesusen kontra hau kondenarazteko, ahal baten.

Orduan gezurrari lothu ziren Salbatzailearen etsaiak, eta erran zuten gezurrez : « Hau khaisu dugu ari zela gure nazionearen makhurtzen, eta debekatzen zergak pagatzea Zezari, eta erraiten hura zela Kristo Erregea. Bazakiten bada, etsai maleziatsu hek, Jesus bethi bakezko Gizon bat izan zela, erran ere zuela bihurtzeko Zezar emperadoreari, hari zor zena, eta Errege ez izan nahiz, egun batez ihes juan zela Jesus umila mendirat, eskapatzeko erregetasuneko grado gora horri. Bainan pasioneak eta herrak erabiltzen duten gaichtagina guti khechu da egiaz, baldin kondenarazten eta lehertzen ahal badu bere etsaia. Pilatusek ikhusten zuen akusazione horiek guziak kalomniak zituztela. Sarthu zen beraz populuaren bichtatik bere palaziorat, eta deithu zuen bere aitzinerat Jesus. Jesus umila ethorri zen Pilatusenganat. Hunek galdegia zion Salbatzaileari : « Juduen Erregea zira ? » Ihardetsi zion Jesusek : « Zure baitharik hori diozu,

ala bertzek erran dautzute nitaz? » Pilatusek ihardetsi zuen : « Judua othe naiz ni? Zure nazioneak eta aphez-nagusiek ezarri zaituzte ene eskuetarat; zer egin duzu? » Jesusek ihardetsi zion Pilatusi : « Ene erresuma ez da mundu huntarikakoa. Mundu huntarikakoa balitz ene erresuma, ene zerbitzariak, segur, guduka laitezke ez nadintzat izan libratua Juduer; baina ja ene erresuma ez da hemendikakoa. » Erran zion bargatik Pilatusek : « Beraz Errege zarezu? » Ihardetsi zion Jesusek : « Zuhonek erran duzu, Errege naiz. Ni hortakotz sorthu naiz, eta hortarat naiz ethori mundurat lekhukotasuna bihur diozadan egiari. Egiatik diren guziek entzuten dute ene boza. » Erraten dio Pilatusek : « Zer da egia? » Eta hori erran eta, errepostuaren beha egon gabe, jali zen Juduetarat Pilatus, eta erran zioten : « Nik ez dut aurkhitzen huntan batere hobenik. » Ari ziren beren aldetik Jesusen etsaiak, ez edo zoin, baina erlijioneko aitzindariak eta zaharrak, Jesusen akusatzen hanitz gauzetan. Jesus ichilik zagon haren kontra erranak ziren kalomnier ihardetsi gabe. Horren gainean, Pilatusek erran zion Jesusi : « Ez duzu aditzen zombat lekhukotasun erraiten duten zure kontra? Deusik ez duzu ihardesten? Beha zazu zombat gauzetan akusatzen zaituzten. » Baina Jesusek etzuen ihardetsi elhe bihibati, halako gisaz non estonatu baitzagon az-

karki gobernadorea. Eta zer nesesitate zen mintza zadin Jesus? Pilatusi zen mintzatzea eta goraki erraitea Jesusen kontra erraiten zituzten guziak gezurrak zirela. Baina Pilatusen karakterak flakoak animu har arazten zioten Jesusen etsaier, eta zioten oihuka gezurrez : « Asaldatzen du populua, erakusten ariz Judea guzian, Galileatik hasirik, eta hunaraino. » Pilatussek adituz Galilea, galdegin zuen Jesus Galilearra zenetz, eta jakin zuenean baietz, bozkariatu zen; ezen, suertez egun hetan Herodes, Galileako Erregea, Jerusalemen zen, eta igorri zion Jesus, haren suieta bezala, hartaz juiatua izaiteko eta bera afera tzar hartarik atheratzeko.

Jesus Herodesen aitzinean

Herodesek Jesus ikhusi zuenean, bozkariatu zen handizki; ezen aspaldi hartan Jesus ezagutu nahia zen, hainbertze gauza erraiten zituztelakotz haren gainean; eta esperantza ere zuen zombait mirakulu eginen zituela haren bichtan. Hasi zen beraz Jesusi galdeak galdearen gainean egiten. Baina errege gaichto hori ongi ahalgetua gelditu zen etziolakoan Jesusi elhe bat ere erran ahal arazi. Herodesek, ahalge horri ezkapatzeko, egio zuen alegia eta, Jesus erho bat zela, mintzatzen ere etzakiena, eta erhoer emaiten den bezalako arropa zuri batez Jesus, zuhurtzia bera dena, beztiturik, libratu zuen

Salbatzaile adoragarria bere soldadoen eskuetatrat, hauk jostatzeko Jesusez eta hartaz trufatzenko. Etzuten faltatu soldado higuin horiek Herodesen nahiaren egitea. Guazen izpirituz munstro horien ondorat eta suposa edo asma ditzagun heien aldetik nahi ditugun barbarokeria guziak, Jesusen kontra; ez gira hurbilduko ere egiari. Bai! Jostatatzen dira Jesusez erho batez bezala: Irri-farras daude aitzinean duten Salbatzaileari, erho bati bezala. Zaku zuri buruaren phasatzeko zilhatu hartarik tiratzen uten harat, hunat; plusatzen zuten, laidostatzen zuten, thu egiten zioten, jotzen zuten, etzuelakoan beren errege Herodesi hitz bat ere erran.

Soldado bakhotchari balentria zitzaion bere lagunak baino gaichtoago izaita Jesusen kontra. Bazakiten Jesus gaizki tratatuago eta Herodesen gogorakoago izanen zirela. Errege hau, erran dut, osoki ahalgatua zagon zeran Jesusek etzaion hitz bat ere ihardetsi; hori zuen merezi errege supher horrek. Galdeak galdearen gainean egin zaizkon kuriostatez eta bere izpirituko ernetasuna erakusteko aphezen printzen eta zaharren aitzinean. Bere ahalgearen gordetzeko, itzuli edo bihurtu zuen Pilatusi Jesus arropa zuri hartaz bezi. Nahi zuen hola sinli tsarazi erho bat igorria izan zitzaiotela, eta ez arrazoinamendua zuen gizon bat; beraz, erho gisa bezi, gibelerat igortzen zuela. Berriz ekharr'a

izan zen Salbatzaile adoragarria Pilatusen aitzinerat.

Pilatusen palaziotik Herodesen palaziorat bada nonbait han ehun eta hogoi urhats. Etziren beraz bat bertzetik hanitz urrun, eta bazuten karrika-bide bat artean. Pilatusen palazioaren tokian egungo egunean kaserna bat da soldadoentzat, eta egon-lekhu handi bat Jerusalemeko gobernadorearentzat. Pilatus Jerusalemeko gobernadorearen lekhuak dago oraino gure demboretan hiri beraren gobernadorea. Choilki Pilatus Erromanoa zen, Erromanoak Jerusalemen nagusi zirelakoan, eta orai hiri beraren gobernadorea Turkoa da, Turkoak Jerusalemen nagusi direlaketz. O Jerusalem, zombat aldiz izan haizen orai haukiena, sarri bertze batzuen! Zombat aldiz khambiatu haizen nagusiz, bethi izanen hintzelarik Daviten arrazarena eta hortik Jainkoarena, ez bahintz hire bekhatuez Jainkoaren ganik urrundu eta hola hire faltaz nagusiz khambiatu, Jainkoa zelarik hire Nagusia, Nagusi guziz ona, bethi hire ona bilhatzen zuena!

Herodesen palazioaren lekhuak eginak dira etche batzu, eta Turkoak daude etche hetan.

Jesus berriz ere Pilatusen aitzinean

Nahiagoko zuken Pilatusek ez balute berriz haren ganat Jesus ekharri. Nahiz ahalaz laster eta ahalaz errechki urhats tzar hortarik atheratu,

bildu zituen bere aitzinerat aphezen printzeak, kargudunak eta populua eta erran zioten : « Ekharri dautazue gizon hau populu errebolta-razle bat bezala, eta huna non zuen aitzinean galdeak eginez ez dudan hunen baithan aurkhitu zuek akusatzen duzuen hobenetarik batere, ez eta ere Herodesek; ezen igorri zaituztet haren-ganat, eta huna non deusik etzaion egina izan heriotzea merezi araz zezokenik. Gaztigatu ondoan igorriko dut beraz libro. » Zer diok Pilatus? Aithortzen duk ez dukala hobenik khausitzen Jesus baithan, eta nahi duk Jesus gaztigatu? Ez dituk gaztigatzen edo punitzen hobendunak bai-zik. Ez dik Jesusek gaztigatua izaitearen behar-rik. Zertarik korrei Jesus? Zer bizio du? Zertako gaztiga edo zeren gatik gaztiga edo puni Jesus? Non da hobena? Hik huke, juie ahul eta flakoa, gaztigatua izaitearen beharra, injustizia handia egiten dukalakoan. Ez dea injustizia inozent baten gaizki tratatzea? Hi, juiea, hori duk beraz hire justizia : hobenik ez duen baten azotatzea!

Etzuen bizkitartean berehala Jesus azotatu; eta etzukeen ere azotatu nahi. Bertze entsegu bat egin zuen Pilatusek. Phazkoz bazuen usaia pre-sondegietan estekatuak zauzkatenetarik bat libro uzteko populuak galdatzen zuena. Egun hetan, bazuen preso ohoia famatu bat, nahastura handi bat altharazi zuena hirian, eta gizon bat hil ere zuen.

Ohoïn hori lanjerosa zen, horren libro uztea etzen prudentzia. Uste izan zuen beraz Pilatusek Jesus edo Barrabas, bietarik bat libro uztekoz, populuak galdeginen zuela Jesus libro uztea. Bazakien populuak estimatzen zuela Jesus, eta Jesusen alde behin baino gehiagotan agertu zela, hala nola irramuz. Oihuka galdegia zuen beraz Pilatusek jende ospe hari : « Zoin nahi duzue libra dezazuedan, Barrabas ala Jesus, zoina deitzen baita Kristo? » Ezen, bazakien bekhaizgoz eman ziotela eskuetarar aphez nagusiek. Eta baitzakien ere Juduen populuak bere errege bat nahi zuela, haren flatatzeko erraiten zion, haren sendimenduak asmatuz edo suposatuz bezala : « Nahi duzue beraz libra dezazuedan Juduen Erregea? » Ordu berean Jainkoak permititu zuen gertha zadin ephe bat gaichtaginek eskapatzerat ulzi etzuten : Pilatusi emazteak igortzen zion erraterat hauchet : « Ez bedi deusik izan zure eta Justu horren artean; ezen hanitz jasaina nago egun ametsetan horren gatik. » Mezu hori hartzen zuen demboran, aphezen printzek eta zaharrek itzulikatu zuten populu eta bildu zuten populu hori Barrabasen galdatzerat eta Jesusen hilarazterat.

Galdatu zuen beraz Pilatusek : « Zoin nahi duzue bietarik libra dezazuedan? » Populu itsu horrek boz batez eta marrumaz ihardetsi zuen : « Khen zazu hori (mundutik) eta libra dakiguzu

Barrabas. » Oraino ere Pilatusek erran zioten, nahiz libratu Jesus. Zer nahi duzue beraz egin dezadan Juduen Erregeari, Jesusi, zoina deitzen baita Kristo? » Populu trichte, horrek oihuka erran zuen : « Khurutzefika zazu, khurutzefika zazu hori! » Pilatusek erran zioten hirugarren aldiko : « Bainan zer gaizki egin du hunek? » Ez dut bat ere hilarazteko arrazoinik khausitzen hunen baithan. Gaztigatuko dut beraz, eta libro igorriko. Gaztigu hori, Pilatusen begietan, zen Jesusen azotatzea, eta azotatu zuen Jesus.

Orai da lekhua eta mementoa mintzatzeko Jesusen azotatzeaz.

Jesus azotatua

Nola uste dugu Jesus izan zela azotatua? Harri garri da nola! Etzen izan Salbatzaile ezti azotatua Juduen moldean; bainan bai Erromanoen moldean. Jainkoak, bethi urrikalmendurat ekharriak, manatzen zuen Israeldarrer etzezaten kriminelik handienajo berrogoi azote ukhaldiz baino gehiagoz; ezen, etzuen nahi Jainko on harrek izan zadin hobenduna uspeldua, odolstatua soberanioki; etzuen nahi ikhus zezaten Juduek beren anaia, populu bereko haurra krudelkiegi kolpatua. Bainan etzuten lege horri khasurik egin Jesusen etsaiek : nahiko zuten kontrarat halako gisaz izan zadin azotatua, non ez baitzen eskapatuko abal heriotzeari. Izan zen beraz Jesus

Jaina azotatua Erromanoen legean, zoinek ez baitzuten azote ukhaldietan nombre fitsaturik. Hurbil gaiten beraz Jesusen ganat. Ukhus dezagun gure Jainko handia eta gure Salbatzailea esklabo bat izan balitz bezala barbaroki azotatua.

Santa Birjitari errana izan zen bezala, burreboetarik batek manatu zion Jesusi buluz zadin bere arropetarik. Jesusek obeditu zuen, eta musu eman zion kolonari, eta berehala kolona horri izan zen estekatua. Hain krudelki izan zen azotatua non haren gorphutz guzia urratua gelditu baitzen, ez bakharrik larrua zartaraziz azote ukhaldiek, bainan ukhaldi hek, barna, haragian sarthuz eta han arroilak borthitzki eginez. Ukhaldiak hain ziren borthitzak, dio santa Birjitak, non sahets hezurak ageri baitziren. Santa Magdalena Pazzikoak dio bazirela hiruetan hogoi (60) burrebo kargatuak Jesusen hilarazteaz azote ukhaldika. Bazen bat, dio norbaitek, bethi Jesusi zaharo batez begitar-tean joka ari zena. San Pedro Damianek dio burreboak hainbertzetaraino akhituak zirela Jesusi azote ukhaldika, non indarrek falta egin baitzioten : *Usque ad fatigationem!* Isaias profetak barbarokeria horiek guziak aitzinetik ezagutarazi zituen Jesusez erraiten zituen hitz hautaz :

Attritus est propter scelera nostra : Phorroskatua izan da gure krimen gatik. San Jeromen arabera, soldadoek chehatu zuten Jesus lehenik

azote ukhaldika krudelitate handienarekin, eta gero jo zuten kadena burdin punta harmatuekin, eginez hola zauria zauriaren gainean, eta pusketan emanaz Jesusen membro sakratuak. San Leonar Por-Morizekoak dio jotzen zituztela (burreboek azotez Jesusen) burua, begitarte, kopeta, begiak, kopeta begiak, bulharrak, besoak eta zangoak. Haren Gorphutza, burutik oinetarat, zauri bat baizik etzen. Haren haragi sakratuak pusketan bazohatzen; lurra bustia zen haren odol preziatuaz : azoteak, kolona eta murrak odolez gorrituak ziren; burreboen besoak eta arropak odolstatuak ziren. Hainbertzetaraino haragiak puskatuak, airatuak, azoten punta zorrotzez eremanak ziren, non khonda baitzitazken Jesusen hezurak

- Autor guzien arabera, milaka eman zaizkoten azote ukhaldiak. San Bernaten arabera sei mila, sei ehun eta hiruetan hogoi eta sei azote ukhaldi (6666) eman zaizkoten Jesus maiteari. Hil behar zen Kornelius Lapidaren arabera azotatze hortan, bainan bere Jainkotasunaren botherez kontserbatu zuen bizia, gehiago pairatzeko gu maitez. Haren burreboak animale salbaia batzuen parekoak ziren. Jesus ukhaldika, joka zabilaten zakhur furiatsu, mustru heiek. Gure Salbatzaile eta Jainkoa ikharan zagon kolpen azpian, funditua eta lehertua, itzulika, kolpatua dabilan harmezprezatu baten pare. Burrebo batzu akhitzen

zirenean, Jesusi azote ukhaldika, bertze batzu erortzen ziren errabia berri batekin Bildots ezti horren gainerat beren azotekin Jesus hiltzeko; ezen haren etsaiak beldur baitziren, dio san Ligoriok, Pilatusek libro igor zezan Jesus, azotatua izan ondoan, dirua eman zuten burreboer Jesus joiteko biziko ahal etzen gisan. Oi! nola tormentatua zen Jesus! zer sofrikario ezin erranezkoak! Jesusen Gorphutza, Izpiritu Sainduak formatu Gorphutz bat zen, sentsiblea eta delikatua, halako gisaz non, san Bonabenturaren arabera, zango zola bera bertzek gogortua eta loditua dutena, Jesusek guk begia eta begi ninia ditugun baino delikatuago eta mimeterago baitzitu. Horra, o girichtinoa, nola zure libertinkeriek eta garbitasun sainduaren kontrako zure tzarkeriek barbaroki ubeldu duten, zaurizatū, larrutu, arrailatu, puskatu zure Salbatzailearen Gorphutz adoragarria! Turkoena baino areagoa duzu bihotza ez bazira hunkitua zure bekhatuek holakatu duten Jesus azotatuaren bichtan! Non othe zen Ama Birjina Jesus azotatu zutenean? Han zen Jesusen ondoan. Berak dio santa Briji-tari hauchet : « Kolonarat ereman zutenean, bere arropetarik buluzi zen. Berak kolonaren kontra eman zituen eskuak, zoinak estekatu baitzituzten haren etsaiak urrikalmendurik gabe;... eta azotatzen zuten haren Gorphutza tacha eta bekhatu guzietarik garbi zena. Lehen (azote) ukhaldian

beraz, ni han nindagona hurbil hurbila, erori nintzan hila bezala, eta ezagutza itzuli zautanean, ikhusi nuen haren Gorphutza joa eta azotatua sahets-hezurretaraino, halako moldean non, haren sahets-hezurrak ageri baitziren. Eta minago zena, gibelat azoteak tiratzen zituzte-nean, azotek haragian arroilak egiten zituzten.

Nola ene Semea guzia odolstatua baitzen eta haren Gorphutza pusketan baitzen, halako moldez non ez baitzen jadanik hura baithan oso zen toki bihirik, ez batere lekhurik azote ukaldi berrientzat, jende multzo (hartako) gizon bat, urrikalmenduz hunkitua ikhusgarri horren bichitan, eman zen oihuka : Horren hiltzerat zohaztea othe, juiatua izan gabe? Eta berehala, hura estekatzen zuten khordak phikatu zituen, eta ene Semeak berriz hartu zituen bere arropak. Ikhusi nuen orduan tokia non baitzauden haren zangoak dena odolez betheak, eta segi nintzazken haren urhatsak gibelean lur gainea uzten zituen hatzetarik. Ezen, zangoa emaiten zuen lekhu guzietan, lurra ageri zen haren odolaz gorritua. Haren burreboek etzioten utzi beztitzeko demborarik ere; baina herrestatzen zuten eta phusatzen zuten alde guzietarat, hari erranez igi zadin. Horra Ama Birjinaren hitzak santa Brigitari.

O Jesus, zombat gusta zautzun ene salbatzea!

Bai, konbertitzen naiz orai beretik, zu maitez, zuri ez nahiz eman pena berririk!

Egun batez, Jesus, azotatua izan zenean bezala agertu zen santa Teresari. Ohartu zen sainda hau Jesusek bazuela ezkerreko besoan haragi puska bat doloragarriki dilindan zagona. Nahi izan zuen portret pintatzaile bati pintarazi Jesusen besoko zauri hori. Aski lan bazuen pintatzaile horrek Salbatzailearen zauri ikharragarri horren ongi egiten. Bere embrasuan itzuli zen pintatzailea santa Teresaren alderat, eta galdegin zion nola behar zuen egin zauri harren pintura edo iduria. Bere galdea serora saindu horri egin eta, behatu zuen egiten ari zen Jesus azotatuaren portretari, eta khausitu zuen bere deseinuko oihalean zauri hori jadanik formatua eta fidelki egina. Ichtorio labur hau hemen khondatzen dut ezagutarazteko zer zauriak eginak izan ziren Jesusi azote ukhaldika!

Tertulienek khondatzen du gauza bat ikharragarria; huna zer :

Jesus kolonari estekatzen zuten khordak phikatuak izan zirenean, Salbatzailearen Gorphutza erori zen trumbilka lurrerat, eta burreboek ostikozjoka eta phusaka erabili zuten Gorphutza zakhu bat bezala! Gure bekhatu lizunek erabili dute hola Jesus lurrean: guk Gorphutz sakratu hori, harat, hunat, ostikatu dugu! Ez othe gira Aita zerukoaren beldur? Harrek ikhusi du nola

profanatu dugun haren Seme osoki maite duenaren Gorphutza, ubeldua, odolstatua, phorroskatua; eta kolerañsarthu da gure kontra ! Zorigaitz guri ez badugu apazegatzen dembora deno haren kolera justua ! Ifernuko su eternalak gure beha daude ! Tzarkeriaz tentatua zirenean, orhoitzaite, o girichtinoa, Jesus azotatuaz eta ifernuko su lamez. Oihu egin Jesusi, Ama Birjinari, eta izanen zira bitorios eta segurean mundu hunktako eta bertzeko.

Jesus azotatua izan den lekhu kapera bilhakatua da, eta han eman dut meza, ez edo zoin han ziren aldaretan, bainan Frantchichkano bati esker, Jesus azotatua izan zen toki ber-berean.

Gauza bat espantagarria gerthatu zen Jesus azotatua izan zen lekhu hartan : khondatzerat noha : Lekhu hortan egin izan zen eliza bat, bainan eliza hau Mustafa izena zuen mahometano guziz lerro gorako batek khambiatu zuen zaldien establia batetara ; bainan gusta ere bazitzaion. Bere zamarietan ederrenak, freskorik eta azkarrik harat sararazi zituen arats aphalean. Toki saindu haren profanatzea zen. Biharamunean iratzartu zeneko, erraiten zioten haren zamari guziak hil zirela. Etzuen Jainkoaren eskua ezagutu nahi gerthakari hortan. Berriz zamari berri batzu lekhu saindu hartarat sararazi zituen. Biharamunean zamari hek ere hilak khausitu zituzten. Harritu zen mahometano

hori. Bildu zituen bere aitzinerat Jerusalemeko gizonik adituenak eta seriosenak ezagutzeko nondik heldu zaizkon malur edo nahigabe hek. Ihardetsi zioten etzuela estonatu behar gerthakari horietaz : ezen toki hura errespetu handitan zela girichtinoen begietan, Jesus izan zelakotz han azotatua eta Jainkoak etzuelakotz nahi han alimaleak emaita. Mustafak ikhasi zuen lekzio-nea, eta etzuen gehiago barne saindu hartarat bere zaldirik igorri.

Ikhasi dugu zoin ikharagarriki izan zen gure Ja nko Salbatzailea gaztigatua azote ukhaldika. Erran zuen Juie horrek libro igorriko zuela Jesús gaztigatu ondoan, eta horren beldur ziren Jesusen etsaiak. Hortik, oihuka arizan zaizkon azkarki, galdatuz khurutzefikatua izan zadin Jesus eta geroago eta azkarkiago zioten : khurutzefikatua izan bedi ! Khurutzelika zazu ! Pilatus-ek ikhasiz deus etzuela aitzinatzen , bainan nahasdura azkartuz zobala, harturik ura, garbitu zituen eskuak populuaren aitzinean, erranez : « Chahu naiz ni Justu hunen odoletik : zehonek ikhasiko duzue. » Eta populu guziak ihardetsi zuen : « Horren odola gure gain eta gure haurren gain ! » O populu itsua, bai hire gain izanen duk odol hori ! Horrek kondenatuko hau, horrek madarikatuko hau eta izanen haiz mende guziez kondenatua eta madarikatua ! Pilatus flakoak, populuaren gosturat egiteko, manatu zuen egin

zadin galdatzen zutena, eta libro utzi zioten Barabas. Ah! Pilatus, azotarazi duk Jesus, hunen eskaparazteko heriotzeari. O gizon ahula, zertako ez duk hastetik hilarazi Jesus Jauna? Bederen, orduan azoten tormentak etzitian pairatuko! Zertako ez duk populu higin hori zafratu azote ukhaldika, eta urrundu hire palazio inguruetarik? Hola salbatzen hakon bizia inozent zela mila aldiz erraiten huen Justuari!

Jesus arrantzez khoronatua

Pilatusek azotarazi zuenean Jesus, etzuen erran haren elhorriz khoronatzea, bainan Pilatusen soldadoek, eremanez Jesus pretorioko basakurterat, bildu zuten haren gana soldado andana guzia eta jostatu ziren Jesus ez. Bazakiten Juduen Erregea deithu zutela Jesus, eta beraz, Errege zenaz geroztik, nahi izan ziozkoten erregetasuneko ohoreak bihurtu; bainan zer ohore? irri egingarriak: khendu zioten zoinetik bere arropa, eta kapa zahar gorri puska bat eman zioten bizkarretik, eta elhorri edo basateak itzulikatuz khorona gisa, ezarri zioten khorona hori buruaren gainean, eta kanabera puska bat ere ezarri zioten esku eskuinean, zeptro gisa, erregen handitasuna eta podorea markatzen duen makhilaren plazan; eta heldu zaizkon soldadoak, eta belhaunikatuz zangoaz haren aitzinean, trufatzen ziren hartaz, erranez: « Agur, Juduen



Erregea! » Eta tha eginez Jesusi, hartu zioten eskuetarik kanaberazko makhila hori eta hartaz jotzen zioten burua! eta pasoka ari zaizkon. Pilatus jali zen oraino kaborat, eta erran zioten : « Huna non ekharizen dantzuetadan kaborat, ezagut dezazuentzat ez dudala khausitzen hontan batere kondenatzeko arrazoinik. Orduan athera zen beraz Jesus, buruan zeramala elhorrizko khorona, eta soinean arropa gorri bat; eta erran zioten : « Huna Gizona! Huna gizona, » dio beraz Pilatussek : *Ecce Homo!* Bai, arrazoina duk, Pilatus, erraiteko Gizon bat dela hori; ezen iduri dik lurreko har mezprezagarri bat, Gizona baino hobeki. Bizkitartean hori duk Gizona, gizonaren arraza salbatzen duena! Hori duk gizonen Gizona! Hori duk Jainko-Gizona! *Ecce Homo!* Jesus izan zen beraz khoronatua, eta zoin ikharagarriki!

Arrantzezko khoronak Jesusen buru sakratua, guzia, hartzen zuen kopetaren erditaraino. San Laurendi Justinianok eta san Pedro Damianok diote hain luzeak zirela basateak non buru fuintetan barna sartzen baitziren : *Spinae cerebrum perforantes*. Tormentaren handitasunez ardura begiak hesten zituen Salbatzaileak, eta pleinu saminak adiarazten zituen hiltzerat johan izan balitz bezala, dio Agata Khurutzeko dohatsuak. Hibaiaka zarion odola begitartean behera, eta haren ilea, begiak, eta bizarra odolez betheak

zadin galdatzen zutena, eta libro utzi zioten Barabás. Ah! Pilatus, azotarazi duk Jesus, hunen eskaparazteko heriotzeari. O gizon ahula, zertako ez duk hastetik hilarazi Jesus Jauna? Bederen, orduan azoten tormentak etzitian pairatuko! Zertako ez duk populu higin hori zafratu azote ukhaldika, eta urrundu hire palazio inguruetarik? Hola salbatzen hakon bizia inozent zela mila aldiz erraiten huen Justuari!

Jesus arrantzez khoronatusa

Pilatusek azotarazi zuenean Jesus, etzuen erran haren elhorriz khoronatzea, baina Pilatusen soldadoek, eremanez Jesus pretorioko basakurterat, bildu zuten haren gana soldado andana guzia eta jostatu ziren Jesus ez. Bazakiten Juduen Erregea deithu zutela Jesus, eta beraz, Errege zenaz geroztik, nahi izan ziozkoten erregetasuneko ohoreak bihurtu; baina zer ohore? irri egingarriak: khendu zioten zoinetik bere arropa, eta kapa zahar gorri puska bat eman zioten bizkarretik, eta elhorri edo basateak itzulikatuz khorona gisa, ezarri zioten khorona hori buruaren gainean, eta kanabera puska bat ere ezarri zioten esku eskuinean, zeptro gisa, erregen handitasuna eta podorea markatzen duen makhilaren plazan; eta heldu zaizkon soldadoak, eta belhannikatuz zangoaz haren aitzinean, trufatzen ziren hartaz, erranez: « Agur, Juduen



« Hori libro igortzen baduzu, etzira Zezarren adichkide, ezen bere burua errege egiten duen edo zoin Zezarren etsai jartzen da. » Pilatus harritua aditurik elhe horiek, eta beldurrez eta, bere plaza gal, ereman zuen Jesus kampionat eta jarririk bere tribunaleko alkian, erran zuen Juduer oraino ere : « Huna zuen Erregea ! *Ecce Rex vester.* » Bainan heiek oihuka ihardesten zioten : « Khen, khen ! khurutze-fika hori ! » Erraiten diote Pilatusek : « Zuen Erregea khurutze-fikatuko dut ? » Ihardetsi zuten aphez nagusiek : « Ez dugu erregerik Zezar baizik. » Orduan beraz juie flako horrek, eroriz heien nahirat, eskuetarar eman zioten Jesus khurutze-fikatua izaiteko. Akhabo zen ! Justua sakrifikatua zen ! Biziaren emallea hiltzerat zohan ! Lothu ziren alde guzietarik Jesusi, hartaz jostatu ziren ; gero khendu zioten, trufaz bizkarretik em in zioten kapa tzar gorria eta Jesus berekin eremanez, abiatu ziren Kalbarioko alderat, haren khurutze-fikatze. Urrundu zen Salbatzailea Pilatusen palaziotik. Eskaler Sainduaren oinetan hartu zuen bere espalda sarraskituen gainean Khurutze Saiudua. Eskaler Saindua (*Scala Sancta*) da Eskaler Jesusek santifikatu hura, hartan phasatuz :

Lehen aldikotz igan zen Eskaler hortan gora, Kaifasen etchetik Pilatusen palaziorat igan zenean.

Lehen aldikotz jautsi zen Eskaler hortan be-

ziren; etzen ageri hura baithan odolik baizik. Etzen gehiago ikhusten Jesusen begitarte ezti eta eder hura, bainan iduri zuen begitarte saindu harrek larrutua zéla!

Pilatusek Jesus populuari erakutsiz erran zionean « Huna Gizona, *Ecce Homo* » aphezen printzeek eta zerbitzariék oiñu ichkirituka zioten : « Khurutzefika ! khurutzefika zazu hori ! » Erraiten diote Pilatusek : « Har zazue zehonek, eta khurutzefika zazue; ezen nik ez dut khausitzen hori baithan kondenatzeko arrazoinik. » Ihardetsi zioten Juduek : « Guk lege bat badugu, eta lege (haren) arabera behar da hil, zeren duen egin bere burua Jainkoaren Seme. » Aditu zuenean gauza hori Pilatusek, gehiago laztu zen eta sarthu zen pretorio barnera berriz, eta erran zion Jesusi : « Nongoa zare zu ? » Nahi zuen jakin Jainko bat zenetz ala zer eta berak ez othe zuen kharioro pagatu beharko Jesusen kondenatzea. Erran zion beraz : « Nongoa, zare zu ? » Bainan Jesusek etzion ihardetsi. Erran zion beraz Pilatusek : « Niri etzaizkit mintzatzen ? Ez dakizu ahala badutala zure khurutzefikatzeko, eta ahala badutala zure libro igortzeko ? » Ihardetsi zuen Jesusek : « Etzinue ahalik batere ene kontra ez balitzatzu emana gainetik. Hortakotz ni zuri libratu naue-nak bekhatu handiagoa du. » Eta ordutik goiti bilhatzen zuen Pilatusek haren libro igortzea. Bainan Juduak hegiagoraka ari ziren, ziotela :

Eskaler Saindua gora azken aldikotz. Laster, hiria ebatsi zioten erlijioneko etsaiek, eta hura bera baztertu zuten Vatikaneko egon-tokirat, edo hobeki erraiteko presondegirat. Zombait urthe bakhar bizi izan da geroztik Pio bederatzigarrena, baina ez da Erromako karriketari agertu ahal izan Eskaler Saindurat juaiteko. Leon hamahirugarrenak, hamalagarren urthean gure Aita Saindu denak ez du Aita Saindutzen geroztik aldi bat ere Eskaler Saindu hori bisitatu ahal izan; zeren eta lanjerik gabe ez baiditake Aita Saindua aspaldi huntan ager Erroma bere Hirian! Horra egungo libertatea eta justizia! Erroman izan ginenean Jerusalemerrat juaitean, igan ginuen Eskaler Saindua. Induljentzia aberatsak badira eratchikiak Eskaler horren belhauniko igaiteari.

Bide dolorosa edo Jesus johan Kalbariorat

Orai artean, phasatu dugu Presogoako Bidea: (*Voie de la captivité*): erran nahi da, bide Jesussek iragan zuena, preso ereman zutenean Olibetako baratzetik, Annaren, Kaifasen etchean barna, Pilatusen, Herodesen palaziorat. Jesussek hitzerat kondenatua izan ondoan iragan zuen bidea deitzen da Bide dolorosa (*Voie douloureuse*), Pilatusen palaziotik Kalbariorainoko Bidea, Bide Saindua, Jesusen odol sakratu eta adorgarriaz gorritua izan den Bidea. Estazioneak

hera, Herodesen aitzinerat ereman zutenean.

Bigarren aldikotz igan zen Jesus Eskaler hortan gora, Herodesen palaziotik itzultzean Pilatusen ganat.

Bigarren aldikotz jautsi zen Eskaler hortan behera, juan zenean azotatua izan zen barnerat.

Hirugarren aldikotz igan zen Jesus Eskaler hortan gora, jadanik azotatua, agertu zenean galeria gora batean eta erran zuenean Pilatussek populuari : « *Ecce Homo* : Huna Gizona ! »

Hirugarren aldikotz jautsi zen Jesus Eskaler hortan behera, Kalbariorat Pilatusen Palaziotik jaltzean.

Autor osoki serioz batzuen arabera, Jesus igan da eta jautsi lau aldiz Eskaler hori gora edo behera. Eskaler Saindu horrek baditu hogoi eta zortzi (28) eskaler-mail marbre churizkoak, karrika-bidetik Pilatusen palazioko alderat zohatzenak. Ez da gehiago Eskaler Saindua Jerusalem, bainan errechki ageri da murruari edo paretari behatuz, non zen haren tokia.

Orai Eskaler Saindu hori khausitzen da Erroman, Latrango Eliza, Erromako katedrlea denaren ondotsuan, Eskaler huentzat egina izan den portika edo eliza suerte eder batean.

Eskaler Sainduan gora nehor ez da igaiten belhauniko baizen. Aita Sainduak berak belhaunez igaiten dira Eskaler Saindua gora. Pio bederatzi-garrena, anaia bat hil izan zitzaionean, igan zen

dira, guri erraiten balu bezala : zuen ondotik, zuen bilha, heldu naiz.

Lehen Estazionearen lekhoa Pilatusen palazio aitzineko plaza edo basakurtean da. Han izan zen Jesus hiltzerat kondenatua. Lehen Estazione horren lekhuari, Frantchichkano batek erran zaukun zer gerthatu zen han, eta bertze Frantchichkano batek khar handirekin zombait hitz erran zaizkun prediku gisa. Gauza bera egiten zuten Estazione bakhotchean. Lehen Estazionetik bigarren Estazioneraino, badira hiruetan hogoi urhats (60). Jautsi zen Jesus lehen Estazionearen lekhotik karrika-bidera orai Erroman den Eskaler Sainduan behera. Han khurutzea haren beha zagon. Khurutze hura handia zen eta dorphea. Hamabortz pia luze zen, erran nahi baita lau metra eta 80 zantimetra (4,80) Jesusen khurutze horren besoek bazuten bien artean, luzarat zazpi edo zortzi pia erran nahi da bi edo hiru metra (2,30 à 2,60) Jesusen khurutzea arras handia zen beraz, baina dorphea zen bereziki; ezen, phisu zuen bi kintal nonbait han ! (100 kilog.) Gizon azkar batentzat ere sobera phisua zen ; arrazoin gehiagoz Jesusentzat, haimbertze odol galdua zuena agoniako baratzean, eta oraino azofatua eta elhorriz khoronatua izan zenean, eta horien gainerat gau guziko loa galdua, eta deus ere ez jana bezperatik goiti ! Eskaler Saindutik jautsi zenean Jesus karrikarat, sorbalden gainean eman

Bide horri segituz egiten dira. Bide dolorosa deith ere ditake Estazionen Bidea. Jerusalemen direu Estazione horiek aberastuak dira Aita Sainduak Estazionen egiteari eratchiki dituzten induljentziez. Induljentziā berak irabazten dira gure elizetan eginez Estazioneak. eta emana zaukun fagore horrek behar gaitu ekharri Estazionen maiz eta ardura egitera.

Segi dezagun orai Jesus Bide dolorosean edo Estazionen Bidean; eta Estazioneak egiteko hemendik goiti probetchu eta errechtasun gehiagorekin, ikhus dezagun zer bide segitu zuen eta zer gerthatu zen Bide dolorosean edo Estazionen Bidean.

Autor sakratuek erakusten dankute suposatzen zer lekhu suertetan gerthatu den holako edo halako gauza : hori deitzen da lekhuaren suposatzea (*Imagination du lieu*). Khurutzearen Bidean, ez dugu hemendik goiti choilki suposatuko imaginazioneaz, Estazionen lekhu, bainan egiazki segituko dugu, eta zerbait ere moldez ikhusiko non zer gerthatu den. Hortakotz, itzul gaiten iguzkia goizetan atheratzen den eskualdeari buruz, bainan eskuintchago.

Han dira Jesusek bere presentziaz santifikatu Lekhu Sainduak edo Lur Sainduak, han da Jerusalem, han Bide dolorosa edo Estazionen Bidea. Jesuseu urhats gutiz gehienak khurutzearen Bidean, gure ganako alderat eginak izan

tua nintzen adituz Jesusek khurutzearen gainetik erran hitzak, zoinak baitira hauek eskuaraz: «Aita, barkha diozozute; ezen ez dakite zer ari diren!» Horra non sueriez khantu horren demboran, aditzen dudau trompeta batzuen soinua. Uste izan nuen lehen bizian khantu harrekilako soinua zela. Hala othe zen egiazki, ala ez, ez diot segurta. Errechkiago segurtatuko dut Jesusek khurutzea lekhu hartan gaindi eremaitean, han zirela soldadoak beren trompetekin, autor batek dion bezala. Patarra behera jin zen alde hundertat Jesus khurutzea bizkarrean. Mundu bat bazen Phazko phestetako Jerusalemerrat jina: miliun bat phasaturik! Temploa hurbil zen; temploko beren deboziona egin eta, etzuten hobekiago bilhatzen judu hek baizik eta, ikhustea norbait eremana khurutzeфикатua izaiterat, eta norbait hura zen Jesus, omen handikoa. Kampotar Judu horietaz bertzalde, han ziren karriketari Jerusalemarrak nombre handian, batzu leihoe-tan, borthetan, bertze batzu Jesusen inguruan; bereziki han ziren haren etsai errabiatuak, erran nahi dut: Aphez nagusiak, legeko doktorrak, eta zabarrak, oihuka, blasfemioka Jesusen kontra. Lehen bide patar eta gaichto hura behera, supli-zio batzen Jesusentzat eremaitea khurutzea, Khurutze-zola herrestan, harrietan jauziz, artetan sobera aitzinerat eginez. Jesusen belhaunak ikharetan daude; azkenekotz, karga soberakinak

zioten khurutze ikharagarri hori ! Etzuten bada haren sorbalda azotez kolpatuek karga horren beharrik ! Zer tormenta, zaurien gainean hartzea khurutze hori ! Alde huntarat, gu ganat zagon buruz Salbatzailea ; eskuinean zuen, karrikari kontra, azotatua eta khoronatua izan zen tokia. Beha dezogun nigarra begian Isaak egiazko horri, bere sakrifizioko egurra bizkarrean. Moriako mendirat igan zen Isaak, bainan etzen sakrifiziotan hil. Gure Isaak berria mendi beretik abiatzen da, ezen Moriako mendiaren eskinan da Pilatusen palazioaren lekhoa. Abiatu zen bertze mendi batetarat, Kalbariorat. Begien aitzinean zuen karrikaren gainean zubi gisa, kaleria jadanik aiphatu dudana, zoinaren gainetik Pilatussek erran baitzuen populuari : « Huna Gizona ! *Ecce Homo !* »

Bidea, hastapenean pochi bat goiti dago eta patar-aire da : karga guzia beraz senditu zuen Jainko-Gizonak lehenbizian. Gero, karrika, patarra behera da alde huntarat, eta geroago eta patarrago. Abiatu eta, laster jautsi zen *Ecce Homo !* izena duen hala hegian behera. Erran dut hala harren tokian orai eliza bat dela. Siongo Seroren eskolako hurrek khantatu zuten, ni eliza hortan nintzelarik, khantu bat, hiru aldiz, aldi bakhotchean boza geroago eta gehiago goratuz, eta erranez aldi bakhotchean hitz hauk ! *Pater, dimitte illis ; non enim sciunt quid faciunt !* Arras hunki-

da eta diru gutiz egin daiteke hemen soma phuska handigokoa gusta laiteken lana. Hirugarren Estazionetik laugarren Estazionerat berrogoi metra dira (40). Karrika printzipal hortan barna jautsi zen Jesus. Begien aitzinean zuen aberats gaichtoaren etchea. Erakutsi zaukuten etche bat airean, karrikaren bi aldetako etchen gainera zagola, zubi gisa. Erran zaukuten aberats gaichtoa lekhu hartan egoiten zela. Balio zuen aberats izaitea, sedaz bezi. mahain onean, gero botatua izaiteko ifernu zolarat! Lazaro pobre, alferretan aberatsaren etche aitzinean zagona-amoina galdez, salbatu zen. Balio du bai, diot berriz, aberats izaitea damnatzekotz! Eta zer da gero pobre eta errumes izanik ere salbatzen bagira! Aberats gaichtoaren etchea ezker utziz, Jesusek hartu zuen eskuin, karrika herchiagoko bati gora. Bainen flakatua zen Jainko-Gizona. Nola kharrea karrika patar hura gora khurutze dorphea! Eman zioten beraz lagun bat; ez urrikalmenduz, bainen ezin bertzez, beldurrez ere bidean geldi zadin hila, eta nahi baitzuten Kalbarioan hil zadin, desohore gehiago izaiteko. Gerthatu zen beraz han gaindi phasatzerat Zimon Zireneakoa. Hau bortchatu zuten Jesusen khurutzearen eremaitera. Hemen da bortzgarren Estazionearen tokia, doidoia seinalatua dena murren paretan egin den marka batez. Ageri da ez dela Jerusalem gure eskuetan!

erof arazten du gure Jainko Jauna ! Hemen da hirugarren Estazionearen lekhoa, karrika patar hau akhabatzean ; eta estazione hori seinalatzen du karrika zolan karrikako harrien artean eta erdia lurrean sarthua dagon marbre gorri-aire den kolona batek. Hemen, khausitzen zen Jesus Damasko bortha haudiaren karrikan. Lekhu huntan egin zuen Salbatzaileak bere lehen erorikoa. Bigarren Estazionetik hirugarren Estazionerat bada bi ehun eta hogoi eta hamar metra (230). Joka altharazten dute gure Nagusi dibinoa ! Ezker hartuz zohan Jesus Damasko karrikan barna, ageritu zitzaionean bere Ama doloratua ! Pilatusen palazio ondotik heldu zitzaion bere Semeari bide laburragoko batetik Jesusek, begietan zuen odol mulkhoa baztertuz, behatu zion bere Amari. Amak behatu zion Semeari. Oh ! heien begien errekoitra nigar egingarria ! Maria sainduak nahi zuen Jesus lagundu, hura konsolatu Amazko musuaz : Urrundua da barbaroki Semearen ganik ! Ama Birjina aldi gehartu, flakatu zen errekoitra hortan. Bada kapera-otipi, pobre bat egin lekhu hortan. Egin gogo zuten gu Jerusalem gineuean eliza eder bat laugarren Estazionearen lekhuaz. Ehun mila libera gostako zela erran zaakuten. Erakusten zaakuten planaren araberako eliza bat, gure aldetan gosta laiteke menturaz ehun eta berrogoi eta hamar mila libera ; baina han gaindi harria trunbilka

oihal hori eta gain batetarik hortaz benedikatu gintuzten Jondoni Petriren Elizan. Santa Veronikaren etche pobre eta tipi hortan izan naiz; kapera bat da egungo egunean, etche bat baino hobeki. Jesusen Begitartearen iduria lekhu hartan hemendik goiti molde berezi batez ohoratua izanen da; ezen, Begitarte Sainduaren Artchikonfrarioa Santa Veronikaren etche hartan establitzen zutela izkribatua izan zaut. Tur (*Tours*) izena duen Frantziako hiri batean, ohore handitan da Begitarte Sainduaren alderako debozionea, eta Begitarte gugatik kolpatua, thuz, kherruz, izerdiz, odolez goibeldua izan den horren aitzinean gau eta egun phiztua dago lampa bat.

Nork ez du aditu minzaten Turreko gizon sainduaz (*Monsieur Dupont ou le Saint Homme de Tours*)? Harren etchean, Begitarte Sainduaren aitzinean eginak izan dira hanitz mirakulu, eta Begitarte Sainduaren aitzinean phiztua dagon lampako olioak hanitz eri sendatu ditu eta oraino sendatzen. Eskual Herrian ere Begitarte Sainduaren debozioneak hartzen ari du.

Bortzgarren Estazionetik Seigarren Estazionerak badira laueta hogoi eta hamar metra (90). Bada harri kolona bat lurtean etzana karrikaren harrien artean, Santa Veronikaren etche aitzinean, seinalatzeko seigarren Estazionea.

Orai, abantzu hiriarren puntan gira. Zombait

Gure eskuetan balitz, balitake Estazione bakhocharen tokian eliza eder bat; bainan Turkoa da alde hetan nagusi, gure bekbatuak direla kausa!

Laugarren Estazionetik bortzgarren Estazionerat, ez da hogoi eta hamar urhats baizik (30).

Hemen, karrika patar bat hasten da. Hartan gora juaiteko, lagundua zen Jesus khurutze dorphearen kharreatzen: O Zimon, ez duk egun naski ezagutzen dukan ohorea khurutzearen eremaiteko Jesusen ondotik, hautetsi guziek ereman behar duten bezala. Gerochago jakinen duk eta estimatuko hire zorthen urusa! Jesus igan zen karrika hori gora. Horra hortchet emazteki saindu bat non jalitzen den bere etchetik. Alferretan inguratua da Jesus bere burreboez, soldado tropaz, eta bertze hanitz etsaiez eta ukhaldikari zaizkon gizon bihotzik gabekoez. Badoha Jesusen ganat; dena odola zen, thuz, kherruz betha Salbatzailearen Begitarte. Chukhatua da oihal batez Begitarte doloragarri hori. Itzultzen da Santa Veronika han berean zuen bere etcherat; behatzen du bere Nagusi dibinoa soletu duen oihal saindu horren barnerat, eta, oh! gauza kontsolagarria! Ohartzen da Jesusen Begitarte ezti eta adoragarriaren iduria guziz fidelki oihal hortan ekharria dela. Jesusen iduria edo treituak dituen mokanes edo oihal hori Erroman da, Vatikaneko Jondoni Petriren Elizan. Erakutsi zaukuten, Jerusalemerat juaitean,

Estazionea seinalatua da choilki murre-paretan egina den arroila chume edo chilhochka batez. Zazpigarren Estazionetik zortzigarren Estazionerat berrogoi urhats edo pausu dira (40); Jesussek zortzigarren Estazionean pochi bat ezker hartu zuen, bainan bethi gure eskualder buruz erraiten balauku bezala : Lurrerat jautsi nintzen gizon arraza guziaren salbatzerat. Salbamendu hori egin nahi izan dut Asian. Asian sorthu eta bizi izan naiz eta Asian hiltzen naiz, Jerusalem, Nazionen Erregina den Hiri hortan, Asiaren salbatzeko ; bainan Europari buruz heldu naiz khurutzeaz kargatua, Europaren erosterat ene odolaz ! Etzaituztet ahanzten, zuek ere o Asia, o Amerika eta Ozeaniako islak. Hortakotz zuen alderat itzultzen naiz zuer erraiteko zuen salbamendua ere egiten dudala : Bozkaria zaitezte beraz eta altcha zatzue zuen buruak, ezen burbildua da ene odolaz zuen erosteko orena !!!... O Jesus, o Artzain ona ! Nola gostatzen zautzun gu ardi errebelatuen ondotik ibiltzea ! Bai, bil gaitzatzu gure bide makhur guzietarik zure arthalde-lekhurat. Bil gaitzatzu Kalbarioko mendiaeren gainerat, eta han, akhitua gure ondotik, bidean basatez, erran nahi dut ukhaldiz kolpatua, ichur zazu azken chortaraino zure odol preziatu eta adoragarria gure salbamendutan !!!

Hemen da bederatzigarren Estazionea, markatua dena kolona lodi batez. Zortzigarren Esta-

urhats gehiago eta patar bat gora da Jesus heltzen, kondenatuen juiamendua irakurtzen zuten hiriko bortha handirat (*porte judiciaire*), eta han erortzen da, ukhaldi berrien azpian funditua; altcharazten dute, eta haren kondenazionea irakurtu dioten ondoan, igortzen dute hiriz kampo Kalbarioari buruz. Hiritik jalitzeko bortha hortan da zazpigarren Estazionea. Seinalatzen du marbre gorhats kolore den kolona batek. Hemen erori zen Jesus bigarren aldikotz. Seigarren Estazionetik zazpigarren Estazionerat badira hiruetan hogoi pausu edo urhats (60).

Orai hemen, hiritik kampo, jendea errechkiago zabilan; nombre handiagoan biltzen ahal zen; eta bazen jende oste handi bat eta hanitz emaztekik segitzen zuten Salbatzailea nigarrez zagozkola eta auhenez. Itzuli zen Jesus emazteki heien alderat eta erran zioten : «Jerusalengo alabak, etzazuela nigar egin ene gainean, bainan zehoniren gainean nigar egin zazue. Ezen, huna non ethorriko diren egunak, zoinetan erranen baitute : Dohatsu agorrak eta sabel haurrik izan ez dutenak eta bulhar esneaz hazi ez dutenak. Orduan hasiko dira erraiten mendier : Eror zaitzte gure gainerat; eta mendichker : Gorde gaitzazue! Ezen, egur hezean hola egiten badute, iharrean zer izanen da egina?» Jesus inozentari hola jazarri badira, zer dago guri, bekhatuak idortuak, ihartuak gauzkaner? Zortzigarren

ratzen. Ezen eremaiten zituzten Jesusekin aiphatu bi oboinak khurutzean hilak izan zitezen-tzat. Eman zioten Salbatzaileari edaterat arnoa myrrharekin nahasirik eta jastatu zuenean, etzuen nahi izan edan.

Jesusen khurutzefikatzeo. hasi ziren lehenik harren arropen khentzen. Lothuak ziren arropa hek Jesusen zaurier. Ez dira burreboak hortaz khechu. Brastakoan tiratzen dituzte arropak, erreberrituz hola azoten tormentak eta gehiago! Haren gorphutza larrutua da! Dena odoletan da!

Hamargarren Estazionetik Hamekagarrenera zombait urhats baizik ez da. Hurbilean ikhusten da kapera chume bat egina Ama dolorosa egon zen tokian Maria Madaleuarekin eta Jondoni Juanirekin, Jesus khurutzefikatzen zuten demboran. Kapera hortan eman dut meza.

Jesus itzatu zuten burreboek barbarokeriarik handienarekin. Ikhus zaitzu nola odol hotzean ari diren, Jesus khurutzearen gainerat aurthikirik, bat haren eskuen eta zangoen hedatzen, bermatzen delarik belhaunez Salbatzailearen bulharren gainean, hel arazteko Jesusen besoak preparatuak diren lekhuetarat. Zangoak ere bortcharazten daizko jautsarazteko heientzat egin zilhoetaraino. Bigarren burrebo batek preparatzen ditu itze luze, ikharagarri batzu Jesus maitearren eskuetako, oinetako! Hirugarren burrebo

zionetik bederatzigarren Estazionerat badira berrehun eta hameka metra (211); ez litake menturaz ehun pausu edo urhats baizik chuchenka, baina zortzigarren Estazionetik ez daiteke egungo egunean phasa bederatzigarren Estazionerat, murruez hetsia delakoan bidea. Hortakotz behar da gibelat itzuliz, bertze bide luze bat hartu, juaiteko bederatzigarren Estazionerat. Estazione huntan erori zen Jesus hirugarren aldikotz. Burreboez gaizki erabilia, khurutze-fikatua izaiteko tokirat abantzu heldua, patarra goiti akhitua, odola kolpetarik, zaurietarik galduz flakatua erori zen agonian, begitarateaz lurrerat! O Jesus, dautzut erranen bigarren aldikotz, zombat gostatzen zautzun ene salbatzea! Eta oraino aski balitz! Baina hemen hasten dira zuretzat mementorik latzgarrienak, ikharagarrienak, tormentatuenak!

Hamargarren Estazionearen eta segidakoen egiteko, sartzen da Sepultura Sainduko Elizarat; ezen azken bortz Estazioneak khausitzen dira Eliza Saindu horren barnean. Bederatzigarren Estazionetik juaiten da karrika ttipi, zikhin bat barna Sepultura Sainduko Elizarat

Orai hamargarren Estazionean gira. Goizeko hameka orenen ingurua da, Jesus heltzen denean Golgothara edo Kalbarioko mendira. Burreboek Jesus preso ezartzen dute barne ttipi batean eta hasten dira khurutzen tokien prepa-

erraita zen ezagutzen zuela mundu guziaren aitzinean Jesus Juduen Erregetzat; eta gauza hori hobekiago kompreniarazteko, izkirio hori eman zuen Juduen, Greken eta Latinen lenguaian edo hizkuntzan. Izkirio hori hanitzek Juduen artean irakurtu zuten, ezen hiritik hurbil zen Jesus khurutzezikatu zuten tokia. Etzaioten gositukoa Juduen aphez nagusier Jesusen kondena- zionekô titulu hori. Beraz, erraiten zioten Pilatusi : « Etzazula izkriba *Juduen Erregea*, baina *berak erran duela : Juduen Erregea naiz.* » Bainan feratu zituen Pilatusek erranez : « Izkribatu du- dana, izkribatu dut. »

Soldadoek Jesus khurutzezikatu zutenean hartu zituzten Jesusen arropak eta lau phartetan eman zituzten, bakhotcharentzat pharte bat. Lau ziren Jesusen hilarazteaz kargatuak. Bainan ba- zen, mundu haren atchikitzeke soldado kohorta edo tropa bat; bazitazken sei ehun eta hogoi eta bortz soldado (625) eta beren kapitaina bere- kin zuten. Lau soldado burrebo gisa han zire- nek hartu zituzten beraz Jesusen arropetarik bakhotcharentzat pharte bat. Bainan gelditzen zen Salbatzailearen arropa kosturarik gabeko hura. Erran dugun bezala, arropa handi edo so- tana hura Ama Birjinak orratzetan trikotatua zen, eta etzitaiken phusketan ezar : baren fundi- tzea izanen zen. Zorthean tiratu zuten beraz ikhusteko norena izanen zen, eta hola Eskritura

batek marteilu ukhaldika sar arazten-daizko itze horiek : Hain dira handiak itzeak non eskuak eta oinak bertze alderat phasatuz, khurutzean barna, azkarki sartzen baitira. Lau ziren itze hek opinione edo uste segurenaren arabera. Jesusek beraz bi oinak itze bederaz zilhatuak zituen.

Itze bat ala bi itze izan, sofrikarioarentzat bardiintsuzaiteken. Akhabatu zutenean Jesusen khurutzeфикатzea, eguerdi behar zen izan; eta harekin khurutzeфикату ere zituzten bi ohoinak, bat haren eskuineko aldean, bertzea haren ezkerreko aldean, eta Jesus erdian. Eta orduan bethe izan zen Eskritura Sainduko erran hau : *Eta gaichtaginekin eliarria izan da. Et cum sceleratis reputatus est.*

Khurutzeфикатua izan zen phondutik, Jesusek erran zion bere Aitari : « Aita, barkha diozozute; ezen ez dakite zer egiten duten ! » Aita zerukoaren ihurtzuri kolpeak merezi gintuen guk eta burreboek. Jesusek barkhamendu galdegiten du guretzat. Zoin den ona, zoin miserikordiosa !

Khurutzearen gaineko aldean ezarri zuen Pilatusek izkirio bat taula puchka batean eta izkirio hura zen hauchet : Jesus Nazarethgoa, Juduen Erregea. Hortik, gure khurutzeфикетan ikhusten ditugu lau hitz haukien hasteko letrak : INRI, erran nahi baita : *Jesus Nazarethgoa, Erregea Juduena.* Pilatusek hitz horiek izkribatzea,

balinbahaiz Juduen Erregea, salba zak hire burua!» Iroi edo erreportchu bera egiten zioten Jesusi harekin khurutzelikatuak izan ziren ohoinek. Baina ohoi ona hunkitua Jesusen pazientziaren eta saindutasunaren bichtan, tradizionearen arabera, ordainez pagatua, Jesus Haurarentzat on izan zelakotz Ejiptorako bidean, eman zen gaizkiak erraiten ohoi gaichtoari, zioela : « Ez duk hik ere Jainkoaren beldurrik hihoni gaztigu bererat kondenatua haizelarik ?

« Eta egiazki, guretzat zuzen duk, ezen gure egintzek merezi dutena errezibitzen diaguk, baina hunek deus gaizkirik ez dik egin ».

Eta zion Jesusi : « Jauna, orhoit zaite nitaz heltzen zarenean zure erresumarat. » Eta erran zion Jesusek : « Egiaz erraiten deat, egun enekin izanen haiz pharabisuan »; eta hala gerthatu zen. Ortzirale sainduz Jesus eta ohoi ona elgarrekin khausitu ziren Abrahamen galtzarrean, zoina deith baitzaiteken pharabisua, bertze pharabisu zeruetan duguna idek zezaken arte Salbatzaileak Salvatore egunean.

Stabat Mater dolorosa : Han zagon Ama dolorosa

Non zen Ama Birjina Jesus khurutzean zagonalarik tormentatua? Han zagon Ama dolortu hori, deboilamendurik handienean bere abizpa Mariarekin, Jondoni Joani Apostoluarekin, eta Maria Madalenarekin. Behatzen dio bere begi

Sainduak aitzinetik erran zuena bethe edo konplitu zen, eta huna erran hura : « Phartitu dituzte ene soinekoak eta ene arropa chortean tiratu dute » ; eta egiazki hola egin zuten soldadoek ; gero, deskantsu, eta odol hotzean, jarririk, haren zain zauden.

Etzen aski Jesus maitearentzat tormenten erdian khurutzean izaitea ; oraino han zituen trufatzaileak, meziprezatzaileak. Ezen, han gaindi zobatzinek blasfematzen zuten Jesus, eta beren burua dardaratuz meziprezioz, zioten : « Bah ! hi Jainkoaren temploa destruitzen dukana, eta hiru egunen barnean berriz egiten dukana, salba zak hire burua ! Jainkoaren Semea balin bahaiz, jauts badi khurutzetik ! » Eta han zagon populua beha ; eta bai populua, bai aitzindariak, aphezen printzekin, ezkribauekin eta zaharrekin trufan ari zaizkon, ziotela : « Bertzeak salbatu ditu, bere burua ez dezake salba ! Israelgo Erregea balinbada, jauts dadila orai khurutzetik eta sinhesten dugu hori baithan ! Fidatzen da Jainkoa baithan : libra dezala orai, horren nahirik balinbadu ; ezen erran du : Jainkoaren Semea naiz ! Salba dezala bere burua, hau balinbada Kristo, Jainkoaren hautetsia ! Kristo Israelgo Erregea jauts bedi orai khurutzetik ikhus dezaguntzat eta sinhets dezaguntzat. »

Soldadoak ere trufan ari zaizkon, eta hurbilduz, minagrea eskaintzen zioten, erranez : « Hi

Eli, han inguruan zirenetarik zombaitek, Juduen lenguaia ez jakinez, uste izan zuten, hitz horiek aditzean, Jesus Elias profetari oihuz zagola eta erran zuten : « Elias deitzen du. »

Jesus flakatur doha! Beha dezogun Biktima saindu horri : Gorphutz guzia zaurthua du, odolstatua, eskuak, oinak zilhatuak; haimbertzetaraino eta hain barna kolpatua da non haren hezur guziak khondatzen baidituzte, Jesusek berak erraiten duen bezala hitz hautaz : « *Foderunt manus meas et pedes meos; dirimeverunt omnia ossa mea!* » Buruan du basateyko korona ikharagarria. Buruaz hunkitzen badu doidoia khurutzea, basateak gehiago sartzen zaizko! Begitartea thuz, kherruz, izerdiz, odolez, kolpe, sakhi izigarri batzuez guzia goibeldua, uspelkatua du! Han dago haren ganat hurbildua Ama dolorosa.

Bethi Amak Semea segitu du ahal bezen hurbi-letik. Azotatu diotenean bere Haurra eta Jainkoa, Ama han zen, bainan lehen azote kolpean aldi tchartu eta flakatu zen Maria Birjina, berakerran zion bezala Santa Birjitari. Jesusen ganik hurbilago nahiko zen juan Kalbariorat; bainan urrun-zen zuten gogortasunekin bere Semearen ganik; orduan, bazohan ondotik. Berak erran du Santa Birjitari : « Ezagutzen nuen ene Semeak iragan zuen bidea haren hatzetarik, ezen pasatzen zen lekhu guzietan, lurra ageri zen haren odolaz

iraungituekin Jesusek Amari eta maite zuen dizipulu Joaniri, eta erraiten dio bere Amari : « Emaztekia, huna zure Semea ! » Gero erraiten dio dizipulari : « Huna hire Ama ! »

Eta oren hartarik beretik hartu zuen Ama Birjina bere gana. Zer bihotz erdiragarria ! Maria bere Seme bakharragaltzerat doha ! Emaiten dio semetzat Jondoni Joani eta gu guziak dizipulu horren presunan. Emaiten dauku dizipulu horri bezala eta horren presunan bere Ama gure amatzat ! Zer emaitza baliosa, eta nola Jesus orhoitzen den gutaz bere tormenten erdian !

Jesus khurutzean altchatu zutenean, eguerdi heina zen. Ihunbe ikharagarri batzuek hartu zuten lur guzia aratsaldeko hiru orenetaraino. Eta goibeldu zen iguzkia. Hiru orenetako heina zelarik, oihu egin zuen Jesusek boz handi batekin, erranez : « Eli, Eli, lamma sabacthani ? » Zoinak erran nahi baitu : « Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zertako abandonatu nauzu ! » Pleinitzen da Jesus humilki, egonez bethi bere Aitaren nahari, bainan aithortuz zer pena bihotz erdiragarria zen harentzat bere Aitaz utzia izaitea. Maite zuen, bai, Aitak Semea ! Bainan gure krimek herchatzen zuten Aita gogor izaitera, bere justizia zorrotzean, Semearen alderat ! Horra zer den bekhatua ! Oihu horren aditzea izan zen lantza kolpe bat Ama Birjinarentzat orduko eta bizi guziko !!! Jesusek oihu egin zuenean *Eli,*

iraungituak (*éteints*): ezpāinak dilindan, ahoa idekia, mathelak histuak, eta hortzer lothuak, matrailak behehituak, sudurra mehastua, begi-tartea trichte. Haren burua dilindan zagon haren bulharren gainera, haren ileak odolez belztuak ziren, haren sabela lothua haren errainer, haren besoak eta haren zangoak gogortuak, gainerako gorphutz guzia oro estalia zauriz eta odolez. » Horra Ama Birjinaren hitzak. Zer ikhugarria harentzat eta zer deboilamendua ! San Jeromek dio Jesusen gorphutzeko sofrikario guziak hainbertze sofrikario zirela Mariaren bihotzarentzat ; eta San Agustinek erraiten du bere aldetik : « Semearen khurutzea eta itzeak izan ziren ere Amaren khurutzea eta itzeak, Ama khurutzekatua zen Jesu-Kristo khurutzekatuarekin. » San Bernaten arabera, itzek egiten zutena Jesusen gorphutzean, amodioak egiten ere zuen Mariaren bihotzean. Semeak imolatzen zuen demboran gorphutza, Mariak imolatzen zuen arima.

Ama Birjinaren pena handienetarik bat izan da Jesusen Pasione Sainduko demboran haren ondoan izaita Seme maite hura lagundu ahal gabe, eta hura desolatzea bere presentziaz. Ezen Jesusi osoki pena bihotz lehergarria zitzaion bere Ama han deboilatua ikhustea !

Hil baino lehenago, jakinez Jesusek guziak komplituak zirela, komplitua izan zadintzat Eskritura, erran zuen : « *Sitio !* Egarrri naiz ! » Bada

gorritua (*teinte*). » Zoin den bihotz hunkigarri ikhustea Bildots nota gabekoa, eremana Kalbariorat, ahoa ideki gabe ere pleinitzeko, eta haren ondotik johaki haren Ama, bainan hau pleinuka ! Jesusek, khurutzezikatzeko, besoak zabaldu ziotuen bere baitharik, eta esku eskuina idekiz, phausatu zuen khurutzearen gainean ; khordez tiratu zioten esku ezkerre eta krudelki itzatu zaizkoten zango-besoak. Eman ziotenean lehen marteilu kolpea haren khurutzezikatzeko, hainbertzetaraino doloratu zen Ama Birjina, non lehen ukhaldian, flakatu baitzen !

Zombat marteilu kolpe eman zaizkoten Jesusi ? Autor baten arabera hogoi eta zortzi eskuetan (28), eta hogoi eta hamasei zangoetan (36). Khurutzean altchatu zutenean, oro harritu ziren, ikhusiz zombatetaraino zaurthua zen. Ordu arte, zombaitek baizik etzezaketen ikhus Jesus, bainan altchatu zutenean khurutzean, zeruaren eta lur-raren artean, ah ! orduan ezagutu zuten orok zoin barbaro izan ziren Jesusen etsaiak haren alderat ! Ama dolorosa hurbildua zen bere Semearen gannat, eta han zagon doloreaz erdiratua, bainan kurraie handi batekin : *Stabat Mater dolorosa !* Erran zaizkon Santa Birjitari egun batez segidako hitz hauk, ezagutarazten dutenak Jesus zer hesturetan zen khurutzearen gainean : « Ene Seme maittea dolorez lehertua zen khurutzearen gainean, eta agonian, begiak sarthuak, erdi bilak, erdi

natua, lehertua zen! Harat burua itzul, huanat itzul; batzuetan bermatu nahi zango itzatuen gainerat, bertzetan esku itzatu ez nahi baliatu, bainan nehondik dolorerik baizik ez! Eta hau bethi, pasioneko dembora guzian, elhorri edo basatezko khorona latzgarria, bethi Haren gero-ago eta gehiago kolpatzen!

Azken mementoetarat Jesus heldua da! Hurbil zaite, bekhatorosa; horra zure obra! Ikhus zazu zure Salbatzailea, meziprezatua, trufatua, bilhakatua gizonetan azkena, dolorezko Gizona, goibeldua, ezin ezagutua, gure bekhatuen kargaren azpian lehertua, gure bekhatuen lepraz oro hartua, bildots inozent bat bezala eremana heriotzerat, ahoa ideki gabe ere pleinitzeko, zangoetarik buru gaineraino zauri bizi bat egina! ez sendatzeko biderik! adinik hobereanean zelarik, hogoi eta lau orenik barnean eremana heriotzeaz gizonen artetik. Horra bekhatorosa, horra hire obra! Bainan ere horra hire ihes lekhuia, Aita zerukoaren koleraren kontra! Akhabo da: Jesus hiltzen ari da. Eman ziotenean edaterat, eta hartu zuenean minagrea, erran zuen: «Guziak komplituak dira!» Eta oihu handi bat eginez, erran zuen: «Aita, zure eskuetan ezartzen dut ere arima!» Eta hitz horiek erraitearekin, eta burua aphaldurik, eman zuen azken hatsa!!! Mement hartan, kreatura guziak ingarretan bezala eta trublean ezarri ziren;

bazen han untzi bat minagrez bethea; eta berehala lasterka juanez, han zirenetarik batek harjoesponja bat harturik, bethe zuen hura minagrez eta ezarririk kanabera baten puntan, emaiten zion, hartarik edaterat. Bainan bertzek erraiten zioten: « Utzak ikhus dezagun ea heldu den Elias hunen libratzera. »

Aditu zuen Ama Birjinak bere Semearen oiuhori, ur galdez. Etzuen bada hambat galdatzen Jesusek: Ur hotz chorta bat agonian zelarik! Etzen izan nehor hartaz funski urrikaldu zenik. O Maria, ametan deithoragarriena! Emanau zautzu khausitzea zure Semearen heriotzean, eta ez dezakezu zure Haurraren agonia ezti ur chorta batez ere! Oh! zoin gogotik urhezko untzi batean bildurik, eman zinezazken edaterat zure nigarrak Jesusi! Bainan etzaituzte utzi nahi zure Seme maitearen soleizerat! Alferretan, Jesus khurutzefikatuaren ganat besoak hedatzen ditutzu, nahiz lagundu Semea; zure besoak hutsak itzultzen zaitzu zure Jesus maitea gabe!!! Eta zer etzuen entzuten Jesusen kontra! Ama Birjinak erran zituen Santa Birjitari aldi batez segidako hitz hauk: « Aditzen niutuen batzu erraiten ene Semeaz ohoin bat zela, bertze batzu: engana-tzaile bat zela; bertze batzu: nehork etzuela heriotzea merezitzen hark baino gehiago! » Eta bertze holako zombat etzuen aditzen Jesusen kontra! Hura han zagon Jesusi beha! Jesus pe-

matum est! Gizonen malezia etzaiteken urrunago juan, etzen pairatzen ahal tormenta handiagorik, Aitaren nahi guzia egina zen; gure Salbamendua obratua zen: Oro komplituak ziren: *Consummatum est!* Aipatu dudan lur ikhara hartan, arrailatu zen harroka Jesusen eta ohoin gaichtoaren artean, separatuz ohoina Jesusen ganik. Arrailadura hura etzen phiru-alde egin, lur ikhara ordenariokoetan egiten den bezala, bainan phiru-kontra. Mirakulua handiagoa da. Su-egur bat phiru-alde askotan aizkora ukhaldi batez, bederen bi-hiruez, bi zathi egiten da. Has zaite egur beraren phikatzen phiru-kontra. Berrogoi kolpez ez duzu erditik eginen. Hala hala nekheago zen harroka phiru-kontra arrailatzea, bainan Jainkoarentzat ez da deus nekhegarrik; arrailadura horren bichtau sinheste gabekoak berak hunkituak dira. Arrailadura hori badoha sigi-sagan bortz metra beheiti bederen. Ene eskuz hunki dut arrailadura hori; batzuek, khorda baten puntan harri chume bat emanik, khondatzen dute zombat metra barna dohan arrailadura. Jesusen khurutzearentzat egin zilhoa han ageri da. Aldi bat baino gehiago ezarri dut zilho hartan eskua edo khurutzea, arrosarioa, medaila edo zerbait benedikatu edo erlikia. Zilho haren inguruan zen harria Grekek ebatsi zuten, bainan Greziako alderat zeramatarik harri Jesusen odolaz santifikatu hori, Jain-

Temploko belo edo oihal guziz ederra eta balio handitakoa urratu zen bi erdi gainetik hasirik behereraino, eta lurra ikharatu zen, eta harriak arraildu ziren, eta hobiak ideki ziren, eta hilak ziren sailduen hanitz gorputz phiztu ziren, eta hobietarik jaliz, Jesus phiztu ondoan jin ziren Jerusalemeko hiri Saindurat eta agertu ziren hanitzer.

Ikhusiz kapitainak, han parrean zagonak, zer gerthatzen zen eta nola oihu handi hortan hilzen Jesus, lorifikatu zuen Jainkoa, erranez : « Egiazki gizon hau justua zen; egiazki gizon hau; Jainkoaren Semea zen ! » Eta kapitainarekin han zaudenak Jesusen zain, ikhusirik lur-ikhara eta gerthatzen ziren gauza harrigarriak, izitu ziren borthizki, eta zioten hek ere : « Egiazki Jainkoaren Semea zen hau ! » Eta harat ikhusterat jinak ziren jende guziek, gerthakari horien bichtan jotzen zituzten beren bulharrak, eta itzultzen ziren Kalbariotik urrikizko sendimenduez betheak, eta Jainkoaren gaztignen beldurraz hartuak. Jesusen ezagunak oro urrun danik zauden gauza horien kontsideratzen. Heien artean ziren Ama Birjina, Maria Madalena eta bertze asko emazteki saildu, batzu Jesusi segitzen zirenak Galilean zelarik eta hartaz artha hartzen zutenak, bertze batzu Salbatzailearekin ethorriak zirenak Jerusalemerat.

Beraz akhabo zen ! Jesus hila zen : *Consum-*

fikatua izan zen lekhuari bertze aldare bat, eta arropetarik buluzia izan zen lekhuari marbrezko zola eder eta kolorez aberats bat, *O* handi baten forman, edo itchuran. Kalbarioa egiazki mendia zen; beraz goratasun bat da; baina gu egoiten ginen etche edo komentutik jautsi behar ginen Kalbariorat juaiteko. Hortik hanitzen estone-mandua, jautsi behar izaita Kalbarioratzeko. Jerusalem, Erroma bezala mendi batzuen gainean egin da. Ez da bi hiri horietan gehiago ikhusten mendirik, baina mendiak ziren tokietan, orai karrikak dira beren etchekin. Karrika heiek badituzte beren patarrak, mendiek aitzinean zituzten bezala. Gu, Jeusalemen, karrikak bilhakatuak diren mendi betarik baten gainean ginauden, eta mendi haren erditsutan bezala zen Kalbarioa izena zuen mendiaren lekhuaria. Jesus khurutzeaz kargatua abiatu zen Moriako menditik beheiti alde huntarat, eta gero, karrika patar batean barna eta hiritik kampo zen Kalbarioko mendia gora heldu izan zen Kalbario gainerat. Beraz, igan behar izan zen Jesus Kalbariorat, ahalagoko toki bat gora jin zelakotz mendi hortarat. Egungo egunean, Kalbarioko mendia ez da gehiago larre, errandudan bezala, baina han egin da Sepultura Sainduko Eliza guziz handia; han eginak ere dira hanitz etche, bereziki hanitz komentu, Sepultura Sainduaren hurbilean. Orai hiriaren

koak gaztigatu edo punitu zituen : Tempesta batek itsasoan behera hondatu zituen untzia, harria eta jendeak.

Jesus gure Salbatzaile maitea hil izan zenean Kalbarioan, gu ganako aldera itzulia zagon, eta bizkarrez Jerusalemeneri; etzuen bertzerik merezi hiri hobendun horrek; eta guri beha hilez, guri erraitea zen gu maitez eta guretzat hiltzen zela. Jainkoaren nahiaz, gerthatu zen, nehork etzakielarik, khurutzea landatua izaitea hil buru baten gaineko aldean. Zer zen buru hura? Adam gure lehen burhasoaren burua. Tradizioneak dio Noek uholde jeneralean, ar-khan hartu zuela Adam aspaldian hilaren gor-phutza; gero gorphutz hezurak phartitzean bere haurren artean, burua emana izan zela Zemi, eta hunek, gero Jainkoaren popularena izan behar zen Paleztinako Lur huntan ehortzi zuela buru hori, eta justuki Jesus khurutze-fikatu izan behar zen lekhu ber-berean. Jainkoarentzat ez da deus uste gabeko gauzarik. Molde huntan, gizon guzien salbatzerat heldu zen Salbatzailearen odol-z izan zen santifikatua buru hori. Kalbarioko mendiaren izena hortik heldu daiteke. Kalbarioak (*crâne*) erran nahi du burua. Kalbario hori egia erraiteko mendi bat zen, bannan orai ez da han ikhusiko mendirik; ez mendietan bezala otherik edo iratzerik. Orai khuruzearen lekhu aldare bat da, Jesus khurutze-



ziak eta santifikatuak gira; eta bertzean uraz bathaiatuak izan gira eta garbituak bekhatu orijinaletik. Adam lo zagolarik sahets hezurretarik bat hartu zion Jainkoak eta hartarik formatu zuen Eva Adamen esposat. Adam berria, Jesus, lo zagolarik heriotzearen loaz, sahetsa zilhatu zioten, eta sahets sakratu hortarik jaltzearekin odola eta ura, formatua izan zen Eliza, zoina baita Jesusen Espos sakratua. Jesus khurutzezikatua izan den lekhuak da hamabigarren Estazionea.

Beldur izaiteko zen izan zadin Jesus berriz ere gaizki heldua khurutzean. Nahi izan zuen beraz Ama dolorosak abalaz laster Semea khurutzetik jauts zezoten. Beraz eman ziren Jesusen adichki-deak eskuetako eta zangoetako itzen atheratzen. Gero Gorphutz adoragarria jautsi zuten emeki emeki. Maria Madalenak bere besoetan hartu zituen Jesusen zango sailduak, zoinen aitzinean izana baitzuen lehen bere bekhatuen barkhamendua. Jondoni Joani Apostoluak, Josep Arimathiakoak eta Nikodemek zaukaten Gorphutza. Osoki libratzearekin Gorphutz maite hori, ezarri zuten Amaren besoetan. Orduan hango ikhugarria! Behatzen du Amak bere Semeari! O ene Haur maitea, dio, Ama dolorosak, o ene Haur maitea, zer egia dautzute?

Beha zazu zure Amari! Bainan ez zira mintzatzzen; ez duzu behatzen, hila baitzira! O hor

barnean da Kalbarioa. Jesusen demboran, hiriz kampo zen. Horra zertako dion Jondoni Paulok Jesusek heriotzea jasan zuela hiriko borthaz kampo : *Extra portam passus est.*

Jesus hila zagolarik khurutzean, Juduak jin ziren, Pilatusen baiarekin, Jesusen eta bi ohoi-
nen jaitsaraztera khurutzetarik, amorea gatik eta, ez zaitezen khurutzean egon gorphutzak phesta egunean; ezen phesta egun handi bat zen biharamuna; eta phesta hasten zen bezperatik iguzkia sartzearekin. Behar zen presatu. Soldadoek beraz kraskatu zaizkoten bi ohoiner zangoak, bainan Jesus ganat jin zirenean, ikhusiz jadanik hila zela, etzituzten kraskatu zangoak, bainan soldadoetarik batek lantzaz haren sahetsa ideki zuen. Lantza kolpe hori etzuen Jesusek senditu; hila zen, bainan Ama Birjinak ikhusi zuenean kolpea Jesusi soldadoak emaiten, eta gero lantza jalitzen Jesusen odolaz gorritua, ah! iduritzen zaion Ama dolorosari arima juaiten zaiotela. Jesusi etzioten beraz hezurrik hautsi ohoiner bezala. Hemen bi profezia bethe ziren : lehen profezia : *Hezurrik ez diozue phorroskaturen : Os non comminuetis ex eo;* bigarren profezia : *Ikhusiko dute zilhatu dutena : Videbunt in quem transfixerunt.* Lantza kolpe hortan, jali zen Jesusen sahetsetik odola eta ura; odolak seinalatzen zuen Gorphutz Saindua eta urak Bathaioa. Batean, odol beraz ha-

gehiago bekhatu rik eginen!!!. Hemen da hama-hirugarren Estazionea, hamekagarrenaren eta hamabigarrenaren artean eta hurbilean. Aldare batek seinalatzen du Amadolorosa Semea besoetan pleinuka egon zen lekhoa, eta eman dut meza aldare hartan.

Lekhu huntarik jua n zuten Jesusen Gorphutz adoragarriapuska bat beherago; mendia behera. Orain bada goiti, beheiti ibiltzeko eskaler bat hemezortzi edo hemeretzi eskaler-mailekin, baina mailak alde hantana baino handiagoak dira. Jauts eta, aski hurbilean, hogoi eta bortzi; bat urhatsetan, khausitu zuten Josepek eta Nikodemek harroka bat gain zabal batekin. Hartan pausatu zuten Jesusen Gorphutza baltsamatzeko usain onezko onguentu batzuekin, eta Josepe Arimathiakoak erosirik liho-oibal edo mibise handi eder bat, hartaz itzulikatu zuen Gorphutz sakratu hori.

Harri hori deitzen da Gantzudurako Harria (*Pierre de l'onction*). Lurretik gorachago da: zortzi-hamar zantimetratan. Baditu bi metra phasaturik luzean, eta metra bat phasaturik largoan. Sepultura Sainduko bortha handiaren parrean da, hamabortzi metratan. Katolikoak ala chizmatikoak emaiten dira Sepulturako Eliza hortan sartzearekin belhauniko harri horren aitzinean. Huenen inguruan ikhusten dira sei ezko tortcha handi bai eta zortzi zilhar-lampa

gaindi zohaztenak mundu huntako bidean, ohar-temazue eta ikhus zazue badenetz dolorerik enea bezalakorik! Banuen Seme bat, Seme bakharra, eta galdu dut ene Semea! Ene esneaz hazi izan dut; nik atchikiz, ibiltzen ikhasi du; nik erakutsi diot elheketa, nik maiteki arthatu dut haurtasunean, ene eskuz egin arropoz beztitu dut, eta, o dolorea! galdu dut ene Semea! Ene Haurra, haurretan obedientena zen! Enekin bizi izan da hogoi eta hamar urthez, lehenik Ejiptan, gero Nazarethgo etche pobrean, lanari emana San Joseperekin. Badu hiru urthe herriz herri zabilala arimen argitzen eta konbertitzen! Huni segitzen nintzaion, ezen hunen Ama nintzen; ene Haur maitea zen! Bainan, o dolorea! Galdu dut ene Semea!

Orduan kontsideratzen ditu Semearen kolpe ikharagarriak; khentzen dio burutik basatezko khorona latzgarria; nola kolpatua den buru hori! Behatzen dio Semearen begitarte deseginari; nola uspeldua, sakhaildua den begitarte adoragarri hori, kopeta saindu hori! Gorphutz guzia zauri bat du! Eskuere, oiner behatzen du: zilhatuak dira! Sahetsa lantzaz idekia da!

Han dago Ama dolorosa pleinuka! khentzen diote bere Semea besoetarik, ezen beldur izaiteko da Ama hil dadin doluminez Semearen aitzinean! O Ama dolorosa, ene bekhatuek hil dautzute Semea! Bainan kontsola zaite! Ez dut

baratze bat; eta baratze hartan egina zuen harroka bihotzean bere thomba lekhoa. Etzuen phentsatzen zer ohorea izan behar zen haren-tzat han ehorztea Jainko-Gizona beretzat zaukan thomban! Thomba saildu hori egina da bi barnez. Barne hek lur-arras dira eta ez da batere jauste beharrik bi barne horietarat juaiteko. Bortha eder bat bada kampoko aldetik lehen barnean. Bi barne horiek iduri dute bi gambara. Erdian badute bortha ttipi bat, barne batetarik bertzerat jendea phasa ahal izaiteko, burua eta sorbaldak azkarki aphalduz. Lehen barneak baditu hiru metra luzean, bertze hainbertze hurbil largoan, eta hiru metraren ingurua goratasunean. Lehen barne hau deitzen da *Aingeruaren Kapera*, hemen agertu zelakoan Aingerua emazteki sailduer, erranez Jesus phiztu zela.

Hamalau lampa baditu gainetik dilindan, phiztuak daudenak gau egunez; lampa horietarik bortz Frantchichkanoenak dira, bertzeak chizmatikoenak. Bigarren barnea da Jesus ehortzia izan zen tokia edo gambara. Baditu bi metra eta lau zantimetra luzean, bi metra eta hogoi eta bortz zantimetra largoan Jesusen burua zen aldetik, gutichago zangoetako aldetik : bi metra eta hamar zantimetra; goratasunean hiru metra ditu hurbil.

Bigarren barne hortan zen Jesusen Thomba, sartzean eskuin. Nahiz bi barne horiek egiten

eder. Nola harri hartarik puskak altcharazten baitzituzten pelegria zombaitek, harriaren funditzerat ez uzteko, emana da gainean bertze harri-marbre gorhast bat. Harri huni guziek musu emaiten dute Elizan sartzean eta handik atheratzean. Egunazala gabaz, badabiltza fraide katolikoak bai eta ere chizmatikoak harri horren eta bertze asko lekhu edo aldaren insensatzen.

Harri hortarik hamasei pausutan da harri-marbre hori bat, burdin grilladaz inguratua, seinalatzen duena Ama Birjina emazteki sainduekin zagon lekhu, Salbatzailea baltsamatu zutenean.

Orai kbausitzen gira Jerusalemeko eta munduko lekhurik errespetagarrienean : Sepultura Sainduan. Hemen izan da Jesus ehortzia ; hemendik phiztu da lorios Phazko egunean. Bai errespetagarria da Jesus hil izan den Kalbarioko gaina. Bainan errespetagarria da doblezka Kalbario zola hau, non Jesus pausatua izan baita *hila thomban*, eta nondik *phiztua* altchatu izan baita. Hila izan ondoan ez balitz phiztu alferretan ginuke sinhestea Jesus baithan, eta gizontan dohakabenak edo malurusenak gintazke. Bainan phiztu da Kristo! Ikhus dezagun non ehortzi zuten eta zer estatutan den egungo egunean Thomba sakratu edo sepultura Saindu hori :

Josepe Arimathiakoak bazuen Kalbario zolan

hurbilduz. Jesusen Thombako barne horren eta ondoko barnearen artean bada erran dudan bezala bortha guziz apha! bat. Jesus bere Thomba-mahainean ezarri zutenean baltsamaturik eta ederki mihisez inguraturik, jali ziren Thomba sainduko barne hortarik Jesus ehortzi zuten dizipuluak, eta itzulikatu zuten harri guziz phisu eta handi bat aiphatu dudan bortha apha! horren hesteko. *Erat quippe magnus valde.* Harri hori Jesusen etsaiek zigilatu zuten nehork etzezan aldara, eta Jesus handik ereman, ezagutua izan gabe. Etzakiten etsai itsu heiek hanitz artha hartuz, soldado guardiak ere ezarriz Thombaren inguruan. Jesusen Phiztea hobeki hola seguratazera zohatzila. Jesusen Thomba-lekhu hori berrogoi eta hamar metretan da, nombait han, Jesus khurutzean hil zen tokitik. Chichelaz barria lanthuz eta janez egina da harroka bihotzean. Ez dut ene begiz ikhusi harri hori, orai marbre ederrez gordea delakoan, bainan diote harri arras gogor bat dela, hori aire eta zain edo marrak arrosa kolore. Erran gabe doha bi barne horietarik errespetagarriena eta errespetatuena dela zolakoa, erran nahi dut bigarrena, hemen baita Thomba-mahaina. Thomba-mahain hunen gainean egun oroz erraiten da meza, han ezarriz egun guziez aldare espres bat, mezak erran eta, khentzen dutena. Egundakhotchean arras meza guti erraiten ahal dute katolikoek Thomba

duten Jesusen Thomba-lekhua. bizkitartean Thomba berenaz eta errealki harri bat da mahain gisa harrokatik dagona, eta mahain horren gainean izan zen emana Jesus, dembora hetako ehorzteko usaien arabera. Emanen ditut orai Thomba horren izariak : Thomba Sainduak, bigarren barnearen luzetasun guzia badu eta haren erdia largo da. Beraz baditu luzean bi metra eta lau zantimetra; baditu largoan metra bat eta hamabi zantimetra phasaturik, Jesusen buruko aldetik, eta metra bat eta bortz zantimetra Jesusen zangotako aldetik. Thomba saindu horren goratasuna da lurretik hasiz hiruetan hogoi eta hamazazpi zantimetra. Berrogoi eta hiru lampa eder dilindan badaude phiztuak gau egunez Thombari buruz; hamahiru, Latin Katolikoena dira; hamahiru, Grek chizmatikoenak, hamahiru, Armenianoena, eta lau, Koftenak. Argien khearen goiti juanarazteko, baditu barne horrek hiru idekidura. Thomba-mahain horren gainean ezarri zuten Jesus-gure Jainko Jauna buruzgure alderat eta zangoz iduzki jalitzeko alderat. Ikhusi dugu Jesus Jauna hiltzen begitartea gure alde hotarat itzulia guri behatzeko bezala gure ganako amodio handian. Zerurat hegaldatzean ere, gure alderat beha juanen da zerurat. Thomban begiak hetsiak ditu; bainan ez badezake begiz guri beha, bederen gutarik ahalaz hurbil nahi da egon, bere buru sakratua gu ganako alderat

aphaindua da barnez eta kampoz. Bâdu Thomba-lekhu edo Sepultura Saindu horrek kampoz zortzi metra luzean, bortz metra largoan, bortz metra goratasunean. Kampotik marbre churiz eta horiz egina da, eta sustengatua hamasei pilarrez; pilar hauk kolorez gorhastak dira. Galeria suerte bat badu gainean kolona ttipi lodi batzuekin. Gain-gainean badu doma erronda ttipi bat. Sepultura Sainduan ikhusten dira, dilindan, barnetik bezala, kampotik ere, lampa batzu miragarrikî ederrak; ez dute bakharrîk lampa horiek beren olio fina erretzen Jesusen ohoretan; han dira ere hanitz gandeler besoa bezen lodiko ezko-tortchekin, estai bat eta erdi gora dohatzina, ez bada gehiago. Aste Sainduan eskea egiten baita Lur Sainduentzat, emaiten ahal dugu ausarki : bada despendio hango e'izetan, bereziki Sepultura Sainduko Elizan.

Sepultura Saindu hortarat nor nahi sartzen da bigarren barneraino. Ez da athertzen jendea Thombarat jitetik. Kalbarioko aldaretan bada-bila hanitz pelegrin edo bisitatzaile, baina Sepultura Sainduan jende multzoa handiago da : gorago erran dut zertakô : khurutzean oraino nigarrak dira. Sepultura Sainduan bozkarioa da eta bitoria.

Sepultura Sainduan meza khantatzen dute Frantchichkanoek diakre-sudiakrekin. Sepultura Sainduaren aitzinean khoroa meza kha-

sainduaren gainean, chizmatikoek ere emaiten baitute beren meza sakrileioa Lekhu saindu profanatzan duten hartan, hala nola hek bakharririk berrogoi eta hamar bat urthe huntan erraiten baitute meza Jesus khurutzean hil izan zen kalbarioko lekhan, Turkiak heier egiten baitu fagore hori eta ez guri. Turkoak dira han gure nagusi.

Bizkitarteán, guri ere Turkiak egiten daizku bertze zombait fagore; diot fagore : erran behar nuke guk ditugula dretchoak lekhu hetan eta dretcho hetarik zombait banakaz baliatzerat uzten gaituztela Turkoek : hola khurutzerik Turkoen mozke edo templo gainetan haizu ez den lekhu hetan, nahiz Sepultura Sainduko Eliza heiena den, uzten dute khurutzea Eliza huntako domaren gainean, Jesusen Thombari chuchenean. Erran dut hitz bat hanitzez komprenitua ez dena : *Doma*. Sepultura Sainduko Elizak badu Thomba Sainduaren gainean, guziz gora, doma erronda munduko ederrenetarik bat, osoki inguratua idekidura ederrez, zoinek uzten baitute Thomba sainduaren gainerat jausterat, guziz nasaiki argia, Thomba eta Thombaren inguruak distiraduraz bethetzen dituena. Doma horren gainean da beraz ezarria khurutzea, gure eliza gainetan emaiten den bezala kampo-*tik*, komparazione ezkila-dorre puntetan.

Jesusen Thomba bi barnetakoa hanitz ederki

hortz presuna. Zola-zolan nintzen, batzutan musu eman ez Thomba sakratuari, bertze aldi batzuez ene eskuak, besoak, phausatuz Thombaren gainean, bai eta ere ene arrosarioak, khurutzea, ofizioko liburua.

Ene eguneko ofizioaz kampo, erran nuen bertze ofizio bat, bainuen dembora sei edo zazpi aiphatu meza hek erraiten zituzten denboran. Zer ofizio erran othe nuen, orai ez naiz orhoit: duda gabe Jesusen Phiztearen ohoretan den ofizioa. Eta nola ofizioan othoitz egiten baita adichkidentzat, Eliza guziarentzat egitean, orduan beraz egin nuen ere othoitz zuentzat, ene adichkideak.

Azkenekotz jali nintzen Sepultura Saindutik. Zombat aldiz ez gira izan, Jerusalemen ginean, Thomba maite hortan! Bai, Jesus ehortzia izan den lekhu hortarat ardura johan ginen; haren gainean ezartzen gintuen benedikatuak izaiteko chunka arrosarioak eta bertze asko orhoitzapen eman behar gintuenak gure adichkider eta ezaguner.

Jesusen Gorphutz adoragarria ehortzia zagon demboran, haren Arima Saindua limboetan zen eta han kotsolatu zituen limboetako arima sainduak. Phazko goizean, Jesus phiztu zen lorios hilen artetik. Athera zen Thombatik harri handi aiphatu dugun hura aldaratu gabe. Lurikhara handi bat egin zen; ezen, huna non Ain-

tatzen da : hanitz Fraide eta asko gutarik khandorean ginen, bertze batzu han gaindika, gure aitzinean meza khantatu zuten egun batez.

Hemen behar dut aithortu ongi pena handirekin gelditu ginela fraugo aphez Thomba Sainduaren gainean meza eman ahal izan gabe. Baginen berrehun aphez, eta etzen phasatzen egunean zombait aphez banaka baizen : biga edo hiru. Zorthean tiratu ginuen nor phasa lehenetarik : ehunetarat zohan ene aldia ! Ez nindagon phasaturik ! Alferretan gau bat egon nintzen Sepultura Sainduan, entseiu bat egiteko phasatuko nintzenetz. Bainan bazen sobera phasatzeko ni baino lehen ; eman nuen beraz meza Kalbario gainean, zoina baita Eliza berean. Gero jua nintzen Sepultura Sainduko Thomba Jesusen Gorphutz hilak santifikatura. Sei edo zazpi aphezek mezak eman zituzten azken egun hartan ; fagore hori ez dakit nondik zen. Jakin izan banu zer gerthatuko zen, egonen nintzen barur Thomba Sainduaren gainean mezaren emaiten, nehondik ahal banuen. Ezen, ene aitzineko hurbilenetarik bat edo biga phasatu ziren. Ez banezakeien ere meza Thomba Sainduan eman, entzun bederen banetzazken nahi bezenbat meza. Sarthu nintzen beraz Sepultura Sainduko bigarren barnerat eta jua Jesusen buru adoragarria phausatua egon zen hegiraino. Meza emaile aphezaz bertzealde, bigarren barne hartan egon ditazke lau.

nan etzen batere baratze zaina. Jesus bera zen. Lehenbizian, etzuen bere burua ezagutarazi, bainan ez du nahi gehiago penatua utzi Maria Madalena. Bere boz usaiakoan erraiten dio : « Maria ! » — « Rabboni ! » dio ihardesten Madalenak, erran nahi da : Nagusia. Badu bere Nagusi eta Jainkoa ! Bozkarioz gainditua da !

Madalenari Jesus agertu toki hortan bada al-dare bat eta hau eman dut meza.

Khurutzea khausitua.

Jesusen khurutzea ohoinen khurutzekin aurthiki zuten zilho batetarat Jesus hil zen ondoan. Paganoek lur meta handi baten azpian ehortzi bezala zituzten Kalbarioa eta Jesusen Thomba, amoreagatik eta, girichtinoek etzezaten adora Jesus, ez segi haren erlijionea. Ezarri zituzten Jupiter eta Venuz, bi jainko faltsuren portretak, bat Jesus hil zen tokian, bertzea hura ehortzea izan zen lekhuari.

Profanazione horrek irauu zuen ehun eta lauetau hogoi urthe. Jainkoa eternala baita, baitu eternitatea gaichtaginaren gartzigatzeko edo punitzeko, permetitzen du gaichtaginek persekutatzea onak, eta beren bide makhurretan juaitea; gero izanen da haren aldia. Profanazione horien geldi arazteko, santa Elena, Konstantin emperadorearen ama, juau zen Jerusalemrat, nahiz lauetau hogoi urthe bazituen. Aur-

geru batek aurthiki zuen harria eta harri horren gainean jarria zagon. Haren itchurak distiratzen zuen chimichtak bezala, eta jaunztura zuen elhurra bezen churi. Laztu eta harritu ziren guardian zauden soldadoak, eta egin ziren hilak bezala. Aingeruak aurthiki harri hori aldare-harritzat zerbitzatzan da Kaifasen etchea zen tokian egina den elizan; ondikotz chizmatikoak dira eliza hortan. Harri hori metra bat eta laueta hogoi zantimetra luze da, metra bat eta bortz zantimetra largo, eta hogoi eta zazpi zantimetra lodi.

Jesus agertu zen lehenik bere Ama maiteari; eta agertu zitzaion lekhu hortan eman dut meza. Zer gozoa Ama dolorosarentzat phasatzea nigar saminenetarik bozkario handienerat! Beha zen dio artharekin jakiteko bezala baduenetz zerbañt sofriaraz diozokenik. — Ez Ama, ez dut sofritzerik, zioken erran Jesusek Amari. Bethikotz niganik urrundu da dolorea. O Amaren zoriona! Ama Birjinari bere Seme hiletarik phiztua agertu zitzaion tokiak sakristia ordinarioko bat iduri du. Sakramendu Saindua han atchikitzen dute Frantchickkanoek; han ere dute pzalmodiatzen edo erraiten beren ofizioa.

Bere Amari agertu lekhotik hurbilean, Thomba sainduratago, agertu zen Jesus Maria Madalenari. Hunek uste zuen baratze zaina zela; ezen baratze batean zen Jesusen Thomba; bai-

rat. Igorri zuen bertze pharte bat Erromarat, eta bertze phartea utzi zuen Jerusalemén, Sepultura Sainduan atchikia izaiteko. Azken pharte hau galdua da guretzat; gauza bera diot Konstantinople rat igorria izan zen pharteaz. Chizmatikoak dira hau; ez dugu heiekin deusik egitekorik. Erromarat* santa Elenak igorri phartea da gure eskuetan. Erroman bada eliza Khurutze eder bat, izena duena *Santa Khurutze Jerusalemgoa*. Santa Elenak egina da eliza hori, hortan atchikia izaiteko Erromarat emperatriza horrek igorri Khurutze egiazkoaren hirugarren pharte hori. *Santa Khurutzeren* Eliza hori egina da Judeatik ekharri lurraren gainean, lur hartarik berduratuz elizak hartu behar zuen eremu guzian, halako moldez non eliza hortan direnek erraiten ahal baitute *Lur - Sainduetan* direla. Jesusen Khurutzetik ehunka, milaka puchkak erliki gisa munduaren bazter guzietarat igortzen dira; gure artean askok badute erlikia preziatu hori, eta halere bethi irauten du Erroman den Khurutze zathi handiak. Hori da mirakulu baten pare. Eliza hortan da oraino Jesusen khurutzeko itzetarik bat, eta Jesusen buruaren gaineko aldean Khurutzean ezarria zen titulua edo kondenazionea izkribatua; baina jadanik hitzak azkarki ezeztatuak dira. Erroman egina den *Santa Khurutze Jerusalemgoaren* eliza hortan da oraino ezponja edo harjoa minagrea trempaturik Jesusi Khuru-

dik arazi zituen bi jainko faltsuen portret horiek. Kalbarioan eta inguruetan zen lur mundoia khen arazi zuen; khausitu zuen Jesus khurutzeфикатua izan zen tokia, bai eta ere Jesusen Thomba. Bainan non zen Salbatzailearen Khurutzea? Hainitz pena gusta zen aintzurtzean, ezin helduz hain behera. Bizkitartean, bazakiten nontsu zitaken. Judu batek bereziki erraiten zion santa Elenari norat botatu zuten Khurutzea haren aitek edo arbasoek. Ikhusi dut leiho tokia, nondik santa Elena beha baitzagon langiler, hek animatuz eta othoitz eginez Jainkoari khausi ahal izan zadin Khurutzea. Azkenekotz, azkenekotz, khausitzen dituzte hiru khurutze! O bozkarioa! Bainan zoin da Jesusena? Bi mirakuluk ezagutaraziko dute. Hurbiltzen dituzte aldizka bi ohoinen khurutzeak hiltzen ari zen eri baten ganat; hetaz eria hunkitzen dute : ez da sendatzen. Hirugarren Khurutzeaz hunkitzen dute eri hori, eta ordu berean osoki sendatua da! Ez da dudarik, Jesusen Khurutzea da. Segurtantza gehiago izaiteko, hunkitzen dute hil bat ohoinen khurutzekin, lehenik batekin, gero bertzearekin. Hila ez da higitzen. Hirugarren Khurutzeaz hunkitzen dute hil hori : bet-betan hila phizten da eta chutitzen da mundu guziaren bichtan.

Etzen dudarik; bazakiten zoin zen Jesusen Khurutzea. Santa Elenak igorri zuen Khurutze horren pharte bat bere semeari Konstantinople-

Lekhu batean baino gehiagotan erakusten dira kolona batzu, edo kolona pharte batzu eta erraiten zaukuten heier estekatu zutela Jesus haren azotatzeko. Zertako kolona bat baino gehiago Jesusen azotatzeko? Zeren eta san Krisostomoren, eta alde hetako tradizionearen arabera, Jesus izan baita azotatua Kaifasen gorthean ere eta kolonari estekatzen baitzen azotatua izan behar zena. Horra beraz bi kolona edo kolona zathi. Hirugarren kolona bat ere bada, eta huntan jar arazi zuten gure *Errege egiazkoa*, trufazko errege bati bezala trufazko ohoreak harri bihurtu zituztenean, eta basatezko khorona bat buruan ezarri ziotenean. Kolona hau *Sepultura Sainduko* kapera batean da. Aiphatu ditudan bertze kolona hetarik bat (edo zethi bat) ikhusten da Erroman santa Praxeden elizan, eta bigarrena edo bigarrenaren zathi bat *Sepultura Sainduko* bertze kapera batean, Sakramendu Sainduaren kaperan, Ama Birjinari Jesus phiztua agertu zen tokiaren ondoan; aldi bat baino gehiago ohoratu dugu kolona hori. Kofre baten barnean hetsia da; choilki idekidura chume batatarik sartzen ginuen kana suerte bat, harri hunkiarazteko kolona preziatua. Egun batez, osoki agertu zuten kolona hori. Zer errespetuzko musuak eman ginaizkon Jesusen odolaz gorritua izan zen kolona horri!

Ez balitz izan Jesus azotatua Kaifasen gor-

tzean eskaini ziotena, oihu egin zueuean: *Egarrin* *naiz*. Batzuek uste dute ezponja edo harjo hori dela Josepe Arimathiakoak eta Nikodemek erabili dutena, Jesusen Gorphutzaren garbitzeko, baltsamatu aitzinean. Segurra dena da harjo hori izan dela santifikatua Jesusen Gorphutza hunkitu duelakotz Jesus hil aitzinean edo ondoan, edo bietan. Bertze gauza bat :

Segurrago dela iduri du Jesusen sahetsa lantzaz zilhatua izan zela eskuineko aldetik. Haren Gorphutza Tuomban inguratu zuen oihalak lantza kolpearen odol markak eskuineko aldetik ditu. Tureinen da oihal hori. Sarthu zen lantza bihotzeraino, bi erdi eginez Bihotz maite hori. Odolaz gorritua jali zen lantza eskuineko sahetsetik gibelerat. Lantza Jesusen odolaz santifikatu hori Erroman da Jondoni Petriren Vatikaneko Elizan. salbu puchka bat, san Luis erregeak Pariserat ekhar arazi zuena. Errege saindu hunek egin zuen Parisen *La Sainte Chapelle* izena duen eliza guziz eder eta aberats bat, han ezartzeko Jesusen khorona sakratua. Bizkitartean, egungo egunean Khorona saindu hori Pariseko katedrale *Notre Dame* deitzen denean da.

Jesusen arropa handiena kosturarik gabekoa, batzuen arabera Treveko hirian da; bertze batzuen arabera Argenteuilen. Baditake Treven den arropa kostura gabekoa, eta Argenteuilen bertze Jesusen arropa ttipiagoko bat.

raskaz egon zen bezala egun batez, orhoituz zombat gugatik pairatu zuen Salbatzaile maiteak. San Frantsesen inguruetan ziren harrokkak berak izertu ziren; nigarrez bezala abiatuz beren moldean. Ez gaiten izan harrokkak baino gogorrago! Hemen erran behar dut ikhusi dudala Kalbario-ko aldare batean gure aphez lagunetarik bat predikatzean halako gisañ nigarrez, non ez baitzitaken mintza.

Bertze bati, aditzearekin erraiten khurutzearen zilho inguruan : *Hic expiravit; Hemen hil izan zen*, burrustan nigarra abiatu zitzaion dolu minezko auhen edo suspira bat eskapatzen zitzaiolarik.

thean ere, bainan bai bakharrik Pilatusen pretorioan, orduan erran daiteke azotatzeko kolona hori bi pharte egina izan dela; pharte bat atchiki dutela Ama Birjinari Jesus agertu zen lekhuaren ondoan, eta bertze zathia eremana izan dela Erromarat santa Praxeden elizan atchikia izaiteko.

Hemen, kapitulu hau eta ene lana akhatu gabe, erran behar dut asko gauza erraiteko uzten ditudala, guzietaz ezin mintzatu ahalez liburu ttipi batean. Komparazione, Jesusen Thombaren elizan, edo Sepultura Sainduan, badire bertze zombait kapera.

Biga izendatuko ditut: Santa Elenaren kapera eta Khurutze saindua khausitua izan zen kapera. Zola batean dira bi kapera horiek. Santa Elenaren kapera badu gain-gainea kupola eder bat, argia jautsarazteko lekhu apha eta berenaz ilhun hetarat. Bi kapera horietarik batean meza saindua eman dut. Ari nintzelarik meza emaiten aditu nuen norbait nigarrez ari bolta handi batez, eta zer nigar marrasketan! Egin nuen zombait bekhatoros handi behar zela izan. Gaizki egiten nuen hola juiatzea. Behar nuen ene buruari erran: Horra penitent bat konbertitua nigarrez dagona bere urrikian; edo hobeki: Horra Saindu handi bat orhoitzen dena Jesus lekhu hotan gu maitez hil dela, eta hortik ahen-minetan dago, san Frantses Asisekoa mar-

Azken orenetan ginen beraz. Batzu goizean phartituak ziren ikhusteko Jerusalemetik Jope edo Jafarainoko herriak, ikhusi ahal etzituztenak Samarian barna ibiliak zirelakoan. Bertzeak aratsaldean phartitu ziren eta gabaz ibili bihar-ramunerat arte. Guziek elgar khausitu ginuen, ez nahi bezala orok, bainan ahal zen bezala. Jafan edo Jopen ez ginen doidoia phasatu baizik. Untzirakoan, khausitu nuen Ekozako edo Angeletarreko aphez saindu bat elhaire nuena, Estonatu nintzen aditzearekin etzuela *Lur Sainduetako*, itzulia egin; zangoan kolpatua izan zela-koan, aberean minharturik. Nola behatzen bainion zangoetarat, ikhustearekin etzituela galtzerdiak beltchak, aphezek dituzten bezala, erran nion : zer ditutzu galtzerdi horiek? Erran zautan sanfret handirekin : Ene amak orai duela hogoi eta hamahiru urthe eman galtzardiekin naiz; erran nahi da zango has zela, eta bazituela hogoi eta hamahiru urthe.

Sarthu ginen gure untzian ahalaz laster, nihon alferretan dembora gastatu gabe. Huna non ginen jadanik Judeaz kampo!

Adio Jesusek bere presentziaz santifikatu *Lur Sainduak!* Adio Bethleem, adio Nazareth, adio Galileako itsasoa, adio Taborreko mendia, adio Kana, adio Olibetako mendia, adio Olibetako baratzea! Adio bereziki Jerusalem, hiri saindua! Etzaitugu gehiago ikhusiko! Adio! Bainan gure

HOGOI ETA HAMAHIRUGARREN KAPITULUA

Huna non khausitzen naizen ene lagunekin Europarat, itzultzeko orenetan. Alde guzietarat badohatzi lagun horiek presan : Batzuek agoniako grota eta baratzea bisitatzen dute azken aldikotz, edo Jesus azotatua, khoronatusa izan den lekhoa. Bertze batzuek khurutzearen bidea segitzen eta egiten dute Kalbarioraino. Badohazi oro *Thomba sainduraino*. *Thomba* maite horren gainean phausatzen dituzte zombait minutarentzat Frantziarat adichkidentzat ekharri behar dituzten medailak, khurutzeak, arrosarioak. Ni ere han naiz bi ehun arrosarioekin, eta zerbait gehiago. Erranen ahal dut : har zazu orhoitzapen hau, har zazu arrosario hau : Jesusen *Thomba* gainean egona da! Nahiko ginuen oraino zerbait gehiago ekharri adiskider, bainan gure moltsak, zombaitenak segurik, flakatu cheak ziren. Alferretan marchantek non nahi beren arrosario, medaila, khurutzeak, sainduak, mulzoka ofreitzen zaizkuten. Baziren heien artean katolikoak, eta gure pratika bereziki hek zuten, justu den bezala; baziren ere heien artean Juduak, *marchant hutsak*; erraiten zautaten ere : zato ene magasinaren ikhusterat *bakharrik*; baginakien zer nahi zuten. Bainan izari bat behar zen hartu despendioetan.

izan da san Barnabe apostolua martirisatua; haren gorphutza, etzakitena non zen, khausitua izan zen geroago irla hortan, san Mathiuren Ebanjelio, san Barnabak bere eskuz izkribatuarekin. Irla horri hurbil ginelarik, huna berri tchar bat. Gutarik bat arras eri da. Haren ezagunetarik bat heldu zaut meza hasterat nindohan mementoan. Erraiten daut nahi nionezene aldia utzi mezaren emateko : adiskide bat du eri, beso batean paralesia du eta da bera gaitzaz arras hartua. Gogonez ihardesten diot : Baietz, erran dezan meza ene orenean. Laster ohartzen naiz Jaun aphez hori handik falta zela. Dudarik gabe bere lagun eriaren grinak juan arazi zuen haren ondorat. Eri hori zen aphez berrogøi urthez azpiko bat; ama alharguntsa baten semea. Akhitu zen bere bidaia edo itzuli luzean, eta etzuen, erran zautatenaren arabera, bethi egia ahal izan behar zen despendioa indarrak ez galtzeko. Horra laster berria hil dela ! Hilen ofizioa khantatua izan zen untziko kaperan. Ez nuen ikhusi ahal izan zeremonia. Nihoni aski hartua nintzan itsasminnaz. Otsakiak khantatu zituztenean, ezarri zaizkoten aphez gaichoari bi kintal burdina zangoetan. Untziageldi arazi zuten, eta, o memento latzgarria ! lerrarazi zuten gorphutza itsasorat. Ilhuna edo ilhuntzea zen. Gaicho ama, bere semearen beha zagona ! Horra non galtzen zuen bere semea, seme bakharra ! Esposaz gabetua, bere

gozorik handiena izanen da bethi zutaz orhoitzea, zutaz mintzatzea! Bai, adi zazue zerua eta lurra, zer diotan bihotzaren erditik: Ahazten bazaitut, Jerusalem, ahantzia izan bedi ene eskuina! Josia geldi bedi ene mihia ene zintzur barneari, ez banaiz orhoitzen zutaz, ez balinbadut ezartzen Jerusalem ene bozkarioaren hastapentzat: *Si oblitus fuero tui, Jerusalem, oblivioni petur dextera mea. Adhære at lingua mea facibus meis, si non meminero tui: si non proposuero Jerusalem, in principio lætitiæ meæ!*

Jafa edo Joperat heldu ginenean, gure lehen egitekoa izan zen gure untzirat juaitea jadanik erran dudan bezala. Gure beha zagon untzia itsasoan. Eazen aski lan itsasoaren harat-hunatarekin lanjerik batere gabe untziratzea. Baziren menturaz hamar, hamabortz chalupa jenden kharreatzeko. Azkenekotz orò untzian gira. Abiatzen da untzia... Laster abiatzen ere dira estomakak berazten. Batzuek gogorrarena egiten dute; baina gutienik uste dutenean, bet-betan itsas-minak hartzen ditu. Bertzez irri egiten zuten; baina heien irriak sartzen dira: egiten dute bertzek bezala. Uruski sarri urak guziak ezeztaraziko ditu eta bazterrak garbituko. Itsaso gu harakoan baino samurrago eta borthitzago da. Untzia kargatuekkoa da marchandizez: harakoan baino egun gehiago emanen dugu urean.

Chipreko irlatik ez gira urrun. Irla hortan

gutierraiten zen untzian. Meza zerbitzatzen zuen bertze aphezak behar zuen Ostia Saindua eman kontsekratu orduko burdin urhezatu baten azpian eta atchiki eskuz kalitza. Haizearekin batzuetan uria ari zuen. Ene ezagun eta adichkide batek goiz batez hasi zuen meza; bainan uria azkarkiegi ari zelakoan, gelditu zen meza aitzina erraitetik. Bizkitartean, biltzen ginen ahal bezenbat jende elgarretarat, eta gure izpirituak urruntzeko itsas-minaz orhoitzetik, ezen imajinazio-neak ere hanitzak eritzen ditu, batek erranen zuen zerbait bitchikeria irri egin arazteko; bertze batek khantu bat eginen zuen. Khantu heien artean, Malbruken khantuak egin arazi zuen eiki irririk gehiena.

Khantatzaleak bere federik hoberenean zion : *Malbruk, s'en va-t-en guerre*, erran nahi da : Balbruk badoha gerlarat. Eta bertzek alde orotarik diote : *Ce n'est pas vrai*; Ez da egia! Khantaria lehenbizian esturditua oihu hetaz, dio gero : Ethorriko da Phazkoz edo Trinitatez; bertzek oraino diote : Ez da egia! Gure khantaria hitz guziéz kontrariatua da eta aski lan badu bere khantuaren akhabatzen. Bertze batzuek zerbait ichtorio erranen zuten. Bordeleko aphezetarik bat bazen Ozeanian lehenago ibilia. Hunek khondatu zuen zer ikhusi zuen eta zer gertatu zitzaion bere misioneko lekhuetan. Baginen hiru aphez eskualdun untzian; gure linguaia

Seme bakharraz gabetua, bera gelditzen da! Bere zangoetako bi kintal kargarekin hila juan zen itsas zola-zolaraino. Ez dute arrainek jan; ezen, ez dira jausten arrainak itsaso zolaraino. Baditake oso-osoa kontserbatua dagon ur-gaziaren zolan. Handik altchatuko da munduaren azken egunean, juaiteko jujamenduko tokirat! Jaun aphez hori hil zen egunetan, itsasoa balantza aski handian zen. Etzitaken errechki ibil untzian, zerbaiti atchiki gabe. Lau ehun eta berrogoi eta zombaitetarik, etzen jan tenorean egun batez berrogoi eta hamar jende baino gehiago mahaian. Kapitainaren ondokoa bera itsasminarekin zen. Ni han nindagon geldi ene choicho hitsean, ohe hertchi batean, ezin jar ere, ohe gaina aphalegiz. Untziko mekanikak harrabots bat egiten zuen guti gomidatzen zuena indarren hartzera lo ezti batean. Eta bizkitartean, harrabots hera behar zen untziaren aitzinarazteko. Artetan urak zallaka joiten zautan beharri hegia. Erraiten nuen aski bihotz hitsarekin : hire eta itsasoko leizen artean, ez duk zehe baten loditasuna ! choilki untziaren loditasuna ! Ikhusiz gehientsuak itsas-minaz hartuak zirela, eta bereziki ni, bertze bat edo bigekin, aldi bat edo bertze egin nuen ene buruarekin hil behar othe nintzen. Bainan idea ilhun hori urrundu nuen ni ganik tentazione bat bezala. Abiatu nintzen ene zilho ilhunik jenden arterat. Egun hetan, meza

untzientzat. Lehenagoko untziak eskapatzen zirenean bi lekhu horietarik batetako lanjerrari, beldur izaiteko zen eror ziten bertze lekhuko thulunbioen edo harroken gainerat.

Lehengo untziek bezala, haize beharrik gabe, aitzina badohazi egungo eguneko untziak bapurraz edo kheaz phusatuak. Bizkitartean khasu egin behar dute marinjelek harroker eskapatzeko. Gaua zen gu han gaindi phasatzean haratekoan eta hunatekoan. Hanitz izan ginen nahi izan ginuenak ikhusi, ahal bazen, bai Rejio Italiako aldetik, bai Mezina Ziziliako aldetik. Bi hiri horien argiek gabaz guziz eder emaiten dute. Italiak iduri du zapata-bota bat, ongi eginna, ostiko batez igortzen duena han harat Zizilia. Bainan hara Etnako mendia, gaina sutan, iduri eta, erraiten Italiari utz dezan bakean Zizilia : bertzenaz erretzen duela Italia bere sua buhatuz haren gainerat. Ziziliakoa zen Archimede Erromanoen kontra Zirakuza begiratu zuena. Urrunetik, mirail-berinez iguzkiaren berotasuna hainbertzetaraino biltzen zuen heien untzien gainerat, non heier su lotharazten baitzuen eta Erromanoak atchikitzen baitzituen hiriz kampo. Hiru urtheren buruan baxharrik sarthu ziren Erromanoak Zirakuzan. Soldado batek oihu egin zion Archimedi errenda zadin, edo hiltzen zuela. Archimed hainbertzetaraino burua hartua ari zen plan tiratzen Erromanoen kontra, non

michterio bat zen gu entzuten gintuztenentzat. Erran zautaten mintza nintadin eskuararen gainean, eta eskuaraz untziko gure bilkhura heterik batean. Prediku bat eman izan behar banu komprenituko ahal nintuztener, gogo onez onhetsiko nuen mintzatzea gure hizkuntza osoki ederrean, baina ene buruarekin egin nuen ene eskuarak eta eskuararen gaineko ene esplikazione guziek etzutela milaka ondorio onik izaiten ahal : ez nintzen eskuararen gainean mintzatu, eta arras ongi egin nuen ez mintzatzea.

Bagindohazin bethi itsasoan aitzinatuz. Phasatu ginen Kretako irlaren parrean gairi eta hurbiletik. Horra beraz irla famatua, non Jupiter jainko faltsua hazia izan baita ahuntz baten esneaz. Zer jainkoa hura, aspaldi hila, bere burua phitz ez dioena, eta azken jaiamenduan bere biziaz khondu eman beharko duena, egundaino Jupiterrik izan balio bada segurik. Kretako irla hori egungo egunean deitzen da Kandi; baina lehengo izena bethi atchikiko du. Bethi errana izanen da Londoni Paulok Tito bere dizipuluari izkribatu epichtola edo letra batean : *Kretarrak bethi gezurti : Cretenses semper mendaces*. Huna non heldu hurranak giren Italiaren eta Ziziliaren arteko pasaia hertchirat. Guardia guri. Han dira Charybde eta Scylla, eta ez ginuke erori behar batetik hertzerat (*tomber de Charybde en Scylla*). Bi lekhu horiek dira guziz lanjerosak

gauza bera egin behar zuten Erromanoek Jerusalemendarrak atakatuak zirenean.

Mundu guzian aipatuak izan dira Erroma eta Jerusalem. Erromak izan ditu gerlari handiak, hala nola Zipion, Zezar. Jerusalemek ere izan ditu kapitain handiak, hala nola Josue, Judas Makabe. Bertze hanitz phondutan elgarren iduriko izan dira Erroma eta Jerusalem. Bertze asko hiri, orai omen handitakoak, izanen dira ezeztatuak, eta Erroma eta Jerusalem egonen dira chutik. Erroma eta Jerusalem hiri eternalak dira, bakharrrik azken juiamenduko suak ezeztaraziko dituenak. Erroma eta Jerusalem Hiri sainduak dira. Erromako eta Jerusalemeko Erregea Jesus da, eta bi Hiri horietako perla preziatua da Jondoni Petri, da Aita Saindua, Erroman dagona, bainan Jerusalemen Erroman bezen ontsa girichtinoer manatzen duena, eta bihotzez Jerusalemen dena. Orhoitzen naiz hemen zer erran zaukun gure Aita Saindu Leon hamahirugarrenak, juan ginenean Jerusalemekoan haren ikhusterat. Zion : Nahi nintzan *Lur Sainduen* bisitatzerat juan, bainan orai Aita Saindu bezala ditudan egitekoekin, ez naiz juanen ahal; eta benedikatu giuintuen. Guk, gure aldetik, gure bidaia handian ez dugu egunik phasatu Aita Sainduarentzat othoitz egin gabe. Orok bethi dugun othoitz egin gure demborako Aita Sainduarentzat.

ez baitzuen aditzen ere soldadoa. Hunek, ez baitzakien nor zen, ezpata ukhaldi batez hil zuen. Erromanoen aitzindariak ehortzi zuen gizon handi hori guziz pompa ederrean.

Santa Agatha eta santa Luzia Ziziliakoak ziren. Santa Luzia juan zen Zirakuzatik Katanarat, bere amarekin, santa Agatharen thombarat, sailda huni galdegiterat ama senda zezon. Etziren ama-alabak alferretan juan sailda horren othoizterat. Ama sendatu zion santa Luziari. Santa Agatha eta santa Luzia birjina eta martir dira; egun croz meza emailearen ahoz bi sailda horiek meza izendatuak dira.

Gure untzia bethi geroago eta huratago heldu da. Jadanik Erromaren parrean gira; barakoan bezala, ez gira juaite Aita Sainduaren hirirat, bainan gure bihotzak han dira. Erroma eta Jerusalem, oraino ere zombait hitz hiri horien gainean! Bi hiri horiek zerbait izan dira. Jerusalemarrak edo Izraeldarrak ezin bentzutuak ziren armadarik handienez lainkoari fidel zireno. Jainkoa hoien alde emaiten zen. Erromarrak nagusi ziren mundu guziaren kontra lurrean eta urean. Erromanoena zena, Jerusalemarrarena zen; ezen patu egina zuten adichkide izaiteko. Erromanoak edo heien nazione adichkideak etsaiez atakatuak balin baziren, Izraeldarrak jin behar ziren heien laguntzerat gerlan bihotz onez, demborak permetitzen zuen bezenbatean;

Harrek chuchentzen makhurak bi phartekuen one-
Guziak ichilarazten, hek ezartzen baketan. [tan,

6

O Aitetan hoberena, bizi zaite luzaki!
Ez baikare, ez izanen zu gabe gu hobeki.
Ereman-azu bizia lur gainean uruski
Hil ondoan izaiteko zeruetan goraki!!

Orai khausitzen gira Karthajen parrean, bairan ez daiteke bichta haraino hel. Karthaje zen Erromaren etsai handia. Erromanoek alferretan erraiten zuten Katonekin : *Delenda est Carthago* erran nahi da : aurrthiki behar da Karthaje. Karthajek luzaz ihardoki zuen. Azkenekotz Erromanoek hartu eta aurrthiki zuten. Karthajeko aphezpikua zen san Zypriano. Hari lephoa phikatzerat zohakon burreboari eman zion urhetan hogoi eta bortz luis. Alabainan ere, zerua idekitzen zion! Gure untzia Karthajen parretik jiten da Hipponaren parrerat; ez ginezaken ikhus Hippona ere Karthaje baino gehiago. San Agustin Hipponako aphezpikua zen. Heretikoan saretan utzi zuen gaztetasunean bere burua erortzerat. Bainan gu ginen itsaso Mediterranekoan darua juan ondoan Erromarat, handik Milanerat, azken hiri huntan khausitu zuen san Ambrosio aphezpikua, eta hunek argitu zuen Agustin handia eta santa Monikaren othoitzek konbertitu zuten bekhatoros hori. Amen othoitzek, eta etsemplu sainduek indar handiak dituzte ardies-

Erromari azken *Adio* bat erratean, khanta dezagun Aita Sainduaren orhoitzapenetan segidako khantu hau :

**AITA SAINDU LEON HAMAHIRUGARRENAREN
ohoretan**

AIREA : *Jésus, Joseph et Marie ! quel tableau délicieux !*

1

Khanta dezagun guziek ahalikan gorena
Gure Aita Saindu Leon hamahirugarrena,
Gu hoin ongi, hoin ederki gidatzen gaituena
Erakutsiz zerurako biderik hoberena.

2

Zu zare Jesus Jaunaren Bikario Saindua,
Alkhitik mintzo zarenean, zar'ezin trompatua,
Gidaritzat duzulakotz Izpiritu Saindua;
Pribileio hortaz zare baxharrik dohatua.

3

Zu zare *Lumen in celo* : Ilhumbetan argia,
Jainkoak, gu gidatzeko, Erroman ezarria.
Zu gida etzaituena da adar bat hautsia.
Zu segituz dugu choilki erlijionean egia

4

Zer Aita Saindu handia ! o zer jakitatea !
Zoin den zuhur, zoin izartu ? Berthutez da bethea !
Lur hunen gainean segur dago pare gabea.
Zoin gisa zen izan zadin gu guzien Jabea.

5

Erregeak, bai Printzeak, oro haren oinetan,
Haren erranari daude elgarren ez-baietan.

noez, Napoleon Bonaparte heldu ahal izan zen Nazaretherat; handik pheza-tiro bat adiarazi zuen Thaborrerraino. Gure Frantses gaichoak le-hertuak izaiteko phonduan, animatu ziren pheza-tiro hori aditzearekin; erran zuten elgarri: Bonaparte duk! Buru egin dezagun etsaiari hura jin artean. Etziren trompatzen: agertu zen Napoleon, bai eta ere bazterrak laster hark garbitu! Ihesari eman ziren mahometanoak.

Hainbertze gerlaz Europa guzian harrabots handia egiteko plazan, hobeki eginen zuen gerletako bere thalendu handiaz baliatu izan balitz Mahometi *Lur Sainduak* khentzeko eta Aita Sainduari hek emaitako. Gutienetik behar zuen Aita Sainduaren alde izan, eta ez hura preso ekharri Frantziarat. Napoleonen errespetu eskasa eta haren egiteko molde hitsa Pio zazpigarrenaren alderat hain urrun juan ziren non Aita Sainduak eskumikuz jo baitzuen Napoleon. Hunek urgulu handirekin zion: « Uste othe du Aita Sainduak haren eskumikuak ene soldadoer harmak eror araziko diotzotela eskuetarik? » Juan zen bere armadarekin Rusiarat, eta haren soldadoer hotzak eskuetarik harmak eror arazten ziozkoten. Hunki zuen Jondoni Petriren harroka. Behaztopatu zen harroka horren kontra eta phorroskatu zen. Esperantza izan dezagun *Santa Elenako* irlan Jainkoari barkhamendu galdatu diola bere hobenez, eta ardietsi duela miserikordia.

teko beren haurren konbertsionea. Gu ginen itsaso berazitzuli zen Agustin Afrikarat eta bilhakatu aphezpiku. Nigarrak ichurtzen zituen zeren heretiko eta bekhatoros izan zen, eta zion Jainkoari : *Serò te amavi* : Berant maithatu zaitut, o edertasun bethi zaharra eta bethi berria! Erraiten ere zuen : Zuretzat egin gaituzu, Jauna, eta inket edo pausu gabea da gure bihotza zu baithan pausa dadin artean ! San Agustin da Elizak izan duen doktorrik handienetarik bat; naski handiena.

Ari gira gure Frantzia maiterat hurbiltzen. Oraino bizkitartean ez da ageri zerua eta itsasoa baizik; menturaz zombait arrain; ezen, han, hemenka ikhusten ziren arrain handi batzu urez goiti jauzi egiten, edo jostatzeko, edo segurrago, nahiz eta untzitik zerbait edo gutarik norbait eror zadin heien janharitzat. Bet-betan irla bat agertzen da. Frantziarena da : Korza. Irla huntan sorthu zen Napoleon lehena, azken dembora hotako kapitainik handiena, Europako errege guziak edo gutiz gehienak bentzutu zituena eta erresuma osoak beretu.

Izana zen lehenago *Lur Sainduetan* gu bezala. Hauche da gizona! Non zabilan hain urrun! Etzen baitezpada gu bezala alde hetarat juana erlijionezko sendimenduz, urrun da; baina gerlarat juana zen. Thaborreko mendian Frantsesak chehatuak ziren demboran mahometa-

artha berezi batekin bide guziak hartuak zituen deusetaz ere ez eskasteko. Guziek etzaten, gauza guzietan segurik, harrek bezala egin. Penitentziazko beila saindu bat egiten ginuelakoan, nik ez nuen uste izan behar zela prekozione sobera hartu; bainan bizkitartean, behar da hartu *aski*. Hortik gerthatu zaut aldi bat baino gehiago Jaun aphez harren beharra izaitea, berekin zituen sokhorrien medioz ene barnea ontzeko eta osasuna arthatzeko. Jaun hura hanitz baliatu da bere demboraz hanitz gauzen eta lekhuren ikhusteko; eta asko aldiz liburu ttipi hunen egiteko haren argiez eta erranez izan naiz lagundua. Eskualduna da eta gure artean bizi Jaun aphez hura; bidaia horren aitzinean, zen ene adichkidea, orai adichkideago.

Ene hiru lagunetarik bigarrena Jaun aphez eskualdun bat zen, haur ona hura ere, eta herri batetako bikarioa. Lekhu hetaz mintzo den liburu bat berekin har eta, nehor gabe juanen zen lekhuen ikhusterat. Egun batez juan zen bera Olibetako baratzean harat, Olibetako mendian gaindi, oren baten edo gehiagoren bidean. Euduainak eskualde hetan dira, eta fama dute badela hetan, ez baitezpada jende hiltzalerik, bainan hartuko dutenak har ahal guzia bidaiantari, gero erranen badiote ere arroatu dutenari: *zazi orai; hor gaindi da zure bidea*. Alde hetan da preseski Jeriko, eta badakigu nola gure Na-

Gure untzia hurbiltzen ari da Frantziarat. Jadanik ebe lagunak bere muntren chuchentzen ari dira. Jerusalemgo oreua ginauen gure muntretan, untzian sartzean; baina alde huntarat jinaren arabera, muntra behar zen gibelatu.

Iguzkia jalitzen da Jerusalemen Parisen baino bi oren phasaturik goizago. Frantziarat hurbiltzean, bihotzak bozkariotan sartzen dira. Juia-tzen ere dugu ez dugula goitirik gerthakari trichterik izanen, eta itchuren arabera, gure herriak, gure ezagunak eta adichkideak ikhusiko ditugula. Ni, ene aldetik, ene ohe, untzi zola-zolako hartan nindagolarik, itsas-minaz flakatua, errana nuen ene buruarekin. Noiz izanen othe naiz *Misionesteko ene chokhoan!* Eia beraz ez ginenetz alegrantzietan sartzen ikhusiz hurbilduak ginaela, eta laster Frantzia agertuko zaukula! Erdi eri zirenak ordu arte, norapeit ere phizten ziren. Gure konbertsazioneak animatuago ziren. Bagintuen ere, gure itzuli handi eta luzean, ezagutzak eginak, asko Jaun aphez eta gizon Jainkotiar, zoinekin elhaireago baikin berte batzuekin baino, baina bizkitartean ororekin ongi. Nik banintuen hiru adichkide zoinekin ardurenik bainintzen. Lakhet zaukun lauak elgarretarat biltzea. Hetarik bat zen haur on, edo hobeki erraiteko, aita on bat, ezen gure artean zaharrena zen. Jaun aphez kompainia oneko bat zen, bethi gauza guziak aitzinetik phisatuz egiten zituena;

bat, orduan segurik Santa Graziaren bertze aldetik zagona, Espainiako azken herrian, Zube-roari kontra. Bakezko gizon saindu bat da. Nahi izan da San Ignazio eskualduna zenaren kompainian hizi Jesuist bezala, misione urrun batzuetan, itsasoen erdian. Osasun eskasak obliga arazi du jitera haren osasunarentzat hobeagoko lekhu hautara. Haren populua eskuara garbikoa da, eta harrek hitzik ez jakin eskuaraz! Horra nola hanitz urthe hotan Espainian eutseiatzen diren framazonak eta liberalak gure lenguaia ederraren galaraztea. Badakite hola lenguaia galtzearekin, erlijioea ere galduko dela, eta heien idea Elizak kondenatzen dituenetarat eroriko direla gure Eskualdunak. Ez dute bertzerik bilhartzten. Nola behar dute haurrek ezagutu erlijioea, ez badute beren Jaun Erretora komprentzen ahal! Edo ikhasiz baxharrik española, zer bilhakatuko da heien erlijioea!

Espainiaz naiz mintzo. Zer ez nuke erraiteko Frantziatz, non, eskoletan ez baita haizu erakustea katichima! Diot eskoletan. Ezkaratzean, edo selhaurian bai, nahi bada; bainan eskolaz kampo, eta eskolako orenez kampo! Elgar aditzen dute alde orotako gaichtaginek pertsekutatzeke erlijioea gisa batez edo bertzez. Errech izanen ahal baita hola gure herrietan haurrak preparatzea lehen komunioerat!

Oraikoan, leiborrean gira laster. Malen egiten

gusi adoragarria mintzo den ohoinek arrotu eta erdi hil zuten bidaiant batez, Jerusalemetik Jerikorat jausten ari zena. Alde hek aspaldi gaizki famatuak dira. Jakin izan balute bada Beduainek, nik arras ongi nakien bezala, gure lagun hori diruz kargatua zela! Zer irriskua harrentzat! Gure Lur-Sainduetako bidaiaren gainean egin dituzte gure lau edo bortz lagunek liburuak, nik hau bezala. Hetarik bat mintzatu da gure lagun Jaun bikario hortaz : Hamar urthe phasatu izan balitu ere gure lagun horren ongi ezagutzen, ez nuke uste hobekiago eginen ahalko zuen horren portreta. Huna zer dion hitzez hitz : « Errekontratu dut Pyreneetako bikario gazte bat, mehea, laburra, bai-edo-ezekoa (énergique) beroa (enthousiaste). Atchikitzen zuen zabalzabala bere *Lievinna* (livre de voyage en *Terre-Sainte*). Bere Gida preziatuarekin eta bere montrarekin, ez du drogman (edo ararteko) beharrik bidez makhurtu gabe ibiltzeko. Hartzen du chuchenki minutan chendra aitzinetik karkulatua. Gaur, juanen da hola bakhar-bakharra Bethleemerat, mendian barna. Imprudentzia bat da, baina Pyreneendar batek ez du deusen ere beldurrik. » Galdegiten diotet Jaun aphez haren adichkide guzier eia lerro hauk irakurtzean ez dutenez irri bat egin, erranez beren buruekin : *Eta hala da! Guziaz hura da!*

Ene hirugarren laguna zen Jaun aphez español

Garde). Guri heha dago; gure guardian egona da gain hortarik, ginenean itsaso zabalean, lanjerak gure ganik urruntzeko.

Agur itsasoko izarra : *Ave, maris stella.*

Zu zira Jainkoaren Ama ezia : *Dei Mater alma.*

Bethi Birjina izan zira : *Atque semper virgo,*

O zeruko bortha dohatsua! *Felix cœli porta.*

Untzia hurbiltzen da geroago eta gehiago leihorrera; azkenekotz gelditzen da. Jainkoa izan bedi benedikatua! Hanitz jende badira untziaren ondoan leihorreko aldetik. Bolta bat egoiten gira oraino untzian, gauzak antolatu arte. Emeki, emeki, atheratzen gira untzitik. Oraino barur nintzen. Eman nuen meza Marsellako eliza batean. Marselleko hirian, gure lurrean bezala ginen, gu bereziki Eskual-Herrietakoak. Marsellako Aphezpiku izana zen Beltzuntze fama-tua, Eskualdun odola bere zainetan zuena, eta ahaideak Eskual-Herrian bazituena, hala nola Aiherre Beltzuntzean, eta Meharineko gazteluan. Aphezpiku handi hori Aita Sainduaz guziz ongi ikhusia zen, bera bethi Aita Sainduaren alde, Janzenizten kontra. San Charles Borromek Milanen lehenik egin zuena, Beltzuntzek ere egin zuen Marsellen. Bere biziaren irriskuan, kolera, gaitz ikharagarria zutenen arthatzen, kofesatzen, biatiko sainduaz eta anontzioaz santifikatzen, azkartzen, ibili zen kuraie handirekin, eta fama handiko Aphezpiku gelditu zen Marsellen eta Frantzia guzian.

ari dira ene lagunak. Nik ere egiten dut bertzek bezala. Ene zokho hastiotik igaiten ditut edo igan arazten ene puskak. Jadanik Sakramendu Saindua khendua da untziko kaperatik. Lekhu handi, kaperatzat baliatzen zaukun hartan emaiten giutuen mezak, entzuten predikuak, egiten khurutzearen bidea, erraiten Arrozariora. Han egin arazi zioten lehen komunionea mariñelekin zen *muz* edo untziko haur bati. Biba *Le Puatu* gure untzia, non bizi baikinene komentu batean bezala! Holako guti Ameriketarat johan diren gure Eskualdunen untzietan! Bizkitartean, heien itsasoa gurea zen baino gaichtoagoa da, eta heien untzietan ba omen litake, non nahi bezen, erlijionearen eta haren laguntzen beharra, famen arabera.

Jeneralean Ameriketara ibiliek, eta bereziki *jende-martchantek* ez daukute egia holakorik erranen, bainan bai gordeko miseria eta erlijione eskas horiek, khasurik egin gabe arimak galtzen direnez ala ez. Badute bertze egitekorik! Liburu ttipi huntan azken hitz hauk irakurtzen dituztenek har dezatela chedea egoiteko Jainkoak sor arazi gituen lekhuak, irriskatu gabe salbamendua gure Eskualdunak hain lazoki eta hiski bizi diren alde hetan.

Goizeko sortzi, bederatzi orenak ditazke. Ageri da urrunean Ama Birjina Guardiakoaren portreta Jesus haurra eskuetan (*Notre-Dame de la*

Arthatu du achkide bat Pelegrin zabilana,
Egitate hori hanitz estimatu duena.

2

Milesker, achkide ona; etzaut ez, ahantziko
Zoin zaren izan jeneros, zoin ona enetako.
Zuri zor tudan eskerrak nola tut pagatuko,
Jainkoak zeru gainean zaitu saristatuko.

3

Bordalen duzu denbora sainduki eremaiten,
Haur gazten izpirituak ditutzula argitzen;
Bai eta hoien bihotzak ongirat plegarazten;
Frantses on, girichtino on hoiek bilhakarazten.

4

Hanitzak hoien artean ziren gut' ikasiak,
Eskola dudazkoetan batzutan ibiliak,
Zur' eskolarat bildu tu Jainkoaren graziak.
Ezkola onak onthu tu haur hoikiek guziak.

5

Harri forma gabekotik askotan da egiten
Portretikan ederrena, begiak illuratzen;
Marteiluz, gero chichelaz, harri hori da lantzen,
Erran daite *jende* dela harria bilhakatzen.

6

Horiche da zure lana, o achkide maitea,
Zurekilan bizi diren haur hoikien lantzea,
Jaidura gaichtoen kontra hoikiek azkarizea,
Hastiatuz bekhatus, maithatus berthutea.

Marselleko hiriak geroztik portret eder bat, ahal bezenbat haren idurikoa, altchatu dio, nahiz azken dembora hotan Erlijione Sainduaren kontra diren gizon hits batzuek gaizki erabili eta lekhuaz aldaratu duketen portret hori. Beltzuntze Aphezpikuaren gatik, gure herrian izaita bezala zaukun Marsellen izaita. Bainan ez ginintazken sobera egon hiri eder eta handi hortan. Abiatzen gira beraz baxhotcha bere eskualderat, Ni Bordaleko aphezekin nintzen. Hortik asko herri ikhusi nintuen, bertzenaz naski behin ere ikhusiko ez nintuenak. Hanitz diosesa, menturaz sei, zazpi, phasatu gintuen burdin bidez, eta dembora laburrez. Eguerdi heñean Marselletik abiatuak, aratsalde bat eta gau bat bidean emanak, goizean goiz heldu abal izan ginen Bordalerat, eta meza Freretan eman nuen. Bordalen banuen Cher Frera bat, haurtasuneko ezaguna, enekin Azparneko Freretan eskolan ibilia. Cher Frera hori da Eskualduna, eta Bordaleko pensionean Direktor da. Ez dezaket aski erran zoin ongi izan naizen Cher Frera Direktor hortaz arthatua Jerusalemekoan eta handik itzultzean. Bainan pagatu behar dut Cher Frera on hori bederen zombait bertsuz :

1

Ezagutzen dut nik Jaun bat; bihotz bat du lehen; Baitakit zoin den umila, ichiltzen dut izena.

Zoin den lazgarria,
Ikharagarria!
Jauna barkha niri
Hobendun handiari!

Errepika

Hau da lekhua,
Guziz saindua,
Othoitzeke hautatua!
Hemen justua
Da azkartua,
Gaichtoa konbertitua

2

Elizan sartzean,
Gauden beldurrean
Orhoituz han dugula
Jainko eternala,
Juie zorrotzena,
Hastio duena
Hutsik ttipiena,
Egina dukeguna! *Errepika.*

3

Gaiten egon bethi
Elizan sainduki
Jaunaren aitzinean,
Debozionatean,
Funki othoitzean,
Kharra bihotzean,
Jesus hurbilean
Baitugu aldarean! *Err.*

7

Eskual-Herria, segur naiz, ez duzu ahantziko,
Gure artean bihotzez zira maiz khansituko;
Biba gure sor-lekhua! duzu hor khantatuko;
Eskualdun ona zarela hola zuk frogatuko.

8

O Joanes Fatista Salla, ja zerurat heldua,
Dohatsu Aita Sainduak ja zu deklaratu,
Ardiets zazu Jaun horri hil ondoan zerua,
Aitarekin izaiteko haurra khoronatu!

Gu Bordalerat jin ginen egunean Phestaberri-
chahar zen. Asko lekhutan egun hartan haurren
lehen komunionea zen, eta bereziki Bordaleko
katedralean. Zer eliza ederra, Baionako katedra-
lea baino hanitzez handiagokoa! Bainan ez du
eskiladorrerik, Baionako katedraleak bi ezkila-
dorre guziz ederrak dituen demboran. Bordaleko
katedrale handi, guziz ederki aphaindua zen
horren barnean, khanta zitaken errechki eliza
guzietan khanta ditaken khantika hau :

I

O hau da lekhua!
Nago harritua!
Ba Jainkoaren Etchea
Zeruko athea!

7

Eliza barnean,
 Ez ar solasean;
 Emazu liburutan,
 Edo har eskutan
 Arrosarioa,
 Bildurik gogoa,
 Meza sainduetan
 Bai eta bezperetan. *Err.*

8

Choriek, usoek,
 Hegastin guziek,
 Baituzte ohantzeak
 Non eman umeak.
 Zure aldareak
 Zaizku goztukoak,
 Han dugu egoitza
 Han da gure bihotza! *Err.*

Bordaleko katedrale eder hortarik, juan ginen ospitalean egin behar zen prosesion guziz hunkigarrirat.

Jin zen gaua. Afariaren ondotik, nahi izan zuen cher Frera Direktorrak mintza nintadin pentsioneko haurrer ene bidaiaz. Esperantza bainuen on izanen zirela ene alderat eskolierrak, bereziki ichtorioak aditu behar zituztenean, entseiatu nintzen heien gogora egitea.

Ortzirale goiza da. Cher Frera Direktorrak

4

Nahiz orotan den
Jainkoa khausitzen,
Nahiz duen mundua
Templotzat hartua,
Halere lekhuak
Dauzka hantatuak
Hetan egoiteko
Han galden entzuteko. *Err.*

5

Lehen Salomonek,
Erranik zehonek,
Egin zautzun Etchea
Distiraz bethea,
Zur urheztatuez,
Harri aphainduetz.
O hura Temploa
Zure gogorakoa! *Err.*

6

Da gure Eliza
Jaunaren egoitza;
Hemen dugu entzuten,
Gogotik ikhasten
Jainkoaren hitza,
Berotzen bihotza,
Ondoan segitzen
Hemen aditu boza. *Err.*

1

Oh ! Jainkoa zoin den ona !
Eman dauku bakhotchari
Gidari bat hoberena,
Aingeru bat Guardiari !

Errepika

Aingeru Begirale saindua
Lagun gaitzazu salbatzen ;
Ardiets aguzu zerua,
Han Jainkoaz goza gaiten !
Ardietz aguzu zerua,
Han Jainkoaz goza gaiten !

2

Aingeru dohatsu hori
Da Printze guziz handia,
Zeruko gorthetik guri
Jainko Jaunak igorria.

3

Desterruzko lekhu huntan
Laguntzat emana zauku ;
Gure urhatz guzietan
Han dela frogatzen dauku.

4

Ez dezazula mezipreza
Zurekin den Aingerua ;
Entzun azu haren boza,
Izaiteko salbatua.

berak segitzen nau burdin bidera eta laguntzen ene difikultate eta behar guzietan. Adio, aspal-diko ezaguna! Adio cher Frera Direktorra!

Geroztik hil izan da Cher Frera hori. Dugun othoitz egin harentzat!

Huna non naizen burdin bidean. Heltzen naiz barur Buglozerat. Ene hautasunetik hasirik, hanitz aldiz ikhusia nuen Bugloze. Oraino ere *Agur* erran nahi izan nion Ama Birjinari eta eskuetan daukan Jesus, haren Seme benedikatuari. Emaiten dut meza eta banoha han diren kapera ttipien ikhusterat eta hetako uretik hartzerat. Nahiko nuen khausitu bizi Bugloseko Aita Misionesten Superiora, Azparneko Misionestean aldi bat baino gehiago ikhusi dutana, bereziki haren adichkidea eta gure Jaun Superiora M. Deyheralde bizi zenean. Hiru edo lau egun zuen choilki ehortzia zela! Aita ekonomoek eremaiten nau karrosan bazkal ondoan *Saint Vincent de Paulen* sor-lekhourat. Gisa zen Misionesten modela horren sor-lekhuaren ikhustea. Han bizi dira zaharrak, haurrak, erriak, serorak. Zer obra saindua! Gero burdin bidea berriz hartuz, sartzten naiz Baionan, eta bihamunean Azparnerako bidean naiz. Badut bide hortan dembora izpirituan erabiltzeko zer ikhusi dutan ene itzuli handian. Bainan badut ere obligazionea esker-rak emaiteko Jainkoak bere Probidentzian eman dautan Aingeru Begiraleari bidaia hortan hoin ongi lagundu nauelakoan.

Ez beraz uste gorderik,
Egin dela bekhatua.

11

Aingeru guziz fidela,
Balia zaizkit bizian!
Hil eta, zuk nezazula
Sar arraz, othoi, lorian !!!

Ihuntzearekin, sartzen naiz etchean, ahalaz harrabotsik gabe, eskoletako haur ichiltasunean jadanik sarthuak zirener dizipazionerik ez emaiteko. Gero erranen daizkotet ichtorioak. Huna beraz ni oraino ere Misionesteiko chokhoan! Beldur doidoiako bat izan ondoan itzuliko ahal nintzanez, maite nuen ametsa egia bilhakatu da! Salbu naiz! etchean naiz! Mehatua, erdiratua, nahi den bezenbat, bainan salbu. Itsasoak abantzu hil nintuen; leihorak phiztu. Aski nuen, gutiz gehienean, lurra hunkitzea ene bidaia guzian, sendatzeko. Itsasotik lekhora Erroman sartzean sendatua nintzen. Itsasotik Jerusalem sartzean, orobat. Itsaso beretik Marsellen sartzean, untzian ikhus ahal ez nezaken jatekoa, apetitu onez hartzen nuen.

Norbaitek erranen daut kontent naizenetz ene bidaia hortaz. — Ongi kontent. Ez nuke nahi, deusetan ere, bidaia hori ez egina. Erranen dautate oraino, malezia pochi batekin : Bederen etzinue nahi, eiki, berriz abiatu? — Eta zertako ez?

5

Obeditzen badiozu,
Zaitu benedikatuko;
Gaizki egiten baduzu,
Ez derautzu barkhatuko.

6

Orhoit zaitte present dela
Aingeru Begiralea.
Errespeta dezazula
Zuri khasu egilea!

7

Hoin ona den Aingerua
Nola aski benedika!
Ilarentzat debot, khartsua
Zaitte oraitik bilhaka.

8

Fida zaitte hura baithan,
Zutaz baita kargatua.
Bide gaichto guzietan
Emanen dautzu eskua.

9

Haren bichtan egitea
Ez atrebi, fededuna,
Ene bichtan obratzea
Mentura etzintazkena.

10

Ezta lekhu hain ilhunik
Non ez den han Aingerua;

ikhusiko, ez eta ere menturaz Erroma. Orduan, hartu nuen chedea egiteko penitentziako beila Saindua Fraide Saindu Pariseko batzuek egin arazten zutena zoinaren bidez ikhusten bainuen Esposizionea, Aita Saindua, Erroma eta Jerusalem. *Biba Ait: Saindua!* Zoinak geroztik ere gauza handiak egin baititu, bereziki altchatuz Jesusen Bihotz sakratuaren phesta gradorik gorenenerat. Milaka ere eskerrak doidoia aipatu Fraide Saindu horier, bereziki Aita Pikarri eta Aita Bailly gure bidaiako Superiorari!

San Frantses Salesekoak dio baratze batean ibiltzen denean, handik jalitzean hartzen dela lili bat, artetan haren usaintzeko. Jainkoak berak baratze baten pare arthatu dituen *Lur Sainduaririk* jalitzen gira. Hau bada lore saindu frango. Heien guzien artean, hauta dezagun eta gurekin ibil Jesus gure Salbatzaile maite eta eztiaren Pasioneko orhoitzapena, buketa preziatu baten pare, eta ardura orhoit gaiten Jesusen Pasionear, eta Ama Birjinaren dolorez; eta hortako, maiz eta ardura irakurt edo khanta dezagun gure bekhatuen urriki handi batekin segidako khantika hau :

Jainkoa ofentsatu delako dolua

Errepika

Barkha Jauna, bai dolu dugu
Zu hanbat ofentsaturik!

Ongi gogotik berriz itzul nintake ene egitekoek uzten banintuzte eta ene aitzindariak nahi balute. Choilki, banakike zer egin itsasoan ez eritzeko. Despendio gehiago baliteke, bainan bizia lehenago da. Kontseilatzen othe nuke bertzer juaitea lekhu hetarat? Bai, bereziki aphezer, beren herrier ez badute behar sofriarazi. Zer gozoa den ofizio, meza, edo irakurtzetan ikhustea non zer gerthatu den. Jakin behar da bizkitartean bidaia horren egiteko non diren mila libera nonbait han.

Horra, ene Eskualdun lagun onak, zer nahi nuen zuer erran. Enseiatu naiz zuekin ibiltzea izpirituz, nazki sekulan gutiz gehienek ikhusiko ez dituzuen lekhu hetan. Zerbait on-zuen arimer ethorri balinbada liburu hunen irakurtzetik eskerrak emoitzue Jainkoari, eta liburu hau egin duenarentzat othoitz egin zazue, hastean erran nuen bezala, amoreagatik eta, mundu hontan Jerusalem lurrekoa ikhusi duen ondoan, ikhus ere dezan Jerusalem zerukoa, bere edertasun guziekin, Jesus, Maria, eta Josepen kompainian sainduan!

Hemen, akhabatzean, erran behar dut hauchet : AITA SAINDU LEON HAMAHIRUGARRENAREN JUBILAUARI ESKER IZAN NAIZ ERROMAN ETA JERUSALEM. Ikhusten nuen Jubilau hortako Esposizione ederra galtzen nuela, eta segur da ez nuela sekulan Jerusalem

6

Milaka azote kolpeak
 Gure gatik ditutzu pairatu!
 Tzarkeria nombre gabeak,
 Hala ditutzu, Jesus, borratu!

7

Gure gogoeta lizunek
 O Jesus, zaituzte khoronatu!
 Bihotz guziz dolu dugunek
 Nabiko ditugu hek urrundu!

8

Khurutzean hil izan zira,
 O Jesus! gu bekhatoreentzat!
 Zure odolaz izan gira
 Erosiak, Jauna, zerukotzat!

9

O Ama dolorez bethea
 Khurutze sailduaren oinetan!
 Guk dautzugu, Ama maitea,
 Eman Jesus hila besoetan!

10

O zero lurren Erregina,
 Othoitz zazu guretzat Semea
 Phitz dezan gutan dolu-mina
 Egiazko Kontrizioea!!!

AKHABANTZA

Othoi urrikal zakizkigu
Ostia Saindu hortarik !

1

Aithortzen dugu zaitugula
Hanitz eta hanitz ofentsatu !
Zure ongiak ditugula
Mila, mila bekhatuz pagatu !

2

Zeru ederra dugu hetsi
Zure kontra egin bekhatuez !
Ifernua dugu merezi
Gure krima ikharagarriez !

3

Salbatzaile guziz Saindua !
Zure kontra gira gu alchatu !
Hastio duzu bekhatua,
Eta guk bekhatua maithatu !

4

Zu hain on, hain maithagarria,
Oh ! zombat zaitugu ofentsatu !
Dolu dugu, Jesus ezta !
Nahi gira zinez konbertitu !

5

Trichterik zaude ikharetan
Agonian ahuspez lurrerat !
Aitari oihuz izerditan !
Aingerua jin zu azkartzerat !

	Planon
Eskola gaichtoen kontra da. Abisuak aita-amer.	37
X ^{en} KAPITULUA. — Tiertzetan, Fraide eta Seroren alde da	39
XI ^{en} KAPITULUA. — Fedea nola hedarazten duen	41
XII ^{en} KAPITULUA. — Jubilauak	45
Purgatorioa eta zerua alegantzietan eman ditu	46
XIII ^{en} KAPITULUA. — Aita Sainduaren debozioea Ama Birjinarentzat	47
Aita Sainduaren debozioea san Joakin, santa Anna, eta Angelen alderat	48
XIV ^{en} KAPITULUA. — Populuentzat, erregentzat argibat da	50
XV ^{en} KAPITULUA. — Zer ongi egin duten Jondoni Petri lehen Aita Sainduak eta bertze Aita Sainduak	53
XVI ^{en} KAPITULUA. — Zoin diren Aita Sainduak munduan izan dituzten bizi-modu edo posizioe diferentak	55
XVII ^{en} KAPITULUA. — Aita Sainduak, libro izaiteko, behar du ukhan erresuma bederen ttipi edo ehume bat!	57
XVIII ^{en} KAPITULUA. — Aita Sainduak behar du izan erresuma bat, dituen despendioen gatik	61
XIX ^{en} KAPITULUA. — Zer estimu handi izan den bethi Aita Sainduak	66

Bigarren Phartea

JERUSALEM ETA LEKHU SAINDUAK

I ^{en} KAPITULUA. — Elias profeta eta Ama Birjina ...	73
Karmelgo mendia	74

AURKIBIDEA

Lehen Phartea

ERROMA AITA SAINDUERIKIN

	Plaman
I ^{oa} KAPITULUA. — Itsasoa	4
Erromarat heltzea	2
Aita Saindua	3
II ^{oa} KAPITULUA. — Esposizioa	6
Erromako Elizak	6
Katakombak edo ehortz-lekhuak	7
III ^{oa} KAPITULUA. — Jondoni Petri eta Jondoni Paulo,	10
Erroma Hiri ederra da	12
Aita Sainduak	43
IV ^{oa} KAPITULUA. — Pio bederatzigarrena Aita Saindu	
izen aitzinean	45
Pio bederatzigarrena Aita Saindu	
izendatua	17
V ^{oa} KAPITULUA. — Pio bederatzigarrenaren ontasun	
a	19
VI ^{oa} KAPITULUA. — Pio bederatzigarrena pertsekuta	
tua	24
Pio bederatzigarrenak egin dituen	
gauza handiak	25
Jondoni Petri a landa Aita Saindu	
luzekienik izan da Pio bederatzigarrena	26
VII ^{oa} KAPITULUA. — Pio bederatzigarrenaren heriotza	28
VIII ^{oa} KAPITULUA. — Leon hamahirugarrena Aita Saindu	
izan aitzinean	32
Zer gizon den Leon hamahirugarrena	34
IX ^{oa} KAPITULUA. — Bere izkribuez argitzen du mundua	36
Framazonak eta Liberalak kondenatzen d.tu	37

	Pluman
XII ^{en} KAPITULUA. — David eta Goliath.	114
XIII ^{en} KAPITULUA. — Samaria, eta Samariako bidean barna gertatu gauzak	117
XIV ^{en} KAPITULUA. — Jakoben phutzua — Émazteki Sa- maritano bat konbertitzen da, bertze askorekin	124
XV ^{en} KAPITULUA. — Silo, Bethel, Beroth, Skopus, be- ren orhoitzapenekin	125
XVI ^{en} KAPITULUA. — Jerusalemeko hiria	127
XVII ^{en} KAPITULUA. — Sepultura sailduko eliza — Chiz- matikoak, bereziki Rusianoak,	129
XVIII ^{en} KAPITULUA. — Pelegrinak bi khurutze handire- kin — Santa Annaren etchea — Ardien ithurria — Gizon bat sendatua	136
XIX ^{en} KAPITULUA. — Jondoni Echtebe — Josafateko harana	140
XX ^{en} KAPITULUA. — Olibetako baratzea — Agoniako lekhua	143
XXI ^{en} KAPITULUA. — Ama Birjinaren heriotzea, thom- ba eta zerurat eremana izaitzea,	148
XXII ^{en} KAPITULUA. — Josafateko inguruak	152
XXIII ^{en} KAPITULUA. — Jerusalemeko temploa	158
XXIV ^{en} KAPITULUA. — Olibetako Mendia	167
	Bethfaje 173
	Bethania 175
	Bazkal ondoak 180
XXV ^{en} KAPITULUA. — Bethleem	183
	Noelak edo Eguberri khantuak 193
XXVI ^{en} KAPITULUA. — Jondoni Joaniren sor-tokia	209
	Jondoni Joaniren khantua 221
XXVII ^{en} KAPITULUA. — Hebron	224
	Itsaso Hila 230
XXVIII ^{en} KAPITULUA. — Jurdaneko hibaia	234
	Jeriko, Hai 236

	Plaman
	Elias eta profeta faltsuak 75
II ^{en} KAPITULUA. — Nazareth	77
	Thaborreko mendia 81
III ^{en} KAPITULUA. — Arraintza espantagarria	83
	Jondoni Petri Aita Saindu egina, 84
	Kafarnaumeko hiria 85
IV ^{en} KAPITULUA. — Paralitikoa sendatua	86
	Soldado aitzindariaren zerbitza- ria sendatua 87
	Emazteki bat sukharretik senda- tua — Bertze asko sendatze . . . 87
	Arrainaren ahoan diru pheza khausitua 88
V ^{en} KAPITULUA. — Jesusen mehatchuak	89
	Jesusen hitz eztiak 90
VI ^{en} KAPITULUA. — Galileako itsasoa	92
	Mirakuluzko arraintza aberatsa . . 92
	Tempesta apazegatua 94
	Jondoni Petri urgainean ibilki . . . 94
	San Mathiu konbertitua 95
	Galileako itsaso maiteari azken behako bat! 96
VII ^{en} KAPITULUA. — Lau mila eta gehiago jonde aseak mirakuluzki	98
VIII ^{en} KAPITULUA. — Jesusen prediku ederra	101
IX ^{en} KAPITULUA. — Ogi landak — Gerthakari batzu . .	106
X ^{en} KAPITULUA. — Kana — Ura arno bilhakatua — Haur bat sendatua — Zaldiak khechu	108
XI ^{en} KAPITULUA. — Oraino ere Nazareth! Eskualdu- nak Lur Sainduetan	111
	Jafako hiria — Jondoni Petri — Jerusalemeko bidea 112
	Sansonen acheriak 113
	Arimathia, Josepe eta Nikodeme, 113

Alantif R-AS + D-AS Acc

8553 7901.

31

422

AURKIBIDEA

	plaman
Bide dolorosa edo Jesus johan	
Kalbariorat	336
Stabat Mater dolorosa . Han zagon	
Ama dolorosa	352
Khurutzea khausitua	376
XXXIII ^{ea} KAPITULUA. —	383
Khantika Aita Saindu Leon ha-	
mahirugarrenaren ohoretan . .	393
Khantika Jainkoa ofentsatu dela-	
ko doluaz	414
Bertze asko khantika han-hemenka.	



	Platan
Gabaoniten abilezia	239
XXIX ^{oa} KAPITULUA. — Israeldarren etsaiak zerutik harrikatuak — Iguzkia baratua ..	244
Jesus bathaiatua — Barurtzen du — Tentatua da	247
Jesusen barura — Tentatua da ..	248
Itsu bat sendatua	249
Zache konbertitzen da	250
Erregen thombak — Jeremi — Profetak	251
XXX ^{oa} KAPITULUA. — Lur Sainduz — Hango jendez — Alimalez- Errekoltez — Usaiez,	252
XXXI ^{oa} KAPITULUA. — Jesus ardura temploan da — Maria Madalena — Erramu — Komunioa	275
Jesus eta Maria Saindua nolakoak ziren	288
Nolakoa zen Jesus	289
Nola zen bezi Jesus	291
Nolakoa zen Jesusen arima	292
Nolakoa zen Ama Purjina	294
Zenaklea	298
Jesus guziz sailduki mintzo	300
XXXII ^{oa} KAPITULUA (Jesu-Kristo gure Jainko Jaunaren Pasione saildu eta sakratua) :	
Agonia	303
Jesus preso hartua	306
Jesus Annaren eta Kaifasen aitzinean	309
Jesus Pilatusen aitzinean	314
Jesus Herodesen aitzinean	318
Jesus berriz ere Pilatusen aitzinean	320
Jesus azotatua	323
Jesus arrantzez khoronatua	334

L. LASSERRE

APHEZPICUTEGUICO LIBURU EGUILEA BAITHAN

ESCUARAZCO LIBURUAC

- Sainduen Bizitza*, aita Bazilio Joannateguy, benedictanoac, argitarat emana; 1 vol in-12. 2 l. 50
- San Benoaten bizitza*, Aita Bazilio Joannateguy, benedictanoac, argitarat emana. 1 fr.
- Eletzionetaco catichima*; precioa. 05 c.
- San Francesen hirugarren ordenaco*, edo *Tierzeren Esculiburua*, Jaun Apezpicuaren baimenarekin imprimatua. 50 c.
- Aphezen dretchoac eta eginbidetac eletzionetan*, escuaraz egin Diharassarry aphezac. 05 c.
- Erlijione Sainduko Egien bilduma*, urthean lauetan, Baionako diosesa guziko elizetan, Jaun Aphezpicuaren manuz irakurtzen dena. 40 c.
- Bi Mihiren Gramatika*, uskara eta francesa egin, J.-B. Archu, eskolen ikhousleak. 2 l.
- Zeruco Bideric errechena*, Aita Bazilio Joannateguy, benedictanoac, argitarat emana. 60 c.
- Framazonak* (bigarren edicionea) eta Frantziako eta errepubliken ichtorio laburzki. 70 c.
- Lehenagoco Eskualdunak zer ziren*. 70 c.
- Testament Zaharreco eta Berrico istorioa*, frances liburu aphezpicuec onhetsia den baten gainean escuarak egin, Etcheberry apetzac; bigarren moldaldia. 1 l. 75
- Sacramendu Sainduaren liburua*, edo *Sacramendu Sainduari eta Mariari Bisitac*, autora san Ligorio. 75 c.
- Erlisionearen istorioa laburzki*, Benoit-M. Langenieux, Frantsia Reinseco cardinalac, jaunac egin, eta Frantsesetic escuarara L. Diharassarry, Camboc erretorac itzulia. . . . 75 c.
- Giristinoa indulyencien gainean argitua*, liburutto bat, precioa. 30 c.
- Fableac edo aleguiac Lafontenetic* berechiz hartuac, eta Goyhetehe aphezac, frantsesetic escoarara berxutan itzulia. . . . 1 l. 50
- Exercicio izpirituala handia*.
- Exercicio izpirituala itipia*.
- Yoannes Balista Dohatsuaren bizia*. 70 c.
- Erroma eta Jerusalem*, Duc aita misionestak egin, 1⁵⁰
- Bokazionez edo Jainkoaren deia*, J.-P. Arbelbide aphezac egin. 2 l. 50
- Erlisioea Eskual-Herrian doharcon beharrenak*, J.-P. Arbelbide aphez, egin, 2⁷⁵



